FONTES
LINGVÆ VASCONVM
stvdia et docvmenta



Erroibarko aldaeraren inguruan (1 – Ipar Erroibarko mintzairak)
Koldo Artola 229

Basaburu Txikiko euskararen lekukoak (eta II)
Gorka Lekaroz 277

Subordinadas completivas del verbo *gertatu* 'ocurrir' en Haraneder: ¿Subjuntivo extendido o conservación del Aoristo Perifrástico?
Gontzal Aldai 327

Notas sobre toponimia de origen romano en Bizkaia
Valeriano Yarza Urquiola 345

Ol(h)a entitate geografikoaz zenbait ohar
Luis Mari Zaldua Etxabe 385

Murillo el Fruto: XIV. gizaldiko agiria
Patxi Salaberri Zaratiegi 407

Año XLVII
Número 120
2015

Nafarroako Gobernua
Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua

Gobierno de Navarra
Departamento de Cultura, Deporte y Juventud

FONTES LINGVAE VASCONVM
Euskal hizkuntzalaritzako aldizkaria, 1969. urteaz geroztik argitaratua/Revista de lingüística vasca, editada desde 1969
http://revistasprincipedeviana.navarra.es

Erredakzio Kontseilua/Consejo de Redacción:
Zuzendaria/Director: Patxi Salaberri Zaratiegi (UPNA/NUP)
Iñaki Camino Lertxundi (UPV/EHU)
Joakin Gorrotxategi Txurruka (UPV/EHU)
Joseba Lakarra Andrinua (UPV/EHU)
José Ignacio Hualde, University of Illinois at Urbana-Champaign (USA)
Idazkaria/Secretaria: Paz Ezcurra Barrena

Erredakzioa eta Administrazioa/Redacción y Administración:
Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua/Departamento de Cultura, Deporte y Juventud
Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia/Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana
Tutera kalea, 20-4.a/calle Tudela, 20-4.º
Telefonoa/Teléfono: 848 42 47 32
ipvpubli@navarra.es
31003 Iruña/Pamplona

Harpidetzak/Suscripciones:
Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa/Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra
Navas de Tolosa kalea, 21/calle Navas de Tolosa, 21
31002 Iruña/Pamplona
Telefonoa/Teléfono: 848 42 71 21
fondo.publicaciones@navarra.es
https://publicaciones.navarra.es

Artikuluen gaineko erantzukizun osoa egileena da/El contenido de los artículos es de exclusiva responsabilidad de los autores.
Debekatuta dago erreproduzitzea, osorik nahiz zatika, argitaletxearen baimenik izan ezean, eta betiere jatorria aipatuta/Prohibida la reproducción total o parcial sin permiso de la Editorial y, en cualquier caso, citando su procedencia.
Aldizkari hau sartuta dago Dialneten eta Cesare Borgia Dokumentazio Zentroan eta datu-base hauetan/Revista incluida en Dialnet, Centro de Documentación César Borgia y las siguientes bases de datos: LLBA; REGESTA IMPERII; ISOC; DICE; Latindex; COPAC; SUDOC; ZDB; ISSN Register online; ULRICH's; Recolectaf; RESH; MIAR.
ANEP, CIRC eta CARHUSeko C kategorian sailkatua/Clasificada dentro de la categoría C de ANEP, CIRC y CARHUS.

© Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra
Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua/Departamento de Cultura, Deporte y Juventud
Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia/Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana
© Egileena/De los autores
LG/DL: NA 184-1969
ISSN: 0046-435X
Konposizioa/Composición: Página, S.L.
Inprimaketa/Impresión: Ziur Navarra

FONTES
LINGVÆ VASCONVM

SUMARIO

Koldo Artola
Erroibarko aldaeraren inguruan (1 – Ipar Erroibarko mintzairak) 229

Gorka Lekaroz
Basaburu Txikiko euskararen lekukoak (eta II) 277

Gontzal Aldai
Subordinadas completivas del verbo *gertatu* 'ocurrir' en Haraneder: ¿Subjuntivo extendido o conservación del Aoristo Perifrástico? 327

Valeriano Yarza Urquiola
Notas sobre toponimia de origen romano en Bizkaia 345

Luis Mari Zaldua Etxabe
Ol(h)a entitate geografikoaz zenbait ohar 385

Patxi Salaberri Zaratiegi
Murillo el Fruto: XIV. gizaldiko agiria 407

Año XLVII
Número 120
2015

Erroibarko aldaeraren inguruan
(1 – Ipar Erroibarko mintzairak)

Koldo Artola*

SARRERA GISA

Bonaparte printzeak egin zuen euskalkien arteko sailkapena gogoan, horietarik bat da, hark *Hegoaldeko Goi Nafarrera* deitu zuena, azken urteetan gure arreta modu berezi batez erakarri duena.

Hiru azpieuskalkitan banaturik, batzuek esana dute eta zinez hala bide da, garai batean hau izan zela euskalki guztien artean zabalduena. Gure egunotan, alabaina, bere lekukotasunak oso leku gutxitara eta, salbuespenak salbuespen, oso egoera txarrean iritsi zaizkigu, gauza jakina denez.

Azken urteotan Artzibarko zein Aurizko aldaeren inguruko informazioa aldizkari honetara ekartzean egin dugun gisan, oraingo honetan Erroibarko aldaeraren alderdi bateko mintzamoldeen berri eman nahi dugu, ibar honetako ipar aldean kokatu herri batzuetan duela denbora gutxi arte erabilia –zeinak, Pedro de Yrizarren ustez, azpialdaera bat osatzen zuen–, gainerakoena hurrengo saio baterako utzirik.

Oraingo honetan dakartzagun herri edo baserriak, beraz, Aurizberri, Mezkiritz, Ureta, Gerendiain, Esnotz eta Lintzoain dira. Zilbeti, aldiz, ipar Esteribarko herriekin sartzeko asmoa dugu, Yrizarrek berak *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional* lanean herri horretan ikusi uste zuena kontuan hartuz.

Hautaketa hau egiteko arrazoietarik bat, agian nagusia, 'nor-nori-nork' saileko datibo-kasuan singularreko zein pluraleko hirugarren pertsonak tarteko direnean, **eradun* oinarrizko adizkiak erabili izana da, gure egunotan,

* Donostiako Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnografia Sailekoa.
Esker biziak damazkiot lana irakurri eta zenbait iradokizun egin didan Xabier semeari, Euskal Filologian lizentziaduna denari.

hegoaldeko goi-nafarreraren baitan, ipar Artzibartik eta Auritz-Orreagatik at, inguru hauetan soilik aurkitu duguna. Hots, 'nik eman diot (hari)', eta 'nik eman diotet (haiei)' erabili ordez, *dakot* eta *dakotet* erabiltzea (iraganaldian, 'eman nio(n)' eta 'eman niote(n)' era ezagunen ordez, *neko(n)* eta *nekote(n)* izango genituzkeenak).

Dena dela eta kontuak argitze aldera, agian ez litzateke hemen sobera izango zera adieraztea: XIX mendearen erdi aldean Bonapartek *Hegoaldeko Goi Nafarrera* deitu zuen euskalkiaren esparruan, guk, 1980ko hamarkadan, esparru horren azken edo ia azken gordelekuetara, eskuz eta grabagailuz, euskarazko datuak biltzera iritsi ginenean ez genuela, Auritz, Orreaga eta Artzibar-Erroibarko ipar aldeko herri batzuetan izan ezik, **eradun* formarik aurkitu[1]. Agian lehenagoko denboretan bai, halako erak eremu luze-zabal handi samarrean existitu ziren? eta, hala izan bazen, bestelakoek ordezkatu zituzten? ez dakigu.

Edozein kasutan, saio honetan ageri diren herrietako batek, Aurizberrik zehazki, Aezkoako aditzaren eragina nozitzen duela iruditzen zaigu, era tripertsonaletan, agian, bereziki, jarraiko adibideek erakusten dutenez: 'zuk niri hura' sailean, *darazu, dara, darazie…* (Mezkiritzen eta Lintzoainen *direzu, dire, direzie*); 'nik zuri hura' delakoan, *dauzut, dauzu, dauzugu…* (Mezkiritzen eta Lintzoainen *dizut, dizu, dizugu*); 'zuk guri hura' kasurako: *daguzu, dagu, daguzie…* (Mezkiritzen eta Lintzoainen *diguzu, digu, diguzie*); eta 'nik zuei hura' delakorako: *dauziet, dauzie, dauziegu…* (Mezkiritzen eta Lintzoainen *diziet, dizie, diziegu*), lagin batzuk baizik ez aipatzeagatik.

Bestelako desberdintasunik bada herriotan erabili diren aditz kontuetan ere, baina horietan sakontzeak urrun eramango gintuzke eta, saio honen helburua bertan ageri diren herrietan grabaturiko lagin batzuk balizko interesdunaren esku jartzea denez, aditzarekiko hori hemen utziko dugu.

BEREZIKI IKUSKATURIKO LANAK

Saioan aipatzen den bibliografian ikusgai diren lanetatik bik erakarri dute modu berezian gure arreta: Jose Mari Satrustegi zenak *Euskal testu zaharrak* liburu zinez interesgarrian ekarritako Erroko hiru sermoiek, alde batetik, eta Orreaga Ibarrak, geroago, aldizkari honen 75. zenbakian, «Erroko testu argitaragabe bat eta beste batzuen iruzkina» izeneko lanean aipatzen duenak, bestetik.

Perpetua Saraguetaren lanak ere ikusi ditugu, baina, nahiz halakoetan oso gauza polit eta interesgarri asko diren, aintzakotzat ez hartzea erabaki dugu, darabilen hizkeran kanpoko eragina aski nabaria delako.

Satrustegik aurkeztu sermoiak, XIX. mendekoak, Erroibarko zein aldetakoak izan ote daitezkeen aztertzen hasi eta, III.era iristean –lau dira predikuak, laugarrena oso laburra, amaitu gabea gainera–, ulertu dugu zergatik sailkatu dituen bi multzotan Orreaga Ibarrak bere «Erroko testu argitaragabe bat…» lanean: lehenengo biak esku batenak bide dira eta beste biak beste batenak.

Lehenengo bietan, eta nahiz, agian, hau garrantzi txikiko gauza izan, *-i + a*, *-ia* dugu, ohiki, eta *-u + a*, *-ua*. Beste bietan, berriz, *-ia*, *-ie* eta *-ua*, *-ue,*

[1] Erroibarko hego aldeko Larraingoa salbuespena izan zen Yrizarrentzako datuak bildu genituenean, berriemailea berta-bertakoa baitzen. Damurik ez bide genion galdetu lan-kontuak direla eta ipar aldeko herriren batean, holako erak erabiltzen diren herriren batean, alegia, egon ote zen.

denetarik bada. Lehen bien euskara, agian, guk iragan mendeko laurogeiko hamarkadan ibarreko ipar aldean, Aurizberrin bereziki eta, neurri batean, baita Mezkiritzen ere –hau nahasiagoa dugu kontu honetan– aurkitu genituen hizkeretatik hurbilxe iruditzen zaigu. Baina badira bestelako arazoak ere.

Aditzarekin hasita, eta, momentuz, lehenengo bi testu horiek oinarri, ikusten dugu 'nor-nori' sailean ere euskara hori ibarreko ipar aldera begira dagoela: *eta aguertu ciceion Jesuchristo* ('hura hari') / *ustez beguiac engañacen ciceizquion* ('haiek hari') / *cergatic etcitceioten gueldicen… batrere* ('hura haiei') / *aguercen ciceizquioten goibel belz bazuc* ('haiek haiei'). Hauek, berriz, Mezkiritzen bildu genituenekin dute antzik gehien: *zitzeon / zitzaizkon / zitzeoten / zitzaizkoten*. Hauek, aditz laguntzaileok, ibarreko hego aldera begira jarri eta diferentzia agerikoa da, Erron berean, adibidez, *zekio / zekizkio / zekiote / zekizkiote* bildu baikenuen eta, Errotik beheiti ere, oso hauen antzekoak eman zizkigun Gurbizarren sortu agure batek: *zakio / zazkio / zakiote* eta *zakizkiote*, hurrenez hurren.

Ikusgarria berriz, sermoi hauetan, gure egunotan guztiz galdurik aurkitu ditugun aditz bipertsonalen iraupena: *an adoratuco nauzu / botatu ninduen / norat ereman zaituzte.* Guk, horien ordez, *direzu, ziren* eta *dizute* gisako era tripertsonalak baizik ez genituen bildu.

'Nor-nori-nork' delakoan, berriz, duela hogeita hamar urte Erroibarko hego aldean aurkitu genuenarekin guztiz adosturik ageri dira, eta ez lehen bi izkribuak soilik, beste biak ere bai baizik.

Hona orainaldiko lagin batzuk: 'hark hari' (sg.) *dio*; (pl.) *tio* / 'guk hari' (sg.) *diogu*; (pl.) *tiogu* / 'guk haiei' (pl.) *tiogute* / 'hark haiei' (pl.) *(d)itiote* / 'haiek hari' (sg.) *diote*; (pl.) *tiote.*

Hona iraganaldian: 'hark hari' (sg.) *cion*; (pl.) *cition* / 'hark haiei' (sg.) *ciote(n)* / 'haiek hari' (sg.) *ciote* / 'haiek haiei' (sg.) *ciote(n)*; (pl.) *citioten.*

Hots, **eradun* formen inolako tartekatzerik ez da ageri, inguru hauetan aski berandu sartu bide ziren seinale. Iritzi berekoa da Orreaga Ibarra, zera dioenean:

> Nabarmendu behar da, gaur egun hain ohikoak diren 3. pertsonari dagozkion formak –*zekote, dakote, nekote*– ez direla testu hauetan testigatzen. Honenbestez, forma hauek berriak direlakoan gaude.

Aipatzeko kontua da *-t(z)eko / -t(z)era* bukaerako aditz-izenen bati egokituriko osagarri zuzenek genitiboa hartzen dutela: *gure erredentorearen errecibiceco / even gucien erremediaceco / becatari gucien salbacera / arima sanduen libracera*, adibidez. Saio honetara ekarri ditugun herrietatik Mezkiritzen bakarrik aditu ditugu era horrelako esaldiak: *mendien kuidatzen / zenbait erien sendatzeko / ferrain iteko* eta *biloain erretzeko*, kasu. Aita Damaso Intzakoak, dena dela eta bidenabar esanik, honako esaera bildu zuen aspaldi Aurizberrin: *Zato biar goizian, nik leotik botatzen dudan diruen arrapatzera.*

Besterik da ergatiboko pluralak erakusten duen *-ek* ezaugarria: *oficialec eta materialec berec eracusten digute / Ainguiruec eta justoec icusten eta beidacen diotela / Tempestadec eta tormentec arrallacen zuten Uncia.* Saio honetan apenas dugu era honetako esaldien lekukotasunik, inoiz bestela iruditu arren; hots, *guziek* batek, adibidez, halakoaren itxura izan arren, hitz honen azken silabaren aurrean *i* bat egoteari zor zaio bukaera hori.

Besterik da, halaber, erakusle batzuek, singularrean ohiki, hasieran hartzen duten *g*-ren kontua: *dotrinagau / doctrinagonequin / obra gontan / andregau, andre gonec, andre gonen / gracia gura…* Aezkoan ohikoa dugu hau eta Artzibarren ere aski zabaldurik aurkitu genuen, baina hona dakartzagun laginetan ez da ia ageri.

Orreaga Ibarraren lehen aipatu lana, zeinean XIX-XX mendeen arteko izkribu bat jasotzen den, labur xamarra izanik ere, bada bertan, nola edo hala, azpimarratzeko moduko zerbait:

Pasarte batean *criatu gaitu* dakusagu, baina beste batean *vedicacen dizut*. Hots, badirudi era tripertsonalak ohiko bipertsonalei nagusitzen hasiak zitzaizkiela (mende bat lehenago ez zen gertatzen hala eta, aldiz, duela hogeita hamar urte inguru, ordezkapena erabatekoa zen).

Beste pasarte batean, *gure obrec merezi duten premioa…* irakur dezakegu, pluraleko 3. pertsonari dagokion ezaugarria –*ek* agentea, alegia– agerian dela.

Eta gorago aipatu *-t(z)eko / -t(z)era* bukaerako aditz-izenen bati egokitu osagarri zuzenek genitiboa hartzen duteneko kontuekin loturik, izkribu honetan adibide parea ere badugu: *salvacioaren conseguiceco* eta *orren magestaile sanduaren recibiceco.*

Nongoak ote ziren, beraz, sermoi horien guztien egileak? Erroibarko zein herri edo alderditakoak?

DATUEN TRANSKRIPZIORAKO OHARRAK

Ia aditzen ez diren hotsak, honen aurreneko lanetan egin bezala, parentesi artean transkribatu ditugu.

Bokal batzuen itxierak: *a* eta *e* artekoa *ä* idatzi dugu; *e* eta *i* artekoa *ë; o* eta *u* artekoa, *ö*. Inoiz, *i* eta *u* arteko bat aditu uste izan dugunean, *ü* idatzi dugu.

Azken honek bitxi samarra iduri badezake ere, oroitarazi nahi dugu Bonaparteren eskuizkribuetan hitzek artikulua hartzean zernola jokatzen zuten adierazteko hark berak idatziriko orrian[2] zera irakur daitekeela: «Uriz: á, eá, ía, oá, úa», azken honen kasuan, *u*-aren gainean eta tildearen azpian, puntutxo bat ageri dela.

Azkenik eta gure ohiturari jarraikiz, bi eratako azentuak erabili ditugula esan beharrean gara: indar edo intentsitate handikoa (´) bata eta hori baino txikiagokoa (`) bestea.

SAIO HONETAKO BERRIEMAILEEN ZERRENDA

AURIZBERRI
Rafael Urtasun Irisarri, 1908an jaioa
gurasoak ere, biak *auzperriarrak*

MEZKIRITZ
Marcos Saragueta Zubiri, 1909an jaioa
aita mezkiriztarra / ama aintzioarra

[2] Ikus «Bonaparte ondareko eskuizkribuak - Hegoaldeko goi-nafarrera» izenburuko liburuaren azala.

URETA
Santiago Agorreta Garde, 1922an jaioa
ama uretarra / aita agorretarra (Esteribar)

GERENDIAIN
Catalina Linzoain Zilbeti, 1887an jaioa
gurasoak ere, biak *gerindarrak*
Bautista Azparren Urrutia, 1904an jaioa
gurasoak ere, biak *gerindarrak*

ESNOTZ
Daniela Esain Olondriz, 1903an jaioa
gurasoak ere, biak esnoztarrak
Lorenzo Bizkai Erro, 1908an jaioa
aita esnoztarra / ama errotarra
Francisca Zilbeti Ardaiz, 1901ean jaioa
gurasoak ere, biak esnoztarrak

LINTZOAIN
Segundo Torrea Usoz, 1903an jaioa
ama lintzoaindarra / aita ardaiztarra

---oOo---

AURIZBERRI
Rafael Urtasun Irisarri

Doktrina eta gainerakoa euskaraz (1983)[3]

Apéz?... sermónak eta konfèsatú? ta... katezísmoa ta gúzia? euskáraz, ìten omén tzue(n), déna!... yénde guziéikin euskáraz bàizik ez ómen tzé... mintzátzen. Geró? orí ioan tzé, Abaurré...-gañéra, Abaurreálta! an eré berdín, berdín, jènde guziék, apèzengána... erastéra ta ioan beár… bàlin bazué? béti euskáraz, béti-beti!... Géro, galdú ziré gáuzak.

Tabernako giroa (1983)

- Eta zer bertze?

A! ta zer bértxe?[4] pues, eztákit; ándik, tabérnara egóte-, ioàten tziré gizónak, ardóz... ardóz betíak, egàrriarík ez! jejé!... ta, bátek bertzéa(i) èrra omen tzekó: «Ba! àitu zú? ardóa oréi... kariátu omén da». - «Ba! nón-ta, sós bat balió duén basoák, kariátzen ál da» (barrez).

- Non-ta...?

[3] Testu llabur hau, gure '*Ziorditik Uztarrozeraino…*' izenburu luzeko lanean (hemendik aurrera *ZU*) agertu zena, zuzendu beharrean gara, *erastera* (gazt. 'a charlar') idatzi beharrean, *irabaztera* idatzi baikenuen orduan (II At., 308. galderari eginiko gehigarrietan).

[4] *Tz* > *tx* biurturik dakusagu zenbait aldiz (geroxeago ere, adibidez, *moteltxen* kausituko dugu). Arrietako Saturnino Etxamendi artzibartarrak ere, batzuetan, halako txandaketak egiten zituen eta gauza bera Mezkirizko Saraguetak ere, besteak beste.

«Non-tá? ardó, basó árdoak, sós bat balio duén?»... ordúan, sos bátean, bórz zéntimo, sàltzen tzé... basó árdo bát. «Nón-ta... báso at árdo, sós bat balio duén? kariátzen ál da».

Hil berri baten familiaz zerbait (1983)

Eitén tzuen? a, eo... ámak? e anímo pixkát emàn bearreán semeái? pues… ez útzi! ez útzi!... ez útzi! [ezer egiten, antza]. Ta, azkenëán? ya, il tzeláik?[5] orduán ya... akábo. Orái, kèndu tizuzté[6] beór batzúk, béak, árdiak… dénak! ta án bizi dá, alába batékin, Irúñen. Ooo!... dagó... Rotxapéan.

Euskararen galeraz (1983)

- Gizon hura nahasten zela diozu…

Násten tzé, bai.

- Eta gero zer egin zuen?

Pues yá utzí zue, utzí zue, ta géro bertzé baték erran tzué baña, bazekiéla euskára baña, óla... konbérsazio bat íru-, ìrukitzekó? éztakí, éztagi. Ta, géro, ze? gáldu déla, gèiená.

- Eta azkenean heldu zen hona?

Bai, bai; ála! serrerían ai giná lanéan, ta... ordúan, ya... emén, eratsèko pixkát? baiétz èrran nekó. T'an, an tzuén? e... [nire] seméa, an, Donóstian dagóna órai? ta arrék lagundu zuén aunítz, ejéje!... Ba! errán tzu-, erran tzué gizòna zelá, betí're: «Berèxteuntzú umía, ya umía aski... nási gabé gauzák». Ála erran tzué, jemeník e: «Orái, bàdakizú, ezpáita erásten, motéltxen da, eztíre... ítzak atrátzen aísa».

- Bai, ohitura galdu eta orduan asko torpetzen, e?

Bai, ta emén eztút, orái... eztakít geió. Oràì arté bagindué emen... gìzon bát? Legásaköa zéna; úra, béti aitzen tzé… euskaráz? elkarrekí? béti euskaráz! Ta… orái déla amabórz bát egún edo... íl da, bai; tronbósis oitaík eman tzekó... bat? ta, láu-bortz egunés? fundítu ze. Lastíma aúndia da.

- Bai. Eta orain ez zara inorekin mintzatzen? izanen duzu, ba, adiskide edo lagunen bat...

Bai, emén badá... maéxtro at... (emazterari:) Oye, zénbat? ¿cuántos años tendrá Silverio?

(Emaztea:) Pues cincuenta y...

Arrekín bai.

- Nongoa da bera?

Eméngöa, emengöa, bai-bai, Irúñen daó orái.

- Eta harekin egiten duzu...

Bái-bai-bái, aunítz, arrék e… ník baño obekí, bàña arrék erraten dú berdín, torpétzen déla, ez...

- Eta hemengo euskara daki zuk bezala? etxean ikasitakoa?

Ba! ainbértze eztakít, betí kánpoan egón da, estúdioetan ta géro... bértze erriétan. Aézkoan eré egon tzé, Iribérrin, máixtro. Ta geró... Irúñera ioatekó

[5] Berriemaile honek ahoskaturiko *k* batzuk, batzuetan, *j* iruditzen zaizkigu (kasu honetan *tzelaij*, baina, beste batzuetan, *gauzaj, orrejin, dij* edota *guziäj*, kasu). Auritzen eta Mezkiritzen ere, gutxienez, halako ahoskapenak aditu uste izan ditugu.

[6] Dituzte' bide da hori, baina horrela aditzen uste dugu.

pues, orí o, goália pìztu zaió áuniz, euskéra... yakí ote a; bertzéik éztut emén, il diré.

- Izanen dira oraindik ere batzuk, hemen, zerbait dakitenak...

Emén? (hortzez ezezka); orái ikasi úten... oetaík gazte bát amári lèrtzen baitzú, bañó, bear badá ézta *caliente, no se ve…* ejejé! ikastólan ikási egiotén. Gerónen ándereñó... òrgöa dá, Garráldaköá… orrekín bai, betí euskéras aitzen dík[7], bìño bertzenáz? eztá, e? Il díre, emén... ba! bí urté ontán edo... àlako zerbáit? pu! euskéra... da aiekìn guziák? yoan díre; oráin il, lemixíköa.

- Arestian egon naizen taberna horretako andreak ere ba omen daki...

A! emén, Tòki Óna?... ya, bai, neré adínekoa dá bañó, zartxàgo dá. Badáki bái orrek.

(Emaztea:) Yo no creo que sepa mucho…

Pues bastante bien, bastante bien. Ta bái, badá bertze bát, Antéra... Antéra, bai; arrékin? bai, euskarás… béti.

- Antera horrekin?

Bai; [gizon] ori dá... Urdóz[8] de Santestéban... óri bái, ta bére andréa ere.

- Horrek bai, ongi jakinen du…

Bai, bai, ongí, ongí; erdára baño obekió orañik.

Bazko denborako kantinela (1983)

«Kìkimíki? gúk arróltze gúti, ditúgunák eré áski, alabé alabó, biér déla Bázko».

- Kantatu gabe, e?

Kantátu gabé.

- Errana bakarrik...

Errána bakarrik.

- Erran ezazu berriz...

«Kíkimíki, gúk arróltze gúti, dítugúnak eré áski… alabé alabó? biér déla Bázko». Recogían… huevos y…

- Erran, erran euskaraz...

A! larùnbateán, ioàten giná etxèz etxé, 'Kíkimíki' oi kàntatúz, ta... sàski batzuretán emàten zizkiguté urdái-púskak, txistórra, arróltzeak… Ta, geró? apézain étxean, prestàtzen tzituzté Bàzko egunëán, artsàlde ártan, meréndu on bat ín? àur gúziek? ta, oi, orí ze gùre fésta.

- Orduan, kantatu baino gehiago egiten zen deklamatu, musikarik gabe...

Ba... músika gabe, bá-bai.

Inauterietan (1983)

Géro? iáutretán eré oí... oí ya, mutílak ginalaík? mutíll aski, áxki formál. Ta bái, oi eré... bìandeán (!), iautréko… ìandeán? ta... astèarteán? etxèz etxé ibìltzen giné? ta, púskak biltzén, ta geró? tabérna yoten ginduzá...

- Zerbait kantatzen zenuten?

Ba!... musíka pixkát izàten gindué, emén bazé txistulàri bát, ya... zárra, ta arrekín kántuz ibìltzen giné, arrèn soñuén.

[7] Bitxia iduri dezake, agian, 'aritzen dik' honek, hala artean azaldu gabeko hikako tratamenduagatik nola, behin azaldu-eta, 'aritzen duk' ez emateagatik. Iparraldeko zenbait mintzotan, haatik, 'ari du' erabili ohi da, gure artean usadiozkoa den 'ari da'ren ordez, eta horretan egon daiteke, gure ustez, arrazoia.

[8] *Urroz* behar du izan horrek.

- Baina 'kikimiki' horren antzeko edo iduriko kanturik ez...

Ez-ez-ez, ez-ez-e, déus ez; 'kikimíki' orí... aurréndako bakarrík ze.

- Eta nola ateratzen zineten karrikara inauterietan? mozorraturik edo?

A! pues... mozórrotuik geëénak! lemízi... buéltak emán, àl guzití? ta géro... ya... ilúntzean, ilúntzeko... àsmo ortán? pues, àstelená etxètaík…

- Eta zertaz mozorratzen zineten, zer beztitzen?

Ba! déus ere!... Bueno, ta óri; arrápate ginduzán arrópa zár... guzíak! ta bértze... amerikáno... zenbáit balin bazé, arrén... txapélak? ta... luego, kortína oetaík arpégian ezarrí? ta hála!... lìzenziá ya oetaík… (barrez)

- Ongi pasatzen zenuten, e?

Bá-bái, óngi pasté gindue; géro... neskátzi? bat-, batzú idurí, néska... zìren étxean? pues, dantzáldi bat ìte gindué(n)...

(Puntu honetara iristean kontaera bukatu gabe geratu zen).

MEZKIRITZ

Marcos Saragueta Zubiri

Mokorra aldatu ziotenekoa (1984)

Ta ondarrák diré, orái, júnioin, emerétzien, in biár tu lau urté… pa trés, kadéra au, postízoa. Ta mártxoain oíte bórtzean, ín du bi úrte?... bértxea, eskuñékoa.

- Kaderak, e? operaturik?

Bai, Irúñen.

- Zer, kendurik eta…?

Kendú? te parátu postízoa.

- Eta ongi moldatzen zara?

Edérki! orái arteañó artzèrtzekó[9]...

- Hara, ez makilarik eta ez…

Já ere! erràn txiretén utzí biar nuéla ere. Orái, operátzekó… bezpéran, errán tzien… medíkuek. Zén Imízkoiz (sic), orèi daó… len tzegó Unibersitérien, Kliníke Unibersitárian, orái dagó Ospitélian, jéfe; Imízkoiz… deitzén da, nafár bat. «Iguál… obekëó? artìko izú? pues, Cañaveráren ekípoa, Uníbersitáde oiéköa». Ór operátu diréte neri. Ta, báitut amaséi injérto nòure gorpútzean? júnioin amalábian in bear tú, emezórtzi urte, e? erré nitzéla emén, erríko… paréta ói iten, múro egiten, to! árrien (b)otatzen; bakitzú[10], aú? (erakutsiz) óri, ára. Berróite… berróite amaíru egun dú? berróite amaíru egún pastú naö (a)n, kliníken, en la Clínica Erróndo. In tzidetén amaséi injérto; kéndu emendík? eta…

- Errondo? Donostiakoan?

Ez! Irúñen! Clínica Erróndo… eztákit etzaotén deitzén San Miguel. Or dá… Dios!... Ruiz de Áldako, kanpó… fùbol fuérte! órgo klínike ortan.

[9] Pozik egoteko modukoa' izan liteke hau, zentzu zabalean, baldin saio honetan, geroxeago ageriko den Catalina Linzoain gerendiaindarrari bildu genion 'artxitu = *ahuecar la lana para hilar*'ekin zerikusia badu. Azkueren *Hiztegia*-n, balizko gure susmo honen alde agian, zera dugu: **Hartzitu** (BN-ald), enorgullecerse, *s'enorgueillir*.

[10] 'Ba(da)kizu' alegia, batzuetan *z* = *tz* baitakusagu aurretik ez *l*, ez *n* ez *r*-rik izan gabe. Ikus, geroago, *gutziak, bitzi* eta *atzienden* hitzak ere, adibidez.

Ór daón klínken (sic). Klaró! karríke… San Miguel karríke eré óri de, góiti, yoaten dá? pues or, or… ór operátu nítze.

Inauterietan (1986)

- Eguberrietan ateratzen zineten etxez etxe kantari edo…?

Ez, Eguérri te ebetán? ez, bàña karnabáletán bai.

- Beztiturik edo?

Eee! ba! bákan zenbáit iguál, edózein tráje zár, zenbàit än artú? mozòrro-ontzí edo olá… karéta pix-, zénbait paratú? te…

- Eta zer egiten zenuten?

A! etxèz etxé! gitárraikin edo kordeonekí? te kantatú? te… iótre nite[11] deitú.

- Nola?

Ióte nítre!

- Eta zer beste erraten zen? zer gehiago?

Ba! deus éz!... ta géro, pues, kordèonekín? be!…

- Orduan, hori bakarrik: 'iaute…'

Iòte nútre!

- Eta kantatu, zerbait kantatzen zen?

Ba! kantátu? pues, musikéiki juáten baiginé? pues mázt-, neskákoak zirén etxeán? pues, dantzàldi zenbáit, dantzá at edo bíde paratú? ta arrátsean bérriz, ejé! dantzatú? te, an pàtzen tzuténa artú? te…

- Ze kantuak izaten ziren?

Ba! orí? pues, jótak eta…

- Ordukoak, modakoak eta…

Bai.

- Euskarazkorik ez?

Euskéraz? ba! gúti, euskéraz gúti; kantátu euskéraz gúti.

- Oroitzen zara baten batez?

Éz-ez-e, ez. Ní enaiz, euskéraz entzúten? ez, ez gínuen kantatzén, euskéraz. Orí, iten tzén? pues… iéndean! karnabàl igéndëa, ta geró asteártea, karnabál? bí eunéz, bí egu iten tzé. Ètxez etxé… juaten giné? gaztèrie guziä, ta matén tzutená artú? ta… etxetán? pues, gázta eo zèrbat itéko edo iguál… lukarí kebé, txistórra edo… erabázt, orí? ta arrapí tä, karrikéra! beláxe étxe batera.

- Eta harekin, gero, zer egiten zenuten?

Be! zé in biar ginutzén? pues kantatú, kantàtu erriién te, yáuzikè! gázte kóntu.

- Eta gero, gauza horiekin afari bat…

Afárie prestatú, olaxén? da…

- Izenik bazuen afari horrek? ematen zitzaion izen berezi bat?

Be! karnábala, kárnabalgo…

- Karnabal afaria edo?

Karnabál-afárie, bai; ta àstearteán berdin.

- Zein etxetan egiten zen?

Orí? orái eztakít… orí, len? bazén mayordómua eta mayordóma. Non-brátzen tzirén! gazténetaik; ta alà-alá… gaztérie zen le-, etxetík? pues, «Pues aurtén ni». Ni néiz? pues, eldù den urteán? urbilén etxéko… mútile. Ta,

[11] Hitz-pare hau erabili zuen hiru aldietan era desberdinez ahoskatu zuen; ikus beheraxeago.

nexkakuétan? bérdin, neskakuétan bérdin; neskátuak tzirén etxeán? pues, seítu rónda: urte bátez etxe bátean? bèrtze urté bat bértzetan? ta etxe álde, denborà aetán? pues, zèlebratzén, éz-ez sartzén ez; mayordómoa zen étxean. Bai, mayòrdomoá? bère launekín? te prestàtzen tzirén? ta… geró, olgáldia.

- Eta musika sonatzen zutenak, hemengoak ziren?

Erríkoak! erríkoak! bai, gázteak, gázte zenbáit, gitárra soñàtzen tzuéna edo kordeón ttár zenbait… soñàtzen tzuéna!

- Ez zen kanpotik ekarri beharrik.

Ez! éz-ez-ez! ortáko étzen… kártzen, karnabáletan ez; erríko bérekoak.

Kalba izeneko jolasa (1986)

- Haur txikitan zertan jolasten zineten, karrikan eta?

Ba! gaztè kontú.

- Baziren jolas batzuk edo?

Ez, ez… olá karríken nitzélaik? nóla… pues kantátu, te…

- Ez, baina jolastu, jostatu; ¿qué juegos había? mutikotan eta…

A! denbóra aétan? emén bazén, orí… kálba.

- Nola jolasten zen?

Eee!... bedrátzi zúlo. Sí, nueve, e? se ponían.

- Bederatzi?

Bèderatzí… ee! lúzetasun geú?[12]

- Boloak edo…

Bóloak, ta banatú? te, geró? kàlba bóta, ya… nóla egín, zéñek ya botàtzen tzuèn yáo, dènbör ortán? bai.

- Bolo guztiek balio zuten berdin?

Ez! erdíen bazen bát, pues, luxéagokoa, ta bertx álde zuén, bóla auníz… bezála? iñík káskoan. Arék balio zuén bedeátzi púntu, ta bèrtze gúziek? púntu et bákarrik. Zenbaténaz yágo botàtzen tzinuén? pues púntu geiagó. 'Kálban' dèitzen diógu[13].

- Eta kalba zer zen, botatzen zena?

Bai, boloá, bòlo át, bái-bai, eméngo bóloa da; balòna baño guttió? bàña… e! pilóta baño bú! fiñàgokoá, bí pilóta baño yagó, óixe; óla.

Neskak kartetako jolasetan (1986)

- Eta neskak zertan jolasten ziren, tabak? tabekin edo?

Tabekín? bai, eta géro... kartékin, porrázoan ta, zàzpi t'érdien ta olá, lénoa (b)ái.

- Eta nola jolasten zen porrazoan ?

A! juntátzen tzén, edózein etxetán juntàtzen tzirén? ta alá; bai, noláiten gaztériak izéin tzen!

- Eta erregelak, nolakoak dira porrazoan?

Pòrrazoá? e! énue, enuén ségi; kontatú? pues zé, iguál porrázoan? pues, bi… musëán bezála, bìde diré nola irù baiginé? pues, ta geró? pues, zenbát…

[12] *Geu* hau 'gau' da ('hau', alegia), aurreko hitzaren azken silaban den *u* bokalaren eraginez.

[13] Mezkirizko berriemaile honek, Yrizarrentzat galdekatu genuenean, *dakot, dakozu, dako…* gisako erak, bat ere salbuespenik gabe, eman bazizkigun ere, elkarrizketa librean, noiz edo noiz, *-io-* modukoren bat erabili zuen, oraingo aldi honetan bezala.

gorétan kárta yago uzún? pues, kárta bakàrraindekó? tánto geó… kontàtzen tzé.

- Eta ze balio zuten kartek?

E! ze bàlio zutén? pues, zutén numeroá balio zúte! orí bei. Geró? pues, be! iguál, denbóra aetán, sos bát? gorená? bakàrra paratú? te, bádakizu zér zen sósa…

- Txanpona.

Bai, ta… irèzten tzuéna partíde? pues… sos bát gorátu? te bertzéak útzi, segìtzeko altzínä…

'El hinque' deituriko jolasa (1986)

- Eta ez zen beste jolas bat? makila txiki bat punta zorrozturik eta…

A! al hinque, al hinque, bai! lúr puxkét bíldu edo… eo larráin zenbaitetán? pues, lói puxket ín? lo-… ta ínkea; 'el hinque' dèitzen tzioté. Ta geró? zuk, baték… sartzén tzuen, badákizu botàtzen tzéla ta, puntéz…

- 'El hinque' deitzen zen 'hinkatu' behar zelako, ezta?

Inkátu, bai, bai. Ta… geró? zuk, gibéletik (…), zúk botátzen bazindéko aík gaitz lurréra, artú? te, arrìka bóta, te yá… kàrri bitertió? pues, kontátzen tzinuén tzúrrun; eztákit zenbát kontàtzen tzén. Ta, kontàtzen bazinué? kontátzen bazindué… zuk? pues, an geldítu biar tzué… bértzeak; sartú beré makíle? ta án, bérriz, béste batéi yótzeko.

- Eta hori, zenbaten artean jolasten zen?

Pe!... dènetáik, iguál… bidé nola láu nola séi. Ta geró, zenbaténaz urrúnago botátzen tzindué? pues, konténtaó.

Tutu eta tirabekeak (1986)

- Eta sabukoa erabiliz, ez ziren tutu edo kanuto edo holako zera batzuk egiten?

Bai, bai, bai, saúkoa, bai, bai. Geró… geró, eztákit nóla déitzen ginuén; orrékin t'eitén bai.

- Intsusi edo?

Intsúsie?[14] bai; geró, ìten tzén… kordáiki, desín kórda át, ta, arekí? pues, ín bol'atzúk? edèrki bustí? te, sartú… katxàrro ortán? ta, makìl bet ín? ból bat án sàrtzen tzéna? ta yá nóren, nórek urrúnego botàtzen tzuéna, eta, bòla óri… Bu! jóe! dénbora aietán, tze?

- Eta horri nola erraten zitzaion?

Eztizút errain, nóla déitzen ginión, éz idíarëk, óri ézpaitakit.

- Eta tirabekeak eta, egiten ziren?

Tirabíkeak eré bai; tirabíkeai… xardéko gíxe ín? t'ere bái.

- Zein materialez?

E! eózein, édozein! albáz...

- Eta gero, goma batekin, ezta?

Góm bátekin, bei. Geró… paratú, bádakizu, àrri zenbáit eo… béti, iguál, bóla ttár zenbáiki… zurézkoak? ta…

[14] Berriemailea, oraingo honetan, guk esanikoa errepikatzera mugatu zen, baina *intsusi* hitza, geuk Sakanako Bakaikun bildua, ez da Erroibar aldekoa, *lisontsi* / *lintsuntsi* baizik (O. Ibarra, *EEH*). Hemendik ez urrun bai, Esteribarko Ilurdotzen zehazki, hauetatik hurbilago diren *lintsusi* / *lintzuzi* aldaerak aditu genituen duela hogeita hamar urte inguru.

- Nori tiratzeko?

Iguál biotzerá! zúri (barrez). Yá norék, iguál, oláko tablílla o paràtu zerbáit? ta yá nóre(k)…

- Txoriei eta, ez?

Txorìei'ré? bái baña, ee! tzóriéi…

Hegaztiez zerbait (1986)

- Ze txori klase izaten da hemen?

Be! éztakít, ze txorí klasé dre (sic), éztut…

- Txori klase diferente asko da? zozoak eta halakoak badira?

Bai, xoxóak eta… biligérroak eta… bai báita; oràì e badíre bái, baña éz len bezála. Orái… gúti izandu é. Geró? xóxoak eta… bilègarroák? yá gúti ta... gallipérra gén, kláro.

- Galeperrak ere izan dira hemen?

O! aurtén sentí díre, bai… sentí diré bai, áfera; bàña… désaparétzen (sic) dire, fíte.

- Eta beleak eta horiek bai…

Béle ta… t'okílo ta... gallepérrak?

- Okila bai, e?

T'okílo ere báde (sic); kúko… gèro úntze, 'búho', ta géro…

- Pikaraza ere bai?

Pikaráza eré.

- 'Mika' ez zaio erraten?

Ez, emén ez; pikaráza.

- Eta 'eskiñoso' edo… 'gayo' deitzen dutena?

Galloá? gàlloa dá…

- Ez oilarra, korraleko oilarra ez…

Bai, bai, konprénitzeunt oré… bai, ollá-, ollárrá… bueno, 'gaió', dèitzen dugú… enáiz oroitzén nolakúa den[15].

- Eta gero, arrano, sai eta saizuriak eta, horietarik bada?

Bai, bai-bai, ustét? e, bakán tzenbáit agértzen dá, agértzen dá emén, oetán… saizurí te, ebetáik? aziénda zenbáit ìltzen délaik, ez? pues, emén, kanpóra botàtzen baitíre, eremán ta, zomáit túte, úre garbìtu ertió? pues, agértzen díre, àlde guziétaik.

Hildakoen arimen aldeko eliz hobiak (1986)

- Hemen, elizan, fuesak ezagutu dituzu?

Bai, bai, fuesák bai.

- Nork egiten zituen?

E! zurgínek; pues arék normálki iten ál tu! (emazteari:) las fuesas esas en las que ponían velas, dice.

- Eta noiz paratzen ziren?

Emén? urté guzien, arrón de, elízen eòten tzíren. Ta… denbòra aetán? pues, emáten tzutén góizean méza, ártsean errosárioa, ta, ordúen bìstu bearkó, béla zenbait án, zèr oietán… Ta ièndetán? ta… géro, asté… asté artetán eré fésta zenbáit balin bezén? ta…

- Etxe bakoitzak bazuen berea?

[15] Beste une batean, baina, oroitu zen eta *eskilésoa* dela esan, gazt. 'arrendajo'.

Bai-bai-bai-bai, dének, bakótxak bérea.

- Horrela deitzen zen, ezta? fuesa…

Fuésa, fuésa.

- Aspaldi kendu ziren horiek?

Bai, bádu… urte kuádrill ét. Bueno, oiék, ebék… bai! bañe gú ezkóndu gintzén unán? izén dire, ór tzire. Emén sortu, emén e, orí... ezkóndu nitzén o enitzán eón (!), yágoik, yáoko're éz.

Enplastoak (1986)

- Enplastoak eta horrelako gauzak egin izan dira hemen?

Ze?… ta zér! itèn tzutén argizériéikin, ói… olioáikin ta eìten duté! zenbáit eríén… sendátzeko[16]. Geró, agín minéko míne edo ortzén… míne, bèlin bezún eré? flór de saúco óri? ortáik biltzen tzén ta, tostatú? te, egín píxketakín ási? sartú te esnètan sartú? óial zenbàitekín paratú? bérotui(k) izatekó.

- Nik aditu dut Izaban, 'sanjuanlili' deitzen duten sabuko hori hartu, egosi, eta haren baporearekin…

Bapóreá… ya-ya. Bai, usétzen tzén, arrí… ník ez; bakarrétan parátu nínt-ze? t'agíñendakó ta, ortzendáko ta oñazé in duelaík? pues, edo mín… mín izátean bezalá? óla, pásta pixkakí? òial batekí? tze!... zárri bear du. Béroa! béro pixkát ematen tzué, bai.

Sorgin-kontuez (1986)

- Hemen sorgin-konturik izan da?

Ba! ez. Denbóraz, gúre gazté-denbóran egóten tzen órr e, Errótik onatáo, pues, atràtzen tzelá, maztèki… bét? sórgin, zirelá? bàña ya, be! eta orí.

- Eta zer kontatzen zuten hartaz?

Zé kontátu beár tzüte? iguál zenbáiti atrátzen zitziotéla? ta besté zenbáitei éz, ta… ze? nài bezinué jinestatú?... edo éz.

- Ez, ez, baina, kontu bezala, interesgarria, polita izaten da…

Bai, bai, bai, orí bai. Sorgínek atératzen tziréla erràten tzutén orduen; geró, argí xemáit e, iguál… agértzen tzéla ta, bàña argíe, nik, autèman dút? olá, gábas, gú ibíli… béia ta sartú te zenbàit aldíz?… eúri ín, te geró, ilérgie balín bézen, ta ilérgie átra, ta urrúnd(e)ra kùsten tzinué pues, úre zeó geldítuik zeón tókien, pues… àrgi bét, òri zé, kláro.

- Hori kontatzen zuten, e?

Ba! neónek, ník e… frankotán kusi ut oí! orí bai, bàña… ník bainekién zer tzén? pues…

- Bai, ilargiaren islada, ezta? reflejoa eta…

Bai-bai, bai… bai, ilérgiein rèflejoéikin, bálsa –báltsa ba dèitzen gínu uk! uskéaz–, pútzu… pútzuak e izèten baitíre! bídetan. Pues, aétan? pues, illérgiek, pues, màten tzuélaik, y ése pues, árek ízein beizéla! je! amétsez. Zemaiték? pues bái, zenbàitek ùste zutén baétz, árgie zelá, baña, nik…

- Bazenekien zela ilargiaren erreflejoa, ezta?

Illérgien… bai.

- Behin Arrietako gizon bati aditu nion sorgin-kontu anitz…

[16] Berriemaile honen datuetan, inoiz, *-t(z)en* eta *-t(z)eko* bukaerako aditz-izenen bati egokituriko osagarri zuzenak genitiboa hartzen du. Hona, honetaz gainera, beste adibide batzuk ere: *mendien kuidatzen / zenbait erien sendatzeko / ferrain iteko* eta *biloain erretzeko.*

Ba! kóntu!… zenbáitek kontátzen duté bañá…

- Kontu bezala…

Kóntue! bai, ez-ez, bertzéik ez; sorgínek agèrtzen tziréla erràten tzúte pero, sorgíne eztá ya. Nik, níri aspértzekó, etzáide sekúlä nióla atrá, ta dakizuén bezalá? pues, eúri ín te, ilérgien púnte, refléjo úre? pues, kùsten ziñú urrúnderá, ba! pútzu zenbáit bazéla ta, úre tzé oi, ilérgi… refléjoa. Ta iguál? pues, ánitxek àrtzen tzuté orí? báetz, árgi zenbáit agértzen tzéla.

Orga baten piezak (1986)

- Karro batek zer-nolako piezak ditu?

Tze, fielák?

- Bai, belarra eramateko-edo, karro batek. Timon bat badu, ezta?

Bai, bai, òr timoná? ta geró…

- Horrek izena du 'andaitze' edo horrelako zerbait, ezta?

Andáitze, bai, euskéraz bai.

- Eta gero?

Geró… ruedáin éjëa báitä, bai; ta án paràtzen tzén? pues…

- Horri nola zaio? 'ardatza' edo?

Ez, gúk ejéa erraten ginuén.

- Ejea, e?

Bai, segúro; geró, gaetán, zúk erràteuntzuená? pues, timùnaekín te… ladéroak, pues zùzaetákoak? pues, erruèden ondoán, ekín te timònaekín? pues, gurutzätu oléki, yósi… itzéki. Geró… guátzea.

- Kajaren zola? goatzea?

Guátzea erraten gínuen! Geró… klaró! tal como… ongárrie atratzéko ta kajoná? pues, bértze, bértze at í(n), èdo biar bazinuén… ól batzúk prestátu… guàtze berái? parátu bèrtze esetík... betí, bai.

- Eta andaitza, nola sujetatzen zen?

A! abréai?

- Bai.

Bueno, abreái… ez, emén? karroák? pues, jeneráleán? pues, beëákin te ídiekin i(b)íl gínden, paréjaeki; abriékin?… gút(t)i.

- Eta horretan sujetatzeko?

Pues, aék pues, bùzterrié? pues, ìten tzén… áro át, ugeléki(n), ta, aró artán sartú… timón punté?

- Andaitze punte…

Ta, ardàntze (sic) punté? ta, alboáren… gìbeletík? makíl bet, petík góra ya, xilètuík? makìlen parátu? ta altzinián bérz bat.

- Makila hark bazuen izen berezia?

Erdáraz klabíje.

- Eta euskaraz?

Euskéraz? pues, kla-, klabíje erràten ginue gúk.

- Eta ez zen beste gauza bat, 'bartubel' edo?

A!... bárdie, bárdie erràten giñuén guk; orí ongi, beré uzterríkin dao, egíne. Bárdie dèitxen ginuén, geró… kopétan parátzeko, beéi edo, bée edo ìdieí? buztérrie parátzen tzelaík? pues, ipúruköak, dèitzen ginuén, ugèltúz, ugèlekí.

Ferragintza (1986)

- Beste gauza bat: kabalen azpia ferratu egiten zen, ezta?
Bái-bai-bái.
- Hori, nola egiten zen?
Arótzek[17], ìten tzutén.
- Hemen, herri honetan, bazen?
Ez, ez, Érron; emén Érron ta Aurítzen.
- Eta zuk eraman izan duzu inoiz ferratzera?
Bái gizoná! idiékin ére egon naiz ní.
- Konta, konta nola…
Pues, nóla, pues, férra paratzekó? pixk-, leník beratú… zangòa edo besoá? ta ekéndu… Dios! nóla erráin diot?
- Azazkalak edo…
Azázkal puxkét? igualátu pixkét!
- Bazen aparatu bereziren bat hori egiteko?
Ze? ferráin, férrain itéko?
- Bai.
Leník burdiñá? pues, ezètasuneí? te geró, berótu! te berotzéikin geó… malluékin? pues, ín arkoá.
- Eta bazen zerbait aberea sujetatzeko?
Ez-ez-ez; abréa sujétatzekó? soká, remále zenbait paratú? ta garróte batekín? garróte batekin, makìl betekín? mán buélta atzúk? eta goratú? te, berdín.
- A! goratzen zitzaion, e?
Ázpie edo besoá? zèin… ferràtzen tzén? pues, goratú? te emén, òla irukí, zúre… ázpi gi(b)ilián? ta arotzák? pues, parátu ta itzéki.
- Lehen erran duzu egin behar zuela…
Bai, pues iguál, igualátu ferráin paratzekó, pixkét.
- Zerekin igualatzen zuen?
Pues, zellúen gíse, e? zutén, ekentzéko, indàr artú te. Ba! màjo leúntzeko.
- Eta hori egin eta gero?
Orí… in óndoan? pues, ferrà paratú? ta itzétu, màllueikí. Ta geó, puntéra(k) atératzen txireláik? ya? móztu, azázkaláën… kóntra! ta geró, malluéki, ta egín… kaská-káska-kaská? gañetík? eta, peán bértze bát paratú? itzèin puntén? ta, itzèin punté? pues, óna dublàtzen tzén...
- Min egiten zitzaien?
Ez, ez, ez, or? já ere, já ere! éz-ez-ez-ez.
- Ez ziren kejatzen…
Ez, zènbatenás… maizéo kanbiátzen tzindékon ferrá? obé, obéki. Zeàti, èzpazíndekon… férra gáldu eta èzpazíndekon paratzén? ortaráko parátu bier txiréna(k), mándoak? pues, máingu paràtzen tzíre iguál, ìten zitzeotén aguadúre[18].
- Zer egiten zitzaion?
Aguadúre, dèitzen zúte, bai.
- Zer da, eritasun bat?
Bai, bai, ta beàr tzekotén? edéki, azázkala, ta andík aldatzén tzen, iguál… pús einík, pùre itekó? ta… Béin, béin iñèzkeróz? paràtzen tzekotén, sártu,

[17] Hitz honetan ageri den pluraleko 3. pertsonako ergatiboa ez zaio lehenagoko silaban ezein *i* ez *u*-ri egoteari zor. Berriemaileak, dena dela, gutxitan erabili zituen honelakoak elkarrizketetan zehar.
[18] Iribarrenen *VN*-n honela: AGUADURA. Callo, referido a animales [Idoate].

gasá? píxket olío até-, oléo, oléo píxkatekín üntatú? t'an sartú xiloán… gása orí? te geró, parátu férra. Ol-óla sendátzen tzuten géro.

- Olioarekin, e?

Bai, ólioa… érreik! fritátui(k) óngi, ará bóta… artáik? olìo pixkét? ta géro, paratú… algódon gixé? puxkét o… xiloán? ta keatú? te parátu ferra; da ólaxe.

- Ezperen maingutzen ziren, ez?

Bai, bai, bai.

Ogia Iruñetik ekarri (1986)

- Hemen, erin izan da? ereki edo erein edo, nola erraten da?

Tze?

- 'Sembrar'…

Garíe, garìe ta bái; erékitzen da oái, nik usté.

- Bai? garia eta zer bertze?

Gárié ta, oloá ta, piénsoa, azièndendakó? orái, jèneralián, piénsoa.

- Nola erraten duzue euskaraz pentsua? 'zaldare' edo… nola da?

Bai! iguál… iguál garié? nóla… gàragarrá? nòla oloá? déna naás… ereikí? te, piènsotakó, orái. Orái eztá… ogíik itten arí, t'érrietan baté.

- Non egiten da?

Iruñetík kartzén dute, ba.

- Erron ere bada gizon bat egiten duena: Fermin Egozkue…

Orrék àrtzen dú Iruñétik, ballé guzíko kàrtzen dú orrek!

- Nik uste nuen Erron berean egiten zuela…

Éz-ez, lén bai! lén bai; oék artu zutélaik Erróko panaderíe, orí egiten tzén. Irúñera dá, juàn txirénak bizítzez? aék, arrónt! bo! panaderíe, etxéan iten tzutén ógie, bàña orrék? órai, érri guzietará… Irúñetik erámateunte, zeàtik emén, bàlle gúziko kártzen du orrék, Ègozkuék. Bestze aldé… é'dizut, ze emén, astelènetán? astèazkenetán? geró, ostzilérian? ta larunbétean; láu eunes, tórtzen náskë. Ta bertzé errí oietará? beití? pues, bértze egunetán, bértzetán. Astéan, zazpí eunetík? lau, kartzé-, kártzen du onára óri're.

Mezkirizko ostatua eta garai bateko giroa (1986)

¡Se hablaba mucho, mucho vasco! más que ahora castellano se hablaba vasco entonces. Bertze álde, beré sortu etxeán?[19], bo! eúnoro ez é-, èz erráteatí, iéndetan iguál… zé errain dizut? berrogéi o… iguál, iruètanogéi o… labètanói, gízon, iyéndiero! Goizeán mezátik atrá? ta, ostatúre; bazkaldú? ta ostatúre; bezpértaka atá? ta iguál, gàbardiréño edo goizéko bi orénak[20] artió? ostatúre. Ordúen jénte anitz, emén…ník záundu ditút, bortzéun te… iruètanogéi ta amaláu.

- Pertsona?

Pérsóna, bai.

- Herri honetan?

Èrri óntan, ta orái? ez gára egún; berróite amazázpi família, záutu itut.

- Orduan hau zer zen? balleko handiena?

Ba! áu ta Érro itzein tzirén denbóra artan, bai; berróite… amazázpi famílie záutu itut ník e, ta orái ez gará, òite zórtzi bízi.

[19] Emaztearen sortu etxean, alegia.

[20] Aldi honetan *oren* esan arren, hurrengo batean *oron* erabili zuen.

- Orduan, Aurizberri baino handiagoa ere?

Bai, bai, denbòra artán? bai. Ba! denbòra artán Auzperrín izein tzé yágo'ré, oràì beñó. Orái, Auzpérrin? jénde gutti faltá… juàten dá! or, dénak or geldìtzen díre!

- Eta fonda hartan bazkariak-eta ematen zituzten?

Pues nòre (!) sortetxeán? bai-bai.

- Eta goatzeak-eta bazituzten?

Guatzéak? e… guatzéan? pues, zé errain dizút, zu, orí? izèin tzutén or… séi o zázpi o, zórtzi eo, guátzi o alá? pues bakán tzenbáit, àrtzen tzutén baña geiàgokoán ez. Baña zé, ostátu?

- Bai, animaturik egonen zen, e?

Berrói, berròit'amár? ta iguál labetanói, aníme, bátean; ikùsi túu, e? (emazteari:) Más de ochenta personas igual han estau, a la vez en tu casa, en la posada.

- Es mucha gente, e?

Eee! iguál parátzen giné, iguál, zénbat izéin? iguál… séi edo zazpí, 'pareála' dèitzen dúu, músian! sei, séi músian; iguál, séi edo zazpí pariénte: sukéldean bizpíru, komedòreán bèrtze bizpíru, bertzé kuárto ateán bertzé bizpíru, paréja… puf! ta tripóta ta, tripóta-sálda ta bakarrétan míari[21], ártuik.

- Tripota, 'morcilla', ezta?

Morzílle, bai. Orrèn sortétx(e)an? bakárretan artú… atsáldekó, bezpéretaik atrá? zeàtik e dènboráz? goizián? bí meza. Geró? erráin dizut: bi orón t'erdietáik irúek bitértio edo alá? erròsarióa emáten tzuten, 'bezpéra' déitzen gindue. Pues, bezperátik atrá? ta… nóla joan bear duté? ostatúre. Iguál be-, beréndu, beréndue yokàtzea eré, muxëán. Muxëán yokatú? te…

- Eta musean, nola erraten zenuten 'pareak', 'dupleak' eta…?

Bai, bai, bai.. dublés? dúbleák!

- Eta 'medias?

Mediás? e… médiek.

- Eta 'envido' errateko?

Enbidó? pues, euskeráz enbído! edo… bì enbído! ìru enbído!... èdo erdaráz? pues, 'envido', 'dos envido', 'cuatro envido', 'ocho envido'… ta euskeráz? euskeráz? bérdin: numeróa nonbrátuz!

- 'Bi enbido', 'bortz enbido'…

Iguál-iguál, iguál amarr enbído? nòla bái, nòla or dágo.

- Eta 'quiero' errateko?

Quiero? pues, kieró, èrten ginuén.

- Ez zen erraten…?

Idúki!

- Hori, bai; eta gero, 'treinta y uno' eta 'de mano' eta…

Ogèita améka ta ogèita amábi te… òita amazázpi te…

- Eta 'de mano' errateko?

Ésku, éskutí; ogèita améka éskutik.

- Eta 'descarte' errateko?

Descarte? pues, dèskarteá.

- Egiten zenioten seinale batak bertzeari, lagunari?

Al bàdaikézuké ere iguál (barrez), baiétz segúro!

- Baina ez zen permititua, ezta? disimulorekin eta…

[21] 'Hizketan gogotik' dirudi horrek.

Ba! albáz ikùsi gébe! (barrez); permìtituík zeó; artzèn bazituté? pues, ártuik! ta etzízuten artzén? pues tíra altziné!... Orí líbre zé.

Ereintzaz zerbait (1986)

Ya, garbitú, bueno… botàtzen tzáëo, buéno-ta, botàtzen tzitzeó… solfátoa dèitzen ginué emen.

- Zer erekitzeko?

Gárie, erekitzekó…

- Zer egin behar zen?

Gárie béra? gernuéiki; jendè-gernuéikin? te kísu pixketékin? te solfàto pixkét? botá...

- Eta nahasi?

Bai, kláro; ta geró, orrekín? pues, ereki zé[22] ori, te ègun páre bat óri, izèin tzinué olá? bústiik, te (…). Geró? eráiki biar tzelaík? pues, zákue sartú[23] te, juàn alorrerá; alórra dèitzen dúu ori. Màkineikín? berekín eo… o zé, aziènda zinuén? edo mándoa edo… pues orréki, màkineikí.

- Baina lehenbizi lurra irauli behar zen, ez?

Lurré?… bai, bàña lurré? emén patáta erèkitzen tzén lúrrean… áurten, orái, patáta báitagò! ór pues, bértze pentze bát, ikùsi tuzú patátak. Pues, patáta atératzen délaik, pues, patáta-ta ta lúrre arró geldìtzen báitä! gañéra bóta… géro gárie.

- Bertzerik gabe?

Bertzéik gabe. Geró? makiné pástu, tàpatzekó, kasí.

- Ze makina?

Mákine? pues… emén jeneráleán área, usétzen tzén. Bádakizu zé, nola dén aréa? ortzéki(n)?

- Bai, aditu dut, bai.

Jenerálién? pues, aréaiki, oré… lúrr ona daólaik, bàña pixkét fiér balin bedó? pues, géro zúk arrótu eméndik, eràiki beño lén. Ta geró? pues, ya, arrotú te, nóiznei, eréiki segidó. Larrázkenean yéneral; négue sártzean? négui(k) gábe erekítzen tzen emén, gárie arront; gárie ta ólo ta garagárra eré, erekitzén tze.

- Eta hazia zaku batean eramaten zela diozu?

Ya, bai!... ázie, pues, zákuen… sàrtzen tzén, alórrera ematéko, erekitzéko. Geró, artú sóingaineán? ta… hala! bóta! eztá orái bezála makinéikin ez, éskuz déna.

- Eta botatze horri nola zaio? barratu?

Bai, bai, barréatu, ázie botá, gúk ala dèitzen gíndue; pues, àzie botá? ta gibelétik, èntzun bezalá? bei pàre batékin edo ìdi pare batékin? eo… begírik eta ídiik etzuená? pues, mándo zenbaitéki, makínaiki pastú.

- Eta aipatu duzun gernua, jendearena zela diozu?

Jéndeaná, bai; geró… gérnu ortán? pues, bóta solfàto pixké? ta alá. Ta… beár balin bezén ur gexáo? pues úr gexào bóta, ta, botà denetík? eta geó, paláikin nási, ar tzézan gal-, grànu gúziek pixkat bustitzéko!... Ta géro, píxket aunditzén tzen, óri botatzéikin ta, bertzenáz yá… alorréra, ta or ségitzeko.

Uso-ehiza (1986)

- Zer egiten da usoak harrapatzeko?

Be! èskopetáiki! etxól atzuk ìten tuzté!

[22] Berriemaileak batzuetan *ereki* eta beste batzuetan *eraiki* erabili zuen.

[23] Horrela aditzen da, argi eta garbi, eta ez '(h)artu', itxaron zitekeen bezala.

- Noiz eta nola egiten dituzte?

Óri… órai, úde ondoán, segidó. Etxóla… láu àbarrekín? pixkét?… ìten tuzté etxol bàkar bátzuk…

- Ezpelekin, bago-abarrekin, edo zerekin?

Abarrékin, èdo aríx-abárrak, berdín.

- Non egiten dira?

Jéje! mendiétan, goití… éiten-ten tzé; xeáti, eméngo… dérmioa, ta Àurizperríkoa, ta géi? ba Bixkarrétekoa; irú errí ebék daudé… unítuik ta, irú errién dèrmioá? dauketé akótatuik, beréndako, bértzek ez sártxeko, kanpóti íztariak, éz zeátik ñori. Ta Aurízkoak eta Auzpérrikoak eré duté berdí(n), béren értëan, ta Luzéidek, atràtzen dú pues, eztáit zénbat urtetáik, subásta; berreún da ikúsi biar da. Ta iguál tòrtzen diré… Etxalárti, iguál eldu diré Iruñéti nòla eldu diré… Bixkáëati nòla Gipuzkoáti, según nórek geldìtzen tuén puestoák. Ba! ta Madríldik eré! bátek artzén du, zenbàit urtés, enè semíen eskíllara, ói? Madrílgoa. Ta árek aitamák zitué… Baztángoak.

- Usoak nondik datoz? nondik heldu dira?

Frántzia aldetík! pásan! saríak iten diré, ya, agózture geróz? ebiltzén dire, pása.

- Nola harrapatzen dira? sareak eta…

Eeez! tíro, tíro, tíroeki.

- Aski hurbil pasatzen dira?

Ba! úrbil… seún, zé aize dén; egò-aizenéz? bai, apál… pàsten báitire orduen, bai.

- Saldotan agertzen dira?

(Galdera gaizki ulerturik): Eee! éztute… éztute ástiik juatéko, óla, áltzin ere; ráto zenbáit joaten dié, goizián eo atsàlde apálean eo… jenték eré emén beréalá ya geldítu de, bañá?… óla dauketé? pues, bérendako betí, orí, àrrapatú.

- Erraten dute, ba, usoak pasatzen direla saldoka.

Bai, bai, bai-bai-bai, xáldoak, bai, xáldoak, bai.

- Eta aise botatzen dira?

Bai.

- Eta gero, zer? jateko? saltzeko? edo…

Yatéko jeneralëán, saltzéko gúti arrápatzen da emen. Géenák, eztúzu ikustén ya emén, étxe guzietaík yoaiten nórbait?... ta etxéko, jeneraleán etxéko, bai. Izéten báute suértëa iltzéko ánitz? orduén pues zéai, sáltzen tuzté, Iruñéra.

- Orduan hemen ez da egiten, Etxalarren bezala, pala bota eta…

Ez! ez-ez-ez-ez… emén tiróka; an, Etxalárren? sarékin te, palékin te… orí diferéntea da.

Muxar eta burtxintxez (1986)

Bixérra, badakizù zer dén?... liróna.

- A! bixarra erraten zaio?

Liróna, euskáraz bixárra.

- Nik aditu dut muxarra…

Muxárra! bai, bai, bai.

- Eta zuk bixerra.

Bíxerra guk, bai; ba! oiètaik eré, gábas… atràtzen baitié átea! ta untzék? e, gábas dailtzé, béti.

- Bixer horiek ez dira harrapatzen?

Bai, bai.

- Nola?

Éskuz, edo… sú puxke emán, métxa pixkatekín edo, edo… arrópa zar zenbaitéki, ké pixke emán.

- Eta orduan, zer egiten dute?

Pues, ìltzen baitíre!

- Hiltzen? itorik edo?

Ítoik, bai.

- Edo ateratzen dira?

Eez! geó… sú emáten bádakozuté? pues àrtzen duzú gàntxuakín, ezpàlimezú… eremáten… alanbrésko gàntxu zenbáit? pues, makiléiki, gàntxo zenbaikí? tä, ìltzen delaík? pues… átra, aixéki, xilóti.

- Ez dute protestatzen edo arroiturik egiten?

Ba, ezpádakozúte su ematén? bai; arítzen tzará xiriketzén… ño-ño-ño-ño-ño!

- Bai? eta ez dute koskarik egiten?

Jejé! ortzéta emán oiek!

- Eta ona da hori jateko?

Aragík goxuénetaik! ní(k) enué… bueno, nei, nerí kuadrátu zaidé anitz, baña ník, enué jinéstatíko sekúle, emén… klaró! gúk kritikàtzen báite bestetáko; gúre gazté-denborán? pues, jeneráleán kordeonísta zenbait kàrtzen gínue, ta ùrte bátez ni're, mayordómo… bakizù zer dén?

- Bai.

Pues nì nitzén mayordómoa, ta Etxalárko mùsiko átek, bueno, kordeonìsta oí, san[24] zerbáit néri (…), ta ór etorri zén, paríen. Po!... Marzelíno Otaégi; arék etzuén sékule probátu! ta kùsi zuén émen, emén, sanf-, sánferminetán báitze, féstak opatzén, ta yá ordúko atràtzen díre, bixerrák eta. Igárri yá nún ote zá. Uuu! etzuén ikúsi néi're! probázi te geró, bospásei urtéz, Mezkíritze tòrri zé lengoán, aréndako bezperán… bixérra. Ta geró, utzí zueláik tortzétik? úrtero sentìtten tzirén, olá, júlioin… batzúten eo agoztúen (…), bizpíru arrepatú ta iyortzéko, fáltai kebe!... bospaséi urtéz ála iyórtzeko. Árei, bueno, etzuén… sáten tzue, etzuéla jinéstatíko sékule! áin góxo zela.

- Nola jaten da, nola sukaldatzen?

Pues óiek, tzérriek bezála leén, kixkórratu pixkét lénik, sú man biloáin errétzeko. Ta geró? pues, trìpäk aterá? ta geró, frítätu, ólio pixk'ateán.

- Erraten dute urina ere…

Uríne bai! orí, setiénbrien eòn bear zúten ere bai, ordúen doblé gizen.

- Eta bertzetarako ere ona omen da…

Oná? pues, gerrùntzendáko ta, óla... arrónt ónak, e? ta belàundendáko ta orí, óna.

- Zer egiten da, igurtzi edo?

Èskuz zú… zú pixket artú? paastú? pues… sártzén da! bixèr-uriné sartzén da, zuré aragien.

- Balsamo bat balitz bezala edo…

[24] 'Esan = erran' da hori, hasierako silaba galdurik.

Bái-bai, berdíntsu; arrónt óna! Emén… óntza[25], bádakizu zer dén? pízué, pízué, óntza, 'la ontza'. Arrónt kário sàltzen tzén, gúre gazté-denboran, bàña orái no, uríñe, sáldu. Èta farmaziétará!

- Bixerrak non gordetzen dira?

Oièneán, arbóletan! arbóle… xílo-kófa oetán! eztíre arbóle ánitz, pues, kofadúnek eta, olá, ziló zenbáit, adarrétaik eta ukìtzen tzuéla? oétan, eòten diré. Bàña orí… arbolétan egòten diré? pues, badé-, yatéko badélaik, duéla… bizérra? pues babarátxa, bágo… babarátxa, arítze… ezkúrre.

- Babatxa?

Bai, ta arítz ezkúrre, delaík? orduén, gizén ta intxàtzen díe! agúzturéz… geróz, zaluítzen diré gizénak. Olá… arrón pollita tíre oek!

- Kofadura, zer da?

E? kofá?

- Habia edo?

Kafié! eee! ez, kófak, arbóle-fálla zenbáit, ustéldu zenbáit, béti atràtzen báite!

- A! arraildura batzuk? 'grietak' eta?

Bai, bai, oí, oiétan geldìtzen díre, egurrésko.

- Eta aunitz da horietarik? orain ere bada?

E! arbóle… zar, jenerálean arbóle zarrétan, dá oetaik; arbóle gaztéan ez, eztá eldu geiágo.

- Eta burtxintxak eta, badira?

Bat é, (zuzenduz:) báit'ere, baña éz lén bezala.

- Gutiago…

Bai, bai, kúste eginéz; eztúzu ikustén… iztéri bat bota berá? léngo iztéri batendáko orài badiré… berrogèita amár? Emén bereán, ené gazte-denborán, ze? bóspasei ginízkigu gu; t'orái? emèn bereán, sème zárrena… da iztérie; bí eskopetá bear dú, bàitu béti. Etxé guziétan badiré, bízpiru esko-, éskopeta. Orái eztá len bezála.

- Eta badira lepahori, lepazuri eta halakoak, ezta?

Baité, papogórriek eta, pàpo… zúriäk eta.

- Horiek zer dira? animale txiki batzuk?

Orí, papógórrie dá… óri, panikésa izein dé[26]; gàixto da óri! ozkítzen bádizú.

- 'Papogorri' erraten zaio?

Bai, bíxi bá-… óri de. Burtzìntzéin kolóretsu berá dute, bàña pápoa xúrie (!); lurréan dàiltze óek, eztiré arbóletan ibíltzen, lurré gorrien. Oék kosk íten badizuté… kostáko zaizú bai, séndatzén.

Eskulangintza-azokaz zerbait (1987)

- Gurbizarko Martin Marmaunek kontatu zidan nola egiten zituen espuertak eta…

Bai, espuértak iten tzúte, espuértak ìten tzúte, bai. Ta orái, lárru… tratuén, lárruek erósi? te, Irúñera edo Burládara erámaten tzituén? zìtue bátzuk, óla zebilén. A! orrèk baitú ya labèitamábi… te bizpir úrte. Baizué bai, bizpíru o láu…

[25] Kasu honetan, aspaldiko txanpon baten izena.

[26] Berriemaileak, zalantza erakutsi zuenak, ez bide zuen asmatu aldi honetan, *papogorri* gazt. 'petirrojo' baita (O. Ibarra, *EEH*). Saio honetan bertan, halere, Lintzoaingo Segundo Torreak emaniko *erbiunidie* hitza ageri dela esatea dagokigu.

- Bai, arront majo dago. Eta erran zidan, orobat, duela denbora guti izan dela hemen, Erroibarren, feria artesanal bat eta zu ere hor egon zinela…

Juan dén illean zortzí! ta juan dén urteán eré in tzutén.

- Artesania eta hori, ezta?

Bái baña, artesanía gútti zen; bóspaséi… giné.

- Nor zineten?

Ìrisarrí ta Zintzúrko; orí… zerámikan dailé.

- Nongoa da?

Orí, emé(n), Aurízperrikoa dá baña bìzi dé Irúñen.

- Eta zer da, gazte edo?

Gázte? ezkóndue dá, bai, gáztea da, bai, izéin tu berroéite... amàr bat úrte o oláko zerbáit.

- Orain ikasi du zeramikan?

E! aspáldi bádabillé.

- Aurizberrin, lehen, bazen ofizio hori?

Orí, orí betíkoa zen.

- Horren aita ere horretan ibilia zen?

Ez! emén, orrén aitá emengó… Montañésako línien, Irúñen, presidénte iten tzén, urté anitzez; tá ayétakoa da! Gúre… áite zén endekétaria, áideak kutsùtzen tzíren, lengùsuen úmëak edo alàko zèrbait tzíen oék.

- Eta denboraz, zein zebilen han, Aurizberrin, zeramikan?

Eztút sekúla ikúsi, bàña orí ník, nerí Irúñera deitu ziaté lemixk órti, ta Renterìra eré… jo! án tzen, zéin érri de? orí… Irúñen daó aspáldi, ta ór… zeràmikén.

- Hori erraten dizut; zu txikia zinenean ez zen zeramistarik Aurizberrin…

Ez, ez, eztút, eztút entzun; eztút sekúleko! Aurizpérrin unìkaménte konpórtak, izèin tzúzten.

- Orduan, denboraz, e?

Denbóraz, neré gazte-denborá(n)? bai. Tablillé iten tzutén lénik, ta geró, konpórtak bíltzen yá zitúzte; nolá? eztízut errain, orái bera dá…

- Bai, Marmaun horrek pieza diferenteen izenak, pilareak eta… aipatu zituen.

Bai-bai-bai.

- Eta zein beste, nor beste egon zen artesania feria horretan?

Geróoo… nóla deitzen ginuén? Ugertékoak. Orí, artésaníen deilé… figúre eiten.

- Hemengoa da? Uharten bizi dena?

Ez, Uárten bizi dé baña, ori dé, Ugárten, Ugértekoa berékoa ník uste. Geró… zér tzen? émen e… éne goñátue, sáltzeti bizi dé an, emén, Bíxkarretekoá, báste ta, 'Bastéroana' deitzeúte, bàña orrék… zapétak itén tu. Te geró, bertzéik nór tze?... ta geró, koádroin teláre bat, t'eré bazén; nùngoa zén? eztizút errain.

- Zeren egile?

Kuádroak, óla… figúre. Géro, aixkóra… aizkóra-egíleak, égur moztén; éztu bértzeik.

- Nongoa da hori?

Ori? Idoáte, bíde Eguíkoak[27], te geró? geró, a! arrí-, arrí-gorazàlea eré! ór ba… Alsasúkoa edo núngoa da?

[27] Adin handiko lagun askori aditu diogu *Egui* esaten, *Eugi* esan ordez, Erroibar eta Esteribarren, agian, nagusiki.

- Harri?

Arríe(k) gorátzen tuéna, irueún kiló.

- A! Perurena edo?

Perué-, óri béi! óri, orí eré or tzuté(n). Báña denbóra, etzén denbòr oná ta, laú ta bíz torri ginén… eméngo frontónera.

- Bai baina, Perurena aipatu altzin, zein bertze erran duzu?

Eguíko bíde (…) atréako zén.

- Baina hori haizkora-apostuan, ez?

Bai, bai, trúnko, trúnko moztén.

- Aizu, aditu dut hemen bizi dela emazteki bat Aezkoako Hiriberrikoa…

Aézkoa Iribérrikoa, bai, aríe… itén du, bai, élle, élleki.

- Ongi egiten du?

Bai, íten dú!

- Horrek euskaraz jakinen du…

Bádakió (sic), bèña emén ezta kostú sekulá(n)txe.

- Gaztea da?

Báitu ya… jubilátui taó, yá tú iruètanogéite… zazpígerren urteán nik usté sártu dé(n).

Erroko José Villanuevaz eta Gerendiaingo andere batez (1987)

Orí, urté at ní, ní gaztiagoa dá, José.

- Zuk zenbat dituzu orain?

Iruètanogéita amazázpi béteik; bueno, emezórtzi!

- Uste nuen hura gazteagoa zela…

Uré? ez, yágo bátu, báitu orrék ere iruètanogéite… amabórtz o amásei; ník e iruètanogéita emezórtzi… béte itut, aprállean.

- Galdetu nion ea orain nor den Sorogain horretan.

Euskaldúnä!

- Bai, erran zidan badela Elizondoko gizon bat, eta emaztea dela Gerendiaingo baserri batekoa, borda batekoa edo…

Bai, angóa berekóa, bordá at, Sorogáin, Sorogáñen eon tzára tzú?

- Bai, bai.

Pues, bigérren, Sorogáñe allegatzéra? alanbráda allegatzéra? ezkèrretáik? oiánean? kaserío at zén, bórda at.

- Eta andre hori, euskalduna da?

Èztakít, pues, ba! ígual bai; senárra sòri péi!

- Gerendiainen egiten ez denez, Joseri galdetu eta hark: «Ba! pixka bat yakinen du» erran zuen.

Seguró ere bái, segúro, kutsúa bai. Berák bai, berá arrónt… Elizóndo aldékoa, e? Elizóndo aldékoa da béti e, béra.

- Bai baina emaztea…

Bai, seguró… dénboráki bei, ta orái, kursátu duén eo… Jóba! senàrraikín? senárra alménos, ezkóndu zelaík arrónt euskéldun… ìte me(n) zé!

- Eta hor dira beti ere?

Bái-bai-bai, or, ór bítzi dire, zeàtik… José ori bezála? daó óri're, etxé ortan, Sorogáñen? méndien kuidátzen ta ála. Ta… geró, bo! ór… segitzéute, uné're[28]… atziénden kóntu ematén du: zé azienda dén, núngoak dirén eta

[28] 'Unai ere' bide da hori.

óla. Ta bitértio bérak baitú, ze? iguàl baitú… berróita-, berrògeit'amár edo berrògeit'íru béi eta… biór-kuadrill'et é… t'ála bizi dé!

- Ardi-saldoak ere bai?

Bait'ére, ta áuntzek eré.

- Ahuntzik ere badabil hor, e?

Bai, bai, báitu; ezpadú kéndu berrí? báitu, e?

- Erraten dute ahuntza ez dela on hainbat lekutarako, ez?

Nik zér dakit! arágie, antxúmeak erràten baitúgu, gen, axúrie gar-, àrdi bezála, bàña antxúmea? pues, góxoago da, eztú ainbértze urin.

Uretako errota (1987)

- Garia eta, nora eramaten zenuten ehotzera? Uretako errotara?

Bai, bai; ta… akábatzen deláik eré gárie? arára juaten giné eskatzéra, iríne. Ainbèste múltxo emán dugu, bérak iotzen tzuén, ta bérdin sàltzen tzítzu.

- Zenbat herritatik joaten zineten hara?

Bo! zénbat? ballé guzitík, úngi. Geñeá, ballé're… guzítik, ètor giñúzte[29].

- Eta ballean bertze errotarik ez zen?

Ez! bueno, Olondrítzen, Olondrítzen baña… gútti iten tzen án.

- Orduan Errotik eta Lintzoaindik eta, Uretakora zetozen?

Bái-bai-bai; Errótik eta Olondríz te, Eznóstik eta Aintxuétik eta Ardáiztik eta, Loizútik eta Urníza ta Gurbízar ta oék, ta Zilbetítik eré… bai.

- Beti ere bide hertsietarik, mandoz eta…

Ori bái-bai-bai-bai; màndoekín da astòakín dä…

- Zenbat denbora hemendik hara? hamar minutu edo?

Lénago joaten tzará!... amár minuturá? áise joaten tzará.

- Oroitzen zara errota nolakoa zen?

Buf! nólakoá, pues zeá, kanále bát ini taó? pres át? etxèra sartzeán? ta geró árrie zutén, iòtzekó.

- Eta pikorra non botatzen zen? eta…

A! ba! ori're, ezpére? orí ez tzué, botàtzen tzutén, pues, bákizu, kajòn bat bezalá? arráutzen tzutén bí zakuék? granó? garíe edo oloá? tze… ze emàten tzinué? ta geró? pues, máten tzekoté… palànkatík? tirátu... bueltáka.

- Errotariak, zer kobratzen zuen?

Láka erràten tzúte kèntzen tzuéla, erréguindéko? pues almúte bat; amaséi almúte báitu erréguek… àitu zu orí? esàn dizút?

- Bai, kajon bat, ezta?

Bai, amaséi… pues bát, errèguindéko bat. Edòzein tzué, gèlditzen tzuelá? beretáko.

- Horri erraten zitzaion 'laka', ezta?

Bai, láka, bai.

- Hura da kobratzen zuena eho-lana egiteagatik…

Bai, óoori bera.

- Eta nola erraten zitzaion berari, eiherazaina edo? 'molinero' nola erraten da?

[29] Gine(n)'en hikako alokutiboa dugu hau. Berriemaileak, Yrizarrentzat galdekatu genuenean, *ginduzte* eman zigun.

Euskéraz? errotazáia, emén errotazáia; etsáin e Erróta dèitzen ginué betí…

- Zenbat kajon-klase ziren?

A! án ez!... orí, errèguindekó? pues, egòten tzén? pues, kajóna; geró… erreguék? ogèite bí kilo.

- Erreguak…

Bai, bañá… amaséi almúte[30], négúrrie. Au dá, zé errain dizut? pues áu da errégue? pues, almúte itzèin tzé? pues, óla.

- Eta zein bertze kajon zen? erreguerdia ez zen?

Errèguerdíe eré? bai, errégue ta errèguerdí? ta… zer? kuartála, e?

- Zenbat kilo erreguerdiek eta kuartalak?

Errèguérdiek? pues amáika kílo, ta kuartálak itzèin tzuté? pues, bóz kilo ta érdi, èo… séi kuarto gúti.

- Hori zen txikiena?

Ez; almútea, láka kéntzen tzutena; déna, amásei; errèguek dú amaséi.

- Eta almuteak zenbat kilo?

E! almutéak? pues, kilu bét et'erdí… ór nunbáit; eztá ere, eztá allegatzén, kìlo bat t'erdí.

- Horietako bati bertze zenbait lekutan erraten dakote 'garaitzu', ezta?

- Ba! garaitzúe, garáitzue dá pues… kuártala; bañá garáitzue zé? óla… mienbrékin, da bèrtze oiék? pues, betí olékin ibili in zíre: erregué, erreguérdie, kuartála, almútea...

- Oholekin?

Olékin bäi, tablá, tabléki. Bàña… egòten tzen orí? pues, òri dá… óri, mienbrékin inik.

- Nola (erraten) zaio 'mimbre'ari?

Mienbré? emén… emén erdaráz, 'tapaculo' erràten degú (sic), ta… órtaik. Mienbréa dá… zúmëa, zúmea, edo errámoa eré, bàña ori dé… tzíztedune dá, tapakúlo erráten dugúne.

- Nola? tziztedune?

Erdará, erdaráz tapakúloa; da… lár bat; aldé denák, déna tzintzé…-kin, tzintzékin déna. Ta… azàltzen dú lore bát eta geró formàtzen dá… ólako… lén yaten tzén ori; orí? onduík? óri… górri-gorríe paratzén da. Berdéan ez, bérde-bérdea, bàña geró, béin onduz geróz? gorrí-gorri-górrie, ta barnèan dú, diamánt ttar batzuk.

- Eta horiek bota egiten dira?

Kláro!

- Non harrapatzen zenituzten lahar horiek?

Óiek? ba! pues, ésietán.

- Eta erreka ondoan eta?

Bait'ére, bai, bái-bai.

[30] Julián Rubio Lópezen *GN*-n, *Unidades de capacidad para áridos* epigrafepean, zera dakusagu: *Robo, 28,13 litros*, alde batetik, eta *Robo de trigo, 22 kilogramos*, bestetik. Azken honen haritik, erreguerdiak 11 kilo lituzke, kuartalak 5,50 eta almuteak, zeina kuartalaren laurdena den, 1,375.

URETA
Santiago Agorreta Garde

Hontaz eta hartaz (1984)

- Eultzia ez da jada egiten hemen…

Ez, orái já ere.

- Orai Nafarroa guztian ez da egiten lehengo gisan…

Ez, ez... ez; eztákit, iguàl nonbáitt? iguàl izéin de… zerbáit ultzìtzeunténa iguál, nunbáitt, eztákit nun.

- Ez dut uste, dena makina berriekin eta…

Bai… bai, bai.

- Aditu dut Burgos aldean edo, zerbait egiten ote duten…

Bai, izén daiké, izén daiké.

- Inguruko herrietan arreba batzuk omen dituzu…

Ta, kláro! geróo… Irúñen eré báut bertze arrèba bát.

- Bai, guti gorabehera, adin berekoa, ezta?

Bai, gaztéago, gázteao bái; bèño bíde diré ní beño… zárrao, Esnòsköá? ta Mezkíritzen daóna. Geró? ní néiz… irúgärrena.

- Baina Esnozkoak ez du jakinen lehen aipatu forma horiek[31] zuk bezala, e?

Bái-bai; klaró! án eztúte euskéraik íten batré!...

- Ez, ez dute egiten, ez.

Ez, ez, Esnótxen éz, Esnotxén… eztakít izéin den nórbait. Bueno, nìre arrébak bádaki euskéra, ez, atzéndu etzáio iñen áise beña… eztá bertzéik.

- Eta hor, Mezkiritzen, ezagutzen dut kuxetak egiten dituen gizon hori, Marcos Saragueta. Horrek ongi daki euskara, ez?

Orrék? bai, bai.

- Aski dut berarengana joatea? iruditzen zaizu?

A! bái-bai, bai.

- Edo hobe izanen da beste norbaitengana?

Ba! éz-ez. Orí… orrén adíntsu o… badíre zénbait, o iguál orí biño gaztéxagó; orí izéin da… zarrénétaik euskéraz dakiéna… bái-bai.

- Behar bada horrek jakinen ditu forma horiek…

Bai, bai, izén deiké, bái-bai.

Lur lantzen, ereintza dela-eta (1989)

Zé in bear dén? lurrá konpondú leník, àu tzeó… iník brabánaekin, ta geró berríz? pastú… rotábatória deitzen dúu, orí… lenáo etzé orrén izéna euskeráz ta…

- Rota-…?

Rotábatória; ròtabatór… orí, orrék? bértze izen bat biàr zué euskéraz, bañá, orrék, lén ez báitze, ta… errámienta oétaik; orái, ta… geró, orái, altzúrrekín ziletú? ta, bueno, bòta diót minerál puxkat eré, ta lén ongárri ere bòta ginekó[32], ta… làndu óndöan? ongàrrie botá? ta, barratú? ta,

[31] Lehenxeago mintzagai izaniko adizkera batzuk, alegia.

[32] Hona, ia-ia jarraian, bere barnean *-io-* zein *-eko-* (orainaldian *-ako-* genuke) darakusten adizkiak, lagun batek berak emanak.

nastén da… orrekín ta konpòntzeán? ta orái, zilétu? ta bóta patáta? ta… tapátu.

- Hori da guztia?

Orí da, bai.

- Eta zenbat denbora behar du hazitzeko eta?

A! pues, sortzéa iguál… eztákit, ilebéte bat urbíl, bai, bai, ilebéte bát nolánai, pastíko du, bai. Geró? geró bear dá xorrátu, lúrre bíldu pixkét? ta atrátzen bádu… belárra edo zerbáit? kendú…

- Nola, eskuz?

Orí? bai, emén éskus. Orí, éz atrátzeko orái botàtzen dioté… eztákit nola errán, erbizída ero, ta… orduén? orái makínekín erèkitzeúnten… tokiétan? gelditzén da lúrre bilduík? ta uré ya eztá ukítzen patatá atrá e ártio. Botàtzen tzaëó? éz atrátzeko belarrá? ta geró, éz eritzéko… patàta ére, botàtzen tzaëó zerbáit? ta yá, ba! Orái, badíre… gàuze gúziek e, lanían aitzéko… al bézin gúti, o itéko, gizòn baték lan áundie o ánitz o eztákit nola errán. Aláxe(n).

- Eta hau, alor hau duzue patatatako…

Bái-bai, au; bueno, ez, badúu… bértze puskét ere erekiík, beña áu… emén, etxéra urbíl? pues…

- Eta hau etxerako da edo gehiagotarako ere bai?

Ez-éz, ta áu étxerakó, bai, ta áu… biar dúu urté guzién… bai. Ta emén, iguál atrák- daiké… etxéko beño gexó, beña gúti.

Basurdeak (1989)

- Basurdeak agertzen dira inguru hauetan?

Basúrdëak? bai, ibíltzen díre emén úrbil, eta… emén, onára iguál eztíre torríko beña, emén urbíl balìn bediré erekiík? orái paràtzen tzaioté… alànbreá? ta…

- Bai? paratzen duzue?

Emén parátui taon bezála, azièndendáko?... basùrdendáko iguál.

- Paratu behar duzue, ezta?

Bai, bai, paratiár da, ezpéren… idúri dú… gúti diréla? bèña… nóizepénka tórtzen dá bakàrron bát? ta, usètzen badá, geró, tòrtzen dá…

- Fite, maiz edo…

Bai, bai, klaró, eunóro ez bèña bí egúnteík edo, ta itén du yanaldí? ta, ondátu pàtatérrie.

- Eta ez zarete ibiltzen ehizean?

Eizíen? orái eztá libré iltzén, orái… mìña geró? bai. Nik, afizióne pixkét baut èskopetaikín biña, bìar dá… askí e… ìbiltzekó, oén gibeletík eta, galtzén da dènbora aundí? ta…

- Bai, eta nekosoa ta…

Bai, jája! ta… protxú gutí atra.

- Inoiz harrapatu duzu basurderen bat edo?

Bái-bai, béin o bí aldiz ìl izen dút, óla, eméngo erríkoekín juán ta…

- Haragia jateko ona da, ez?

Bai, bai, yatéko óna da bái, bai.

- Azken urteetan ugaldu dira? bideak pixka bat itxi eta…

Bái ta, len, zenbáit urtéz e… ìzen dá? etzírela bèña orái, orái bádire, ta… eztákit zergatík? e, ìzen diré… azkéneko urté ebetán? fránko; álaxen

San Migel ermita (1989)

- Eta ermita hori?

Orí? San Migél… San Migél ermíta da.

- Egiten da festa?

Bai, bai, San Migél eunián!

- Zer egiten da?

Zer? èunëán? denbór óna balìn bedagó? màten dúte méza or, bai; bertzéik ez.

- Herria erromerian joaten da? gurutzea eramaten da? edo…

Ez! éz-ez-ez-ez, bátre, ez, bátre; méza eìten dá? ta, eztá (…) déus e; bakár-bakarrik.

- Zenbatera dago? hogei bat minutu edo?

A! errítik? bai, ogèi minúto? ez, gútiao; amár minutután joáin deé erritík, orrára bedére, nik usté…

- Eta hemendik, gehixeago?

Eméndík bai, bìña bueno! eméndik eré joan dáike, emèndik txuxén? ta…

- Herritik pasa gabe, Mezkiriztik pasa gabe…

Bai, emendík eta… sagóie oiétan barná? joàten dá ala.

GERENDIAIN

Catalina Linzoain Zilbeti

Esaldi bat euskaraz eta bi erdaraz (1984)

«Zilbéti, érri óna dá baña éz béti», que es buen pueblo pero no siempre. Quiere, entiendo yo que dice así.

«Sopa en vino no emborracha, pero alegra la muchacha».

Que había unas canciones, no sé cómo son… «Por San Juan comerás leche y por San Pedro requesón».

Sanjuanetako suaren inguruko leloa (1984)

«Sàrna fuéra, ezkábia kánpora, ártoa Fránziara, gária Espáñara» decían, en vasco. Pues, el tri-, el maíz a Francia, el trigo a España, quiere decir eso. Ezkábia? alguna enfermedad o será, ezkábia kanporá?... ezkábia kánpora, ártoa Franziará? gária Espáñara.

«Markesaren alaba» kantu txit ezagunaren oihartzunak (1984)

Sebero Iturrino mutrikuarraren 'Markesaren alaba' kantuaren oihartzunak honaino zabaldu zirela jakiteko balio digu Andere Catalinak, 1984an, 97 urtetan egonik eta euskaraz mintzatzeko ia-ia gai ez zela, kantatu zizkigun estrofa edo estrofaerdi hauek.

Harritzekoa da, urte asko eta asko euskaraz mintzatu gabe egon ondoren, zeinen ongi kontserbatu zituen, xehetasun batzuk gorabehera.

Kantatzen hasita, aurrenik 3. bertsoaren lehen erdia kantatu zuen; jarraian, 11. bertso osoa; ondoren, 13.a, hau ere osorik; eta bukatzeko, 14.a, osorik hau ere:

3) Markes baten alaba / interesatua / marineroarekin / enamoratua.

11) Amaren malizia / korreora juan ta / Antonio egiltzela (= hil zela) / in zion karta / Juanitaren tristura / maite izan eta / engañatu du beste / gezur bat esanda.

13) Ama ez neri esan, (zuzenduz:) erran / orrelakorikan / ez baitut bestengana / amoriorikan / ezin alegra leike / nere barrenika(n) / komenienzia ona / egonageatikan[33].

14) Utzi alde batera / orrelako lana / ezpaitut nik ikusten / zu bezala dena / nai baduzu zu artu / onra eta fama / giatuko zaituzte / aitak eta ama.

Inauterietan (1984)

Jarraiko lerroetan idatzi duguna 1984-12-26an, Andere Catalinaren ahotik entzun eta zuzenean orritxo batean idatzi genuen, haren 97. urtemugaren bezperan[34].

Ta garái, ta garái / Txìngar píxkat éz man nái / San Gregorio está en la puerta / Esperando a la respuesta / Con un papelito blanco / Que le reluce todo el campo / Somos pobres estudiantes / Que venimos de estudiar / En una mano cinco dedos / En la otra tres y dos / Una limosnica por amor de Dios.

… … … / Txìngar píxkat éz man nái (no querer dar un poco tocino) / Ta garái, ta garái / Txìngar píxkat éz man nái / Si no nos dan las gallinitas pagarán (¡robarían gallinas si no!…) / San Gregorio está en la puerta / Esperando a la respuesta…

Hitz hauek ere bildu genizkion: artxitu (ahuecar la lana para hilar), burtxina, kuxéta, supaztér, larátz, kanibéta.

Bautista Azparren Urrutia

Luzaiden ikasi kantua, errezitatua (1986)

Y cantaban en el frontón, en el Labrit, alguna vez. Unos dicen 'Katarín ttùku-ttúku' y otros dicen 'Katalín ttìpi-ttípi'. ¿No ha oído usted cantar esa canción?

- No.

Katalín txìpi-típi
Katarín ariná
Zéntana[35] sàltzen dúzu
Dózena xárdiña
Amárna marabédi
Prézio yakiná
Ta ezpáitire sáldu
Zoázi altzína.

[33] Hau kantatu ondoren zera gaineratu zuen: *Que no se alegraba… aunque estaría en buena conveniencia.*

[34] Leloaren lehen zatiak Arrietako Saturnino Etxamendi artzibartarrak behin emanikoa oroitarazten digu: *Larái ta larái, tzingár pixk'át eztírate man nái* (*FLV*, 113). Bigarrena, San Gregorio aipatuz hasten dena, Artzibar bereko Azparren herrixkan errezitatu zigun Agueda Bizkai zenak (*ZU* III, 101).

[35] 'Zenbana' da hori, noski.

Jejé! esa misma canción le aprendió a ése. Cantaban en Valcarlos; no sé si pronuncio bien o mal…

- A ver, repita otra vez, pero ¿sabe con música?

Sí, solía cantar en… en la taberna, en Valcarlos.

- A ver, cántelo usted… (damurik, errezitaturik eman zuen berriro)

Txatarín ttùku-ttúku… unos decían 'Katarín ttùku-ttúku' y otros dicen 'Katarín ttìpi-ttípi', sí, txatarín ariná, zénbana sàltzen dúzu, dózena txardiña. Amàrna marabédi, prézio yakiná, ta ezpáitire saldú? zoazí altzina.

Digresio ttiki bat eginez, honen antzeko zerbait duela 40 urte inguru, Izabara ezkondu León Cebrián uztarroztarrak idatziz bidali zigula esatea dagokigu. Leonek, testutxoa eman aurretik, zera idatzi zuen:

> Recuerdo de una canción que aprendí en el Pirineo francés, en Mauleón, que es así:
>
> Catalin Catalin, Catalina Lina, zomana salduzu, docena sardina. Oguey ta laur sos, da precio eguina, nay baduzo baduzo (sic), bestela zuza.[36]

Inauterietako leloa (1986)

… txárrak il duté, tzíngar píxkat man diguté! (barrez). Cantábamos… en las puertas, nos juntábamos, eso los viejos nos enseñaban, sí, íbamos por las puertas con el… así como ahora, pasas por las puertas y todos lo hacen? pues recogen dinero, hacen la merienda de carnaval. Entonces, los críos? pues llevábamos un palo, un kerrén o así, un asador y nos daban trozos de tocino y longanizas y… huevos y dinero también. Luego hacían una merienda todos juntos. Y después en las puertas, en vasco… bueno, en castellano también pero (…): Iñúte, koxkóte, tzérri txár bat íl duté, tzíngar púxkat emán diguté!

ESNOTZ

Daniela Esain Olondriz

Inauteriaz (1987)

- Nola erran duzu ibiltzen zirela, etxez etxe?

Bai, bai.

- Zer egiten zuten?

Ya… ya recogían, huevos, longanizas…

- Ea erraten duzun euskaraz…

No, ya digo que se entorpece, se ha olvidaö todo, sí.

- Erran duzu, inauterietan, jendea ateratzen zela etxez etxe, ezta? eta zer egiten zuten?

Geró? geró iten tzutén, beéndua o... aféria, déna; eso hacían.

- Biltzen zuten zerbait?

Baí-bai, arrótze! txistórrak, ta… díruä; ta orí.

- Eta horretarako zer eramaten zuten? saskia, gerrena edo zer?

Bai, gerréna, xáskia, alfórja... déna! déna! Lenáo, érri guzietán ìten tzuté, klaró! ta… geró? ya dejaron eso después, eta aurtén? igín… igitén?…

[36] Azkueren *Euskalerriaren Yakintza*-n ere (4. Lib.), antzeko bertsioa dugu: *Kattalin ttitun ttarun, Kattalin arinä ¿zenbana saltzen duzu dozena sardinä? – Amalau marabedi, prezio yakinä – Nik eztut bear eta yarrai zan aitzinä* (AN).

- Ibili dira?
Bai-bái, errí gúzietan.
- Zerbait beztitzen? nola beztitzen ziren?
Nóla qué?... be!... disfráz gúti! baña… zerbáit i(b)íltzen tzuten eré.
- Nola erraten zitzaion? mozorroa edo…?
Bai, bai; disfrazar, se hacían disfrazar algo, sí.
- Eta merendua, non egiten zuten?
Ostátuan, ostátuan iten tzuté, bai.

Sanjuanetan (1987)

- Eta San Juan bezperan, su egiten zen?
Lenáo bai, lenáo itén tze emen; atárien, ètxe gúzietan, ta… itén tzuten ogéra, eta geró, xáltöa. Eztakít... 'sárna fuèra'; aquellos ya decían.
- Hori erraten zuten?
Bai, bai. Aurrizpéin (sic) ta, Aurítzen eta, o! yardúkitzeunte bái, ahí ya conservan el vasco.
- Hemen baino gehiago bai?
Bái-bai-bai, ta aníz bai, conservan, ya, zérbait… Baña émen ez!

Talo eta gaztainez (1987)[37]

Geró... emén? bìltzen tzén ta... ártöa también, ártöa. Geró, urá... úra eré er(r)èmaten tzén... èrrotará, ta geró iten tzirén, tálöak, ta èsniékin, urá... yatekó agústoa, górki oná, ta olá... alá iten tzíren, gáuzak.
- Bai, bai, ongi kontatu duzu...
Bai-bái, alá iten tzüte. Géro, emén biltzen tzé también... gaztáñak, ta tanboléan, erréak, érre, eta geró? hala! famìlia guziák, arratsëán?... a comer castañas. Eta geró? èsniá táloaikin, bei.
- Ona zen?
O! bái-bai, ya lo creo... ya lo creo.
- Etxe guztietan izaten ziren behiak?
Bái-bai-bái, etxé guzietán, bai. Ordúen? ainbèrtze beák ez, gútti! baña, bueno, etxé guzitán bai; gèo beórrak, beórrak ete también, baiétz... ardíak, ere bái, áuntzak, también... pues óri, óri. Baña, a!... es una pena, se ha olvidaö todo.

Lorenzo Bizkai Erro

San Martin eguna (1988)

- San Juan bezperan, zer egiten zen zu mutiko ttarra zinela?
San Juán ez, emén… San Juán… San Martín duú gu(k); San Juán ez, San Martín[38].
- Eta egun horretan, zer egiten da?
Antes? e… fié-, féstak! pero orái ez; oái? orái San Migél egúnean.

[37] Testu hau, duela denbora gutxi, gure *ZU*-an agertu bazen ere, hona dakargu oraingoan ere, herri honetan ditugun laginen urritasunak zertxobait ezkutatzeko.
[38] Geroxeago, baina, 'San Juan bezpera'z mintzatu zen.

- Ze festa egiten zen?

Pues… yàn ta edán? ta, pixkát… dántzan. Peró, betí… euriá? o èlurrá, ai zé, betí… ta, ee! orái? pero orái ez, ez; orái San Martín, denbóra gaixtoa zé, elúrra, elúrraaa!

Herriko balizko euskaldunen inguruan (1988)

Y tú también ya sabes en castellano ¿verdad?

- Bai, baina jakin nahi dut hemengo euskara nolakoa den, Erroibar guztian ez baita igual, Aurizberrin eta hemen ez da berdin egiten...

A!... éz-ez-ez-ez-ez.

- Aurizberrin egiten dute, pixkat, Aezkoan bezala edo…

Aézkoan bezála, eee! bai, bai, bai.

- Hemen ez…

Éz-ez-ez-ez; ézta ebéko, emén eztá yardúki já ere! já ere (…); eméngo gàztia ebék ez, eta… píxkat ník, eré to-… bear báda irú o láu, gi-, nére…

- Adinekoak?

Adinékoak? píxkat! entendítzen pix-, yardúki? eztá ere.

- Eta Iruñean edo Burlatan edo…

Ez-ez-ez-ez… nada, já ere, já ere, já ere.

- Hemendik hara joanik, bakarren bat izanen da…

Sí, bai, bai…

- Bai? bada baten bat ongi dakiena?

¡Hombre! bai, béti, béti.

- Inor ezagutzen duzu?

Or, badá, errí ortan, Lintzoáiña, Linzoáin; ór badakité bai, Linzoáin bai, Linzoáin, ta… Aurizpérrian ere bái, badákite, pero emén ez; já ere! já ere!

- Baina Esnotz honetako inor ez ote izanen Billaban, Burlatan, Uharten edo?

Éz-ez-ez-ez.

- Inor ere ez?

A! bai, orí bai, bai, ta ùxkalduná? ez. Éz-ez-ez-ez! já ere, emén… já ere!

Urteberriz festarik ez (1988)

- Eta hemen, Urteberriz, ateratzen zineten kantari?

Béti! pixkát bai! píxkat pero gútti ere! gútti!

- Ze egiten zenuten hemen?

Orduán? pues ordián, orduán etzén, ètzen lána! lána! lána! lánëan! béti lánëan! eee! dìbertitzén? já ere, já ere. Iéndétan? pixkát bai, partída bat o bída, muslári, mus… músra (sic). Béste gañerákoan? jai, jai[39].

- Baina ateratzen zineten kantari? edo…

Ez-ez-ez-ez, já ere, já ere… emén já ere, jaë. Fiésta San Martìn eúnëan? píxkat; gelditzén dan gañerákoan? já ere.

Sanjuanetan (1988)

- Eta San Juan bezperan ez ziren egiten suak etxe atarietan?

¡Hombre! bai, ordúan bai, Bai, bai, bai.

[39] Lehen erabili 'ja ere' bera, bokalarteko *r*-a erori ostean diptongatua, antza.

- Nola egiten zenuten?

O! súba pixkát eité? ten… xaltát-, xa-… bri-, brincando, e?

- Brinkatuz?

Bai, «Sarnán fuera! sárna Gipúzkuara, gàri ta ártöak Espáñara» (barrez).

- Nola, zer erraten zen?

«Sarnán fuera, gàri ta ártöak? Espáñara; sarnán fuera, zórriak Gipúzkoara –zórria que es el piejo ¿verdad?– zórriak Gipúzkoara, gári t'ártua? Espáñara».

- Bai? Gipuzkoakoak gaixtoak orduan…

Kláro! (barrez)… klaró! «zorríak Gipúzkoara! gàri t'artóa? Espáñara» (barrez).

- Hori erraten zen, e?

Bai, bai, bai… ordúan gáztiak! gáztiak!... Jentiá, xúa äitten dié, errián? emén, xu bát? errián, goití? bértze at, bai. Dénak eztugú, dénák ez, elkárrekín ez, bíde, bí kuadrilla.

- Eta su egiteko zer egin behar zen? egurra bildu?

Ba! te… Rámon, Eyéndean Rámo? kartzé-, karazí? ba!... prozesioàn itéko? ramos, ta sobrántëak? orduán, gorátu, ta aékin? xú in, bai. Yo, ya, si… si estaría ya mucho contigo ya aprendería el vasco (barrez).

Francisca Zilbeti Ardaiz

Ondoko lerroetara andere honi bilduriko esaldi batzuk ekarri ditugu. Arrietan sortu Saturnino Etxamendi artzibartarraren emaztea zen honek, senarra galdekatu genuen 1981-92 urteen arteko epean, esku hartu zuen tarteka, inoiz iruzkin bat edo beste eginez.

Esnozko herriko gure datuak urri xamarrak izanik, esaldiotatik lagin-sortatxo bat aukeratu eta hona ekartzea otu zaigu, nondik edo handik zerbait jakingarri atera daitekeelakoan. Hona, beraz, haren esku hartzearen zenbait lekukotasun[40]:

Atsàlde oník! otzá, otzá... frío / Górki... e! géro eré joain gará / Bái baña orái? gutí, gàsoliná... kário, kário dagó ta, eztáike / Aurízpérriik... o Aurítzen; bai, errirá juatén tze / Beldúrra ematen dira, abión ta... déna, juatéko.

Ni banáe mezará; sàrri ártio! / Eztakí, ez, juaitén?

(Orreagako prozesioan egon ote diren): Bai, eón gina, gú ere, bàña… Aézkoaiki(n).

(Franciscak senarrari): Pilótara étzara juán, guré sémeaikí? / Tòrri dá nekátuik, sémea; orái siéstara juán da / Bai! ya lo creo! zú paño obéki!... útzazu, útzazu!

(Inurriak txoriari): Txóri papogórri fanfarróna. (Eta txoriak): Txinúrri lépaméru, figúra gáixtoa... Sí, porque tienen el cuello delgadíiico, las hormigas.

(Zenbat familia Esnotzen): Zórtzi; ór dié, denák. Án dao, gèldi-géldia dágo; bàña... orái? yénde gutti dá.

(Zenbat lagun): Zenbát? amár o améka; étxe bateán? gizón bat; bertzoán? gitzón bat; bertzoán? áma-seme; bertzoán? eztákit, alá dire; gúti, família gúti.

(Urteak noiz bete): Amaséi eguneán, nik... lauètanogéi. Kási... edád baten nagó. Óngi gará, gustóra gaudé, semèaikí(n).

(Uretako lagunaz): Ángo nagusiá? bai... labètanogéi ta... bát edo bída. Eujénio, bai, Uretákoa / Aquel vasco también bonito es, el de Ureta; me gusta mucho a mí aquél, muy limpio, sí.

[40] Hauetako batzuk gure «Artzibarko aldaera…» izenburuko saioan agertu ziren (*FLV* 113).

(Euskara dakitenak zein adinetan): A! níor, níor eztakí... dénak gázte diré ta, orái eztakité já ere. (Zaharren artean agian) - Ba! orái eztiré zarrák, gú giná zarrák ta ètorkí, tòrri gärá, éje!... onára; orái dénak gázte! (Eta Olondritzen eta holakoetan?) - Éztakít, éztakit án, an eré… eztíre famìliak eré, bída edo eztákit zér den. (Herri txiki batzuk badira hor) - Esnótz, Aintzióa, Oróndriz, Ardáiz, Érro, Zilbéti, Lintzoáin, Bixkarrét y Meskíritz... Valle de Erro. (Mezkiritz eta Lintzoainen badira batzuk) - Esos, los mayores ya hablarán, sí, unos con otros, pero los chiquitos no hablan nada.

Iráute, iráutre... iáutre decían, sí. Ya oía eso, iáute, sí / Edérki bestítu, àstoá... / Orí? kerrénak, paràtzen diré... kerrén ¿ya sabe lo que es? un asador, kerrén le decían allí / Ta geró, denék? denék... ateátzen, denék bateán? atrátzen, esto... karrìkará? / Ez, etzíre enfadátzen, ez.

Àur txíkiak, badákizu ze erràten dirá? ondrátuik: «Onará, e zétara tórri zará onará?» - Y... «Onára? orái… egótéra; enauzú?» - Y... «Bai», me ha dicho.

Yo no puedo cantar porque tengo la garganta cerrada, pero algunos versos ya sé: Amáren malizía, korréorá juan tá, António il tzéla, ein zún kartá[41].

(Beste kantu ezagun baten hondarra ere eman zuen): Yósten ére badákité baña, árdoa edáten obéki.

LINTZOAIN

Segundo Torrea Usoz

Ardien eritasunez eta bizkarroiez (1986)

Trapá[42], badakizú zer dén?

- Ez.

Orí, sofóko oi, sofóko oí dutén ardíek trapáikin… oék eztié sendátzen. Ill è bear dá? nai tzúne emàten al dakozúte? irèuneunté… urté bat igual, bèña azkènekóz iltzén dire; geró ta fláköago, gerò ta flakoó? ta ségitu íteunte. Orí de nik kasí nuen… gáixtoa: trápa. Geró? patéra, máingu; màingu eré egóten díre zenbáit.

- 'Cojera', ezta?

Kojéra, ta… sèndatzen díre.

- Nola?

Bo! ázido puñetèroekí te men zutén.

- Nola, nola?

Óla… bóta ortáik, likìdo ortaík? ta…

- Zein likidotarik?

Kàgoendiéz! oláko… katxárro atzuk díre, botélla txár batzuk. Ta, fenikól ortaík eta botàtzen dakoúte, ta azazkálak… móztu, eta odóla atrázi o, ta onná delá odóla atrátzea ta óla, óla sendàtzen díre. Bèña… denbòra anítz eoten diré máingu, bai.

- Eroturik ere paratzen dira zenbait aldiz…

Bai, bakár zénbait, bakár zénbait, gútti eta orí…

- Nola da eritasun hori, edo zertatik heldu da?

Eztákigú, zertaík tortzen dién… ník ez.

[41] Zatitxo hau lehen aipatu 'Markesaren alaba' izeneko kantutik aterata dago, eta hurrengo lerrokoa, berriz, 'Donostiyako iru damatxo' delakotik, oso ezagunak biak.

[42] O. Ibarraren *EEH*-n zera dakusagu: trapa: iz. ardien gaitza, arnasestua <Enfermedad de las ovejas que se manifiesta mediante el jadeo>. *Baitugu ardi batzuk trapaikin* (Mez).

- Buruan ez zaie ateratzen xomorrorik edo?
Géro, iltzén tuzúleik? adárren… kófa órtan, izetéunte árrak, ár bat, ár zenbait.
- Adarren kofan?
Kófan, bai; muñetáik adàrretán bai.
- Kofari nola (erraten) zaio erdaraz?
Kópa… 'cueva', eta… en ese hueco.
- Eta hor zer ateratzen da?
Ár zenbait, algún gusano; órtxe berekó? bádu gusáno.
- Eta hiltzen direlarik, ikusten dira?
Bai.
- Eta bitartean hor, barruan egoten direnean, min egiten dute? kalte?
A! segúro! ortáik eròtzen dié… segúro.
- Harrok ze izena dute?
Árra, gusano! Ba! aquí pocas e… muy pocas, alguna que otra, se vuelve loca. Te geró, formàtzen tzaizkioté líkidoak.
- Gero, eile artean izaten dituzten…
Kapárrak.
- Horiek nola jaiotzen dira edo, nola egiten?
Kóño! illárreka oietán… illarréka bakízu zér den?
- Bai, 'brezo' ezta?
Oiétan eré tortzen díre, ilärréka… kláro! óetaik lòtzen zaizkió dui kébe! kapárr oék gárbi. Geró, txupétzen dakoté, le chupan la leche, o esto… la sangre, y… zéntzua.
- Nola erraten da 'chupar'?
Txupétu, odóla… txupétu odóla; olá bilten-ten diré kaparrák, eta geró, andítzen direláik? óla, azì egitén? eròrtzen díre… te íltzen diré.

Ardi-moxgoa, arrazak… eta bizkarroiez berriro (1986)

- Eta eskilatzen denean, maiz ateratzen dira?
Ordúen bai, bai, esquilando… con el frío se caen todos y si cae alguna borrasca se quedan gáizki.
- Esquilar, nola erraten da?
Móztu.
- Ardi-moxtea, ezta? edo ardi-moxgoa edo…
Bai, árdi-móxkoa.
- Zuk moztu duzu?
Bai, bai.
- Eta mozteko zer egin behar da? ia kontatzen duzun ongi…
Moztéko, guk, lotérezi duté láu zángoak, kórd'ateki, ta geró, purdì aldétik? gibèl aldétik? ordík asten dá, áitu nik. Ordìk así? ta, akabàtzen dá… lépöan.
- Zenbat denbora behar da ardi bati ellea (artilea) mozteko?
Ajájajá! según albídedeá; zenbaiték iten tuzté, bèrtze zenbaiték beño lenáo.
- Baina, guti gorabehera?
Aaa! en un cuarto de horea (sic).
- Ordu laurden bat?
Ez, ez! kuártöa, kuártoa, kuártoa[43]; ordú kuarto ateán? itén tzen.

[43] 'Laurden' hitza ez da ohikoa hainbat eta hainbat lekutan. Oroimenean dugu, erdarazko 'cuarto' hori dela eta, nola galdetu genion behin Uztarrozeko Fidela Bernati: *Nola erraten da 'la una menos cuarto'?* eta hark nola erantzun zuen: *Oren bakutxa menos kuarto.*

- Zerekin mozten da?

Arkuréxak… arkuréxékin; con tijeras… pero francesas. Ba! francesas y españolas, aquí hay muchas, es que los afiladores andan… arkrúxak.

- Eta 'afilador' nola erraten da?

Txo-, txórrozaleá. Tórtzen diré entziérro onata… Iruñétik.

- Zenbat kilo artile ematen du ardi on batek?

Íru… íru kiló t'éra eta ará.

- Noiz egiten da moxgoa?

Sanpédrótan, San Pédro ingúru ortan.

- Eta gero, artile horrekin zer egiten da?

Orí? sáldu iten dúu, eztágit, Bartzélónara o orráta emateunté.

- Eta hemen diren ardiak zer adi-klase dira?

Medátta[44]… látxa. Eméndik beittí diré marínek, blancas, txurí-béltzak. Eméngoak diré, óla, mazkárroak.

- Eta mazkarroak zer-nolakoak dira? latxak?

Látxak, emèndi goittí? látxak.

- Eta mazkarroa, zer da?

Mazkárroa? pues, béltza, èrdi béltza. (Andre bat:) Blanca y con… algo ya tiene negro; y las lachas son todo blancas.

- Eta ardi horiek, itakañak edo badituzte?

Itekáñe, bai.

- Nola ateratzen dira horiek?

Je! ande los cuernos; adárren ondoán atràtzen tzaizkioté óriek sórik, bakár zenbait, bèña guttí kustén da orai. E!... ói éztakít, illerréka… kapárre tzár oetaík bizítzen diré.

- Itakaña eta kaparra, gauza bera dira?

Bái-bai, gáuze bera dá; kapárr aék egìten deé itékaña.

- Non egiten zaizkie? zein lekutan?

Adárren óndoan.

- Leku bigunetan…

Bai, bai. Ta ór ez báiteke-ta arraskátu, pues ór, ór geldìtzen tzaizkióte, bèña… gorpútzean baliméute júnto (…), eta…

- Eta hori goxatzeko, zer ematen da? preparaturen bat edo?

Bai, ólako líkido oetaík botá? ta… botátzen ditugú.

- Eta azalaren artean ere beste xomorro batzuk egiten zaizkie, zuldarrak edo…

A! zuldárrak? bai, oètatík… bèña gútti ikusten dá orái, aspáldin ikúsi bét e.

- Horiek non egiten dira?

Bizkérrëan.

- Eta nolakoak dira?

Zöldárrak; pues, ár batzúk. Itén tzaizkioté bultó atzuk, ta búlto uré… ertsítzen baúzu? atrátzen dá… ár bat. E! séndatzen dire yá.

- Aise ateratzen dira; ez da medikamenturik eta…

Bái-bai! ematèn dakoté, medíkaméntue.

- Zerekin egiten da?

Medíkamentué? óla… líkido zerbáit, e? betérinarioák ematéunte. Orái badié bértze… orái eztúte itén.

[44] 'Oveja lacha' da hori, Erro herriko Jose Villanuevak, 1987an, *menatza* eman bazigun ere (*ZU* III, 87 orr.). Villanuevak zehaztasunak eman zituen: *eta menatzei (erdaraz) lachas.* Azken hitz hau, beraz, erdal hitza zen berarentzat.

Kare edo kisuaz zerbait (1986)

- Hemen egin izan da kare edo kisua?

In? in izén da; orái eztá iten, ez.

- Zuk egin duzu? edo badakizu nola egiten den?

Ník e… èztut ín beña, sugerríketan àitu néiz, ìten… ìten dunári.

- Kontatzen ahal duzu nola egiten den karea?

Bai! norbáitek dakí orái! sugérrie bóta, eín zílö at; tapàtu uré? ta ín atákak, ta léio at.

- Nola?

Léio at! eta leibàrzéi[45] bóta súgerrie! bóta… barnéra[46], ta, denboráikin? aék errétzen dielaík? errétzen diré… eta, kisú eitekó, arrí betzuk; botá? ta, arrí aék kiz?, kízu in értio? bóta sugérriek… ìten gintué. Geró? errètzen tzélaik, jíra ta.

- Baina nondik ateratzen zen? kea ateratzeko-eta hor bazen…

Atári artáik, leibártzai… esáten tze. Sugerríä… andìk sartú? te geró xé andigado[47], íten. Kéa sagár (sic) bat da.

- Eta zenbat denbora behar zuen?

Oi! iguál bíde-iru eún, súten eotén tze; be! gabáz t'eunez. Gabáz eré… berdín aittiar tzindué zu arrí botatzen; ùtzi-útzi arrí zér tráza, e?

- Zer egiten da, ikatza bezala edo?

Bai, iguál-iguala; ikétza… ikétza déna tapatzén da, bèña… orréi? léi bat ùzten tzekoté ola. Leió at ín? ta leoátik bóta eurre.

- Bota zer?

Egúrre, galdéra.

- Eta kisua, noiz geratzen zen eginik?

A los tres días; irú… íru eúnen burúko o olá. Orí? ta étzakít, noiz, eta geró útzi ozterá? ta geró atrátzén tzen.

- Eta sugarria nola edo zerekin botatzen zen?

Pse! éskuz! atáriatik sartúz.

- Ikatza egiteko, aldiz…

Beltzá? aék eztú… eúrrik! (zuzenduz): egúrre dú, eztú árriik, bèña kisúe itekó árrie bakárrik, egúrrik éztu.

- Ze harri klase da?

Arríe… emén báda, bai, zúrie; arrí zúri bet; ta ór… ór béiti.

Sanjuanetan (1986)

- Hemen zerbait egiten zen San Juan bezperan?

Bai, otákak bildú, mutìko gazték? gauétarako mutìko txarrék? orái're itéunte. Ta géro, óla, súe… sue ín? ta, yáuzkatu: «Sàrna fuéra!».

- Eta zer bertze erraten dute?

Be! zé erraten duté ba?

- 'Ezkabia' edo?

«Ezkàbia kanpóra eta… gránoa gure etxéra» o eztakít ze… aláko zerbait. Ai! éztakit, orí étzazula pará, èztakít… ník nóla iten dén ere.

- Eta urik ez zen biltzen?

Kéba!

[45] Hitz hau 'leiho + aurre + zain(tzailea)' batetik ote dator?
[46] 'Bardera' aditzen ustu dugu hor.
[47] Horrela aditzen uste dugu; 'sue andiago' ote da hori?

- Ez? hemen ez da izan iturriren bat sarna edo beste zerbait sendatzeko?
Errótik beittió, bai.
- Bai? non?
Or, eta Ardáitze bitártio, emén. Eta ordík juan bearreán, eméndik juàten bazáte… San Juán iturríe, badá or.
- Non? Gurbizar inguru horretan edo?
Bai, Gurbizárko… ónddo ortan.
- Haraino joaten zen jendea?
Len, leén bai, erràten diréte, ník eztut záutu, ez; bèña joàten bide zíre lenáo.
- Zertarako zen on ur hura?
Je! bixtèindäkó ta, onná bidéz edérki.

Herritarren goitizenik ez, baina bai zenbait jentilizio (1986)

- Inguru honetako herriek badute izengoitirik, moterik edo hola?
Ka! (…), erruárrak, lintzuaindárrak –áu de Lintzoáin–, gerindárrak –Bixkárret–, mezkiztárrak –Mezkítz–, aurizpérriak, aurìzperriárrak –Auzpérri–, t'olá. Ta Burguete? Aurítz.
- Auriztarrak edo?
Auriztárrak!

Elurte handiak ezagutua (1987)

- Elurteren bat ezagutu duzu?
Elúrre bái, elùrr aundíe bai. Elúrre óla… emén bereán, olá, àte goittí edo'ré bai, ezín átra etxétik eta.
- Eta herria isolaturik geratu? zenbat egunez?
O! iguál… zázpi eunéz, bíde oek ertsík eta… niór etzéla atratzén. Géro… Erróra dèitu t'ára joàten tzíre, abrékin, óla, mandoékin, zaldiéki…

Ogi egiten (1987)

Géro ordúen… ogíe iten tzé etxean; bádakizu zér den ori.
- Bai, badakit egiten zela, bai; zuk egin duzu edo ikusi duzu egiten?
Bai, zèrtan e gùre etxeán eíten tze, bai.
- Nola egiten zen? lehenengo, orea eta…
Bai, ba! artésa, artésa zé ola… ta amákin? artàn masatú.
- 'Artesa' erdal hitza da; euskaraz nola? 'oremahaia' edo?
Éztakit… artésa; erdáraz o euskáraz artésa da orí… bái-bai.
- Eta nola egiten zenuten?
Pues án orátu? eta geró… ogíe e paatú? arròztu kamietéki? ogí txar batzúk. Ta (…) labèra sartú? pàl'atzuekí? ta idúritzen tzekiúleik erréik tzeudelá? onáta… ejéje! íten tzíren.
- Eta labea prest egoteko, zerekin pizten zen?
Adarréki(n), adárra karrí bear tze. Egúrrek o, èzta sártzen.
- Ze egur-klase edo zen?
Bágöa.
- Labea garbitu behar zen lehendabizi?
A! bai, eskóa atekí; eskóa at… zurézko éskoa patzuekí? garbitú.
- Ogiak zenbat denbora behar zuen barruan?
Bo! órdu bete o olá, izéin tzue, sègun súe nola zeón edo…

- Eta aldi bakoitzean zenbat opil sartzen ziren?
Pues orí're oitábórtz, oitamár bat ìnen tziré.

Oihaneko piztiak (1987)

- Oihanean ibiltzen diren piztia gaizto horiek, zein dira?
Basúrdëak, basáuntzek. Basáuntze, bádakizú zer dén?
- Bai, 'ciervos', ez?
Sí, y gamos; de esos hay bastantes y hacen mucho daño.
- Baina horiek Kintoan ibiltzen dira, ez?
Ba! te yáö, mugènte béite Kintó oi're; áu mugente á Kintòaikí, ta tòrtzen diré ándik.
- Eta hemendik hurbil jaten dute?
Boj! sagoétan sagòetaík, ta… sagóëa bákizu zér den?
- Ez.
Péntzia.
- A! saroia, saroia, bai.
Geró, patátak, ór erèkitzen duté góitti, zen. Artú au, òndo áu, eta oláxe menèazi zuté, atrá, gamúek, eta geró, geró zabá-, múñue yán? ta, lastóa útzi.
- Nola ateratzen dute?
Aguáikin; artú lástöa? ta tirétzen tzuté góitti, te geró, begíratu olá? ta geró? patatá yan.
- Hori gamoak. Euskaraz nola da?
Gamo… ciervo, gamo…
- Bai, baina euskaraz, 'ciervo' eta 'gamo'?
Basáuntze. Gamó? gámoa… ta jabalíne? basúrdia. Emén gazté oék, dénak, ya emígratzatzén dire, biñá? gamó oek ez túzte utzi néi, iltzéra; dañúa itéunte beñá, amigo, la Diputación manda más que nosotros.
- Eta beste piztia batzuk, ttarragoak-eta?
Azérie… ta tajúdoa.
- Honek badu bertze izena: azko….
Azkóna.
- Edo azkonar edo…
Azkóna, azkóna; konéjöa, érbie, 'liebre', 'perdiz' ez, epérra; yagoík eztaít.
- Eta marta eta fuina eta…
Oétaik gútti de.
- Zeozer bai?
Bakár zenbáitt e bèña… arràs guttí, garbítzen baitié dena!
- Eta erreketako batzuk, 'nutrias' edo, hemen ez da?
Ézta, emén ézta oietaík, ézta.
- Eta beste batzuk ttipi-ttipiak, oilategietara-eta sartzen direnak…
Erbíunídia… erbíunídia.
- Horri erdaraz nola zaio?
Paniquesa.
- Eta 'comadreja' ere bai, ezta?
Bai, oiék gaixtóa tire.
- Badira halakoak?
Bái-bai-bai; badíre baité kútsie, bai, bí oik. Oé pai, badutèna kútsu lékua etxéra, sártzen déna… ardí zenbáiti kosk ín edo, les da igual, errápetik, eta… gáltzen tzuéla errápia. Órduen? gómak? gómak, óek gomák… bàdakizú geo,

papél ta góma baitíre, ta erruéda… autóen, automóbiletik. Oétaík erré? errétzen baituzú órti? eta juàten dié urrun, urrín ortan, etzuté[48] eon nai. Ta urrín orrekí joàten diré ta, óla iten dugú! oitáik erré.

- Neumatikoak, e?

Neumátikoak, y… ropas viejas. Pero aquí, aquí la caza hace falta, porque aquí cae nieve…

- Segi, segi euskaraz; elurra botatzen du eta…

Elúrre botatzén du te… gárbitzen die anítz! eta, bertzenáz? e, debékatu ziotí? (sic) ta olá, bizíek… arrápatzen tuzteláik? egía errain tzizuté.

- Badira ere beste batzuk: lepahori eta lepazuri; 'marta' eta…

Márta, fúñek… eta burtzíntza, burtzíntze.

- Eta beste batzuk, arratorien gisakoak baina arboletan lo egiten…

A! bixárrak.

- Bai? badira?

Badailtzé, bai.

- Zuk harrapatu duzu inoiz halakorik?

Balínbä! balínba.

- Nola harrapatzen dira?

Pues, olá, an dúte arìtze-zílöa, ta, makíle txár batekikí? (sic) t'egurréz ziréutä.

- Makila batekin zirikatuz edo?

Bai, txòtx batéki? eta, ìteunté? gau-go-go-go!... kéndue zílo ta. T'eró? artú… bèrtze abár bat lùzeagókoa? ta arékin… arékin atrázi, ta… aterátzen? ta, búrua… albáz burúa arrápatzera. Ta, ez bázara fío (…), paràtzeuzú… bonéta o pañól bat o éskuen? ta orí.

- Eta haiek akabatzeko?

A! áise, abíllaren… kòntra bereá? burúe xeátu.

- Eta gero, kozinatu ere bai? erraten dute mokadu goxoa dela.

Bái-bai, goxóa, arrónt góxoa. Geró uríne, uríne badu úmo, pa la reúma dicen que es bueno… (guri:) Erán tzazu, eán tzazu, hale!

- Eta zartagian-edo paratzeko, behar da lehenik biloa kendu?

Bai, kixkorrátu súen eta… bilòa kendú, kanibetà atzuekín, rastáka. Ta, orí… kixkorrátzen baduzú, kentzen dú, tzáo larrué.

- Eta burtzintzak, harrapatzen dira?

Bai, tíruan.

- Horiek goiti ibiltzen baitira…

Bai, árizketán.

Suge eta arrain txikiez (1987)

- Sugerik-eta, ikusten da hemen?

Sugíak badirá, kútsie.

- Zenbat klasetakoak edo?

Oétaik, bibóra oetáik…

- Gaiztoak dira horiek?

Bai, bái-bai.

- Baina horien ziztadak inor hilarazteko adina ez, ezta?

Eee!... eztá nior íltzen, éz ere.

- Eta errekan zer dira, txipak edo?

[48] 'Eztute' bide da hori, orainaldian, baina idatzi bezala aditzen dugu argi eta garbi.

Bai, txípak baño… àndixeagó, bèña… gútti dé. Bai, garbìtzuté ta andík; orái berean (…) Soroáingo erréka, Soroáingo erreka beiràtzen dá? ta ordúan beittí te… orrará?

Gerendiaingo euskarak nongo eitea ote (1987)

- Gerendiaingo euskarak zeinetarik du gehiago? hemengotik ala Mezkirizkotik?

E… Gereíngo euskéra? emèngoáikin, ník uste.

- Bai? antza gehiago?

Mezkírizköá… Mezkìzkuá? bear badá, obéxeagó da fíte; ór ya badá uskéldun ánitz, Mezkítzen. Oék Aurízperrin iníkoekín bai, bèña Gerenddiéngöa… Lintzóaiñeki(n), bai.

- Hala uste duzu, e?

Bai, nerí alá iduritzen tzaidé, eztákit.

Musean erdaraz (1987)

- Musean nola aritzen zineten, euskaraz ala erdaraz?

Erdáraz.

- Baina aspaldiko denboretan, euskaraz jokatu izan duzu?

Ba! guttí bai; ez, lenágo… lenágo akáso.

- Gazte zinelarik eta orduko zaharrekin eta hola?

Bái ya, bèña musián ez; yardúkien bai, aitzén giné… bèña músian ez, músian erdáraz beti. Eztùzu ikustén? letrák eta denák… erdáraz zeudelá?

- Bai, baina, zaldiak eta erregeak eta…

Bai, orí bai.

- Edo 'paso' errateko, edo 31 edo 'pares', 'duples' eta gauza horiek ez?

Oitaméka.

- Eta 'pareak' eta, horrela erraten zenuten?

Olá saten duté[49].

Haur-jolasak (1987)

- Zu, mutiko ttarra zinelarik, zertan jolasten zineten karrikan-eta?

Bof!... txurréba, badákizu zer tzén? makílle… makíl bet ártu eta ín… óla, bastóna bezála, makúr bét e… puntén? ta, pilòt'atzuékin, te árei yóka, alá; batzùk arpatú? ta bèrtze atzúk emén? ta, orí ere bái, àitzen giné. Ta eskòndikótan.

- Zaude, zaude, nola deitzen zen hori?

Txurréba, txurréban.

- Azkenean badu -n, txurreban…

Bai, txurréban.

- Eta makila hura zerena zen edo zerez?

Ba! pues, edozèin makilé orduën tzé!

- Urritze edo?

Bai, bai, urrítze, makúrtzekó… zutén? urrítze. Kóño!... áu bezàla iguál!... olá.

- Makila forman, edo bastonaren forman?

Bai, eta olá artú eméndik? eta nók arátago bóta ta, óla, jóta, yo.

- Pelota batekin? edo…

[49] Ustez hemendik kanpoko aldaera izan arren, berriemaile honek ere, Mezkirizkoak bezalaxe, '(e)san' erabili zuen inoiz edo behin.

Pelóta átekin, pilótai yó, txùrrebáki(n), ta nók botátzen tzuén altzí-, urrunógo? arék ireztén tzue ta óla! Cuanto más fuerte… le pegas y más lejos iba.

- Zenbatenaz azkarrago, e?

Bai, ta urrunóo... te óla.

- Nork ematen zion hasiera partidari?

Urrúndero tirétzen tzuéna, arék irézten tzue.

- Baina, hastean? nork botatzen zuen lehenbiziko?

Lemexíköa? a! óre… suértera bezála botá, ta, nóla ártzen tzituén arék...

- Eta suertea nola botatzen zen?

Iguál óla… txótx txar batzukín? ta èztakít, karrèra artzen tzúna? o abièrazten tzúna? o óberén lo que es.

- Nola erran duzu? zer txiki batekin?

Xotx… txotx, ba! un palico chiqui-chiquito.

- Eta harekin zer egiten zen, bota?

Ez, ártu! bàtek bertzeaí. Eta geró… nók artzen tzuén txikiéna? uré lemézik yo, arék lemézik yo; konpréintzeuzu orái?

- Bai, orain bai. Eta zer beste jolas erran duzu? 'escondite' edo?

Bai, etxé… xokoétan nóizbait; íte bát, paràtze ziotén? parétan bezála, 'bále'. Oí? tä orrén… nórk jotzen tzuén urá? arék irèzten tzuté.

- Jolas honek ez du izenik euskaraz?

Ez… altxátu! altxátu; orrék, 'a escondite'.

- 'Altxatu' erraten zen?

Bai, áltxa, altxá zaite!

- Bai baina, nola erraten zenuten 'vamos a jugar al escondite'?

Guazén eskónditera!

- Altxatzera, ez?

Ez.

- Eta orduan bat geratzen zen paretari begira eta bertzeak, artean, altxatzen ziren…

Bai, altxátzen tziela.

- Eta jakiteko nor geldituko zen paretari begira, zer egiten zen?

Ta góri e… aéxtian erràn dizuténa, txóx xarrá… arràpatzen tzuéna, úre lenbízik paràtiko zé, ta géro… nók galtzen tzué? edó nor tórtzen tzén lenáo? arék ireztén tzue; ondárrik geldìtzen tzená? arék gáldu.

- Eta bazen guk, txikitan, 'donar' erraten genuena? «Madre e hija, fueron a misa, se encontraron, a un francés«… «Zu 'para', zu paretaren kontra». Horrelako zerbait egiten zenuten?

Bai.

- Eta zer erraten zenuten? 'dona-dona' edo zera horretan?

Bat, bíde, íru, lau, borz, sei, zázpi, zórtzi… kòntatú.

- Zenbat arte edo?

Amárr ártio odo[50]… ogéi ártio o ségun zenbat tziré!

- Baina ez zenuten erran bezalako kantinelaren bat errezitatzen?

Ke!... ez, ez.

Otoitzak eta doktrina erdaraz ikasi (1987)

- Eta zuk, txikitan, ikasi zenuen euskaraz errezatzen? aitagurea eta…?

[50] Asimilazioa bide da hori, aurreko eta atzeko *o*-en eraginez.

Bai, bai, badákit biña, éz ginue… béti erdara!
- Eta doktrina nola, euskaraz ala erdaraz?
Erdáraz.
- Erdaraz hemen orduan, e?
Bái-bai, déna erdara!
- Apeza nongoa zen?
Aétza.
- Aetza? eta ez zuen euskaraz irakasten?
Ez!… lòtsarázi.
- Eta zuk pixka bat, aitarekin edo amarekin edo amatxirekin edo, ikasi zenuen, euskaraz, aitagurea eta hola?
Bai, eúskara! emén bát-, baite diré euskéra! Géro… sàrtu ziré… guàrdia zibíllek? ba, karabinèro oék? ta oiékin dénak erdaráz? ta, adiós! galdu zé euskéra.

Korpus eguneko prozesioaz (1987)

- Korpus egunean egiten da, edo zen, prozesioa?
Bai, orí… lenágo ere íten tze prozesiónia, ta orái're bái.
- Konta, konta ezazu zer egiten zen, lurrean ezer botatzen zen, eta…
Belárra, xúnkek erráten dákotéla; óiek botá, karrikén? ta, apéza retratzálle, ta funtzióna itetekó (sic) xunk aék artú te edá an? úrek; ala àrtzen tzúte.
- Nola? nola erran duzu?
Funtzióna izetekó? uréz garbítzen emán xunk áek, karríkeko… áek, belarr áek. Ya… eztúte eman gió.
- Xunkoak nork hartzen zituen?
Bakótxak bèren pártia, gúk gèuren atárien eta bertzé-, bertzéna, bèren atárien, ta bérek… bakóitxak berá.
- Atari guztietan izaten dira xunkoak?
Bai-bai.
- Edo erreka ondoan?
Éz-ez, atári gúzietan, or agái o, etxétaraño, orráañó, izèten dá bai.
- Xunkoak ez dira biltzen erreka ondoan?
Óietaik, belàrr oietäík!
- Baina belar horiek ez dira yunke…
Ba! belàrr oetaík? bòta píxket; olá itten-ten tzé.
- Eta gero, prozesioa, nola ateratzen zen? paratzen ziren aldareak bidean?
Bai, al-, àltariá? or, etxé ortan ataríe, ta, òrraráño (…) baia, lenágo juàten tzén béitti artaráño; ya géro or geldíttu zén.
- Bide… zera, karreteraraino?
A! karrèteraño éz e, étxe… eskín oètaráño! bèña orái ez, orái geldítu izéten da. A! órai ézta alletik ére! erríek eztié juatén lén bezalá!...
- Zenbat aldare paratzen ziren?
Bat.
- Nola egiten zen? nola beztitzen eta…?
Néskek, kartzén duzté sandu étzuk èlizetík? eta òr paratú? te Sànto Krísto at eta… géro tèla atzúk? ta… ya está. Ta geró eíten tzutelaík? e… pròzesioá? kéndu.
- Loreak ere paratzen zituzten?
Loréak eré bai.

- Eta etxeetan paratzen zituzten maindireak edo zerbait?
Liótan, lëótan… zàbal atzúk? ta… bákizu zer dién, sàbanák!
- Onak? linozkoak edo? nola erraten duzue, 'lino' edo nola?
Sí, de lino, sí, se ponía; cada uno lo que tiene… liñó? líyuä!… líyoa!
- Eta apeza, nola joaten zen? zerbaiten azpian?
Éz-ez, óñez!… kantúz.
- Zer eramaten zuen eskutan?
Libúrua… libúrue.
- Eta 'custodia'? bedeinkapena-eta emateko?
Monagílloak; monagílloa éztakizú zer dén? monagílloa; áiek eré emàten tzuté zerbait.
- Bai, kustodia da, eguzkiaren antzekoa, badakizu…
Bai, kustódia erràn dakoté.
- Eta palioa badakizu zer den? paliorik bazen hemen?
Bai, bákarretán ibíl néiz ni… lágun értian.
- Eta kantuz, ez?
Ba.
- Zer kantatzen zen?
Be! mézako kantu gútziak.

Sorgin-kontua (1987)

- Hemen, sorgin-konturik aditu duzu?
Lenáo… lenágo erraten tzúte beña, déna gezurré!
- Bai, badakigu, baina, zer kontatzen zuten?
Emèndík, or dá ugéldea! eméndik etxéa ta áinbertzeaño; ugèlderá… ùgeldéra juàten tziéla bañátzera, ba… garbítzera, bákitzu. Zenbáit juan tziréla ta arrópak utzí zuztéla? peñ áten gañan, ta sorgín bétek emán tzizkiotéla. Ta… útzi zutéla bulúzirik. Yá déna gezùrre zén!
- Hori da dena? hemengo oihanetan edo lezeetan bizi ote ziren edo…?
Éz-ez, éz tzue… Emén badíre kué-, kób-, kuébak; leránoztárrek erràten tzúte, gúri erràten tziúte, e? lòtsatiátik, an baziéla ta ez arrìmetzéko ta. Bèña egúndeñó… árek kusí ní ez eré; baittút laú…-tan úrte ya.
- Ez duzu sekula ikusi halakorik…
Órai yéndea, espábiletu dé, éztu… éztu ginéstatzen astòkerietán (barrez).

Orreagarako prozesioa (1987)

- Eta hemen erromeria edo beila edo… nola erraten duzue?
Bai… romería.
- Beila edo?
Báilia? dántza?
- Ez-ez-ez, 'peregrinación'. Orreagara edo?
A! bai, Orreará? bai, urtéan bein, máyoan.
- Zer egiten da?
Ta, peniténziak, bákizu zer díren? gurùtzekí?... oañík juàten diré eméndik fránko.
- Zerbait beztiturik? tunika edo?
Bai, tuníke bélz bat.
- Zu ere joan izan zara?

Bai, béin beño yaotan.

- Oinutsik? ortutsik? edo…

Éz-ez.

- Bakarren bat, behar bada, bai…

Bai, bakárron bát dabílle… urtútsik beña gútti, emaztéki zenbáitt.

- Eta zer joaten zen, herri hau bakarrik edo ingurukoak ere bai?

Ingúrukoák ebé (sic). Emén, Zilbèti t'Erró? Elòndriz te Esnós? ta Bixkárret, ta Bezkíriz (sic), dénak. Ezík, balléa? balléan dénak, bátian, èta kendú… Aurizpérri kendúte; Aurizpérri? berá bakarrik, áiek etzúten nái ez, ez, onéki, bálle ori.

- Baina Aurizberri ere Erroibar da…

Bàlle de Érro da, bañá aék… aníz badirelá? ta orreátik, nauté ez, beréxiik.

- Eta hemen zer, esperoan egoten zineten? beheitiko herrietakoak noiz etorri eta, haiekin batera joateko?

Ez, ordúe errán? ta, eméndik karretérara atràtzen díe, onára éztie sartzen; eméndik karretérara atràtzen diré ta, án espératu t'aék etòrtzen dié lenaó? ta, oík (…) ere bái, án espéran. Ta geró ordík goití, dénak bateá. Ta géro Bizkarrétekuák, aék espèratzeúte an, berríz, karretéran, juan ártio emengöák.

- Badira kilometro batzuk hemendik haraino…

Ze? Orrèaráño? bai.

- Igual hamabost bat edo…

Ba, trez-, izéin die.

- Eta nola joaten zineten? kantuz, errosarioa errezatuz, edo nola?

Kantúz? te betí, bakár zenbáit bazé errosàrioa ematen tzúna, eta… errosàrioa errezatú?

- Apeza ere joaten zen?

Bai, bai. Apéza béra, èrri gúzieterakó.

- Herri bakoitzak eramaten zuen bere gurutzea?

A! ba, orí bátek.

- Eta ze ordutan abiatzen zineten? oso goiz?

Goizéko séetan o olá, yaikí? te, zazpietáko… zazpietáko o olá, ra!

- Egun argiz, e? maiatzean…

Bai, ta atsáldean tortzén tziré berríz… sèetakó? etxéra.

- Eta bidean gelditzen zineten nonbaiten almortzu pixka bat egiteko? edo…

Bai, Auzpérriko bállean; almórzatzéko ordu érdi bet eo óla utzí? eta géro? Orreága allegatú? ta án bérriz, nai zuénak itén tzue, ta geró mezára.

- Ze ordutan zen meza?

Amábietan, ta geró? mezàtik atrá? ta, buèlta atzők. Géro, bérriz elizerá? ta géro étxera.

- Elizatik kanpoko aterbeetan jendea gelditzen da bazkaltzen?

Bai, nai zuená izen ya, nai zuèn lekuén, denbóla (sic) óna ezkeró? nónnai.

- Eta bazkaldu ondoan, elizara berriz salbea edo despedida egitera?

Baikí; geró salbéa errezatú? t'étxea.

- Euskaraz zerbait kantatzen zen? Amabirjinari kanturen bat euskaraz?

E! órduen éz.

- Lehenagoko urteetan igual bai…

Bai, lenáoko urtetán iguál.

- Bazkaria eta almortzua egiteko, zer eramaten zen?

Ba! bakótxak zukéna! ájaja!… Kóño! xìnger púxket, màgra púxket, eta óla.

- Eta arratsaldean, etxerako bueltan, berriz ere gurutzearekin eta tunika beztiturik? edo orduan ya ez?

Bái, bai, beztìturík bai, berdín entrènatzéa bídean, berdína, déna berríz, tuníke ta gurútze ta déna; déna artzen duénak an bérean entrégatíar du, bakótxak bere érrien.

BIBLIOGRAFIA

Apat-Echebarne, A. [Irigarai, A], 1974, *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra,* Iruñea, Diario de Navarra.

Aranzadi Zientzia Elkartea-Etnologia Mintegia, 1984 eta 1990, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa* (*EAEL,* I eta II), Donostia.

Artola, K., 2011, «Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (4 - Ipar Artzibarko laginak: Arrieta)», *FLV* 113, 261-325.

– 2014a, «Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan» (eta 9 - Aditzaz zerbait Elkanoko aldaerarekiko erkaketan), *FLV,* 118, 393-435.

– 2014b, *Ziorditik Uztarrozeraino, Nafarroan, euskararen hegoaldeko mugetan barrena, 1983an,* Donostia, Aranzadi Zientzia Elkartea, Munibe 34. gehigarria.

– 2015, «Aurizko aldaeraren inguruan (Aurizko eta Orreagako euskararen lagin batzuk)», FLV, 119, 61-108.

Azkue, R. M. de, 1947, *Euskalerriaren Yakintza* (4. lib, 334 or.), Madrid, Espasa-Calpe, S. A.

–1969, *Diccionario vasco-español-francés* (repr. facsímil), Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.

Bonaparte, L. L., 1863, *Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés,* Londres.

Camino, I., 2003, «Hego-Nafarreraren egituraz», *FLV,* 94, 427-468.

– 2004, *Hego-Nafarrera,* Iruñea, Nafarroako Gobernua.

Campion, A., 1971, *ORREAGA, Balada escrita en el dialecto guipuzcoano. Acompañada de versiones á los dialectos bizcaino, labortano y suletino y de diez y ocho variedades dialectales de la región bascongada de Nabarra desde Olazagutía hasta Roncal,* Bilbo, edición separada de *La Gran Enciclopedia Vasca.*

Echaide, A. M., 1989, *El euskera en Navarra: Encuestas lingüísticas (1965-1967)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza.

Euskalerria Irratia, 1990, *Nafarroako euskaldunen mintzoa*, Iruñea, Nafarroako Gobernua.

Gaminde, I., 1985, *Aditza Ipar Goi Nafarreraz,* Iruñea, UEU.

Ibarra, O., 1995, «Cispamplonés hizkeraren inguruan», *ASJU,* XXIX-1, 267-318.

– 1996, «Erroibarko lexikoaren gainean», *Euskera,* XLI (2. ald.), 929-973.

– 1997, «Erroko testu argitaragabe bat eta beste batzuen iruzkina», *FLV,* 75, 265-282.

– 2000, *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*, Iruñea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

– 2007, *Erroibarko eta Esteribarko Hiztegia*, Bilbo, Mendaur bilduma, Euskaltzaindia.

Intza'r, D., 1927, «Esaer a-zarrak», *Euskera,* VII urtea, III-IV, 4-16.

– 1974, *Naparroa-ko euskal-esaera zarrak*, Iruñea, Diputación Foral de Navarra.

Iribarren, J. M., 1984, *Vocabulario navarro* (nueva edición preparada y ampliada por Ricardo Ollaquindia), Iruñea, Institución Príncipe de Viana.

Pagola, R. M., Alkiza, E., Beola, A., Iribar, I., eta Iribar, J. J., 1996, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak - Hegoaldeko goi-nafarrera,* Bilbo, Deustuko Unibertsitatea (Deiker), Euskal Ikaskuntzen Institutua.

Pikabea, M. L., 1985, «Expresiones temporales en el habla coloquial del valle de Erro», Euskaltzaindia, *Euskera,* XXX (2. ald.), 227-232.

Rubio Lopez, J., 1963, *Guía de Navarra*, Iruñea, La Acción Social, 94.

Saragueta, P., 1979, «Mezkiritz (Erroibar)», *CEEN*, 31, 5-36.

– 1982-3, «Mezkirizko etxe barnea», *AEF,* 31, 31-48.

– 1984, «Mezkirizko langintza», *AEF,* 32, 115-134.

Satrustegi, J. M., 1987, *Euskal testu zaharrak*, Iruñea, Euskaltzaindia.

Yrizar, P. de, 1985, «Aparición y desaparición de las formas verbales en *-ako-*, *-eko-*, en el alto-navarro meridional», Aingeru Irigarayri Omenaldia, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 257-290.
– 1991, *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano, II*, Donostia, Euskaltzaindia.
– 1992, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional,* Iruñea, Euskaltzaindia.

LABURPENA

Erroibarko aldaeraren inguruan (1 – Erroibarko ipar aldeko mintzairak)

Oraingo saio hau ere Louis-Lucien Bonaparte euskalariak utzi zigun mapa miresgarria gogoan prestatu dugu. Saioan Erroibarko ipar aldeko sei herritan bilduriko laginak dakartzagu, zeintzuek, Erroibar bereko beste herrietakoekin eta Esteribarko gehientsuenekin, printzearen arabera betiere, Erroko aldaera osatzen zuten. Irudipena dugu ezen, gu grabatzera iritsi ginen hizkera hauek, adin handiko lagun batzuen artean soilki iraunaraziak, hurbilekoek kutsatuxerik zeudela, Auritz-Orreagako hizkerak alde batetik, eta Artzibar zein Aezkoako ibarretakoak bestetik.

Giltza hitzak: Hego-nafarrera; Erroibarko aldaera; euskara; dialektologia.

RESUMEN

Acerca de la variedad de Erro (1 – Hablas del norte del valle)

Hemos preparado este trabajo teniendo en cuenta la clasificación dialectal contenida en el admirable mapa de Louis-Lucien Bonaparte. Se publican aquí materiales recogidos en seis lugares del norte del Valle de Erro que, junto a los del resto del mismo y la mayoría de los de Esteribar, conformaban, según el príncipe, la variedad de Erro. Parece que estas formas del habla que nosotros llegamos a grabar, empleadas sólo por unas pocas personas de avanzada edad, estaban algo influenciadas tanto por la de Burguete-Roncesvalles como por las de los cercanos valles de Artzi y Aezkoa.

Palabras claves: Euskera navarro meridional; variedad de Erro (hablas del norte del valle); dialectología vasca.

ABSTRACT

About the variety spoken in Erroibar/About the Erro Valley variety (1 – The speech of the north of the valley)

This contribution has been developed bearing in mind the dialect division portrayed in Vascologist Prince Louis-Lucien Bonaparte's admirable map. Materials collected in six locations in the north of Erro Valley have been gathered. According to the Prince the speech of said locations constitutes, together with the speech of the rest of the Valley and that of most of Esteribar, the Erro variety. It seems as though the forms of speech that we managed to record, which were spoken only by a few aged speakers, had been to a degree influenced by the nearby speeches from Auritz-Orreaga on the one hand, as well as from Artzibar and Aezkoa on the other.

Keywords: Southern Navarrese Basque; Erro Valley variety; Basque dialectology.

Basaburu Txikiko euskararen lekukoak (eta II)

Gorka Lekaroz*

SARRERA

Lan honen lehenbiziko zatian (*FLV* 118) Beintza-Labaiengo doktrinaren egile Mariano Erbitiri dagozkion albisteak eman genituen, Bonaparte printzearen lankide izan zena orain arteko iluntasunetik atera nahirik; horretaz gain, Miguel Ignacio Armasa domingotarra aurkeztu genuen, Labaiengo euskal idazle zahar berria (1770-1814), eta hark idatzi sermoietako bat karrikaratu ere bai, Basaburu Txikiko euskararen inguruko jakinbide berriak eskaini asmoz. Bigarren saio honetan, aurreko lana osatze aldera, Armasaren beste bi prediku topatuko ditu irakurleak, eta baita labaiendarrak baliatu zuen hizkeraren azterketa ahalegina ere. Gisa berean, euskarazko testuak prestatzerakoan Armasak eskura izan zituen iturriei buruzko argibide batzuk eman nahi izan ditugu, eta predikariak utzi dizkigun idazkiak Basaburu Txikiko mintzora hurbiltzeko lekuko egokiak –edo orain arte ezagutzen genituenak baino egokiagoak– ba ote diren arrazoitzen ahalegindu gara, plazaratu ditugun materialak aintzat hartu nahi dituenak guk emandako argudioak aztertu eta, hala komeni bada, osatu edo zuzentzeko aukera izan dezan.

Jarraian aurkeztuko ditugun predikuen edizioari dagokionez, balio bezate aurreko saioan esandakoek (Lekaroz 2014: 262). Laburzurrean gogoratuko dugu dauden-daudenean utzi ditugula Armasaren grafia, azentu-, harriduranahiz galdera-markak eta labaiendarrak gaurko arauez bestela loturik emandako hitz bikoteak, haien arteko hartu-eman fonetikoa agerikoa denean. Aitzitik, gaurko idazmoldearekin bat ez datozen zenbait joeratan (komaren eta hizki larrien erabilerarekin lotutako batzuetan, bereziki) ukituak egin eta testuak gaurkoturik ematea hobetsi dugu. Predikuetako laburdurak taket bidez osatu ditugu; latinezko aipuak, aldiz, letra etzanean emanda datoz.

* Euskal Filologian lizentziatua.

Armasaren idazkiak ataletan banatzerakoan hark berak egindako zatiak errespetatu ditugu, lehenbiziko sermoiaren edizioan bezala ondorengoenean ere. Banaketa horren araberakoak dira irakurlea gidatzeko testuetan zein iruzkinean ezarri ditugun erreferentziak (*cfr.* § 1).

Aurkeztuko ditugun bi predikuetarik lehena (*Sermon del Glorioso Apostol San Pedro* delakoa) 1810ean idatzi zuen domingotarrak; uda partekoa izango da noski, festaburuan herriko patroiari eskainia dirudielarik. Santuaren fedea azpimarratu nahi izan zuen Armasak ordu hartan, eta entzuleak fede huraxe izatera bultzatu.

Bestea 1811ko Garizumako bigarren igandean esan zuen; hau da, 1811ko martxoaren 10ean. Festa egunak santutzearen garrantziaz aritu zitzaien Labaiengo adizaleei, eta horregatik mezatan izan beharreko jarrera eta igandeetan egin zitekeen lana izan zituen hizpide, bekatutzat jotzen zenaren mugak zehatz azaldu nahirik. Horrekin batera, euren burua ukatuz Kristori jarraitu eta lurreko zorigaitzak sufritzeko prest egonez gero zintzoek zeruan ezagutuko duten aintza deskribatu zuen domingotarrak.

Hona beraz, ondoren, Armasak Beintza-Labaienen idatzi zituen beste bi testu haiek:

[39]

Sermon del Glorioso San Pedro Apostol predicado en Lavayen en el año de 1810 por mí Miguel Ygnacio de Armasa

Thema: Tu es Petrus, et super hanc petram ædificabo Ecclesiam meam, et portæ inferi non prævalébunt adversus eam. Math c. 16. v. 18

Etorri cen artiño Jangoycoaren Semea mundu onetara guizona bere doctrina tá Passio santarequin erremediatzera, bere Ayta eternoarequiñ adisquide eguitera tá becatua cela medio ersiac zauden ceyruco ateac idequitzera tá zabaltzera, casic etzen arquitzen mundu onetan Jangoyco eguiazcoaren ezagumenturic tá servitzuric. Judeaco provincian, Ysraelgo erreynoan bacarric cén ezagutua Jangoyco Soberanoaren icen santua, munduaren zati tiqui artan bacarric servitzen cioten eguiazco Jangoycoari; tá an ere ez bear bezala, ez mereci zatzion moduan, Escritura Santac erraten digun bezala. Berce guizonac, berce nacioac, berce erreynoac, berce provincia tá casic yende guciac, ezagutu bearrean berun Jangoycoa, servitu bearrean berun Criazalleari, maytatu bearrean gucien Eguiñzalle Soberano ure, zaucaten Jangoycotzat batzuec Eguzquia, berceac Yllarguia, berceac guizon gachtoac tá berceac ezagumenturic ez duten criaturac ere. Etziren empleatzen Jangoycoaren servitzuan; bay berun gusto desordenatu guciac eguiten. Etziren empleatzen legue santa guardatzen, baycic berun viotzetaco inclinacio gachto guciac cumplitzen. Ytz batean, zagon mundu au choll desordenatua, Jangoycoaz casoric eguiten etzuela, gauza onic obratzen etzuela tá vici ciren guizonac guizonen señaleric casic etzutela. [40] Urricalduric Jaun Soberano

ure guizonaz, compadecituric amberce miseriaz tá desordenaz, vialdu zuen bere Seme divinoa desorden gucien compontzera, guizonari beraren ezagumentu eguiazcoa tá sobrenaturala ematera; guizona bere amoriora inclinatzera, aficionatzera tá erremediatzera. Vialdu zuen fundatzera Eliza santa, erran nay dut, christandadea; eracustera ceyruco doctrina, Jangoycoaren legue santa, ceyruco videa. Fiñ onetara etorri cen Jangoycoaren Semea mundura, tá obra andi onetaraco elegitu cituen Christo gure Erredentoreac mundu onetan guti zezaqueten guizonac, confunditu cezatan munduco poderio gucia; yaquinduriric etzutenac elegitu cituen, confunditu citzatan guizon yaquinduri falsoa zuten guciac; mundu onetan ezagutuac etzirenac, guizon despreciagarriac elegitu cituen, casic deus etzirenac elegitu cituen, andiac cirenac destruitu citzatan, etzazatan erran ondoreco demboratan guizonac exercito andiaquin, poderio tá arma icaragarriaquin sugetatu zuela Jangoycoac mundu au beregana, ezagutu cezatan guciac Jangoycoaren obra cela munduaren conversioa, tá ez guizonena! [41] Nombreric etzutenac, bada, ignoranteac tá ytsasoco arranzalari pobre batzuec elegitu cituen Jaun maytagarri arc obra andi onetaraco, bere Eliza santa fundatzeco, bere erreynoa, erreyno espirituala ure, christandade santa mundu gucian banatzeco. Amabi arranzalari pobre elegitu cituen bere enemigo guciay guerra eguiteco, ez armequiñ, ez exercitoequiñ, ez diru tá ondasunequin, ez munduco socorruaquiñ; arranzalari pobre oyequin, Christo gure Jaunac elegitu cituenequin, conseguitu zuen Ayta eternoac victoria bat ossoa, victoria bat guciz admiragarria, bada itzuli zuen bere legue santara tá amoriora mundua. Tá ayñ gloriosoac, ayñ nombratuac tá ayñ erreverenciatuac eguin cituen Jaun arc arranzalari pobre oyec ecen oyen oñatara belauricatzen baydire emperadoreac, erregueac tá yende guciac. O ceyñ eguia dá David erregue tá propheta santuac erran zuena, admiragarria dela Jangoycoa bere santuetan: *Mirabilis Deus in Sanctis suis*. Baño ongui consideratzen batugu gure Jangoycoaren determinacioac tá obrac, dá gucietan baño admiragarriagoa San Pedro apostoluan, ceñari eguin cition favore gueyago tá eman cition berce guciay baño doay andiagoac. [42] Bada apostol santu au dá Christoren favoreatan lembicicoa, potestadean andiena, apostol gucien principalena tá burua. Au dá munduaren conversioraco, obra andi artaraco elegitu cituenen principalena. Apostol santu au dá Christoc fundatu zuen Elizaren, christandadearen, bera ceyruatara íanta lurrean utzi zuen burua. Au dá Christoren urbillanaco christandadearen cimendua, Christo beraren ordecoa, ceyruco ateen ydequizallea, Christoren billots tá ardi gucien arzaya, gucien guardazallea tá gucien jueza. Baño ¿cergatic eguiñ zuen Christoc San Pedro apostolua gucien principalena? Cergatic utzi zuen[1] lurrean fundatu zuen Eliza santaren, christandadearen, bere ordecotzat? Bere merituagatic, christavac, bere merituagatic. Merecitu zuen apostol santu onec Jangoycoaren Seme baytan zuen siñesteagatic[2] eguiñ cezan Jaun arc christandade guciaren burua, tá lurrean bere ordecoa. [43] Christoren jangoycotasuna, bada, San Pedro apostoluac ezagutuaz, viciqui siñetsiaz tá firmeza andiarequin declaratuaz merecitu zuen apostol santu onec izatea lurrean Christo beraren ordecoa; Jaun Soberano arc bere odol santuarequin fundatu zuen Eliza, christandadea, ynfernuco etsayac eciñ benere destruitu

[1] Orriaren zartadura batek desagertarazia, galdu egin da erdiko *e* bokala.

[2] *Siñeste viciagatic* idatzi ostean, *vici* tatxatu zuen Armasak. Erabaki hori bera hartu zuen beste zenbait unetan.

cezaquetena bere doctrinarequin, bere trabajuaquin aumentatu tá defendituco zuena; tá azquenean bere eriotze gloriosoarequin honratuco zuena. Ytz gutitan: San Pedro apostolua Christoren ordecoa, Christoren jangoycotasuna siñetsiaz; San Pedro apostoluaren trabaju admiragarriac Christoren Elizagatic, christandadeagatic. Ona gaurco sermonaren asumptoa tá bi zatiac: *Tu es Petrus, et super hanc petram ædificabo Ecclesiam meam, et portæ inferi non prævalebunt adversus eam*. Bi eguia oyec manifestatu baño lenago adi zazue atencioarequiñ doctrina christavaco punto bat. [44] Galde eguiten dut: cér gauza dá fedea? Eranzuten dut: fedea dá ecusi ez duguna siñestatzea. Cembat aldetara dá fede au? Dá bi aldetara: lembicicoa dá fede humana, erran nay dut, guizonen erranay ematen zayen siñestea. Bigarrena dá fede divina, au da, Jangoycoaren itzay ematen zayen siñestea. Guizonen erranay ematen zayen siñestea izan dateque falsoa edo guezurtia, cergatic guizonac enganatu datezque tá enganatu gaytzaquete berun erranatan, aguerian dagoan bezala. Baño ez dá iñolara possible enganatu dadin gure Jangoyco Soberanoa erraten tigun gaucetan, cergatic dá gauza guciac daquizquiena, guciac bere begui divinoen bere presencian dauzquiena; tá ayñ ona dá ecen ez bayta possible bere ontasun admiragarria dela medio enganatu gaytzan Jaun Soberano arc. Ala bada, dá Jaun Soberano ure izan datequen eguiazcoana erraten tá eracusten tigun gauza gucietan. Motivo onengatic, ez ecusiagatic ere doctrina christavan erraten tá eracusten zaytzquigun gauzac siñetsi bear tugu firmeza andiarequin doctrinaco gauzac, guerun beguiaquiñ ecusico bay guiñtuque baño obequiago; bada Jaun Soberano ure bera dá doctrinaco gauzac erraten tiguna. [45] Christo gure Jaunac bere ago bedicatuarequin eracutsi citien apostol santuay doctrinaco gauzac, milagro andiac ayen aytziñean eguiten cituela, siñetsi citzatan eracusten citien mysterioac. Milagro andi ayec ecusiric, siñetsi cituzten apostol santuac Jaun Soberano arc erran citien gauza guciac. Gauza ayec berac eracutsi citieten apostol santuac berun demboraco guizonay, eguiten cituztelaric ayec ere milagro admiragarriac, siñetsi citzatan guizonac eracusten citieten mysterioac. Lembicico christavac apostoluanganic icasi cituzten gauzac eracutsi citieten berun ondorecoay, ayec urbillanacoay, urbillanacoac atzecoay, tá modu onetan allegatu dá gugana Christoren fede santa tá iraunen dú mundu onetan fede berac azquen juicioco egunarano, Escritura Santac dion bezala. [46] Motivo onengatic, ez ecusiagatic mundu onetan gure Jangoyco Soberanoa, ez ecusiagatic Ayta, Semea tá Espiritu-Santu Jauna, ez ecusiagatic yayotzen Maria S[anti]s[i]maganic Jangoycoaren Semea guizon eguiña, ez ecusiagatic Jaun ure illtzen, erresucitatzen, ceyruatara íaten, ez ecusiagatic nola ematen digun Jangoycoac sacramentu santuaquin bere gracia, ez ecusiagatic mundu onetan ónenzat Jaun Soberano arc preparatua dauquen gloria tá gachtoenzat guardatuac dauzquien penac, ez ecusiagatic bada guerun beguiaquin gauza oyec tá doctrinan erraten zaytzquigun gañeraco mysterioac, ecusten tugun gauzac baño firmeza andiagoarequin siñetsi bear tugu; cergatic erran duden bezala Christo gure Jaunac bere ago bedicatuarequiñ eracutsi citien apostol santuay gauza oyec, tá apostoluac orduco guizonay, ayec ondorecoay, gugana fede santa bera allegatu den artiño. [47] Tá ayñ gauza bearra dá, nere christavac, fede santa au izatea, doctrinaco mysterioac yaquitea tá firmeza andiarequiñ siñestatzea ecen fede santa au ez duena, mysterio santu oyec ez daquizquiena, doctrinaco gauzac siñestatzen ez tuena ez dá possible salvatu dadin, Jangoycoac berac Escritura Santan erraten digun bezala.

Emendic ezagutu dezaquezue bada, christavac, ceyñ gauza bearra den fede christava izatea, ceyñ bayta ceyrura yoateco lembici bicico pausua. Emendic ezagutu dezaquezue, guratsoac, ceyñ obligacio andia duzuen cerun humeay tá escupecoay doctrina santa eracusteco tá Jangoycoaren beldurtasunean tá amorioan acitzeco. Ez daquiena, Jangoycoac berac dio ez duela beretzat ezagutuco[3]: *Qui ignorat, ignorabitur.* Ecusi dezagun orayñ nola eguiñ zuen Christo gure Erredentoreac San Pedro bere ordecoa, apostol santu onec Christoren jangoycotasuna siñetsiaz; ecusi dezagun nola trabajatu zuen apostol santu onec Jaun Soberano arc encargatu cion Elizagatic, christandadeagatic: *Tu es Petrus, et super hanc petram ædificabo Ecclesiam meam, et portæ inferi non prævalebunt adversus eam.* Gauza oyec manifestatu ditzadan Christoren gloriaraco, apostol santu onen honraraco tá gure arimen provechuraco, esca zagun ceyruco socorrua Maria S[anti]S[i]ma bitarteco paratzen dugula: *Ave Maria*. [48] *Them. ut supra.* San Pedro apostoluaz erran tizueden gauzac dire ayñ eguiac ecen Escritura Santan aguerian daude. Diot, nere christavac, aguerian daudela Escritura Santan eguia oyec. Erran dizuet eguiñ zuela Christo gure Erredentoreac San Pedro bere ordecoa, apostol santu onec Christoren jangoycotasuna siñetsiaz; tá trabajatu zuela apostol santu onec Jaun Soberano arc encargatu cion Eliza santagatic, christandadeagatic, al zatequen moduric admiragarrienean. Ecusi dezagun lembicico gauza: Christo gure Jaunagan apostol santu onec zuen siñestea, tá siñeste onen premioa. Dio gaurco Evangelio Santuac etorri cela Jesu-Christo Cesareara tá galde eguiñ ciela bere discipuloay modu onetan: erran cidazue, nór diote guizonac naycela ní? Cér diote nitaz? Eranzun cioten discipuloac: Jauna, batzuec diote zú zarala Juan Bautista; berce batzuec diote zarala Elias; berce batzuec zarala Jeremias, edo illen artetic vichtu den propheta santuren bat. Au diote, ala itz eguiten dute yendeac. Galde eguiñ cien orduan Christoc: tá erran cidazue zuec, nere compañian zabilltzetenac, nere doctrina aditu duzuenac, nere vici modua ecusten duzuenac, anitz milagro eguiten ecusi nazuenac, erran cidazue: cér diozue zuec? Cér iduritzen zaytzue? Nór uste duzue naycela ní? Uste duzue guizon solla naycela ní, Juan Bautista, Elias, Jeremias tá propheta santuac izandu ciren bezala? [49] Galde au Jaun Soberano arc bere discipuloay eguiñ cienean, Jangoyco Soberanoac, Ayta eternoac eman cion San Pedro apostoluari arguitasun bat, ezagumentu bat ayñ andia Christo aytziñean zauqueten guizon ure, galdetzen zagoquien ure cela bere Semea matea, cela Jangoyco eguiazcoa, ecen saltatzen dá tá eranzuten dio Christori: Jauna, yendeac erraten dute au tá ure; erraten dute zarala Juan Bautista; zarala Elias; zarala Jeremias; zarala vichtu den propheta santuren bat; baño nic diot zú zarala Jangoyco viciaren Seme eguiazcoa: *Tu es Christus Filius Dei vivi.* Ona, nere yendeac, apostol santu onec Christo Jaunagan izandu zuen fedea edo siñestea. Ona

[3] Hasieran *ezaguteco* idatzi eta ondoren zuzendu egin zuen. Baztango testu garaikide batzuetan behintzat ez da falta *-teco* amaieradun etorkizunik (Lekaroz 2006: 77). Jokabide horren beste lekuko aski hurbil bat, orrialde hauetan barrena sarritan aipatuko duguna, 1808an Labaiengo *Mendikoetxea*n jaiotako Jose Ignacio Armasa Ayeroa (edo Ayoroa) da, Miguel Ignacioren iloba. Osabaren anaia Juan Francisco eta Maria Franciscaren semea zen. Tontsura 1826an hartu, 1833an apaiztu eta jaioterrira bertara jo zuen, hantxe Mariano Erbiti ezagutu zuelarik (Lekaroz 2014: 253). Euskarazko hainbat prediku idatzi zituen (aurrerantzean *JIArm* laburduraz aipatuko ditugunak, *cfr.* § 1), Labaienen ez ezik Donezteben eta Oronotzen ere bai gutxienez, tarteka osaba domingotarraren testuetan oinarrituta. 1863an Bertizko Jaurerriko kapilaua zen. 1866an hil zen. Ondoren emango ditugun *-teco*dun pasarteak Jose Ignacio Armasak Labaienen 1833an idatzi zuen lehenbiziko sermoikoak dira: *esperacen dudelaric alcanzateco didazula escatu dizuden gracia / baldin ori balequi ezluque murmurateco.*

nola ezagutu tá publicatu zuen San Pedro apostoluac Christo Jangoycoaren Seme naturalzat, Jangoyco eguiazcotzat. Etzuen ecusten San Pedroc Christo baytan jangoycotasuna; mundu onetan gauden artiño eciñ ecusi dezaquegu Jangoycoaren izate ure, izate divino tá admiragarri ure claro claro den bezala ecustea dagoquigu guardatua ceyruraco, Escritura Santac dion bezala; etzuen bada ecusten San Pedro apostoluac bere beguiaquin Christoren jangoycotasuna, Christoren Jangoyco izatea. Etzuen ecusten Christo baytan guizon bat baycic, etzuen ecusten gorputz sacratissimo bat baycic; baño Ayta eternoac bere entendimentuan eman cion arguitasunarequin ezagutu zuen Christo galde eguiten zagoquien guizon ure cela dembora berean ceyruco Aytaren Seme eguiazcoa, cela guizon ta Jangoyco eguiazcoa. [50] Eguia dá, San Pedro apostoluac modu onetan ezagutu tá declaratu baño lenago Christo Jangoycoaren Semetzat guertatu ciren orayñ erranen tuden gauzac. Sartu zen[4] Christo gure Erredentorea ocasio batean itsasoan onci batean. Oncian Christo sartu baño lenago zabillen itsasoa ayñ alborotatua ecen cirudien ondatzera cioayela onci ure yende guciarequiñ. Oncian Christo sartu cen bezayñ laster choll guelditu cen sossegatua itsasoa. Ecusi zutenean onci artaco guizonac gauza admiragarri au alchatu zuten berun voza tá erran cioten Christori: zú Jangoycoaren Semea zara. Bayta ere Nathanael deytzen cén Christoren berce[5] discipulo batac, ecusiric nola Christoc zaquizquien guizonaren viotzaco secretoac, erran cion Christo gure Jaunari: Maestrua, zú zara Jangoycoaren Semea; zú zara Ysraelgo erreguea. Eguia dá erran ciotela lance oyetan Christori San Pedroc baño lenago cela Jangoycoaren semea; baño ala ere etzuten ezagutu tá declaratu Christo Jangoycoaren Semetzat San Pedro apostoluac bezala. [51] Gauz au entenditu dezazuen, yaquin zazue guizon justoac tá santuac deytzen direla Escritura Santan Jangoycoaren semeac, tá ala erraten dugu christau onac Jangoycoaren semeac direla, cergatic onenzat dauca Jaun arc preparatua ceyruco herencia. Arrazobe onetaz tá berce anitzataz deytzen dire persona justoac Jangoycoaren semeac adopcioz, edo beretzat Jaun arc justoac eguiñaz; baño ala ere ez dire persona justoac Jangoycoaren seme naturalac tá propioac. Motivo onengatic, nola ecusten baytzuten yende ayec cela Christo guizon guciz justoa, santua, ceyruco videa eracusten ciena tá milagro andiac eguiten cituena, zauqueten Christo Jangoycoaren seme adopciozcotzat edo beretzat Jangoycoac eguiñ zuenacotzat; baño etzauqueten Christo Jangoycoaren Seme eguiazco, natural tá propiotzat. Etzauden orañic choll instruituac; etzien ceyruco Aytac errevelatu cela Jesu-Christo bere Seme eguiazcoa, bere Seme naturala ta[6] propioa. Uste zuten cela Jaun Soberano ure guizon guciz justo bat, tá santua; baño etzatzien gogoratzen cela dembora berean guizon tá Jangoyco eguiazcoa. [52] Baño San Pedro apostoluari errevelatzen dio ocasio onetan Ayta eternoac tá ematen dio ezagumentu bat guciz ciertoa, seguroa ta firmea Christo cela bere Seme eguiazcoa, bere Seme naturala tá propioa; Aytac berac zuen naturaleza, zuen izate divinoa, urecha bera zuena; Ayta bezala eternoa, gucia zaquiena ta zezaquena, gucien Criazallea, gucien Gobernadorea, gucien principioa tá fiña; itz batean, cela Aytarequiñ tá Espiritu-Santuarequin Jangoyco bera bera. Au gucia, bada, tá iñorc ere erran dezaquen baño guciz

[4] Esaldiaren hasieran *Cioayen* eman zuen lehenik, eta gero aditz forma aldatu.

[5] *Berce* hitza *cen* adizkiaren jarraian paratu zuen hasieran. Mugitu egin zuen ordea, *Christoren* gehitu nahiak eraginda edo.

[6] Paperaren zartatu txiki batek ilundu egin du hitza; herskaria baizik ez da ongi antzematen.

gueyago errevelatu cion Ayta eternoac tá eman cion ezagutzera lance onetan San Pedrori Christoren gañean; tá ala ezagumentu andi au, ezagumentu ciertoa, seguroa tá guciz firme au sentitu zuenean apostol santu onec bere ariman, saltatu cén galde eguiñ cienean Christoc ía nór cela uste zuten, modu artan: zú zara Jangoyco viciaren Seme eguiazcoa: *Tu es Christus Filius Dei vivi.* Cirudien Christoc cela berce guizon guciac bezala guizona solla; guciz justoa tá santua bay, baño ala ere iduritzen zatzien yendeay edo etzatzien gogoratzen ere izan zatequela Jaun ure guizona tá dembora berean Jangoycoa, Ayta eternoaren Seme eguiazcoa. [53] Cergatiz[7] ecusten zuten Jaun ure vici cela pobreza andian, necatzen cela, izerditzen cela, gosé tá egarritzen cela, ecusten cituzten Jaun Soberano aren baytan berce guizon guciac padecitzen tuzten necessidadeac, tá ala etzatzien gogoratzen trabajuetan vici cen Jaun ure izan zatequela Jangoycoa, izan zatequela Jangoycoaren Seme eguiazcoa, naturala tá propioa; tá motivo onengatic, detuagatic Jaun ure Jangoycoaren semea, deytzen zuten icen onequin Juan Bautista, Elias, Jeremias tá gañeraco propheta santuac Jangoycoaren semeac deytzen cituzten bezala, izanagatic guizon sollac; bada berun justicia tá santidade andia cela medio mereci zuten dey citzatan Jangoycoaren semeac, izanagatic guizon sollac. Baño San Pedro apostoluac ecusiagatic Jaun ure pobreza andian, ecusiagatic necatzen tá icerditzen, ecusiagatic gosean tá egarrian, ecusiagatic Jaun Soberano aren baytan berce guizon guciac padecitzen tuzten necessidadeac, ecusiagatic Christo baytan Jangoycoari ez dagozquiola diruditen gauza oyec, Ayta eternoaren errevelacioz ezagutzen du, confessatzen du tá publicatzen dú dela Christo Jangoyco eguiazcoa, dela Jangoyco viciaren Seme naturala, tá propioa; ez guizona solla. [54] Ezagutzen dú, padecituagatic Jaun Soberano arc erran tuden necessidadeac Jangoycoari etzagozquiola[8] ciruditenac, ala ere cela Jangoyco eguiazcoa, Ayta eternoaren Semea; bere vorondatez, ez precisioz, ez nay gabez, necessidade ayec gú erremediatzeagatic bere gañean errecibitu cituena; ezagutzen dú apostol santu onec, ez idurituagatic guizonay Christoc zaramazquien necessidadeac zagozquiola ongui Jangoycoaren Seme eguiazcoari, necessidade ayec padecitzea zagoquiola Jangoycoaren Seme eguiazcoari aguitz obequiago ez padecitzea baño, cergatic necessidadeac gugatic padecitzearequin manifestatzen cigun aguitz obequiago bere amorio divinoaren anditasuna ez padecitzearequiñ baño. Ala bada gauza oyec guciac errevelatzen tio Ayta eternoac, manifestatzen tio tá ematen tio ezagutzera San Pedrori, tá errevelacio santa au cela medio saltatzen dá apostol santu au tá eranzuten dio Chistori: zu zara Jangoyco viciaren Seme eguiazcoa: *Tu es Christus Filius Dei vivi.* Cér iduritzen zaytzue, christavac, San Pedroc Christo baytan zuen siñeste onetaz? Ona nolaco fedea manifestatzen dú[9] San Pedroc ocasio onetan Christo gure Jangoyco Jaunagan. [55] Ecusi dezagun orayñ cér premio ofrecitzen dion Christoc aren jangoycotasuna modu artan ezagutu,

[7] *Cergatiz* hori akatsa delakoan gaude, nahiz eta egia izan lantzean behin hango eta hemengo testuetan errepikatzen dela, hala nola Juan Nicolas Echeverriaren doktrinan (Echeverria 1826: 52) edota Juan Bautista Azcuerena omen den 1780 inguruko prediku batean (Ondarra 1987: 306). Ez dugu uste, nolanahi ere, amaierako frikari horrek Nafarroako hainbat eremutako instrumental apikariarekin edota Sakana aldeko motibatibo apikariarekin lotura duenik.

[8] Hasieran *ez dagozquiola* zegoela ematen du; *d* tatxatu eta *t* sartu zuen aitzinetik, adizkia lehenaldira eraman nahirik.

[9] Ondoren menderagailua espero zitekeen; *cfr. Ona, christavac, ceyñ dicha andia izanen dén gloria ure erdisten dutenena* (87). Ez zuen halakoetan beti eman, ordea.

confessatu tá declaratu zuenari. Aditu zuenean bada Christo gure Erredentoreac San Pedro apostoluaren fedearen confessioa edo declaracioa, eranzuten dio Jaun Soberano arc apostol santu oneri modu onetan: bienaventuratua zara Simon (ala deytzen cen San Pedro len, Christoc icena mudatu cion artiño), bienaventuratua[10] zara Simon, cergatic ez bay dizu errevelatu Jangoyco viciaren Seme eguiazcoa naycela ni ez araguiac tá ez odolac, baycic ceyruatan dagon nere Aytac; bada nic erraten dizut zuri, Simon, zú zarala Pedro; zú zarala arri bat guciz andia, tá zure gañean, arri andi onen gañean edificatuco dudela nere Eliza, ynfernuco etsayac eciñ beñere destruituco dutena: *Tú es Petrus, et super hanc petram ædificabo Ecclesiam meam, et portæ inferi non prævalebunt adversus eam.* Seguitzen dú aytziña itz eguiten San Pedrori Christoc modu onetan: ta zuri emanen tizut ceyruataco erreynoaren guiltzac; mundu onetan ersitzen duzun gucia, barcatu gabe utzitzen tuzun becatuac ersiac, lotuac tá barcatu gabeac guelldituco dire ceyruatan ere, tá lurrean idequitzen tá barcatzen duzun gucia idequia tá barcatua izanen dá ceyruatan ere. Onela itz eguiñ cion Christo gure Jaunac San Pedrori. Ona apostol santu onec Christo Jaunagan izandu zuen siñestearen premioa. [56] Bay christavac, apostol santu onen fedea dá Eliza santaren, christandade guciaren Christoren urbillanaco cimendua; zuen fede onengatic fundatu zuen San Pedroren gañean Christoc bere Eliza santa. Zú zara Pedro, zú zara arria bat[11] guciz andia ceñaren gañean fundatuco dut nere Eliza, ynfernuco etsayac eciñ benere destruituco dutena: *Tu es Petrus, et super hanc petram ædificabo Ecclesiam meam, et portæ inferi non prævalébunt adversus eam.* O dignidade pareric gabecoa! San Pedro bacarra izandu cen munduan elegitua izan zadin nacio gucien, apostolu gucien, christandadeco doctore gucien aytzindaria, gobernatu citzan Eguzquiaren azpian ciren yende guciac, tá guciay ersi edo idequi citzayzquien ceyruco ateac, Christoren ordecoa cén bezala. Ona nola eguiñ zuen Christo gure Erredentoreac San Pedro apostolua lurrean bere ordecoa, Jaun arengan zuen fede edo siñesteagatic. [57] Ecusi dezagun orayñ nola trabajatu zuen S[a]n Pedro apostoluac Jaun Soberano arc encargatu cion Eliza santagatic, christandadeagatic. Eciñ declaratu dizaquezuet bear bezala gauz au ez badizuet manifestatzen ceyñ vicia cen apostol santu onec Christo Jaunagan izandu zuen fede edo siñeste ure; bada aguerian dago Escritura Santan fede vicia, siñeste vicia dela christavay Jangoycoaren servitzuco ta lagun proximoen provechuraco obrac eraguiten tiena. Eguia au entenditu dezazuen, yaquin zazue doctrina santaco misterioen siñestea batzuetan dela siñeste illa tá berce batzuetan siñeste vicia. Ala dio Escritura Santac. Becatu mortalean dagon christavac siñestatzen tú, bay, fede santaco mysterioac; baño alaco christavaren siñestea dá siñeste illa, cergatic illa dauque bere arima becatu mortalarequiñ. Baño Jangoycoaren gracian, adisquidanzan tá amorioan dagonaren siñestea dá siñeste vicia. Onelacoa cén apostol santu onec Christoren jangoycotasuna baytan zuen siñestea. [58] Aguerian dago Escritura Santan eguia au. Christo gure Jauna illen artetic vichtuta aparecitu citzayenean bere discipuloay irugarren aldian galde eguiñ cion San Pedrori: Pedro, nay nazu berce oyec baño, cere lagunac baño gueyago? Eranzun cion San Pedroc: bay Jauna, badaquizu zuc nay zatudela. Eranzun cion orduan Christoc: bazca citzu nere

[10] *Bienaventura* hutsa idatzi zuen hemen, azken silaba ahaztuta.

[11] *Arriba bat* ageri da eskuizkribuan; lapsus hutsa dela uste dugu, zenbatzailearen hasierako ezpainkariak eragindakoa beharbada.

billotsac. Galde eguiñ cion bigarrenean Christoc: Pedro, mate nazu? Eranzuten dio: bay Jauna, badaquizu mate zatudela. Erraten dio Christoc: bazca citzu nere billotsac. Galde eguiten dio irugarrenean Christoc: mate nazu, Pedro? Apesadumbraturic apostol santu au galde ure bera amberce aldiz Christo gure Erredentoreac eguiñaz, eranzuten dio: Jauna, ez dá zuc ez daquizun gauzaric, guciac ecusten tuzu, guizonen pensamentu tá secreto guciac presente dagozquizu; tá ala eranzuten dizut bayetz, mate zatudela. Erran cion azquenean Christoc: bazca citzu nere ardiac. Lance onetan bada manifestatzen dú San Pedroc beyñ, bí tá iru aldiz nay duela Christo, bere viotzean zaucala Christo, bere arima, bere entendimentu, bere vorondate, bere potencia guciaquiñ mate zuela gauza guciac baño bere Jangoycoa, Christo. Ona Christoren jangoycotasuna baytan San Pedro apostoluac zuen siñestea: siñeste ciertoqui vicia tá aguitz vicia. Siñeste vici onec, bada, eraguiñici cition apostol santu oneri Jangoycoaren servitzuan tá christandade guciaren favorean obra ciertoqui admiragarriac. [59] Ez nayz eguia onen manifestacioan luzatuco anitz. Asqui izanen dá eguia au ezagutzeco erratea claridadearequin gauz onen gañean Escritura Santa berac diona. Dio bada Escritura Santan San Pablo apostoluac bere buruaz tá bere lagunaz, gañeraco apostoluaz, substancian modu onetan[12]: uste dut vialdu guiñucela[13] Jangoycoac mundu onetara gú apostoluac izan guiñecen guizon gucien despreciagarrianac tá guizonac gú illtzea mereci bayguiñuquenac bezala, bada gú apostoluac gara ecusqueri bat munduaren, aynguerueu tá guizonen aytzinean. Orayñ artiño, Christoren fede santa predicatzen abiatu guiñen ezquero, vici gara pobreza andian, vicia conservatzeco preciso bear den alimentuarequiñ contentatzen garala; casic billuchiac gabilltze, berotzeco adiña soñecoric[14] ez dugula. Lecu gucietan deshonratzen tá despreciatzen gatuzte, ez gaude iñon ere seguro, alde gucietan perseguitzen gatuzte tá mundu onetatic len bay len bota nay guinuzquete. Ez gatuzte estimatzen loya baño, ciquinqueria baño, oyñpeco ongarria baño gueyago. Juicio au eguiten dú munduac gutaz, Christoren apostoluaz; ayñ precio bajo edo despreciagarrian gauzqui munduac. Substancian onela dio San Pabloc zabilltzela Christoren apostoluac Jaun Soberano aren legue santa predicatzen munduan. [60] Orayñ bada, apostol santuen pobreza bacen ayñ andia ecen ez bay zuten vicia preciso conservatzeco bear cen alimentua[15] baycic, cér gosé tá egarriac etzituen padecituco San Pedro apostoluac Christoren fede santaren predicacioan? Cér otzac etzituen padecituco ebilli cen amberce lecu destemplatuatan soñeco faltaz? Lecu gucietan deshonratzen tá despreciatzen bacituzten, cér errespeto, cér erreverencia ecarrico cioten San Pedrori, apostolu gucien despreciagarriana cela uste zutenari? Eciñ egon bazatezquen iñon ere seguro, norc defendituco zuen, norc guardatuco zuen apostol santu au, ceñari guciay baño odio edo aborrecimentu andiagoa cioten? Alde gucietan perseguitzen bacituzten ta nay bacituzten ill apostol santuac, nolaco deseoa izanen zuten quentzeco vicia gucien gachtoena cela uste zuten oneri? Munduaren destruizalletzat bazauzquiten apostol santuac, nola madaricatuco zuten berun ago loyaquiñ destruizalleric andiena cela uste zuten

[12] *Substancian* hitza hortxe idatzi zuen lehenik; tatxatu eta ezkerretara eraman zuen gero.

[13] Sudurkari ostean *t* idatzi zuen hasieran, eta gero baztertu. Beste horrenbeste aurreragoko *guiñecen* eta *guinuzquete* adizkietan (*cfr.* § 1.3.2.5.).

[14] *Casic* idatzi eta baztertu egin zuen ondoren Armasak.

[15] Orriaren erdiko tolesdurak hartu du hitzaren bigarren zatia eta ez da ongi irakurtzen ahal.

au? Bazauzquiten apostol santuac munduco loytzat, lurraco ciquinqueriatzat, oyñpeco ongarritzat, cér aprecio eguiñen zuten San Pedroz, guizon gucien infamena cela uste zutenaz? Onela vicitu ciren apostol santuac, modu onetan vicitu cen San Pedro Christoren ordeco lurrean guelditu cenatic bere azqueneco egunaraño: pobreza andian, casic billuchia, lecu gucietan deshonratua tá despreciatua, iñon ere seguro eciñ egon zatequela, alde gucietan perseguitua tá ill nay zutela. [61] Tá cergatic vicitu cen apostol santu au modu onetan? Jangoycoaren vorondate santa cumplitzeagatic; Christorequiñ conformatu zadinzat[16]; Jaun Soberano aren fede santa, Jangoycoaren leguea, guciay ezagutzera emateagatic; yende guciac, nacio, erreyno tá guizon guciac salvatzeagatic; itz batean, Chistoren billotsac, Jaun soberano aren ardiac ynfernuco etsayen atzaparratatic guardatzeagatic, santificatzeagatic tá Christo gucien buruarequin amorioz glorian yuntatzeagatic. Motivo onengatic vicitu cen apostol santu au modu onetan tá fiñ onengatic beragatic eman zuen azquenean bere vicia: izandu cen ondarrean buruz beti Erroman gurutzean yosia. Onela trabajatu zuen San Pedroc Eliza santagatic, Jaun Soberano arc encargatu cion christandadeagatic. O cembat erreyno, cembat provincia, cembat milla persona ecarri cituen apostol santu onec bere trabajua cela medio Christoren fede santara, Jangoycoaren ezagumentura, ceyruco Aytaren servitzura tá amoriora! Ceyñ obligatua dagoquio christandade gucia apostol santu oneri! [62] Cembat zór dio Españeaco nacio guciac, gure erreyno catholico onec San Pedro apostoluari! Bay, christavac: etzen apostol santu au vici atzia gure Españeaz. Ebilliagatic apostol santu au predicatzen Christoren fede santa berce erreynoatan, guciz oroytzen cen nacio gucien artean bere erreyno catholicotzat Jangoyco Soberanoac escogitu zuen Españeaz; tá ala, deseatzen zuelaric ecartzea Christo gure Jaunaren ezagumentu, servitzu tá amoriora nacio onetaco yende gucia, vialdu cituen Españeara bere zazpi discipulo erreyno au gucia Christorengana itzuli zezatan. Errecibitu zuten gure aytziñecoac San Pedroren discipuloen predicacioa cela medioa Christoren fede santa, tá ordu ezquero conservatu dá gure erreyno catholico onetan gure Jangoyco Soberanoaren ezagumentua tá legue santa; tá esperatu dezagun ez duela San Pedro apostoluac an ceyruatan atzico bere discipuloequin Christorengana convertitu zuen bere erreyno mate au. Ona, cristavac, nola trabajatu zuen San Pedro apostoluac christandadeagatic, Jangoycoaren Semeac encargatu cion Eliza santagatic. Ona San Pedro apostoluac Christoren jangoycotasuna baytan zuen siñestea; ona siñeste aren premioa, izatea San Pedro Christoren ordecoa; ona siñeste vici arc christandadea banatzeagatic apostol santu oneri eraguiñ cition obrac: *Tu es Petrus, et super hanc petram ædificabo Ecclesiam meam, et portæ inferi non prævalébunt adversus eam.* [63] Gauza oyec onela direlaric yaquin zazue, christavac, Eliza Ama Santac celebratzen tuela santuen festividadeac santuen honran tá alabanzan, bay; baño funcio tá sermon oyetan Eliza santac duen fiñ principalena dá muguitzea auditorioac santuen virtuteac tá obrac imitatzera. Orayñ bada, nolacoa izan bear luque gure[17] fedeac, gure siñesteac gure Jangoyco Soberano baytan,

[16] Armasaren testuetan dagoen [subj + *zat*] egituraren adibide bakarra izanik, ez zen gainera labaiendarraren hasierako asmoa izan; *conformatzeagatic* idatzi zuen lehendabizi, eta ondoren aditz nagusia ukitu eta *zadinzat* gehitu.

[17] Originalean *gue* irakur daiteke. Okertzat jo dugu, Armasaren joeraren guztiz aurkakoa izanik: ehundik goiti *gure* dakarte predikuek, eta ale bakar hau da dardarkaririk gabekoa.

izandu celaric aditu duzuen bezalacoa San Pedro apostoluaren fedea Christo gure Jauna baytan? Cér cuydado izan bear guiñuque, christavac, yaquiteco tá siñestatzeco fede firmearequin Christoren jangoycotasuna, doctrina santaco misterio guciac, tá maytatzeco guerun viotz guciarequiñ, guerun arima tá potencia guciacquiñ, San Pedro apostoluac bezala, Christo gure Jauna Jangoyco ta guizon eguiazcoa? Erranen didazue: Jauna, gúc siñestatzen tugu firmeza andiarequin fede santaco mysterio guciac, Christoc apostoluay tá apostoluac Eliza santari, christandadeari, eracutsi citioztenac. Siñestatzen tugu bada, Jauna, firmeza andiarequiñ mysterio santu guciac. Ongui dá. Ala siñetsi bear tugu; bercela ez guiñeque izanen christau catholicoac, baycic ynfielac edo heregeac. Baño nay dugu gauza guciac baño gueyago Christo gure Jangoycoa? Daucagu guerun viotzetan Christo? Mate dugu guerun buruac baño gueyago Christo? Obrac declaratzen dute eguiazco amorioa, ez itzac, ez solasac. [64] Eracutsi bizquidate[18] alaco christavac obrac: manifestatu bezate[19] alabatzen tá honratzen dutela Christo; erreverenciatzen dutela Jangoycoaren icen beldurgarria; santificatzen tuztela Jangoycoaren egunac; obra onatan mezaz gañera egun guardatzecoac, obligacioa den bezala, empleatzen tuztela; elizaco funcio santatara devocioarequin acuditzen dutela; Christoren Passio santaz, berun[20] eriotzeaz, ceyruco gloriaz, ynfernuco penataz yay egunatan especialqui oroytzen direla; pensamentu oyetan yay egunatan dembora puscacho batzuec passatzen tuztela; berun becatuaz choll penatzen direla; berun concienciac sacramentu santuaquiñ garbitzen tuztela; berun lagun proximoa, Jangoycoaren ymagina, viotz gucitic nay ta estimatzen dutela. Eracutsi bizquidate obra oyec tá orduan erranen dut nay dutela gauza guciac baño Christo gure Jangoycoa, daucatela berun viotzetan Christo, mate dutela berun buruac baño gueyago Christo. Eracutsi bizquidazue[21] obra oyec. [65] Baño obra oyec eracutsi bearrean eracusten batidate berun viotzac Jangoycoaren beldur tá erreverenciaren pitsic ez dutela, lagun proximoa deus ere nay ez dutela, berceren odola, substancia tá izate gucia chupatzen tá chupatu nayaz dabilltzela; itz batean, berun vicia, berun egunac, Jangoycoaren egun oyec especialqui empleatzen tuztela ez obligacioa den[22] bezala obra onetan, ez elizan[23], cér erranen dut? Cér erran bear du Espiritu-Santu Jaunaren toqui onetan aren ministroac? Christavac, San Pedro apostoluac eracutsi cigun siñetsiaz gañera Jangoycoa baytan servitu bear diogula Jaun Soberano ari; maytatu dezagula gauza guciac baño gueyago Christo gure Jauna tá estimatu dezagula guerun buruac bezala guerun lagun proximoa, bienaventuranzaraco Jangoycoac eguiñ zuena; tá au eguitearequin izanen garala zori onacoac. Ala eracusten digu bere cartetan San Pedro apostoluac,

[18] Adizki hori eta [64] zein [65] ataletako asko ukituta daude; bigarren pertsona pluralari zuzentzen hasi zitzaion Armasa (lehenik *izquidazue* idatzi zuela ematen du), baina gero *alaco christavac* sintagma tartekatu eta hirugarren pertsona pluralera lerratu zen. Horrenbestez *daucazuela*, *tuzuela* edo *zaratela* zirenak *daucatela*, *tuztela* edota *direla* bihurtu zituen, besteak beste.

[19] Adizki horren lehenbiziko silaba ez da guztiz ongi irakurtzen, zuzenketak tinta orbantxoa sortu baitu. Litekeena da zuzendu aurreko forma *iezadazue* izatea.

[20] 18. oharrean aipatu adizki ukitzearekin batera zenbait izenlagun ere aldatu behar izan zituen: aurretik *cerun* zirenak *berun* bilakatu zituen, adibide honetan bezala.

[21] Bigarren pertsonari dagokion aditz hau txukun zuzentzeaz ahantzita agian (hortik aurrera ere hirugarrenean jarraitu baitzuen).

[22] Hasieran, *dugun*.

[23] Tatxatu egin zuen Armasak jarraian zihoana. Gure ustez *baycic entenditzen nazue…* idatzi zuen gero baztertutako zatiaren hasieran.

ala siñetsi bear dugu tá ala eguiñ bear dugu. Tá ala eguitearequin izanen gara apostol santu onen lagunac ceyruatan. Amen.

[66]

Sermon de la Dominica 2.ª de Quaresma predicado en Lavayen año de 1811 por mí Miguel Ign[aci]o de Armasa.

Domine, bonum est nos hic esse. Math.C.17. vers.4:

Criatu zuen Trinitate Jaun poderosoac, Aytac, Semeac ta Espiritu-Santu Jaunac guizona bere ymagina, semejanza edo iduritasunara, exercitatzen edo empleatzen celaric guizona mundu onetan obra ona, santu tá virtuosoetan gozatu cezan eternidade gucian Jangoycoa ceyruco glorian. Ala eracusten digu gure fede santac, ala predicatzen digute Escritura Divinac. Emendic ezagutu dezaquegu guciac garala Jangoycoaren semeac, guerun Ayta Soberanoaren servitzuan empleatu bear dugunac. Bay, ala dá, gara Jangoycoaren semeac, premioric emanen ez baligu ere ceyruco Ayta Soberano aren servitzuan viotz gucitic empleatu bear guiñuquenac. Baño ayñ ona izandu cén tá dá Ayta misericordioso ure ecen aguiñdua tá preparatua bay dauque aren servitzuan empleatzen denari eciñ pensatu ere datequen adiñaco premioa. Aren yornaleroac[24] bay guiñe bezala, convidatzen gatu Jaun Soberano arc, muguitzen gatu tá animatzen gatu bere servitzura paga admiragarriarequiñ. Cér eguiñ bear guiñuque bada guc, Jaun Soberano aren yornaleroac, aren servitzua gustoz[25] artzeco? Berce yornalero[26] guciac eguiten oy dutena. [67] Bí gauzari beguiratzen oy diote mundu onetaco yornaleroac obraren bat eguiteco berun nagusiarequiñ ajustatzen direnean. Consideratzen dute obraren dificultadea, obra ure eguiten izanen duten nequea tá obra ure acabatzeco empleatu bearco duten dembora; bayta ere consideratzen dute obra ure eguiteaz[27] nagusiac aguintzen dien yornala. Tá ayñ ona bada nagusia ecen obrari mereci zayon baño yornal andiagoa ofrecitzen badie[28], ajustatzen dire berun nagusiarequiñ vorondate onarequiñ tá eguiten dute gustoarequiñ manatzen[29] zayen obra. Gauza au bera eguiñ zuten Evangelioco yornalero ayec, ceyñ ajustaturic yche bateco nagusiarequiñ yornalaren gañean yoan ciren contentu tá alegre nagusiaren ardantzera trabajatzera. Garalaric bada gú guciac Jangoycoaren yornaleroac mundu onetan, eguiñ bear dugu yornalero guciac eguiten oy dutena, erran tuden Evangelioco yornaleroac yche artaco nagusiarequiñ eguiñ zutena. Consideratu bear dugu atencio andiarequiñ cér obra, cér gauzac manatzen tigun Jangoycoac eguiteco tá cér premio aguiñtzen digun, cér paga daucan preparatua aren servitzuan mundu onetan ongui empleatzen denari.

[24] Itxuraz, *yornalariac* zegoen lehenik; ondoren ere, behin baino gehiagotan egin zuen zuzenketa berbera.

[25] Hori hobetsi baino lehenago beste zerbait idatzi zuen; litekeena da *ganaz* izatea.

[26] Hitz horren aurretik *nagusi ta* izkiriatu zuelakoan gaude; tatxatuta dago.

[27] Zuzendu aitzin *eguiteco* ageri zen.

[28] Armasaren ohiko jokabideak *baytie* eskatuko luke, idatzitako *badie* baino gehiago.

[29] *Aguiñtzen* zegoen lehenbizi; aldatu egin zuen.

[68] Bí gauza oyen ezagumentua dá ayñ bearra ecen ez bay digute Escritura Santac berce gauzaric amberce eracusten tá encargatzen nola bí gauza oyec. Gauza oyec biac ciren Evangelioco motil gazte batac yaquiñ nay cituenac, tá yaquiteagatic Jesu-Christori modu onetan galde eguiñ cition[30]: Maestrua, cér eguiñ bear dut betico vicia, ceyruco erreynoa erdisteco? Ceñari Jesu-Christoc bí itzetan eman cion errespuesta modu onetan: guardatucitzu mandamentuac. Lance onetan gazte oneri Jesu-Christoc ayñ itz gutitan eracutsi ciona, gaurco Evangelio Santuac declaratzen tá eracusten digu modu berri tá admiragarri batean. Artu cituen Jesu-Christoc bere compañian bere iru discipulo mateanac, San Pedro, Santiago tá San Juan, tá íantzen[31] ayequiñ Thabor deytzen cén mendi alto batera; tá yarriric Jesu-Christo mendi artan oracioan, San Lucas evangelistac dion bezala, artu zuen figura bat guciz admiragarria: yarri zatzion bere aurpegui divinoa Eguzquia baño ederragoa tá bere soñecoac elurra baño churiagoac. Arrituric San Pedro ayñ gauza admiragarriaz, choll arrituric ecusiaz ayñ gauza ederra, ayñ figura maytagarria tá deseagarria, cér erraten zuen etzaquiela erran cion Jesu-Christori: Jauna, dá gauza guciz deseagarria emen egotea zure aurpegui admiragarri tá guciz eder ori ecusten: *Domine, bonum est nos hic esse.* [69] Baño cér milagro cén arritzea ala San Pedro ecusiaz Jesu-Christoren aurpegui divino ure gloriaz betea? Ceyruco bienaventuranza arc, ongui consideratzen denean, admiratuco ez duenic ez dá. Bada Jesu-Chistoren aurpegui divino aren gaurco edertasunac errepresentatzen digu christau onay Jangoycoac ceyruan guardatua dauquien premioa, paga tá yornala; gauz au consideratu bear guiñuque ongui ongui Jangoycoaren yornaleroac[32] garanac: cer manatzen digun tá cer aguintzen digun[33]. Ona gaurco sermonaren asumptoa: christau onen premioa ceyrua; *Domine, bonum est nos hic esse.* Baño nola ez bayta possible erditsi dezagun gloria ure Jangoycoaren servitzuan mundu onetan empleatzen ez bagara, Evangelioco gazte ari Jesu-Christoc berac erran cion bezala, manifestatuco dizuet sermonaren lembicico zatian cér eguiñ bear dugun mundu onetan gloria ure erdisteco, tá bigarrenean ceyñ dicha andia izanen dén gloria ure erdisten dutenena; *Domine, bonum est nos hic esse.* Bí gauza oyec manifestatu baño len adi zazue atencioarequin doctrina christavaco punto bat. [70] Galde eguiten dut: ceyñ dá Jangoycoaren legue santaco irugarren mandamentua? Eranzuten dut: yay egunac santificatzea. Galde eguiten dut: norc santificatzen tú yay egunac? Eranzuten dut: egun orietan meza ossoa enzuten duenac tá necessidaderic gabe trabajatzen ez denac. Bí obligacio paratzen tigu mandamentu santu onec: lembicicoa meza enzutecoa tá bigarrena premiaric gabe ez trabajatzecoa. Nay tizuet al dezaqueden claridadearequiñ explicatu gauza oyec. Goacen mezaren gañean. Nola enzun bear dugu meza? Theologoac eranzuten dute enzun bear dela meza intencioarequin, atencioarequin tá presenciarequin. Enzun bear dugu meza intencioarequin; erran nay dut, izan bear dugu intencioa, asmoa tá deseoa cumplitzeco obligacio santa onequin, izan bear dugu asmoa obedecitzeco Jangoycoari tá Eliza Ama Santari meza enzutea manatzen digunari. Enzun bear dugu meza presenciarequin, arquitzen

[30] Hasieran, *citionac.*

[31] Eskuizkribuan *íantzcen* irakurtzen da. Hitz barrenean Armasak [ozen + afrikatu] multzoa erabili izan zuenez (*cfr. quentzen, nintzen*, eta abar), *c*-rik gabeko irakurketa iruditu zaigu egokiena.

[32] Jatorrizkoan *Yoarnaleroac.*

[33] Azken sudurkaria ia guztiz ezabatua dago.

garalaric presenteac sacrificio santu ure, Jesu-Christoren gorputz tá odol preciosissimo ure, Ayta eternoari ofrecitzen zayzquion demboran. [71] Enzun bear dugu meza atencioarequin; erran nay dut, egon bear dugu mezan pensatzen gure Jangoycoa baytan, edo Jaunari dagozquion gauzetan, edo guerun salvacioari dagozquionatan. Ez dá asqui obligacio onequin cumplitzeco mezan nola nay egotea, ez dú cumplitzen obligacio onequiñ mezaco dembora irriz, edo solasean, edo ara edo onara beguira empleatzen duenac. Ez dú cumplitzen obligacio onequin mezaco demboran berariaz artan edo onetan, mezari ez[34] dagozquion gauzetan pensatzen egoten denac. Baño nay gabean, orotu gabean gauza ayetan pensatzen duenac, arc bere obligacioarequiñ cumplitzen dú. Norc austen dú mandamentu santu au? Austen dú mandamentu santu au tá becatu mortala eguiten dú meza enzun cezaquelaric enzun gabe utzitzen duenac. Bayta ere becatu mortala eguiten dú, nayz meza enzunagatic, meza galtzeco peligruan necessidaderic gabe bere burua paratu zuenac. Bayta ere becatu mortala eguiten dú, mezara yoanagatic, mezaren zati andi bat bere culpaz utzitzen duenac. Baño ez dá izanen becatu mortala, baycic veniala, utzitzea[35] bere culpaz mezaren zati tiqui bat. [72] Orayñ, ceyñ dén zati tiquia tá ceyñ zati andia, theologoen artean batzuec diote gauza bat ta berceac berce bat. Aguizcomun[36] diote utzitzea epistolaraño bere culpaz ez dela mortala, baycic veniala. Utzitzea bere culpaz epistola erran bitartiño edo lembicico evangelioa assi bitartiño batzuec diote ez dela mortala, baycic veniala; baño berce batzuec diote[37] dela becatu mortala. Principiotic meza enzuten duenac sacerdoteac Jesu-Christoren gorputz tá odol preciosissimoa artzen duen artiño, nayz faltatuagatic mezaren gañeraco zatian ez dú eguiten becatu mortala, baycic veniala. Meza gucia enzunen luquenac, faltatuco balitz consagratzeco dembora pichca artan edo sacerdoteac gure Jauna errecibitzen duenean, eguiñen luque becatu mortala. Ytz batean, Sanctus erraten denatic sacerdoteac gure Jauna artzen duen artiño asqui izanen dá faltatzea zati tiquiagora izateco becatu mortala, mezaren berce zatiatan baño. Modu berean, nayz mezara asistituagatic egonen litzequena bere vorondatez, berariaz edo oroytzen dela divertitua mezari ez dagozquion gauzetan mezaren zati ayetan zeñatara faltatzea erran baydut dela becatu mortala; orrela divertitua egonen litzequenac, bada, berariaz mezaren zati ayetan eguiñen luque becatu mortala ez balu enzuten berce meza. [73] Baño ez dá becatu, ez dú eguiten becaturic ez mortalic tá ez venialic meza utzitzen duenac eciñ enzunaz. Dañu andiren bat izan lazaquenac[38] edo bere osasunean, edo bere honran, edo bere ychean edo bere haziendatan mezara yoateaz, ez dago obligatua orduan meza enzutera. Modu berean, gure lagun proximoac bear badu gure asistencia tá meza enzun duenaren batac eciñ asistitu badiozaque bear bezala, orduan ere ez gaude obligatuac meza enzutera. Baño meza enzun gabe guelditzen denac meza eciñ enzunaz eguiñ bear tu oracio edo obra onen batzuec yay eguna santificatzeco. Ala eracusten digute theologo

[34] Lerroaren amaieran *ez* hitza idatzi zuen eta ondorengo lerroaren hasieran oharkabean errepikatu.

[35] Ondoren *necessidaderic gabe* irakur daiteke, eta ongi ulertzen ez dugun beste zerbait ere bai (*tá*?). Dena dago tatxatuta.

[36] *Guciac* idatziz hasi zuen esaldia, baztertu baino lehen.

[37] Ia lerro erdia tatxatu zuen ondoren; zati horren amaieran *epistola erran bitartiño* irakurri dugu.

[38] Subjektu gisa ari den erlatibozko perpausa Nork kasuan, nahiz eta aditz nagusia (*dago*) iragangaitza izan. Beste horrenbeste aurrerago (*cfr.* 43. oharra).

batzuec. Bayta ere obligatzen gatu mandamentu santu onec ez trabajatzera guardatzeco egunetan[39]. Aguerian dago cér trabaju tá cér obra devecatzen tigun egun orietan mandamentu santu onec. Devecatzen tú bada necazarien tá oficio necosoataco obrac. Devecatzen tú yornalariaco[40] obrac, tá au becatuaren azpian. Becatu eguiten dú bada necessidaderic gabe egun orietan trabajatzen duenac. Orayñ, noyz dén becatu mortala tá noyz dén veniala ez dá arrach ezagutzea tá erratea. [74] Gauza ciertoa dá egunaren zati andian necessidaderic gabe trabajatzen denac[41] eguiten duela becatu mortala, baño dembora pichcaren batean trabajatzen denac[42] ez dú eguiten becatu mortala, baycic veniala. Anitz theologoc diote bí ordu trabajatzea ez dela mortala, baycic veniala; berce anitzac tá bearbada gueyagoc diote allegatzen bada bí ordura dela mortala. Ordu bat guti gora bera trabajatzea aguitzcomun diote ez dela mortala, baycic veniala. Baño gauza oyetan gucietan yaquin zazue: badugu trabajatzeco eguiazco necessidadea edo guerun buruena, edo guerun familiarena, edo guerun lagun proximoarena orduan ez dá becatu ez mortala tá ez veniala trabajatzea. Ala bada, eciñ mantenitu dezaquenac[43] bere burua edo bere familia egun orietan trabajatu gabe, trabajatu dateque tá ez du eguiñen becaturic. Modu berean, dañu andiren bat etorri balaquioque personaren bati ez trabajatuaz, trabajatu dateque. Guisa berean, izanen balu gure lagun proximoac bere gaucetan dañu andiren bat ez laguntzeaz bere eguitecoatan, lagundu daquioque tá ez dá becatu. [75] Baño au gucia entenditu bear duzue eguiazco necessidade denean, cergatic dudaric ez dá utzitzen tuenac bere lanac guardatzeco egunataraco, lenago eguiñ citzacanac edo dañu andiric gabe astalagunataco utzi datezquenac, becatu eguiten duela[44]. Ez dá bada becatu trabajatzea guardatzeco egunatan eguiazco necessidadea denean. Baño nayz eguiazco necessidadea izanagatic publicoan trabajatu bear bada, escatu bear zayo escatzeco dembora bada parrocoari licencia, yendeen escandaloa quentzeco. Modu berean, duda denean ía baden trabajatzeco eguiazco necessidadea ez edo bay, orduan ere manifestatu bear zayo parrocoari necessidade ure tá parrocoac erranen dio cér eguiñ bear duen. Ez nayz lance particularetara[45] yeusten. Doctrinaren explicacio onetatic ezagutu dezaquezue cér gauza zaytzuen guardatzeco yayetan cille tá cér etzaytzuen cille. Tá dudaren bat duzuenean[46], gauza eguiñ baño lenago galde eguiñ zayozue daquienari; cergatic, theologo guciac dioten bezala, gauzaren bat eguitea dudarequiñ cille den edo ez den, dá becatu; duda bada ía becatu mortala dén tá duda onequiñ eguiten bada, dá becatu mortala; duda bada ía becatu veniala dén, duda onequiñ eguitea dá becatu veniala. Obligatzen gatu bada irugarren mandamentu santu onec enzutera meza yay egunetan tá ez trabajatzera guardatzecoetan edo festa ossoetan. [76] Onetaz gañera, anitz theologoc diote obligatuac gaudela

[39] Orrialdearen goiko ezker ertzean dago hitza eta hasierako *e* falta zaio, papera galdu baita.

[40] *Yornal-* osteko *a* ezkutatu egin du tinta orban batek.

[41] Adizkia zuzenduta dago, hasieran Armasak *trabajatzen duenac* idatzi baitzuen. Ohar bedi dena den ukitu gabe utzi zuela halakoxe bat [73] atalaren bukaeran bertan. Iragangaitz zein iragankor, bietara baliatu zuen Armasak *trabajatu* predikuetan zehar.

[42] Hainbat hitz daude jarraian tatxatuta. Lehendabizikoa *nayz* da, baina iluna da ondoren dagoena.

[43] *Dezaquenac* adizkia ondorengo *dateque* iragangaitzaren subjektua izan arren ergatiboan emanda dago (*cfr.* 38. oharra).

[44] Hasieran, *dutela*.

[45] Jatorrizkoan, *particularetera*.

[46] *Duzuenan* idatzi zuen Armasak; okerra ematen du.

festa egunetan mezaz gañera berce obra onen batzuec eguitera, empleatzera egun orietan rato edo dembora zaticho batzuec gauza onetan, edo gure Jangoycoa baytan, edo Jesu-Christoren Passio santan, edo ceyruco glorian, edo ynfernuco penatan pensatzera, edo guerun becatuaz penatzera edo guerun concienciac garbitzera; tá ez batugu empleatzen onela festa egunac, nayz meza enzunagatic, diote anitz theologoc ez tugula santificatzen ongui festa egunac; ez dire atrevitzen erratera dela becatu mortala, baño ez dire atrevitzen ere erratera dela becatu veniala. Emendic ezagutu dezaquezue nola santificatu bear tugun festa egunac: enzun bear dugu meza, ez dugu trabajatu bear necessidaderic gabe, tá onetaz gañera empleatu bear tugu egun orietan dembora puscacho batzuec Jangoycoaren servitzuco obretan edo gure salvacioco gauzetan. Edoceyn lecutan goratu dezaquegu Jangoycoarengana guerun viotza, edoceyn lecutan cumplitu dezaquegu obligacio au. Cér erran guiñazaque empleatzen tuztenaz Jangoycoaren egunac ez modu onetan, bay diversio peligrosoetan, eye orietan, ardalla madaricatuatan, musu besarca gachtoetan! Ah guratsoac, berun semeaz, berun alabaz casoric eguiten ez dutenac! Asqui dá doctrinaren gañean. Aytziña seguitzeco esca zagun Jangoycoaren gracia. *Ave maria.* [77] *Them. Domine, bonum est nos hic esse.* Erran dizuet, christavac, ez dela possible erditsi dezagun ceyruco gloria Jangoycoaren servitzuan mundu onetan empleatzen ez bagara. Ala dá. Nola empleatu bear gara bada mundu onetan Jangoycoaren servitzuan? Adi zazue atencioarequin. Viotzatic deseatzen duenac yaquitea christavaren obligacioa tá leguea, Evangelio Santuan Christo gure Jaunac berac itz gutitan dauque declaratua. Dio bada Jesu-Christoc modu onetan: nay duenac nere atzean etorri utzi beza bere burua, artu beza bere gurutzea tá seguitu becit. Ytz oyequiñ claro declaratu zuen ceyruco maestru arc berce lance batean erran zuena: mearra dela ceyruco videa tá ate estutic sartu bear duela ara yoan nay duenac. Christoren itz oyetan manifestatzen zaycu neque andizcoa dela gure salvacioco negocioa. Baño Escritura Santac dion bezala Jangoycoaren lagunzac tá graciac arintzen digu neque au. Dá bada dificultadezco videa ceyruco videa, cergatic utzitzea batac bere burua, artzea bere gurutzea tá seguitzea Christori, humildadezco, pobrezaco tá pacienciaco videtic ebilli cenari, ez dá nequea tá dificultadea ez duen gauza. [78] Baño ez dazan inorc uste izan santuay tá perfectoay erran citiela Christoc itz oyec tá ez guciay, San Lucas evangelistac dio guciay minzatu zatziela Christo modu onetan. Modu berean explicatzen dá San Marcos evangelista. Zagolaric San Pedrorequiñ tá gañeraco discipuloequiñ Jesu-Christo, itz oyec errateco urbillean zagon guizon salla andi bat detu zuen Jaun arc, tá guciac batean zaudela erran cien: nay duenac nere atzean etorri utzi beza bere burua, artu beza bere gurutzea tá seguitu becit. Erran izan baylu bezala: ez dut iñor ere bere vorondatearen contra nere atzetic ecarri nay, ez diot iñori borcharic eguiñ nay; nay duenac seguituco nau, nay ez duena an compon bedi; baño ala ere berun arimac estimatzen tuztenay, ceyruco gloriaren deseoa dutenay, nere gloriaren participanteac izan nay dutenay, niri seguitu tá ní alcanzatu nay nautenay, ní yoanen naycen lecura yoan nay dutenay eracusten diet vide au, paratzen diet legue au: utzi ditzatela berun buruac, artu dazatela berun gurutzea tá seguitu didazatela. [79] Entenditu dezazuen claroago itz oyetan Jesu-Christoc erran nay cigun gauza, yaquiñ zazue cér motivo izandu zuen Jesu-Christoc itz oyec errateco. Manifestatu cien Jaun arc bere discipuloay bere Passio santaren tá gurutzearen deshonra. San Pedroc, ustez etzagoquiola ongui

Jangoycoaren Semeari padecitzea ayn deshonra andiarequin, nay izandu zuen apartatu Christo Passio santa ure padecitzeco asmotic. Baño erreprenditu zuen gogorqui Jesu-Christoc bere discipulo ure erraten ciolaric guizonen pensamentuac cirela aren pensamentuac, ez Jangoycoarenac; zauzquiela gauza gachtotzat trabajuac tá deshonrac, tá uste zuela etzaycula conveni padecitzea trabajuac tá deshonrac; baño casic guizon guciac duten pensamentu onen contra pronunciatu zuen ceyruco maestru arc sentencia ure ceñean declaratu cigun trabajuac padecitzea tá nequeatan paciencia izatea cela ceyruco videa, sufrimentua dela betico vicitzaraco videa, trabajuatatic yoaten dela descansura, humildadetic gloriara. Auxa dá bada Jesu-Christoc diona: nay duenac nere atzean etorri utzi beza bere burua, artu beza bere gurutzea tá seguitu becit. Examinatu ditzagun Jesu-Christoren sentencia onen zati guciac. [80] Lembicicoa da: nay duenac nere atzean etorri utzi beza bere burua. Cer gauza dá utzitzea christau batac bere burua? Ez berceric, baycic aborrecitzea bere gorputzaren deseo gachto guciac; ebaquitzea, autsitzea viotzaco inclinacio desordenatuac; sugetatzea guerun gorputzac Jangoycoaren legue santara; eraguitea guerun gorputzari, nay ez duela ere, Jangoycoac aguiñtzen duena; ucatzea guerun gorputzari bere mandamentu santuetan Jangoycoac devecatzen duena. Auxa da, christavac, utzitzea persona batac bere burua. Seguitzen dú aytziña Christoc[47] tá erraten dú: artu beza bere gurutzea. Cér gurutze dá au? Vici onetaco nequeac, mundu onetaco trabajuac, lurraco naygabeac, ceñetaz gure vici gucia yosia tá betea dagon. Gure nequeen tá trabajuen causa dá anitzatan ynfernuco etsaya ure, gú tentatzen beñere aspertzen ez dena. Berce anitzatan dire guerun lagun proximoac maliciaz, envidiaz edo ignoranciaz perseguitzen gatuztenac. Berce anitzatan gure nequeen tá trabajuen causa dá guerun gorputza, guerun[48] araguia bere deseoequiñ, bere cuydadoequiñ, bere necessidadeequiñ, bere enfermedadeequiñ atormentatzen gatuena. Bayta batzuetan ere gure Jangoycoac berac vialtzen tigu nequeac tá trabajuac gú becatoreac castigatzeco, tá christau santuay ere vialtzen tie ayen virtutea gueyago probatzeco tá azquenean berun pacienciagatic premio andiagoa emateco. [81] Norc explicatu ditzaque uste gabeco desgraciac, gogoratu gabeco miseriac, guerun ezaguneen, adisquideen, aydeen, guratsoen tá humeen esperatzen ez guiñtuen[49] eriotzeac? Ez dá estaduric, ez dá andiric, ez dá chiquiric; itz batean, ez dá personic miseriaz, naygabez, nequez tá trabajuz betea ez dagonic. Ez dá arrosaric aranza gabecoric, ez eta vici onetan ere ayn persona afortunaturic milla penaz beteric ez dagonic. Gurutze au bada erraten digu Jesu-Christoc[50] artu dezagula, gurutze au yessan dezagula, gurutze au pacienciarequin eramen dezagula; tá gurutze onen erdian, Jangoycoaren escutic etorria bezala, alabatu tá bedicatu dezagula Job santuac bezala guerun criadorea, trabajuac direla medio bere descansura eramen nay gatuena. [82] Erraten digu azquenean Christoc: tá seguitu becit. Baño cér gauza dá Christori seguitzea? San Juan evangelistac diona: Christo vicitu cén bezala vicitzea. Jaun arc bada, Escritura Santac dion bezala, padecitu zuen gugatic utzitzen cigularic exemploa, seguitu ditzagun becaturic eguiñ etzuen aren tá falsedaderic gabeco

[47] Ergatibo marka falta du hitz honek eskuizkribuan.

[48] *Gerun* idatzi zuen hor Armasak. Ez dugu aintzat hartu; [herskari belar ozen + *e*] segida ez zuen beste inon <ge> bidez adierazi (*cfr.* aurreko *guerun* bera).

[49] Jatorrizkoan bi hitzetan banatua: *guiñ tuen*.

[50] Ergatibo atzizkirik gabe eman zuen hau ere Armasak.

agoa izandu zuen aren pausuac; ceñec maldicioz betetzen zuenari etzion gayzquiric eranzuten, padeciricitzen ciotelaric etzien amenazaric eguiten, baycic entregatzen zatzion gayzqui ure juzgatzen zuenari. Vici obenic gabetasuna au, bada, tá becatu genero guciatatic libre dagon garbitasuna au, paciencia au, aserre gabetasuna au, baquea aborrecitzen dutenequin baquetasuna au tá Jaun aren gañeraco virtuteac seguitu bear tugu. Auxa dá Christori seguitzea, au dá Christoren atzean yoatea. Au dá, christavac, manatzen zaycun obra, au escatzen zaycun lana, au bere yornalero fielay Jangoycoac señalatzen dien tarea, au christau gucien eguiñ bearra. Ciertoqui dá andia gure eguitecoa, dá nequezcoa gure lana, dá dificultosoa gure tarea tá trabajua; baño uste dut consideratzen badugu ongui gure obraren premioa, gure lanaren yornala, gure tarearen paga, gure eguiñ bearraren salarioa, uste dut Jesu-Christoc manatzen digun gucia idurituco zaycula guti ofrecitua dauquigun premioaren aldean, aguiñdua dauquigun ceyruco gloriaren aldean, sermonaren bigarren zatian manifestatuco dizueden bezala. [83] Ceyñ dicha andia dén, bada, ceyruco gloria erdisten dutenena ez dá possible explicatzea, baño ala ere gaurco Evangelio Santuan dugu gloria aren anditasuna errepresentatzen digun exemplo admiragarri bát. Ayñ ederra paratu zatzion Jesu-Christori Thaboreco mendian bere aurpegui sagrado ure tá ayñ churiac bere soñecoac, ecen admiraturic San Pedro ayñ gauza ederra ecusiaz erran baycion Jesu-Christori: Jauna, dá gauza guciz deseagarria emen egotea zure aurpegui admiragarri tá guciz eder ori ecusten: *Domine, bonum est nos hic esse*. Dudaric gabe dá gauza guciz deseagarria egotea ecusten Jesu-Christoren aurpegui gloriosoa. Ceyruco gloriaren anditasuna, bada, nola bat badera mundu onetan ezagutzeco consideratu zazue, christavac, guizonac tuela bí parte edo bí zati: arima bere potenciaquin[51] tá gorputza bere sentidoequin. Guizonaren bí zati oyec bada, arima bere potenciaquiñ tá gorputza bere sentidoequiñ izanen dire ceyruan gloriaz choll beteac. [84] Allegatzen denean arima christava ecustera bere entendimentuarequiñ Jangoycoaren izate soberano ure, naturaleza divina ure; allegatzen denean ecustera Trinitate Jaun poderosoa, Ayta, Semea tá Espiritu-Santu Jauna; ecusten duenean Aytaren eternidadea, poderioa tá anditasuna; Semearen yaquinduria tá Aytareq[ui]ñ duen semejanza, Aytari choll iduria tá gucietan Aytarequiñ berdiña; ecusten duenean Espiritu-Santu Jaunaren ontasuna, amorioa tá misericordia gañeraco perfeccio divina tá[52] infinitoequiñ, guelldituco dá ayn betea gloriaz, ayñ betea suavidadez, contentuz tá alegriaz ecen arima bedicatu ayec beruc nayco baliguquete explicatu gloria onen anditasuna ez bay latzieque izanen possible gloria aren zatiric chiquiena bear bezala declaratzea. An ez dú arimac deseatuco gueyago yaquitea, ez dú deseatuco gueyago ecustea[53], cergatic an ecusico dú claro claro bere Jangoycoa, ceña baytan ecusico tú tá yaquiñen tú gauza guciac. An ecusico dú claro nola den Jangoycoa gauza gucien principioa, gucien Eguiñzallea, gucien fiña. An ecusico dú nola Jaun Soberano ure izandu cen eternidade gucian tá nola izanen[54] dén beti beti, beñere mudatu gabe, beñere gloria ure galdu gabe,

[51] Lehenik eta behin *potenciarequin* idatzi zuela ematen du, eta beranduago hitzari silaba bat kendu.

[52] Tintak erabat ilundu du *divina* eta *infinitoequiñ* arteko hitza, azentu marka besterik antzematen ez delarik; *tá* da, seguru asko.

[53] Lerroaren bukaeran zegoen azken *a* galdu egin da, orri bazterra higatuta; *ecuste* irakurtzen da.

[54] Aditzaren akabera ez da ongi ulertzen, honakoan ere paper muturra falta baita.

beñere deus ere faltatu gabe. An guelldituco dá arimaren vorondatea ayñ asea ta[55] gusto bienaventuratu ayetaz ayñ betea ecen ez bayta izanen tá ez bay dateque izan ere gauzaric gloria artaz gañera deseatu dezaquenic. An ez dá izanen naygaberic, ez tristezaric, ez envidiaric, ez negarric, ez necessidaderic, ez enfermedaderic, ez nequeric bat bacarric. [85] Bada consideratzen badugu gorputzac bere arima bedicatuari yuntatzen zayonean errecibituco duen gloria, ecusico dugu gauza bat choll admiragarria. Autsa tá lurra cén gorputz ure nay dú Jaun Soberano arc izan dadin arimaren gloriaz betea. Cergatic lagundu cion gorputzac arima bedicatuari eramaten mundu onetan Jesu-Christoren gurutzea, nay dú Jaun misericordioso arc izan dadin gorputza ceyruco palacioetan glorificatua. Ala bada, yuntatzen denean arima santa bere gorputzarequiñ, bere gloriaz beteco dú. Emanen dio gorputzari claridade bat, arguitasun bat ayñ andia tá edertasun bat ayñ admiragarria ecen Eguzquiaren claridadea tá arguitasuna, Eguzquiaren edertasuna ez dá izanen deus gorputz glorificatuaren claridade tá edertasunaren aldean. Tá ayñ dichosoa izanen dá gorputz glorificatua ecen izanen bayta impasiblea, eciñ ill datequena, eciñ deus ere deus ere padecitu dezaquena, nayz suan egonagatic ere; onetaz gañera guelldituco dá gorputz gloriosoa pensamentua bezayn laster lurra tá ceyru guciatan barrena ebilli datequena tá lecu gucietan estorburic gabe sartu datequena. [86] Gorputzaren sentidoac, vista, gustoa tá gañeracoac izanen dire suavidadez tá gloriaz beteac. Ala bada guizon gucia, arima ta gorputza, arimaren potenciac tá gorputzaren sentidoac, barrendic, campotic, alde guciatatic izanen dire[56] glorificatuac. Cér izanen dá ecustea án amberce milla millare espiritu bienaventuratuac, bacocha ceyru guciac baño ederragoa? Cér izanen dá ecustea án amberce milla millare martyr gloriosoen exercito eder ure? Cér izanen dá ecustea amabi apostoluac, christandadearen fundazalleac? Cér izanen dá ecustea Maria S[anti]S[i]ma, Jangoycoaren Seme guizon eguiñaren ama, bere seme Jesu-Christoren ondoan eseria? Tá cér izanen dá ecustea Jesu-Christoren gorputz preciosissimo ure, ceyru gucia bere claridadearequiñ tá edertasunarequiñ choll beteco duena? Ayñ andia izanen dá gloria au ecen ez bayta mingañic gauza au declaratu dezaquenic. Baño ecusi dezagun azquenean cembat dembora iraunen duen gloria arc; gauza au bacarra asqui litzeque deseatzeco mundu onetan trabaju genero guciac Jangoycoaren amorioagatic, servitzeco tá agradatzeco lurrean Jaun Soberano ari, ayñ gloria andia trabajuen premiotzat ceyruan eman nay digunari. [87] Premio arc, bada, gloria arc iraunen dú amberce milla urte cembat izar diren ceyruan, tá gueyago. Yraunen dú amberce milla urte cembat ur tanta erori diren lurrara, tá gueyago. Yraunen dú amberce milla urte cembat legar picor diren ytsasoan, tá gueyago. Ytz batean, iraunen dú Jangoycoac berac iraunen duen adiña, iraunen dú eternidade gucian, bada Escritura Santac dio eternidade gucian gozatuco direla escogituac Jangoycoarequiñ. Nor izanen dá ayñ dichosoa, alaco gloria gozatuco duena! Ona, christavac, ceyñ dicha andia izanen dén gloria ure erdisten dutenena: *Domine, bonum est, nos hic esse.* Orayñ bada, amberce cuydadoequiñ, amberce deseoequiñ billatzen batuzte guizonac mundu onetaco ondasunac, honrac, araguiaren gustoac tá gañeraco gauzac ecen ez bayta ez trabajuric, ez peligruric, ez estorburic berun deseoac logratzeco artzen tá garaytzen ez

[55] Beste horrenbeste hemen; ia guztiz galdu da *ta* hori, azentu markarik ba ote zuen ez dakigularik.

[56] Aurreko *dá* baten gainean idatzia.

dutenic, cér izanen litzeque arrazobe guc eguitea ayñ gloria andia, ceña baytan arquitzen dire ondasun guciac, erdisteco? Cér deseatu dezaque mundu onetan persona batac gloria artan milla milla aldiz gueyago arquituco ez duenic? [88] Deseatzen dugu gauza gucien abundancia? Jangoycoa baytan arquitzen dire tesoro guciac. Deseatzen tugu honrac? Cér honra andiagoric izatea baño erregue gucien Erreguearen seme mateac tá adisquide andiac? Deseatzen dugu trabajuric gabe, necessidaderic gabe vicitzea? An trabajuric izanen ez dá, an necessidaderic aguertuco ez dá, an deusen bearric izanen ez dá, cergatic gauza guciac izanen dire án abundancian; arima tá gorputza izanen dá án gloriaz choll betea, Jangoycoa bera izanen dá onen premioa, Jaun ure bera izanen dá bienaventuratuen paga tá yornala: *Domine, bonum est nos hic esse.* Tá cergatic emanen die Jaun misericordioso arc escogituay ayñ gloria andia? [89] Len erran nuenagatic: cergatic Jangoycoaren servitzuan yornalero onac bezala mundu onetan empleatu ciren; cergatic berun buruac Jangoycoagatic utzi cituzten; cergatic aborrecitu cituzten gorputzaren deseo gachto guciac; cergatic viotzaren inclinacio desordenatuac ebaqui tá autsi cituzten; cergatic sugetatu zuten berun gorputza Jangoycoaren legue santara; cergatic eraguiñ cioten berun gorputzari, nay etzuela ere, Jangoycoac aguintzen zuena; cergatic ucatu cioten berun gorputzari bere mandamentu santuetan Jangoycoac devecatzen zuena; cergatic artu zuten berun gurutzea, eramen cituztelaric mundu onetan sufrimentu andiarequiñ Jangoycoaren amorioagatic Jaun Soberano arc vialdu citien trabajuac; itz batean, cergatic seguitu cioten Christori lurrean, maestru soberano aren virtuteac imitatu cituztelaric; onengatic, motivo onetaz emanen die Jaun misericordioso arc bere escogituay ayñ gloria andia: *Domine, bonum est, nos hic esse.* O milla milla aldiz dichosoac escogituac! [90] Baño o milla aldiz desventuratuac gauza onetaz atziac vici direnac! Gloria artaz casoric eguiten ez dutenac! Baldin balaquite cér gauza dén izatea eternidade gucian ceyruan dichosoa! Yzatea Jangoycoaren semea! Jangoycoaren adisquidea! Yzatea aynguerueu laguna! Santuen compañiacoa? Ezagutuco baluquete ongui gauza au! Ceyñ agudo utzico lituquete berun becatuac, ceyñ laster ateraco lireque becatuan erortzeco ocasio tá peligrutic! Nola garbituco lituquete berun arimac! Ceyñ propositu firmea artuco luquete ez ofenditzeco gueyago berun criadorea! Ceyñ ongui cumplituco luquete anitzatan ematen duten itza ez dutela gueyago becaturic eguiñen! Baño gauz onetaz acholaric etzaycu! O Adanen semeen itsututasuna! Ez dugu, christavac, contu onetan noyz bat[57] sartu bear! Guerun negocioen[58] principalena utzico dugu gueroco, utzico dugu guerun eriotzaraco! Etziñuten yoanden íandean aditu gauza au gueroco utzitzen duena[59] burlatua arquituco dela! Ez duela eguiñen guero orayñ eguiñ nay ez duena! Bada gauza au aguizcomun ala bada, noyz artiño gaude Jangoycoarengana eguiazqui tá choll itzultzeco! Noyz artiño esperatu bear dugu Jangoycoaren servitzuan assitzeco! [91] Eman ciguzu, Jauna, cere gracia gure viotzac ceregana inclinatzeco; eguiñ ciguzu oyu bat ayñ loo ayduratic[60]

[57] Bukaerako *t* hori lehendik idatzitako *y* baten gainean dago.

[58] *Negocien* dakar originalak. Oker, itxuraz.

[59] Akatsa dago testuan; *duenac* idatzi zuen Armasak. Seguru asko jarraian esan gogo zuena aldatzeagatik –zuzenketa ttiki bat du ondorengo *burlatua* horrek, azken bokala lerroaren gainean duelarik– eta komunztadura zaintzea ahaztu zuelako. Ikusi dugu lehendik ere antzeko okerrik erlatibozko perpausetan, baina mendeko aditza eta nagusia elkarrengandik urrunago zeudela (*cfr.* 38. eta 43. oharrak).

[60] Hasiera batean *aydutatic* idatzi eta ondoren zuzendua dirudi.

iratzarri gaytzaquena; eman zazu golpe andi bat gure viotzean idequi dizazugun gure arimen atea, sartu zatecen noyz bat gure barrenean andic beñere ez ateratzeco. Eguiñ ciguzu bada, Jauna, favore au; humildadez beteric escatzen dizugu gracia au. Sentimentuz beteric gaude orayñ artiñeco guerun juicio gabetasunaz. Sentimentu au daucagu[61] sartua guerun viotzetan, tá sentimentua bera manifestatzen dugu orayñ, erraten dizugularic viotz gucitic: nere Jesu-Christo Jauna, Jangoyco tá guizon eguiazcoa, nere Criadorea, nere Ayta tá nere Erredentore gauza guciac baño gueyago nay zatudena, penatzen tá urriquitzen nayz ayñ Jaun onaren contra eguiñ tuden becatuaz. Yzan zazu gutaz misericordia. Amen.

1. MIGUEL IGNACIO ARMASAREN EUSKARAZKO TESTUEN AZTERKETA

Hemendik aurrerako iruzkina testuinguru egokian txertatu nahirik, domingotarrak idatzi zuena Nafarroa Garaiko testu sorta batekin erkatu dugu. Testu horietako hainbat Rosa Miren Pagolaren gidaritzapean (Pagola *et al.* 1995b) bildutako XIX. mendeko doktrinak dira: Mariano Erbitirena bera (c. 1850-60, lan honen lehendabiziko zatian emandako datuen arabera; hemendik aurrera *Erb* laburduraz aipatua), Leitzakoa, Berakoa, Araitz ibarreko Intza herrikoa eta Anueko Olaguekoa; Bruno Echeniquek eta Pedro Tornariak Bonaparterentzat Baztango nahiz Ultzamako Lizaso herriko euskaraz eman eta Pagolaren lan taldeak berak (1995a) editatutako testuak ere baliatu ditugu. Arturo Kanpionen ekimenari esker XIX. mendearen azken laurdenean prestaturiko *Orreaga* baladaren hiru itzulpen ere bai (Kanpion 1880): Erasun saldiastarrarena (aurrerantzean, *Eras*), Hernandorena eratsundarrarena (*Hern*) zein Bizente Lazko ultzamarrarena. Aurrekoekin batera, ondorengo hauek dira maizen erabili ditugun testuak: Eltzaburuko 1796ko idazkia (Bidador 2001), Berako XIX. mendeko udal aginduak (Idoate & Villanueva 1981), Lakoizketa narbartearraren 1829 inguruko sermoiak (Ondarra 1994b), egile ezezaguna duen XIX. mendeko doktrina baztandarra (Salaburu 1987), Goldarazko 1833ko eta 1834ko bi prediku (Satrustegi 1987a), Goizuetako XIX. mendearen hasierako udal ordenantzak (Satrustegi 1996), Anastasio Echeverri baztandarrak 1857an Lesakako hizkeraz prestatu sermoia (Satrustegi 1997) zein 1858tik aurrera Zugarramurdin idatzi zituenak (Satrustegi 1987b), Irañetako Juan Miguel Gastesik 1850eko hamarkadan sortutako erlijio testuak (Ulayar 1987) eta Miguel Ignacio Armasaren iloba Jose Ignacioren 1833tik aurrerako prediku argitaragabeak (*JIArm*).

Azterketan zehar eskainitako adibide askoren ondotik dauden 1etik 91ra bitarteko zenbakiak predikuen edizioan eman ditugunekin bat datoz, adibide horiek testuetan errazago topatzearren. Ohar bedi, bestalde, hiru sermoietan zaharrena lan honen lehendabiziko zatian ezagutarazi genuela (*FLV* 118); zati hari dagozkio, beraz, eta ez bigarren honi, 1etik 38ra bitarteko erreferentzia guztiak.

[61] Originalean *daucagua* irakur daiteke. Akatsa da, hurrengo hitzaren amaierak eragindakoa ausaz.

1.1. Grafia

1.1.1. Bokalak: <i> eta <y>-ren banaketaz

Diptongoa osatzean <y> dugu beti: <ay>, <ey>, <oy>; baita <uy> ere jatorrian gaztelaniazko sekuentzia monosilabikoa dagoenean: *cuydado* (63), baina *destruitua* (10). Aipatu joeraren adibide dira *Jangoyco* (5), *usay* (35), *doay* (41) edo *dey* (53). Letra larriaz baliatzean <Y> izan zen Armasaren ohiko aukera: *Yrugarren* (10), *Ysaías* (11). Salbuespena eskuizkribuan maiuskulaz eman zuen *Iandean* azentuduna da (90). Horrezaz gain, balio etimologikoz ere eman zuen batzuetan <y>: *mysterio*, *assyrioen*, *myrra*. Badira, azkenik, <i> eta <y>-ren arteko bikoiztasun kasu batzuk: *ichera* (17) vs *ychean* (73), *idequi* (17) vs *ydequizallea* (42), *itsututasuna* (90) vs *ytsuay* (22).

1.1.2. Kontsonanteak

1.1.2.1. *<b>, <v>: herskari ezpainkari ahostuna*

<b>-ren aldean <v> da markatua. Azken hau maileguetan dator batik bat: *envidia* (24), *vorondate* (31), *provincia* (39), *servitzu* (62) eta abar. Berezko zenbait hitzetan ere bai, askoz bakanago ordea: *averatsa* (3), *viotz* (6), *vide* (78). *Christava* hitzean ere horixe izan zen Armasaren hautua, Leitzako doktrinan eta (ia beti) Labaiengoan agertutako joerarekin bat eginez. Hitz hau dela eta, *cfr.* 1.2.1.6.

1.1.2.2. *<f>, <ph>: igurzkari ezpain-horzkaria*

Beste hizkuntzetatik hartutako hitzetan erabili zuen ia beti <f> domingotarrak: *fede* (4), *fructu* (5), *favore* (10), *infame* (23), *infinitoequiñ* (84). Baina badu agerpenik bestelakoetan ere: *alferrean* (11), *afariren* (22). Ez dago <ff>-rik. Bai ordea <ph>, aldian behin, balio etimologikoa duelarik: *Cayphas, propheta*.

1.1.2.3. *<h>*

Urri samarra da testuetan <h> grafema, eta balio grafiko hutsa du. Dozena bat pasatxo hitz errori lotuta topatu dugu. Ohiko *Humeay* (47) alde batera utzita maileguak dira gainerakoak (*herencia, honra, humana*, edota *Holofernes* bezalako izen bereziak).

1.1.2.4. *<x>*

<x> ez da oso maiztasun handikoa, eta mailegatutako hitzetan idatzi ohi zuen Armasak: *erreflexioac, exercitoaren*, *experimentatu*. *Auxa* (79) agertzeak, ordea, <x> grafiaren bidez igurzkari sabaiaurrekoa ere adieraz zezakeela erakusten du.

1.1.2.5. *<j> eta <y>: igurzkari belar eta sabaikariaren banaketa*

Ahoskera sabaikariaren isla den <y> grafema da nagusi berezko hitzetan: *yanaritzat, yaquin, yarri, yaten, yayotzen, yequi, yeutsi, yoan* (baina joera berriagoen araberako *Jangoyco* edo *Jaun* lagun dituztela). Maileguetan ere badago inoiz edo behin <y>: *yunturatic* (8), *yende* (10), *yornalero* (11). Horrelako hitzetan, dena den, ebakera belarrari dagokion <j> grafema da arruntena.

1.1.2.6. *<c>, <qu>: herskari belar ahoskabea*

Banaketa ohikoa da –<c> *a*, *o* eta *u* aurrean (*campotic*, *erdisteco*, *lecutan*) eta <qu> *e* eta *i* aitzinean (*neque, adisquideac*)–, baina deigarria da azken

predikuan lau aldiz agertzen den *becit* aditz formaren idazkera: *artu beza bere gurutzea tá seguitu becit* (77). Armasak ez zuen sekula <k>-rik erabili.

1.1.2.7. *<r>, <rr>: dardarkari bortitza hitz amaieran*

Bost hitzetan eman zuen labaiendarrak <rr> bidez bukaerako dardarkari azkarra: *ederr* (19), *negarr* (25), *bacarr* (28), *vizcarr* (24), *gogorr* (26). Dena den, *eder* eta *negar* ere badira, <rr> daramaten kideak baino sarriago, eta beste dozena bat hitzetan ageri da <r> hutsa hitzaren hondarrean: *elcar* (4), *guezur* (17), *egur* (25), *beldur* (65), *izar* (87). Ugariagoa da beraz amaierako <r> soila dardarkari bortitza aditzera emateko, aukera bakarra ez den arren.

1.1.2.8. *Txistukariak*

/ʃ/ igurzkari sabaiaurrekoa adierazteko <ch> dugu eskuarki: *choll* (2), *chuchendu* (22), *gachto* (23); salbuespen gisa, arestian aipatu bezala (§ 1.1.2.4.), *Auxa* idatzi zuen Armasak, baina baita *urecha* ere: *Aytac berac zuen naturaleza, zuen izate divinoa, urecha bera zuena* (52). Gutxitan erabili zuen <ss> eta ez sabaiaurrekoaren adierazgarri, /s̻/ apikaria irudikatzeko baizik (*ossoa, yossi*) eta <s>-rekin lehian gainera (*yosi* & *yossi, pasatzen* & *passatzen, sosegatzen* & *sossegatua*); nolanahi ere, usuago ageri da <ss> hitz mailegatuetan.

/tʃ/ afrikatu sabaiaurrekoaren isla grafikoa, bestalde, balio frikaria ere baduen arestiko <ch> bera da beti: *ichedenaz* (14), *manchatu* (35). /ts̻/ apikaria, aldiz, <ts> bidez eman zuen. *Billots* hitza alde batera utzita, bokal artean baino ez dago: *itsustua* (3), *quiratsa* (26), *erditsi* (69).

Txistukari lepokariez den bezainbatean, hitz hasieran /s̻/ igurzkaria irudikatzeko <c> nahiz <z> baliatu zituen domingotarrak –lehenbizikoa sarriago– irizpide argirik gabe: *cezaquelaric* (71), *cezatela* (21), *ceñatatic* (35), baina *zezaquen* (9), *zeñatara* (72).

Ozen ondorengo lepokarien grafiak noiz afrikatuaren aldera, noiz frikarienera egiten du, azken horiek nagusitzen badira ere. Batetik, *a, o, u* baino lehen <z> dugu ia aukera bakarra –*adisquidanza* (19) edota *enzun* (70) ohiko, *guiltzac* (55) salbuespen–; *e, i* aurreko ingurunean, aldiz, <c> da ugarien (*berce, onci*) baina <tz> ere bada, aditz izen guztietan zein *nintzen* (15) edo *zabilltzetenac* (48) bezalako hitzetan; eta ez da falta bikoiztasun adibiderik (*ardanceac* vs *ardantzera*). *Bay(t)*-en osteko lepokarien adierazpenean ere aldakorra izan zen Armasaren jokabidea: *baycen* & *bayciren* & *baycituen* / *bayzuen* & *bay zuten* / *baytzen* & *baytzuten*.

Bokal artean, alabaina, grafiak argi markatzen du frikari eta afrikatuaren arteko aldea. Horren erakusgarri lirateke *atzaparratatic* (61), *iratzarri* (91), *bortitza* (9), *anitzac* (28), *vicitzaraco* (79), *itzuli* (41), *servitzu* (62), *gorputza* (34) eta abar. Hori kontuan izanda, pentsa daiteke ozen eta *bayt*-en inguruko adierazpen aniztasuna ez ote den ingurune horietan ahoskera bera ere mugakoa izatearen isla, eta ez grafia mailako zalantzen ondorio hutsa.

1.1.2.9. *Hots sabaikarituak*

Armasak aise erabili zituen <ll> digrafoa zein <ñ> grafema. Bada bien arteko desberdintasunik, dena den. Albokariaren aurretik diptongoa izanez gero, ez zuen sekula diptongoaren goiko bokala idatzi: *choll, malluen, salla, sarralla.* Sabaikari sudurkarien adierazpena ez da horren homogeneoa,

hainbat unetan <y> ere izan baitzuten lagun: *bezayñ / ceyñ* [erlat.] vs *ceña / miñgayñ* vs *mingañic.* Aurreko <y> hori deklinabide beharrik gabeko hitzetan edota [Ø] atzizkidunetan aukeratu zuen. Aipatzekoa da bestalde badirela zenbait bikoiztasun kasu, berba batzuk grafia sabaikariz nahiz halakorik gabe eman baitzituen domingotarrak: ia beti erro edo morfema bukaeran *–ayn* & *ayñ, eguin* & *eguiñ, humildadez* & *humilldade,* soziat. *-quin* & *-quiñ–* baina baita bokal artean ere *–benere* & *beñere–* (*cfr.* § 1.2.2.1.). Ez dago <tt> digrafoaren arrastorik.

1.1.3. Diakritikoak: azentu marka

Usu samar baliatu zuen Armasak azentu ikurra hiru testuetan zehar: 30 hitz ezberdin eman zituen inoiz edo berriz azentudun, adibideak guztira 900 baino gehiago direlarik. Azentuaren agerpena ez da zeharo erregularra eta ez du antza denez balio semantikorik, baina zenbait kasutan halako asmo edo joera batzuk antzeman daitezkeela ematen du. Hona hemen aipatu nahi ditugunak:

1.1.3.1. Azentua eraman dezaketen hitzen zerrendari begira, bi heren baino gehiago monosilabikoak dira: *cér, dá, gú, ní, ór, yá...* Badaude beraz silaba bakarretik gorako azentudun batzuk ere (*alá, gosé, íessi...*), baina gutxiengo ez ezik oso noizbehinkakoak dira gainerakoen aldean.

1.1.3.2. Hitz baten aldaki azentudunarekin batera azenturik gabea ere badago sarritan: *bí* & *bi, cér* & *cer, dá* & *da, zór* & *zor, zúc* & *zuc*; baina bi formak agertzen direnean azentuduna da ia beti arruntena.

1.1.3.3. Izenordainetan, absolutiboa eta ergatiboa besterik ez zituen Armasak azentu ikur eta guzti eman; silaba bakarreko formak sortzen dituzten kasuak, alegia. Absolutiboan sarriago erabili zuen forma azentuduna (hau da, *ní* da nagusi *ni*-ren aldean) eta ergatiboetan alderantzizko joera dago (*nic* ugariago *níc* baino).

1.1.3.4. Absolutibo-ergatiboez landako deklinabide kasuetan ez dago azentu markarik, une bakar batean izan ezik. *On* izenondoaren destinatiboa bietara eman zuen labaiendarrak, *onenzat* & *ónenzat* bikoteaz baliatuz: *cergatic onenzat dauca Jaun arc preparatua ceyruco herencia* (51) vs *ez ecusiagatic mundu onetan ónenzat Jaun Soberano arc preparatua dauquen gloria* (46). Bigarren adibideari begira, une horretan behintzat azentua antzeko hitzen bereizgarri edota irakurketarako argigarri ote zen pentsa liteke.

1.1.3.5. Hitz hasierako [*i* + *V*] sekuentzietan bokal itxia azentu eta guzti eman zuen Armasak: *íessi* (16), *íandean* (90), *íanta* (42), *íaten* (46). «Igan» aditzari dagozkio azken bi adibideak; horrela, esate baterako, ongi desberdindu zituen arestiko *íaten* eta «yan» (= 'jan') aditzaren baitako *yaten* (15).

1.2. Fonologia

1.2.1. Bokalak

1.2.1.1. Mugatzailea lexema amaierako bokalari elkartzean sortu hiatusetan erregulartasun handia sumatzen da, osoa ez bada ere: batetik, *-i + -a > -ia* da beti *(andia, garbiac), -e + -a > -ea (aldean, necessidadea),* eta *-u + -a > -ua (burua, puscatua).* Horrenbestez, kontaktu zuzenean bederen ez dago mugatzaileak eragindako *a > e / i* & *u__* motako asimilaziorako

joerarik. Baina ukipenaz haratagoko beste ingurune batzuetan asimilazio eza ez da erabatekoa, badira txandaketa adibideak: *daucan* adizkiarekin batera *dauquen* dago, eta *ure* & *urecha* edota *illarici* & *illerici* ere bai, besteak beste. *Eras*-en *dire* & *dabiltce* ditugu, Armasaren testuetan bezalatsu (*Hern*-en, aldiz, *dira* ere badago). Labaiengo gaur egungo mintzoan *arrie, buruen, Ezkurren* eta bestelako batzuk bildu ditugu; ez joera nagusi gisa, bai ordea domingotarraren testuetan baino sarriago eta ingurune ezberdinetan. Pentsa liteke Armasak bere hizkerari zegokion asimilazio maila apaltzeko borondatea izan zuela beharbada, joera kultistaren batek eraginda.

Disimilazio arrastoren bat dago, aldiz, *-o* + *-a* elkarketan: *falsuac* & *falsoac* (17)*, testiguac* (28). Erabat eskasa, dena den, aukera hedatuenaren aldean: *deseoa, ossoa, soñecoac.* Egun Beintza-Labaienen antzeman daitezkeen *ea* > *ia* (> *i*) & *oa* > *ua* (> *u*) dinamiketatik urrun daude, beraz, Armasaren predikuak. Urrun, halaber, Bortzerrietan indarrean dagoen eta XIX. mendeko dokumentuetan ere baden epentesi joeratik (*cfr.* Zelaieta 2008: 120 eta Camino 2013: 122).

1.2.1.2. Txistukari aurreko *e* > *i* bilakaera aski ohikoa da gaur Basaburu Txikian, eta Armasak ezaguna zuen: *ichera* (17), *yche* (67); horrekin batera, *e-u* > *i-u* tankerako asimilazio atzerakaria ere ageri da: *iduquitu* (3), *iduquirici* (17). Baina *Eguzquia* dugu bestetik, eta *ecusi*. Basaburuko iturri garaikideetan «*eguzqui*» aldaera da arruntena (*Eras*-en, *Hern*-en eta *JIArm*-en ere bai), *Erb*-en hautua *i-* izan zelarik, Bidasoa eta Baztan aldeko lekukotasunetan ohi bezala. Gaur egungo jokabideaz den bezainbatean, *cfr.* § 1.5.9.

1.2.1.3. Sinkopa-aferesiek ez dute bizitasun aipagarririk aztertutako testuetan *andre* hitzean eta *tu, tio* & *zayozue, zazu* bezalako aditz laguntzaileetan ez bada: gainerakoan *averatsa* (3)*, Bigarrena* (9)*, atera* (16), *ematen* (9), *etorrico* (25) eta eite bereko beste hainbat utzi dizkigu Armasak. Halakoxea da *JIArm*-en jokabidea ere: *atera, etorri* edo *ematen*, osabaren idazkiekin bat eginez. *Erb*-ek *bigarna* & *bigarrena* ditu, baina salbuespena da txandaketarako isuri hori Basaburu Txikiko testuetan. Ultzamaraino egin behar da sinkopa sendoa aurkitzeko –adibidea Lizasoko doktrinatik aterata dago–: *Lauguerna, siñestatzia yautsi cela infernuetara arren esperan zauden anime sanduec atratzera* (Pagola *et al.* 1995a: 20). Echenique urdazubiarrak, Lakoizketak eta Olagueko doktrinak badute sinkoparik hein batean, baina apalago. «Man», «karri» edo «torri» bezalako aldaera aferesidunak, bestalde, Ultzaman baino ez dira nagusi inguru guztian (*cfr. 'Man 'zaguzu egun gure eguneroco oguie,* ibid., 19), Echeniquek ere aferesirik gabekoekin batera erabili zituelarik.

1.2.1.4 Dardarkari eta txistukari aurreko *o* > *u* Malerrekako ezaugarri esklusibo bakanen zerrendan aipatu du Edu Zelaietak (2008: 150) aldian aldiko agerpena baino ez duela eta *Erb*-ek ere tarteka badakarrela gaineratuz. Armasaren predikuetan *amurratuen* (16) & *amurratu* (26) besterik ez ditugu topatu; geografia hedapen zabalagoko aldaerak diren neurrian ez dira gure iduriz oso adibide esanguratsuak. Izan liteke, gainera, Armasak erabilitako *amurratu* hori sorlekuan ez, baizik eta besteren idatzietan ikasitakoa izatea (*cfr.* § 1.5.10.).

1.2.1.5. Halako monoptongazio isuria dago diptongoetan, inola ere ez erabatekoa. *Jangoycoa* (2) eta *Arquitu* (23) hitzetan *au* > *a* bihurtu da,

baina *aurpegui* ere badago (68). *Amberce* (1) eta *mate* (29) ditugu, bestalde, *ai* > *a* soilketaren ondorioz. Agerikoa da bilakaera hori bera **edin*-en esparruko adizkietan (*dateque, gatecen* & *zatecen*) edota hortik landako *gatu* & *zatugu* bezalakoetan; *angueruen* (36) ere erabili zuen labaiendarrak, baina kasu horretan aldaera diptongoduna da sarriena. Sistematikoak dira ordea *noyzbat* (22) & *norbat* (23); azkenekoa Lakoizketa apez narbartearrak gordetako sermoi anonimo batean ere bada (Ondarra 1994a: 172). Ezegonkor samar dator *ei* ere: *yequi* (17), *bedicatu* (81) edota *detu* (78) & *deytzen* (8) ditugu, azken bi horien artean diptongoduna usuagoa delarik. *Ceyru* (1), aldiz, soiltze arrastorik gabe eman zuen beti. Beste alde batetik *orotu* (71) ere bildu dugu, baina behin bakarrik, *oroytzapena* & *oroytzen* itxurakoen artean. Armasaren garaiko inongo auzo testutan ez da diptongoak soiltzeko joera hori horrenbesterainokoa, baina *JIArm* da gehien hurbiltzen zaiona: *Jangoico, arquitcen, aurpegia, angeruen, yequizaco, ceyruco* (& *ceruco*)... Nolanahi ere, hurbilxeago dabil honetan guztian Miguel Ignacio Armasa Leitza edo Intzako doktrinetatik Ultzama-Baztangoetatik baino.

1.2.1.6. *-u* erdibokalaren jokabiderik sarriena kontsonantizazioa da. Horrenbestez ohiko joera *gabaz* (3) eta *christava* (47) bezalako hitzek erakusten dute. Kontsonante bihurtze hori arrunt ezaguna da egun ere Malerrekan eta Bortzirietan (Zelaieta 2008: 137); guk geuk «*gaba*» jaso dugu Labaienen. *JIArm* ere ildo bertsuan mugitu zen; beste horrenbeste *Erb*. Mugagabean Miguel Ignacio Armasak *christau* (6) idatzi zuen arren, deigarria da behin eta berriro ageri den *gab* (3): kontsonante ahoskabearen aurrean (*zazpi gab pasatu citzazquien*), ahostunaren aurretik (*gab guci artaco injurien ondoan*) edota bokala baino lehen (*gab ure pasatu ondoan*). Ez zuen domingotarrak bakarrik horrela jokatu, *JIArm*-ek ere badu: *Nere Christab adizaleac, cer erranen diozue Jaun oneri* (1833); *Pasatu zen bada gab lastimoso ura* (1834). Forma mugatuaren eraginez sortutako hiperzuzenketa ote den ez dakigu.

1.2.1.7. Basaburu Txikiko egungo hizkeran oso arruntak dira *u* > *o* & *i* > *e* erako irekitzeak (Zelaieta 2008: 146): «*Orrozkua*» ('Urrozkoa'), «*senere*» ('senide'), «*ore*» ('hura') eta horrelako beste hainbat bildu ditugu Labaienen. Armasaren testuetan bada halakoen oihartzunik –*ematen zaye dén edareric oberena* (26)– baina *a* eta *e*-ren arteko mugen lausotasuna da aipagarriena, eta batez ere *e* irekitzeko joera. Horren adierazgarri dira *arrach* (73) edo *astalagunataco* (75)[62]; baita arestian aipatu *Auxa* ere, erakusleari *-xe* atzizkia gehituz sortua[63], *Archac* (11) & *urecha* (52) bezala. Lausotasun horren lekuko, bikoiztasun kasuak ere badaude: *dezan* (21) vs *dazan* (78), *dezagula* (65) vs *dazagula* (6), *ladroncaria* (35) vs *napurqueriac* (37) & *ciquinqueria* (59); edota *ere* gehitzeak eragindako *ez dá iñolara possible* (44) & *pensatura badateque desagradecimentu andiagoric* (23) vs *eciñ pensatu ere datequen adiñaco premioa* (66). Itzuliko gara beranduago azken adibide horietara (§ 2.5.).

[62] «Astelegun» aldaerarekin batera, «astalegun» ere aipatzen du *OEH*-k, Bortzirietakotzat jotzen duelarik, baina ez dugu topatu Armasak bezala *e* > *a* irekitzea muturreraino eraman zuen beste inor. Goldarazko 1833ko sermoian *asteragunetaco* dago (Satrustegi 1987a: 212).

[63] Ohiko *auche*-rekin batera, *aucha* erabili zuen behin Anastasio Echeverri baztandarrak XIX. mendean Lesakako mintzoan paratutako predikuan (Satrustegi 1997: 103).

1.2.1.8. *-arazi* atzizkiaren bilakaera ez da guztiz erregularra baina domingotarrak salbuespenik gabe itxi zuen erdiko bokala. Hersketa ez da beti erabatekoa, *pensareci* aditzak (26) agertu bezala. Hala ere, ohikoena muturreraino eramatea da, eta ezkerreko bokalari ere eragin diezaioke: *aterarici* (8), *ecarraricitzeco* (32), *illaricitzearequiñ* (13) & *illericitzeaz* (24), *erranerici* (17), *iduquirici* (id.).

1.2.2. Kontsonanteak

1.2.2.1. Kontsonante ozenen palatalizazio sendoa dago goiko bokal sabaikariaren ondoren: *illic* (2), *sarralla* (17), *ebilli* (60), *baño* (1), *siñestea* (44). Ikus daitekeenez, *i* hori diptongo osagai nahiz bokal huts izan daiteke. Armasaren palatalizazio joera hori ez da harritzekoa Goizuetatik Anuera bitarteko testuen argitan; dena den, grafia atalean aipatu ditugun sabaikarien inguruko bikoiztasun kasuek (§ 1.1.2.9.) agian iradoki dezakete Armasa bustiduraren pisua apur bat arintzen saiatu zela, testuei itxura jasoagoa eman nahirik edo. Sortutako bikote gehienetan, edonola ere, palatalizatutako aldaera da sarriena. Aldiz, ez zuen palatalizazioa apaltzeko asmorik agertu *bacochean* (7) hitzaren erabileran; horretan, Baztan-Bidasoaldeko hainbat testu garaikidetan ohi bezala, eskuineko txistukaria busti zuen bokal palatalak.

Kontsonante trabariak, ordea, sekula ez zituen Armasak goiko bokal ostean busti: *adituco* (2), *eguiteco* (16), *seguitu* (37). Heldu zaizkigun Basaburu Txiki inguruko testuetan aniztasuna dago: *Eras*-ek bustidura markatua du (*ttuzte, bittartin, arroittu*; Kanpion 1880: 62), inguruan arrunt askoa zela iradokiz, baina *Hern*-ek, *Erb*-ek eta *JIArm*-ek ez dute halakorik. Adibidea ilobari dagokio: *Oracio eguiten dutelaric* (…) *naydute seguitu zure lege santua*. Oraingoan ere, palatalizazio ezaren asmoa idatzitakoaren erregistroa jasoago bihurtzea ote zen gaude (*cfr.* § 2.5.).

1.2.2.2. [*Ez* + aditz laguntzailea] multzoetan sistematikoa da *ez* + *z* > *etz*, baina bestelako inguruneetan ez da inolako sandhi fenomenorik. Horrenbestez *etzatequen* (5) dugu, baina baita *ez nuen, ez gara* edota *ez dadiñ* ere.

1.2.2.3. Hitz hasieran herskari ahostunen aldeko hautua egin zuen Labaiengoak: *becatorea* (17), *gurutze* (25), *golpatzen* (31). Gure egunetako lan monografikoetan azaldu denez (*cfr.*, adibidez, Zelaieta 2004: 239), hasierako ahoskabe / ahostun aukerak Nafarroako mendebala eta ekialdea bereiziko lituzke (ahoskabeak nagusi mendebaldean –Goizueta, Arano, Basaburua, Imotz– eta ahostunak ekialdera Bortzerrietan, Ultzaman, Anuen eta Atetzen)[64]. Bestalde, *-n* amaieradun aditza eta gero, atzizkien hasierako herskaria ahoskabetuta dago: *itz oyec erranta guelditu cén Christo gure Jauna gurutzean illa* (33); *bera ceyruatara íanta lurrean utzi zuen burua* (42). Joera hori bera antzeman daiteke gaur egun Ultzaman (Ibarra 1995: 202); Leitzan, ordea, ahostuntzea dago (Olano 1998: 90).

Tinko eutsi zien domingotarrak sermoi guztietan bokal arteko dardarkari samurrari eta herskari belar ozenari: *acholaric*, *beguiratu*, *nagusia*. Hitzaren buruko *oa-* multzoaren aurretik belar ozena dugu, Nafarroan ohi bezala: *goatzean* (36). Hasierako *g-* horren agerpenaren muga, testu garaikideetan,

[64] Apalauzak, ordea (2012: 296), zalantzan jarri du planteamendu horren egokitasuna.

Basaburu Txikian bertan legoke. Araitz eta Leitzako doktrinetan falta da; *Eras*-en eta *Hern*-en ere ez da horrelakorik: *oatcearen* & *uazearen* (Kanpion 1880: 62 eta 66). Labaiengo hiru iturriek, ordea, *g-* dute (*JIArm*-ek eta *Erb*-ek *guace*).

1.2.2.4. *-rtz-* edo *-st-* kontsonante taldea aukeratzeaz den bezainbatean, ez dago *Erb*-en ageri dena bezalako bikoiztasunik: Armasaren predikuetan *amberce* (1), *berce* (8) eta *bortz* (19) salbuespenik gabeak dira. XIX. mendeko idazkiei begira, aukera bakarra da *-r(t)z-* Baztan-Ultzama-Bortzirietan, eta ia bakarra Lakoizketa narbartearrarengan (badu ordea *bostgarren*). Olagueko doktrinan oso noizbehinkakoa da eta Basaburu Txikitik ezker (Goizueta, Leitza, Intza) ez da alerik. *Hern*-ek zein *Eras*-ek, zoritxarrez, ez ziguten azterbiderik utzi. Armasa gazteak bat egin zuen ia beti osabaren jokabidearekin.

1.2.2.5. Behinolako **-ani* akaberak ez du sudurkari arrastorik utzi, eta soilketa gertatu da: *usay* (35), *arzaya* (42). Euskal Herriko erdigune zabalean hain ezaguna den bilakabide hori bat dator Bidasoalde-Bortzirietako joerarekin (Camino 2013: 117).

1.3. Morfologia

1.3.1. Izenaren morfologia

1.3.1.1. Berezko *-a*-ri eusteko joera dago oro har; horren araberakoak ditugu *Eliza* (40), *eguia* (41), *ciquinqueria* (59) eta beste hainbat. Salbuespen ugari ere bada, ordea: *ecusqueri* (3), *alegri* (28), *ausardiric* (38), *yaquinduri* (40), *personic* (81) eta abar. Bietara erabilitakoak dira *injuri* & *injuria* edota *gauz* & *gauza*. Hauetan ere, dena den, sarriagoa da bokala gordetzea erortzea baino. Ezaguna da Bidasoaldean gaur egun *-a* horren ezegonkortasuna, dela galduz, dela 'soberan' agertuz[65]. Bi jokabideak topatu ditugu Armasaren lanetan, alferrikakotzat jo daitezkeen mugatzaileen arrasto aipagarria dagoelarik: *virginala ure* (8), *semea matea* (49), *gabetasuna au* (82); erdiak edo, erakusle aurrean sortuak dira. Bortzerrietako testu gehienetan sustrai sendoak ditu erantsitako artikuluak. Honako adibide hau Berako XIX. mendeko udal aginduetakoa da: *Niorc eztezala ogui biriq erosi errico ychian descargatu biño lenego, bi dugaten penan aldiya bacochaco* (Idoate & Villanueva 1981: 276). Sortaldera, eman dugu lehendik ere bilakabide horren berri XVIII-XIX. mendeetako Baztango euskara dela eta (Lekaroz 2006: 74). Basaburu Txikiko gainerako idazki zaharretan mugatzaile hori sistematikoa ez izan arren, aztarnak hutsik egin gabe islatu zituzten *JIArm*-ek, *Erb*-ek, *Hern*-ek nahiz *Eras*-ek. Adibidea ilobari dagokio (1833): *formacen duen dolorea ura ezdela suficientea bere becatuen barcacioa Conseguiceco*.

1.3.1.2. Zenbait pertsona izenordain indartu dago predikuetan, edute genitiboan bereziki. Usuena lehenengo pertsona pluraleko *guerun* (3) da; askoz ere bakanago ageri dira bigarren pertsonako *cere* (58) singularra eta *cerun* (25) plurala. Leitzako egungo euskaran «*geron*» & «*geren*», «*zere*», «*zeron*» & «*zeren*» edota «*zerongatik*» ezagutzen dituzte (Olano 1998: 140).

1.3.1.3. Erakusleei dagokienez, hona hemen Armasak emandakoak (parentesi artekoak bakanago dabiltza testuetan kideak baino):

[65] Egungo egoera gertuagotik ezagutzeko, *cfr.* Zelaieta 2008: 109. Bertan adierazten denez ezaugarri horren arrastoak Oiartzundik Sarara bitarteko eremuan behintzat antzeman daitezke.

	Singularrak			Pluralak	
Absolutiboa	*au*	*ori*	*ure*	*oyec* (*)	*ayec*
Ergatiboa	*onec*	*orrec*	*arc*	*oyec*	*ayec*
Datiboa	*oneri*	*orreri*	*ari*	*oyi*	*ayi*
Genitiboa	*onen*	*orren*	*aren*	*oyen* (& *orien*)	*ayen*
Soziatiboa	*onequiñ* (& *-quin*)	*orrequiñ*	*arequiñ*	*oyequiñ* (& *-quin*)	*ayequiñ*
Motibatiboa	*onengatic*				
Instrumentala	*onetaz*		*artaz*		*ayetaz*
Inesiboa	*onetan*	*orretan*	*artan*	*orietan* (& *oyetan*)	*ayetan*
Ablatiboa	*onetatic*				*ayetatic*
Leku genitiboa	*onetaco*		*artaco*		
Adlatiboa	*onetara*				
Bizid. inesiboa			*arengan*		
Bizid. ablatiboa			*arenganic*		*ayenganic*
Bizid. adlatiboa		*orrengana*			*ayengana*

(*) Ohar bedi *oyec*-en paradigmako formak lehenengo zein bigarren graduetarako darabiltzala, *au* & *ori* sailetakoek pluraleko formak elkarbanatzen dituztelarik. Ikus adibide hau (azpimarratua geurea da): *Cér erreflexioac, cér consideracioac ez tigu ofrecitzen, nere christavac, Jaun Soberano aren Passio santa onec? Tormentu izugarri oyec? Eriotze admiragarri onec?* (34). Gertaera hori bera deskribatu zuen Pagolak *Erb*-en edizioan[66].

1.3.1.4. Ergatibo plurala adierazteko aukera bakarra *-ak* atzizkia da: *orrengatic ez dá gauza admiragarria ladronac mereci zuten castigua sufritzen baduzu* (16); *guizon justoac tá prudenteac gueyago sentitzen tuzte deshonrac tá desprecioac, gorputzaren oñaceac baño* (20). Bat dator beraz Araitz eta Bertizarana bitarteko eremu zabalak utzi dizkigun testu garaikide guztiekin.

1.3.1.5. Datibo pluralerako atzizkia *-ay* da salbuespenik gabe: *hebreoay* (2), *amurratuay* (15), *urbillanacoay* (45).

1.3.1.6. Edute genitiboan *-aren* dugu singularrean (Echeniqueren *-ain* amaieraren edo Lizasoko doktrinako *-an* soilduaren arrastorik gabe), eta *-en* pluralean. Inoiz edo behin lexemak eskatzen ez duen pluraleko *-ee-* sekuentzia sortu da: *burleen* (20), *zorreen* (38), *ezaguneen* (81). Beste batzuetan, aldiz, *-e* amaieradun erroak pluralean eskatuko lukeen bokal bikoitza falta da: *oñacen* (20), *eguiñ zallen* (22), *sacerdoten* (31).

1.3.1.7. Soziatiboa emateko *-quiñ* sabaikariduna da aukera nagusia, baina palatalizatu gabea ere sarri asko irakur daiteke: *aditzearequiñ* (2), *icaragarriaquin* (40).

1.3.1.8. *-z* da instrumentalerako Armasak baliatu zuen atzizkia: *madaricatuez* (13), *onetaz* (54), *alabaz* (76). Ez dago amaierako *-s* apikariaren aztarnarik. Aspaldiko ezaugarria da instrumentaleko apikaria eta Nafarroa gehienean zeharreko testuetan dabil, Sakanan hasi eta Aezkoaraino, hego-nafarrera ere bilduz. Berrikuntza zahar honetatik at geratu diren eremuak Zaraitzu, Erronkari, Baztan-Bidasoa aldea, Araitz-Leitza ingurua, Txulapain eta Basaburu Txikia dira (Camino 2013: 101). Olagueko doktrinan ugariagoa da instrumental apikaria bizkarkaria baino; Lizasokoan ez da *-s*-rik, baina

[66] «Badirudi kasu honetan, eta beste batzuetan ere, lehenengo graduko erakusle pluralerako 'oyec' darabilela, baina 'au' singularrerako. Halere, bigarren gradurako ere 'oyec' darabil» (Pagola *et al.* 1995b: 514 - 9. oharra). Guk ere «*oiek*» bildu dugu Labaienen gaztelaniazko 'estos'-en ordain gisa (2013); gure berriemaileek ez zuten «auek» bertakotzat.

bada inoiz Ultzamako beste testuetan (*cfr.* 1796ko *Ontas landara*; Bidador 2001: 524). Leitzako doktrinan alerik ez dago. *Erb*-ek, Armasaren idazkiek ez bezala, apikari arrastoren bat utzi zuen; *cfr. lembicicoa, beguis ikustea* (Pagola *et al.* 1995b: 539).

1.3.1.9. *-(t)zat* eta *-dako* / *-tako* atzizkien artean lehendabizikoa hautatu zuen beti domingotarrak, bai destinatiboan emandako hitz bakanetan eta baita prolatibokoetan ere: *zauqueten Christo Jangoycoaren seme adopciozcotzat, edo beretzat Jangoycoac eguiñ zuenacotzat; baño etzauqueten Christo Jangoycoaren Seme eguiazco, natural tá propiotzat* (51). Nafarroako ipar-sartaldeko testuen bidetik dator oraingo honetan Armasa; Araitz, Leitza eta Bortzirietakoekin bat. Bertizarana-Ultzama-Baztangoetan, aldiz, *-taco* da aukerarik usuena. *Erb*-ek bi atzizkiak utzi dizkigu; baita *JIArm*-ek ere, adibide hauetan ikus daitekeenez: *yarcendelaric bera vide onetaraco guiarizat* (1833) vs *Guizon revolucionario eta gaistotaco tratacenduzuen au* (1834).

1.3.1.10. Motibatibo pluralaren atzizkia absolutibo pluralaren gainean sortu da, eta ez genitiboa oinarri gisa hartuta: *becatuacgatic* (25), *oñaceacgatic* (33).

1.3.1.11. Inesibo pluralaren nahiz mugagabearen atzizkiek lexemaz kanpoko *-a* har dezakete (*cfr.* § 1.3.1.1.), baina joera hori eta alderantzizkoa lehia estuan daude eta ezin esan daiteke bietako bat argi gailentzen denik. Mugagabean *-tan & -atan* ditugu hortaz: *dirutan* (10), *gutitan* (43), *lecutan* (76) vs *diruatan* (15), *destemplatuatan* (60), *anitzatan* (80). Pluralean, ohiko emaitza *-etan* den arren, aise dabil *-atan* ere: *ateatan* (10), *erranatan* (44), *zatiatan* (72).

Bacarric (3) edota *ichillic* (17) bezalako adibide askok salatzen dute inesiboaren agerpen pleonastikorik eza. Beste horrenbeste antzeman daiteke partitiboan (*criaturaric*), ablatiboan (*ciudadetic*) edota motibatiboan (*provechuagatic*). Aipatzekoa da, dena den, aurrekoekin batera bildu dugun *chinchillica*[67]. Pleonasmorik gabeko formak dabiltza gehienbat Armasaren inguru osoan; hala ere *Erb*-ek zein Lakoizketak *-ican* gutxi batzuk utzi zituzten.

Bizidunekin maiz erabili zuen domingotarrak *baytan* inesiboa*: Cér iduritzen zaytzue, christavac, San Pedroc Christo baytan zuen siñeste onetaz?* (54). Apur bat bakanago, baina ez inesiboan bakarrik, *-gan* atzizkiaz ere baliatu zen: *Ona apostol santu onec Christo Jaunagan izandu zuen siñestearen premioa* (55); *ez ecusiagatic yayotzen Maria S[anti]S[i]maganic Jangoycoaren Semea Guizon eguiña* (46). Aldian behin bizidunaren marka genitiboaren gainean emana dator: *Erreyno au gucia Christorengana itzuli zezatan* (62). Salbuespen gisa bizigabeen marka hutsa topatu dugu aurreko hautuen partez: *Baño ongui consideratzen batugu gure Jangoycoaren determinacioac tá obrac, dá gucietan baño admiragarriagoa San Pedro apostoluan* (41).

1.3.1.12. Ablatibo singularra *-tic* da gehienetan eta plurala, aldiz, *-atatic*. Berezkoa ez den *-a* gehitu zion Armasak lantzean behin singularrari,

[67] Etxepareren *yxilica* edota Beriainen *Birjinica* zaharren eite bereko *–ica* amaieradun aldaera hori XVIII. mendearen erdialdetik erabili zen Hegoaldean (*OEH*). Miguel Ignacio Armasak bezala, Jose Ignacio ilobak ere baliatu zuen hitza (*beguira zayozue nola dagon Gurutze batetic zinzillica*, c. 1840) eta armasarren garai bertsuko beste lekukotasun nafarrik ere bada, esaterako Sakana aldeko zaporea duten Aralarko predikuetako pasarte hau: *cristau maiteac or daucazue categogorrak templo santu ontan berac ilce batetic cincilica* (Satrustegi 1987a: 206).

kontsonantez amaitutako oinarri ostean bereziki: *gorputzarenatic* (1), *anditasunatic* (6). Pluralean Labaiengoaren joera nagusiaz bestelakoak dira *lecuetatic* (8) edota *escuetatic* (27). Bizidunen ablatiboa sortzeko atzizkia *-ganic* da, eta absolutiboa izan dezake oinarrian: *sacerdote principalenacganic tá ciudadeco personage ayenganic* (14).

1.3.1.13. Oso antzeko jokabidea dute leku genitiboak eta adlatiboak ere: azken hau aditzera emateko *-ra* (sg.) & *-atara* (pl.) aldaerak dira sarrienak, eta *lurrara* (4), *fidelidadeara* (10) edo *gucietara* (23) bezalako kontradibide gutxi batzuk daude. Aipatzekoa da bizidunen adlatiboaren gainean adlatibo arrunta ezarri zuela behin domingotarrak: *Pilatosenganara* (17). Leku genitiboei dagokienez, *-co* & *-ataco* banaketaren araberako agerpenak dira ugarienak (*ynfernuco, ceyruataco*); *viotzaco* (50) edo *escuetaco* (36), adibidez, noizbehinkakoak dira aurrekoen aldean. Bakan erabilitako muga adlatiborako *-raño* bustiduraduna da ohiko morfema: *lurraraño* (12), *oñataraño* (33). Bikoiztasun kasu bat dago, dena den: *egunaraño* (60) vs *egunarano* (45).

1.3.1.14. Antzinako *-one(m)* atzizkiaren bilakaerak *bofetonac* (8), *ladrona* (21) edota *sermonaren* (43) eragin zituen; *arrazobe* (3) dugu bestetik, hainbat hamarkada beranduago *Erb*-en bezalaxe.

Hortik landa, sudurkaririk gabeko *ocasio* (10), *acusacio* (17) edo *confessioa* (55) zerabiltzan Armasak. Erabatekoa da halakoetan sudurkaririk eza Goizueta, Leitza eta Intzako idazkietan ere. Ekialderago hasten dira hedatzen *-ione* amaiera duten hitzak (Bortzerrietan, Bertizaranan, Ultzaman, Anuen, Baztanen), nahiz eta *-io* bukaeradunekin lehian, eta horiek baino urriago ia beti. *Erb*-en eta *JIArm*-en *-io* da nagusi baina *pasione* dakarte biek; ilobak hemen, esaterako: *Gaur Jonas valientia votacen da vere pasionearen tempestadera* (1834).

1.3.1.15. Atzizkien alorrean oraindik ere, *-ca* irakur daiteke beti, ez *-can*: *tiraca* (8), *burlaca* (31). Aldiz, sudurkari eta guzti erabili zuen Armasak *berelachen* (23), baina arestian ikusi legez (§ 1.2.1.7.) *auxa* & *urecha* ere badaude. Bestalde, ez dago sistematikotasunik *-tze* / *-tza* hautuari dagokionez: nahiz eta *ardantze* / *ardance* etengabe eman, eta *eriotze* ia salbuespenik gabea izan, *vicitza* aldaera baliatu zuen Labaiengo predikariak.

1.3.1.16. Modua aditzera emateko askoz ere sarriago aukeratu zituen Armasak *a(c)* & *-ta* atzizkiak *-(r)ic* baino. Gehiengo dira beraz ondorengo hauen tankerakoak: *zaudela penaz tá oñacez traspasatuac* (29); *O Jauna! Emen gauzquizu choll penatuac* (38). Noizbehinkakoak, ostera, honelakoak: *humildadez beteric escatzen dizugu gracia au* (91). Inoiz bi aukera eman zituen elkarren ondoan: *choll aturdituac tá ayñ castigu izugarriaz admiraturic* (29).

1.3.2. Aditzaren morfologia

1.3.2.1. Aditz izenak eratzean, eutsi egin zion sarritan Armasak partizipio morfemari, gordetako morfema hori ia beti *-i* izanik: *assitzeco, utzitzea, autsitzea* (baina *austen*). Bilakabidea ez zen beste aditz batzuetara heldu: *erortzen* (4), *ichurtzen* (12). Ez dago, bestalde, *-ite-* itxurako aditz izenik.

1.3.2.2. Partizipio forma analogikoak ez analogikoak bezain ugari azaltzen dira. *Egon* & *egondu, izan* & *izandu, vici* & *vicitu* bezalako bikoteak topa daitezke predikuetan; *vialdu* aditzarekin batera, badira *atera* & *atere, gordeco* edo *nasia* ere. Forma analogiko eta ez analogiko horien arteko banaketak muga argi samar batzuk ditu. Indikatiboko adizkiek partizipio analogikoak

dituzte lagun (*izandu zuen, egondu cirela, vialdu citien*); indikatiboz landakoetan, aldiz, ez analogikoetara jotzen da (*izan guiñecen, egon zatequela*). Azken hori bera da hautua *bear* aditza nahiz *ba-* aurrizkia agertzean ere: *izan bearduen, izan bacidan, egon bear citzazquion, egon bazatezquen*. Dena den, zenbait ingurunetan era bateko zein besteko formak ager daitezke. Halako bikoiztasuna dago esaterako *nay* ostean –*izandu* nagusi delarik–, [*bay-* + *bezala*] aitzinetik –*izan* sarrien– edota [*nayz* + *-agatic*] egituraren baitan (*erran izan baylu bezala* vs *ladrona izandu bayliz bezala*).

1.3.2.3. Sudurkariz amaitutako aditzetan *-en* morfema da etorkizun sortzaile bakarra: *izanen* (2), *eguiñen* (10), *egonen* (12), *erranen* (25), *eranzunen* (37), *yoanen* (78). Hori espero zitekeen, sartalde nahiz sortaldean garai bertsuko testu nafarrek duten jokabide ezin garbiagoa ikusita: jokabide horren isla dira Berako doktrinako *emanen* (Pagola *et al.* 1995b: 481), *Erb erranen* (ibid., 528), Intzako *juanen* (ibid., 574), Leitzako *yaquinen* (ibid., 577), Goizuetako *izanen* (Satrustegi 1996: 298), Anastasio Echeverriren *eramanen* (Satrustegi 1997: 102) edota Lakoizketaren *egonen* (Ondarra 1994b: 356), beste askoren artean.

1.3.2.4. Pertsona bakarreko adizki iragangaitzen artean *dire* (19) eta *zaraten* (30) nabarmendu daitezke. Bipertsonal gehien-gehienak, bestalde, *zatzion* (2) & *zatzien* (29) moldekoak dira, badirelarik horiekin batera *citzayenean* bezalako aditz formak, eta deigarria den *zaquiolaric* bakar bat ere bai (*cfr.* § 2.4.). Bigarren pertsonako datiboa duten aleetan afrikatua eman zuen Armasak bokal itxiaren ostean: *ezagutu dezaquezue cér gauza zaytzuen guardatzeco yayetan cille tá cér etzaytzuen cille* (75).

1.3.2.5. Nork sailean ez da inoiz datiboaren komunztadurarik falta, eta Nor-Nork / Nor-Nori-Nork adizkien erabilera esparruak ongi bereizita daude, salbuespenak salbuespen. Orainaldiko Nor-Nork forma zenbait aipatu ditugu aferesiaz (§ 1.2.1.3.) eta diptongoez (§ 1.2.1.5.) aritzean; lehenaldikoen artean hona hemen batzuk: *cinduenac* 'zenuenak' (15), *guiñtuen* 'genituen' (19), *cinduztenac* '[haiek zu] zintuztenak' (37) eta *guiñucela* 'gintuela' (59). Ikus daitekeenez, ezaguna zuen Armasak Nafarroako mendebalde zabalean ibili ohi den erroaren eskuineko *-z-* pluralgilea. Aipatzekoa da, bestetik, azkenean *guiñucela* eman arren *-t-* idatzi zuela hasieran sudurkari ostean; damutu nonbait, eta baztertu egin zuen ordea herskari hori. Berdin jokatu zuen beranduago *guinuzquete* adizkiarekin ere. [Hark-gu] aditzera emateko *guintuen* forma dugu Elizondoko doktrinetan; herskaririk gabeko *guiñucen* da alabaina Leitzakoan eta *Erb*-en dagoen bakarra. Domingotarraren testuetako fonologia ezaugarriren bat idatzitakoari jaso itxura eman nahiak eragin zukeela iradoki dugun bezala, baliteke aipatu azken zuzenketen atzean Basaburu Txikiko entzuleen aditz moldera hurbiltzeko asmoa egotea.

Aipagarriak dira *yuela* & *uena* adizkiak, lehendabizikoa bokal ostean eta bigarrena kontsonantea eta gero erabilita: *ah í, Jangoycoaren temploa destruituco tá iru egunean berriz edificatuco yuela erraten uena; libratu adi* (31). Honekin batera, *tuzte* & *cituzten* saileko aldaera txistukaridunen artean, Nafarroan izatez hegoalderago ageri ohi den *etzituten* (26) gisako ale bat utzi digute Armasaren testuek.

1.3.2.6 Hirugarren pertsonako subjektua duten adizki tripertsonal pluralak *-(i)t-* bidez emanda daude: *citiozten* & *citioten, citien, citieten, citigularic, cition* (edo aferesiaz *tiete, tidate, tie, tigu, tiguzten, tio, tiote* orainaldiak). Subjektua 1. pertsonakoa denean, ordea, bikoiztasuna dago eta bada *-zki-* topatzerik

ere: *guiñtion* 'genizkion' (35) & *tizut* (55) & *tizuet* (70) vs *dizquizudenac* (15). Ezaguna da *-zki-* zaharragoaren eta *-it-* berritzailearen arteko norgehiagoka hori *Erb*-en edota Baztango testu garaikideetan, besteak beste. Lizasoko doktrinan, aldiz, hutsik gabekoa dugu *-(i)t-*: *tyiogun* 'dizkiegun', *tyon* & *tyion* 'dizkion'. Beste alde batetik, *Erb*-ek N-Ni-Nk saileko aditz forma batean dakarren *d* > *r* disimilazioa[68] (*diren* 'didan') edota 3. p. pluraleko *-o-* datibo morfemadun adizkiak ez dira Armasaren idazkietan agertzen.

1.3.2.7. «Eduki» aditza dela eta, Armasak erabilitako *dauquen* / *dauquien* bikotea nabarmenduko dugu:

> *Mundu onetan ón**enzat** Jaun Soberano arc preparatua **dauquen** gloria* (46)
> *Christau on**ay** Jangoycoac ceyruan guardatua **dauquien** premioa* (69)

Bi adibideotan antzemandako bereizketa ez zen Labaiengo predikuetan sistematikoa izan –*cfr.* cér *paga daucan preparatua aren servitzuan mundu onetan ongui empleatzen denari* (67)–, baina domingotarrak «eduki» aditz trinkoaren Nori osagaidun formak bazerabiltzala erakusten du. Eite berekoa da gure ustez honako beste hau, aurrekoak bezala erlatibozko egituran txertatua: *uste dut Jesu-Christoc manatzen digun gucia idurituco zaycula guti ofrecitua dauquigun premioaren aldean, aguiñdua dauquigun ceyruco gloriaren aldean* (82). Datiborik gabeko testuinguru batean *daucagu* soila erabili zuen Armasak (nahiz eta, itxuraz, lapsus eta guzti): *Sentimentu au daucagua* (sic) *sartua guerun viotzetan* (91). Bruno Echeniquek ere baliatu zuen itxura bereko Nori osagaidun formarik; pasarte hau *Cantuen Cantua* testuari dagokio: *Esposoac declaratzean Esposaïn edertasuna, aitortzen du ari dauquion amorio vicia* (IV. Kapitulua; Pagola *et al.* 1995a: 78)[69].

Laburbilduz, hau litzateke «eduki» aditz trinkoaren paradigma, lehenaldiko formak letra etzanean emanik:

	HURA	GU	ZU	HAIEK
NIK	Daucat			
HARK	Dauca & Dauque / *Zaucan* & *Zauquen*	Gauzqui	Zauzqui	Dauzqui / *Zauzquien*
	[+GURI] Dauquigu			
	[+HAIEI] Dauquie			
GUK	Daucagu			
ZUK		Gauzquizu		
HAIEK	Daucate / *Zaucaten* & *Zauqueten*		Zauzquite	*Zauzquiten*

1.3.2.8. Iraganeko adizki trinkoen erro bakarra *-a-* da, Bidasoaldeko idazkietan ohi bezala. Taulako *zaucan* edota *zauzquien* ez ezik *zagoquiola* (18), *etzaquitelaric* (29), *zacarraten* (31), *zabillen* (50)[70] edo *zaramazquien* (54) dira

[68] Disimilazioak Imozko Muskitzen du muga gaur egun eta handik eskuin hedatzen da, baina lehen mendebalderago ere helduko zen beharbada (Apalauza 2012: 345-346). Udaben bertan ikasi ahal izan zuen Mariano Erbitik bere lanean emandako *diren* hori, ala Ultzama aldeko arrastotzat hartu beharko genuke? Zoritxarrez, ez dugu ezagutzen konparaziorako balekoa den Udabe inguruko testu garaikiderik.

[69] Armasaren edo Echeniqueren adizki tripertsonal trinkoen ifrentzu perifrastikoa dugu, konparazione, ezkontzaz ari den Untzu inguruko testuan: *Eliza bere esposari gure Jaunac iduquicion amorioaren eracoa, iduqui behardiocie elcarri zuec ere* (Santazilia 2013: 96).

[70] Ez dago Armasaren testuetan *zabillen* horren orainaldiko ordainik; ezin guztiz ziurtatu beraz Nafarroa Garaian zehar hedatu zen «dabila» berriagoarekin bat egin zuen edo «dabil» zaharragoari eutsi zion.

horren lekuko. Horrez gain, *joan* aditzari dagokionez, forma berranalizatuak erabili zituen domingotarrak: Basaburu Txiki-Imotz ingurutik Oronotz-Ultzamarainoko eremuan ezaguna den *zoayen* (Echeniqueren testu baztandarretan ere badena), baina baita *cioayela* & *cioayelaric* ere.

1.3.2.9. Alegialdiko baldintza ez burutuaren protasirako hirugarren partizipioko formak dira ohikoak: *emanen ez baligu* (66), *faltatuco balitz* (72); une bakar batean, ordea, ezezko baldintza ematearekin batera, bigarren partizipioa dago: *orrela divertitua egonen litzequenac* (…) *eguiñen luque becatu mortala ez balu enzuten berce meza* (id.). Baldintza ebentualik ere topatu dugu predikuetan zehar: *dañu andiren bat etorri balaquioque personaren bati ez trabajatuaz, trabajatu dateque* (74). Tarteka *-que-* marka du protasiak –*nayco baliguquete explicatu* (84); *Ezagutuco baluquete* (90)– baina apur bat ugariagoak dira *baligu, balitu, balitz, balu* gisakoak.

1.3.2.10. **ezan*-en esparruan, *beza* adizkia amaierako *-a* eta guzti idatzi zuen behin eta berriz Armasak; inoiz ez zuen «bez» itxurako aldaera apokopedunik hautatu: *utzi beza bere burua* (77). Apokoperik gabeko joera horixe bera ageri dute Baztan-Bidasoaldeetako testu zaharrek, hegoalderagoko hainbatek ez bezala (Camino 2013: 115). Adizki tripertsonalen aginte formetan aferesia zegoen: *zayozue* (75).

1.3.2.11. Aditz nagusia partizipio eta guzti dator indikatiboz kanpoko laguntzaile gehienen aurretik: *saldu ciezala* (15), *enganatu datezque* (44), *lagundu daquioque* (74). Agintera da joera hori usuen apurtzen duena, ez direlarik gutxi partizipiorik gabeko aleak; horren adierazgarri dira *Gurutzifica bezate* (23), *libra bedi* (id.) eta beste zenbait. Adibideotan ikusi legez, *-tu* dagokie (eta inoiz ez *–i*) aditz oin huts gisa emanda datozen formei.

1.4. Sintaxia

1.4.1. *Guci* erakusle ostean ezartzera jo zuen Armasak. Zenbatzailea absolutibo mugagabean erabilita duen *gab guci artaco* (24) adibidea alde batera utzirik honelakoak idatzi zituen: *ciudade ure gucia* (10), *gauza oyetan gucietan* (74), *tormentu oyecquiñ guciaquiñ* (31)…

1.4.2. Aditza galdegai zuten perpausetan ez du ematen domingotarrak «egin» zerabilenik. Bada hori iradokitzen digun pasarterik: *Cér gauza gueyago admiratu gaytzaquenic, bada, gure fede santac eracusten diguna baño, illcela Jangoycoa?* (4).

1.4.3. *Bear*, salbuespenik gabe, aditz nagusiaren eskuinetara agertzen da: *izan bear luque* (3)*, Consideratu bear dugu* (67)*, escatu bear zayo* (75)*. Nay* ere ondoren dator gehienetan –*eriotzea eman nay cion* (10)*, ara yoan nay duenac* (77)*, bere descansura eramen nay gatuena* (81)– baina batzuetan ekialdeko doinua dakarren hurrenkera dugu: *nay bacituzten ill apostol santuac* (60)*, nay duenac nere atzean etorri* (77).

1.4.4. *Eciñ*-dun egituretan hutsik egin gabe egokitu zuen aditz nagusia laguntzailearen ezkerraldean. Hara, esaterako, *eciñ utzi zezaquen* (9)*, eciñ gogoratu zatziguquena* (21) edo *eciñ asistitu badiozaque* (73). Nafarroan hedapen zabala duen ekialdeko ezaugarria da hau (Camino 2003: 83).

1.4.5 XIX. mendeko testu nafarretan, oro har, osagarri zuzena genitiboan egotea sortalderago eta ohikoagoa da. *Erb*-en ez da genitibo objektibo bakar bat ere; Lizasoko doktrinan, aldiz, bilakabidea oso hedapen urrikoa da. Armasarentzat ez zen erabat arrotza, San Pedro Apostoluari buruzko

predikutik ateratako pasarte hau ikusita: *Urricalduric Jaun Soberano ure guizonaz, compadecituric amberce miseriaz tá desordenaz, vialdu zuen bere Seme divinoa desorden gucien compontzera* (40). Gainerakoetan, dena den, absolutiboa hautatu zuen objekturako.

1.4.6. *Utzi*-ren mendeko aditz izenek hartutako deklinabide atzizkiaz ez dugu datu ziurrik, Armasak ez baitzigun azterbide zuzenik eskaini. Hala ere, Nafarroako hainbat mintzotan *-tzera* nominalizazioa eskatu ohi duten *lagundu* eta *procuratu* aditzez baliatu zenez, haiei begira domingotarraren isuria adlatiboaz bestelakoa izango zela susma dezakegu: *eguiñ cizquiozaquen gaytz guciac procuratu cition eguitea* (14); *lagundu cion gorputzac arima bedicatuari eramaten mundu onetan Jesu-Christoren gurutzea* (85). Adibideok ez dute iradokitzen egitura horietan predikari domingotarrak *Erb*-ekin, *JIArm*-ekin nahiz Baztan-Ultzama aldeko testuetan ezaguna den joerarekin bat egin zuenik (*JIArm Procuratu zazue len baño len Jangoicoaren gracian sarcera* & *uzi zidazue nigar eguitera*, c. 1840)[71].

1.4.7. Erlatibozko perpausak sortzeko erarik hedatuena *-(e)n* menderagailua izan arren, maiz erabili zituen labaiendarrak *ceñ* & *zeñ* & *ceyñ* ere. Hutsean batzuetan, edota *bayt* / *-n* lagun zituztela:

> *…cér gauza admiragarriagoric guizona baño, yá arimaren aldetic, yá gorputzarenatic; ceñean arquitzen dire amberce sentido…* (1)
>
> *…fede christava izatea, ceyñ bayta ceyrura yoateco lembici bicico pausua* (47)
>
> *…mundu onetaco trabajuac, lurraco naygabeac, ceñetaz gure vici gucia yosia tá betea dagon* (80)

Ekialdearen oihartzuna dator perpaus erlatiboetako burua ezkerraldera doanean (Camino 2003: 80-81): Nafarroan badira Iruñerriko lekukotasunak, eta Aezkoatik Erronkarira bitartekoak ere bai. Guk adibide gutxi batzuk topatu ditugu Labaiengo sermoietan: *yende miserable eriotzea eman nay cion aren becatua* (11); *myrra loa ematen zuen arequiñ eman cioten beazuna guciz quiratsa* (26); *yaquinduriric etzutenac elegitu cituen, confunditu citzatan guizon yaquinduri falsoa zuten guciac* (40).

1.4.8. Balio moduzkoa eman zion bereziki Basaburu Txikiko predikariak *-(e)laric* menderagailuari: *mudanza admiragarri batequiñ mercatari osasuna eman zalle bat eguiñ cela, errecibitzen cituelaric gure defectoac tá ematen citigularic bere ondasunac* (33). Dena dela, zaila da zenbait unetan denborazko ñabardura ez aitortzea, *-(e)nean* ere askotan erabili zuen arren: *Zagolaric bada gurutzean Jaun Soberano ure bere gorputzaco odol santua choll ichurita, bere zayñ tá eztarria choll idortuta, egarri icaragarri batequiñ, erran zuen egarria zuela* (32). Inoiz edo behin balio azalpen emailea nagusitzen delakoan gaude: *deseatzen zuelaric ecartzea Christo gure Jaunaren ezagumentu, servitzu tá amoriora nacio onetaco yende gucia, vialdu cituen Españeara bere zazpi Discipulo* (62).

Aurrekoak bezalaxe, modua adieraz dezake *-(e)la* menderagailuak ere: *sacerdoten tá yende ayen principalenac zagozquion gurutzera burlaca, erraten zutela: berceac libratu cituen tá bera eciñ libratu dateque* (31). Denbora zentzutik hurbilago dagoen beste pasarte hau salbuespena da: *eman cidaten yanaritzat beazuna, tá egarriac nengola eman cidaten edaritzat ozpiña* (32).

[71] Dena den, adlatiborik gabe ere erabili zuen tarteka *procuratu* Jose Ignacio Armasak.

1.4.9. Iraupenaren azken muga adierazteko *artiño* hautatu zuen Armasak; ez ordea *Erb*-en ageri den eta Lakoizketak zein Echeniquek erabili zuten *(h) artaraño*[72]: *Etorri cen artiño Jangoycoaren Semea mundu onetara* (39); *sacerdoteac gure Jauna artzen duen artiño* (72). Inguruko iturrien artean Berako doktrinan besterik ez dugu topatu: *ordu artiño bacarric Jangoicoa cena, guelldityu cen Jangoico ta guizon eguiña* (Pagola *et al.* 1995b: 480).

1.4.10. Kausazko perpausetan arrunt askoa da *cergatic*, sarritan bestelako lagunik gabe, inoiz edo behin *-n* edota *bayt-* kide dituela: *an deusen bearric izanen ez dá, cergatic gauza guciac izanen dire án abundancian* (88); *cergatic ecusten dugun egunoro guizonaren gorputzaren fabrica au, ez gara admiratzen eguiazqui admiragarria dén gauz onetaz* (1). Balio bera emanez erabili zuen *bada* lokailua: *ichequico dá gure arima bere Erredentore Soberanoaren amorioan tá becatuaren al detequen aborrecimenturic andienean, bada becatua izandu cén ayñ Passio gogorraren causa* (7). «Ceren» edota «-(e)laco» bilatzea, aldiz, alferrik da.

1.4.11. *-agatic* da kontzesio perpausetako menderagailu nagusia: *Christo gure Jaunac, adituagatic acusacio imfameac, testimonio falsoac tá guezur claroac, etzuen idequi bere ago bedicatua* (17). Bakarrik agertu ohi da, adibidean bezala, baina kontzesio gailuen metatzeaz ere baliatu zen domingotarra: *ez ecusiagatic ere doctrina christavan erraten tá eracusten zaytzquigun gauzac siñetsi bear tugu firmeza andiarequin* (44); *becatu mortala eguiten dú, nayz meza enzunagatic, meza galtzeco peligruan necessidaderic gabe bere burua paratu zuenac* (71). «Arren» ez zuen sekula erabili.

1.4.12. Behin bakarrik, *-zat* atzizkia erantsi zion Armasak subjuntiboari helburuzko perpausa sortzean: *Christorequiñ conformatu zadinzat* (61). Baztanen ere bada egitura beraren zantzuren bat[73], baina ez dugu helburuzko *-zat* horren lekukotasun gertuagorik ezagutzen. Nominalizazioetan, bestalde, *-t(z)eco* eman zuen sistematikoki, amaierako txistukaririk gabe.

1.4.13. Aipatzeko modukoa da Armasaren ondorio perpaus batzuen konplexutasun maila. Hitzetik hortzera erabili zuen halakoetan *ecen*; 30 alditik gora. Ondorio egiturak kateatuta datoz behin baino gehiagotan: *Ayñ andia cén bere ama santissimaz zuen sentimentu au ceyñ andia cén cion amorioa, ceyñ baycen alacoa ecen Jangoycoaz landera ez baytzen ceyruan tá lurrean criaturaric amberce mate zuenic* (9); *Baño Jaun misericordioso ure amberce urricaldu cén Pedro bere discipulo mateaz ecen beguiratu baycion galdu zatzion apostolu ari ayñ begui compassivoaquin, ecen ecusiric Pedroc beguira zagoquiola Christo bere maestru ona, amberce penatu cén Jaun ure modu artan ucatuaz ecen atereric zagon lecutic abiatu baycen negar andiac eguiten bere becatu artaz* (18).

1.5. Armasaren hiztegiaz

Domingotarraren sermoietako lexikoa kontestu zabalagoan txertatu asmoz, Labaien inguruko idazki garaikideetan ohikoa denarekin eta Armasaren jaioterrian bertan bi mende geroago darabiltenarekin erkatu dugu. Horretarako, hiru predikuetan bildutako hirurogeita hamabi item eta aldaera lexikal hartu ditugu aintzat atal honetan zehar. Basaburu Txikiko gainerako

[72] Echeniquek *artaño* hutsa ere badu. Lizasoko doktrinak ere bai, baina *artio*-rekin batera.

[73] Egile ezezaguna duen XIX. mendeko doktrina baztandarrean, hain zuzen ere: *Haren medioz Ceruan dagonaz oroit gaitecinzat eta cerenden haren imagina reverenciadezagunzat* (Salaburu 1987: 467). Salabururen ustez ongi samar bildu zuen doktrinak Elizondon egingo zen euskara.

iturrietan dokumentatuta egoteagatik, eskualdean hedapen zabalekoak izateagatik edota Basaburu inguruan isoglosa sortzaile direlako aukeratu ditugu item-aldaera gehienak; badira, horiez gain, Armasaren idazkietan agerturik deigarri iritzi diegulako hautaturiko beste batzuk ere. Hona hemen alderaketa horretatik ateratako zenbait ondorio:

1.5.1. XVIII. mendearen hondarretik 1880ra arte Leitzatik Ultzamarainoko eremuan sortutako testuekin erkatuta, ez dugu 1810-11etako predikuetako lexikoan berezitasun kopuru handia antzeman. Eratsundik Bertizaranara bitarteko idazkiak ditu hurbilen (*Eras*, *Hern*, *JIArm*, *Erb* eta Lakoizketa narbartearraren sermoiak), eta gertu samar ditu Bortzirietakoak ere. Ez horren hurbil Ultzamakoak, baina are urrunago Leitza eta Goizuetakoak, azken hauekiko parekotasuna alderatu ditugun item-en % 50era ere iritsi ez delarik.

1.5.2. Ez du ematen Irañetako balizko egonaldiak (Lekaroz 2014: 260), luze edo labur, Armasaren hiztegian arrasto nabarmenik utzi zuenik. Adibide gisa, Juan Miguel Gastesi irañetarraren testuetan behin eta berriz agertzen diren *asco, aurretic, ceru, esan, guzti, hechean* edo *jaisten* bezalakoen aldean, Armasak *anitz, aytziñean, ceyru, erran, guci, ichera, yeutsi* erabili zituen ia etengabe.

1.5.3. Gipuzkoako mugatik Ultzamarainoko testu garaikideetan (ia) aldagaitz agertu ohi diren item edo aldaerak hartzen baditugu konparagai, ez dugu horien argitan Armasa berezi sentitu: horren lekuko dira inguruko joerari jarraikiz idatzitako *aguitz, barrendic, beldur*, *obequiago* edota *ongui*, besteak beste.

1.5.4. Aipatu eremuan arestikoak baino aldakorragoak izanik isoglosa sortzaile diren hainbat hitzen erabileran ere, bat datoz lan honetan aztertu ditugun testuak aurretik ezagutzen genituen iturriekin. Adibide batzuk emango ditugu jarraian. Leitzan dokumentatutako *belarri, ecer* eta *obe*, esaterako, *biarri*, *deus* eta *goatze* dira ekialderago; baita Labaiengoaren predikuetan ere. Salbuespenik gabe darabilen *erran*, aldiz, herritik sortaldera ageri zaigu XIX. mendean zehar, handik ezker –Goizuetan, Leitzan, Eratsunen eta Saldiasen bertan– *e(t)san* baitugu. *Atzean* eta *gabe* erabili zituen domingotarrak, bestalde; Bortzirietako testuetan, ostera, *viguela* (Satrustegi 1997: 109) eta *vague* / *bague* (ibid., 110 & Pagola *et al.* 1995b: 480) ditugu, eta *gabe* & *bague* da Goizuetan azken hori. Goizuetako bertako *guchi* & *jarri* hitzen ordainetan *guti*[74] & *paratu* eman zuen Armasak, horretan ere auzo hurbilagoen joera nagusiarekin bat eginez.

1.5.5. Labaien inguruan aldatu ez, eta Ultzamara heltzean bestelakotu ohi dira *ate, erditsi* eta *iñor* bezalako hainbat ele, handik eskuin *ata(r)i, erdetchi* eta *nior* gisako aldaerei bide emanez[75]. Armasaren idazkiek ez dute ekialderagoko aldaera horien aztarnarik; bai, ordea, iturri hurbilek erakutsitakoaren araberako jokabidea. «*Iche* / *eche*» bikoteari dagokionez, aldiz, nahasiago datoz datuak: Labaienen eta Bortzirietan *i-* dugu beti; Leitzan eta Lakoizketaren testuetan, *e-*; Goizuetan eta Ultzaman batera zein bestera aurki daiteke.

[74] Erbitik bietara adierazi zuen: *guchi* & *gutigo*.

[75] Azken hori Bertizaranan eta Goizuetan ere bada tarteka. «*Atari*» badago Sakanan ere, Uharteko doktrinako pasarte hau lekuko: *Da Atyec eta Jesucristoc ceruco atariyec idigui ciyuen biyertien, Jaungoycoaren gracien ill cirenen animec bere becatuben zorra gucie pagaturic juan ciren lecube* (Arakama 1994: 594).

1.5.6. Bada Basaburu Txikian azaldu arren handik landa Nafarroa Garaian hedapen urrikoa dirudien aldaeraren bat; «zeru» adierazteko *ceyru* era diptongoduna, adibidez, hutsik egin gabe zerabilen Armasak; *Eras*-ek, *Hern*-ek zein *JIArm*-ek ere badakarte (*Erb*-ek, ordea, ez). *Yeutsi*, aldiz, Armasaren idazkietan eta *Erb*-en bakarrik topatu dugu (azken horretan *yeutsi* & *yautsi*), inguruan *yautsi* & *yetsi* ageri direlarik[76].

1.5.7. Orain artekoen osagarri 1810 eta 1811ko predikuetan jasotako beste hitz batzuk eskainiko ditugu jarraian, garai bertsuko corpusean agertu bai, baina arestikoak bezain usuak ez direnak: *agudo, beti* 'beheiti', *cille, icararia* (gaur egun «*ikaria*»), *idor, lichtu, picor, solas, sor* eta *urriquitu*. Aurrekoei bezala, hitz horiei ere kutsu nafar argia dariela esango genuke.

1.5.8. *Armasa*ko elizgizonaren hiztegia sorterrian egun baliatu ohi dutenarekin alderatuta[77], aldiz, item-en erdia baino gehiago –hamarretik sei edo– bere horretan jaso dugu berriemaileen ahotan. Horren adierazgarri dira beste askoren artean «*agudo*», «*barrendik*», «*beraxtu*», «*billots*», «*deus*», «*erditsi*», «*goatze*», «*guratso*», «*itxe*», «*lixtu*», «*orañik*», «*pikor*», «*urrikitu*», «*yeutsi*», «*zeiru*» edota «*zille*». Multzo horretako hitz guztiak, predikariak ere erabili izandakoak, bizi-bizirik daude Basaburu Txikian bi mende beranduago.

1.5.9. Beste sail aipagarri bat (item-en % 20) labaiendarren egungo moldetik gertu dauden hitzek osatzen dute; hauek ezin izan ditugu herrian dauden-daudenean edota aurrekoak bezain bete-betean jaso, baina forman, espazioan edo denboran hurbil sentitzen dituzte berriemaileek. Gure ustez Labaiengo XXI. mendeko biztanleen katalogo lexikoari dagozkio hauek ere, arestikoak baino zeharkago izan arren.

Multzo horretako zenbait elementutan Armasak hautatu zuenaren eta gaurko joeraren arteko hurbiltasun formala nabarmendu behar da: 1) Predikariaren *anitz*-en ordez «*aunditz*» topatu dugu, eta Apalauzak (2012: 413) «*aunditz*» & «*asko*». 2) Testuetako *arrazobe,* «*arrazore*» da gaur Labaienen, kontsonante antihiatikoa aldaturik. 3) Domingotarraren *atera* & *atere* & *ateriac* hirukotearen ordainetan, «*ateri*» hutsa bildu dugu guk. 4) Hirugarren sermoiko *eye* hitzak (76) bizirik dirau «*barruko eia*» (= 'ikuilua') vs «*kanpoko eia*» (= 'ezkaratza') bereizketan[78]. 5) «*Iduki*» & «*eduki*» lehian dira gaur herrian, are adin berekoen artean ere; Armasak *iduquitu* & *iduquirici* baino ez dizkigu utzi. 6) *Eguzqui* hasierako bokal irekiagoaz dakarte Labaiengo idazkiek eta guri «*iruzki*» & «*iguzki*» & «*iuzki*» eman dizkigute bertakotzat, baina «*euzki*» ere jaso da egun (Apalauza 2012: 429). 7) 1810eko *ersi* ez dugu labaiendarren solasean entzun, eta bai ordea «*itxi*», baina Apalauzak «*etsi*» eman du (ibid., 440).

[76] Dena den, Udabeko bataio liburuan gorde den XX. mendearen hasierako erlijio abesti batean *jeuchi* dago. Juan Aleman imoztarrak jakinarazi digunez, litekeena da testu horren egilea 1921etik 1938ra arte Beramendin apaiz ibilitako Mariano Arruiz etxalekuarra (1884-1956) izatea.

[77] Gure berriemaile nagusia Francisca Baleztena Albistur (1926-2015) izan da, Labaiengo *Garaxenea* etxean sortua eta bizitza osoa Labaienen bertan emandakoa, eta datu iturri oparo bezain nekaezina izan da halaber Begoña Urroz Baleztena alaba (B.U., 1961). Haiekin batera, aldizka bada ere, sendi bereko beste zenbait kide labaiendar izan ditugu laguntzaile: Francisca Baleztenaren senar Joxe Antonio Urroz Grajirena (1921-2011), Lourdes Urroz Baleztena (1958) –Begoñaren ahizpa–, eta azken honen alabak (1990ean eta 1995ean jaiotako Joana eta Arantxa Estanga Urroz); horrela, hainbat kasutan, adin talde ezberdinetako informazioa erkatu ahal izan dugu. 2009 eta 2015 bitartean jaso ditugu hona ekarritakoak, baina gehienak 2012koak dira. Hasiera batean datu kopuru hazia elkarrizketa librean pilatu ostean, zalantzazko auzi batzuk itzulpen bidez edota hitzak zuzenean galdetuz argitu ditugu.

[78] «*Beitti*» ere bildu da azken urteotan Beintza-Labaienen zein Saldiasen, eta «*eie*» Ezkurran eta Eratsunen (Apalauza 2012: 439).

Armasak laga zizkigun beste hitz batzuk ez dira XXI. mendearen hasierako Labaienen (ia) agertzen, baina ezin da esan hango hiztunentzat arrotzak direnik, sortalde edo sartaldeko auzoek badarabiltzate eta; espazioan hurbilak iruditzen zaizkie. Esate baterako, predikuetako *iratzarri*ren ordez herrian egun «*ernatu*» esan arren, ondoko Eratsunen horrekin batera «*iatzarre*» ere badago (ibid., 454); Eratsungoa da gure berriemaileentzat Armasaren *itz eguiñ* ere, haiek «*mintzatu*» & «*solastu*» esaten dutena. Domingotarrak 'ordenar' balioaz *aguindu* baino sarriago erabilitako *manatu*, ostera, ekialdekotzat hartzen dute gaur Labaienen, baina behinola herrian ibili zela argituta[79].

Izan ere, espazioaz gain denbora ere hartu behar da kontuan *manatu* bezalako berba zenbaiten bilakaera azaltzeko. Lehen, bertakoak ziren herriko hiztunen ustez; orain, ordezkapena gertatuta, ez. Batzuetan ordezkapen hori ez da oraindik zeharo gauzatu eta hitza ez da labaiendarren mintzotik guztiz desagertu: Armasak erabili ohi zuen *aytziñean* hura (behin baino ez da ageri *aurre-*) gaur ezagutu bai, baina adinekoei entzundako ele gisa gorde dute berriemaileek[80]; elkarrizketatutako heldu eta gazteek «*aurrean*» hobetsi dute. Antzeko zerbait esan liteke *aguitz* dela eta: hiztun helduen lehen hautua «*arrunt*» izan da, baina adinekoek «*aitz*» ere berezkotzat dutela ematen du. Ordezkapen prozesua lehenago osaturik beharbada, iraungia da labaiendarren oroimenean *bat bedera*, domingotarrak *bacocha*rekin batera eman arren; egun azken hori besterik ez dute ezagutzen.

Sail honi dagozkion hitzak ere, zein bere neurrian eta aurrekoak baino apalago, Armasaren idazkien eta Labaiengo egungo euskararen arteko lotura bermatzen ari direla uste dugu. Basaburu Txikian gaur jasotako lexikotik gertu da domingotarra, eta sumatutako hainbat ezberdintasun igarotako denboraren ezinbesteko ondorio direla iruditzen zaigu.

1.5.10. Hondarrerako utzi ditugu 1810-11etako sermoietan agertu eta bi mende beranduago Labaienen arrotzen sentitutako hitzak. Bakarren bat ezaguna zuten berriemaileek, nahiz eta haien mintzotik kanpokotzat hartu (*atzi*, *naguitasun*, *obequiago*); beste zenbait zeharo urrunak iruditu zaizkie, eta sarritan ulertezinak: *ardalla, astalagun, aydur, choll, icheden, ichequi, pitsic ez, urricaldu* eta *yessan.*

Badira zerrenda horretan gaur den egunean Basaburu Txikian ezezagunak izan arren kolore nafarrik gabeak ez diren berbak; merezi du Armasak eman zien erabilera aipatzea. Horietarik da *astalagun* (§ 1.2.1.7.) eta baita *yessan* ere, domingotarrarentzat 'pairatu' adiera zuena, nahiz eta *-e*-dun aldaerari *OEH*-k 'mailegutan hartu' esanahia egokitu. «Indar» hitzaren ordain den *ingar* belarduna, aldiz, aski hedatua dago Nafarroan eta Olagueko doktrinan ere bada.

Nafarra da dudarik gabe Labaiengo predikuetan 'piztu, erre' aditzera emateko inesibo ostean datorren *ichequi* ere, Larramendik eta ekialderagoko hainbat egilek datiboa lagun duela utzi diguten 'lotu, heldu' baliodunaz bestelakoa. Goiztiar samarra ere bada: Zaraitzuko sermoi batean (1780, *ichiqui*) eta Elortzibarko Zabalegikoan (1785, *echequi*) aurkitu ditugu kiderik zaharrenak; haietan ez ezik Elkanoko Lizarragaren testuetan ere erruz ibili zen, Armasak legez eguesibartarrak *ichequi* aldaera aukeratu zuelarik.

[79] «*Ori Donamarian da, emen galdua da*» (B.U., 2012). Apalauzak, aitzitik, Basaburu Txikikotzat du hitza (ibid., 456).

[80] «*Atautxik eta, guk biño geio ibiltzen zuten*» (B.U.).

Are goiztiarragoa iruditu zaigu *ardalla* 'zalaparta'. *OEH*-ren arabera Juan Bautista Agirrek erabili zuen estreinakoz, 1808 aldera idatzi baina 1850era arte argitara eman ez zen *Jesu-Cristo eta Virgiña chit santaren misterioen, eta beste cembait gaucen gañean eracusaldiac* liburuan. Interesgarria da 'pisutsu, larri' esan nahi duen *aydur* ere; ez da lekukotasunik Añibarroren 1802ko *Cristau dotriña* baino lehen[81]. Argitaratu gabe utzitako *Jesu Christoren lau Evangelioac batera alcarturic* lanaren hiztegitxoan nafartzat jo zuen autore areatzarrak *aydurra*.

Gainerako hitzek, aldez edo moldez, XVIII. mendeko idazle gipuzkoarrei begira jarri gaituzte. *Icheden* 'itxaron', esaterako, Otxoa Arin, Irazusta, Kardaberaz eta Ubillosen lanetan dago *Euskal Klasikoen Corpusa*ren arabera. *Choll*'guztiz' Iparraldeko tradizioari dagokio izatez –Beriain izarbeibartarraren 1621eko adibide bakar bat alde batera utzita– baina Mendibururen idazkiek hedatu zuten Bidasoaz bestaldean 1750etik aurrera: *choil, edo chit urrunduco zara cere Jaunaren castiguetatic* (Mendiburu 1760a: 106). *Urricaldu* ere, Armasak bezala instrumentalarekin batera, oiartzuarrak erabili zuen gehienbat 1800era bitarteko Hegoaldeko lanetan, Kardaberazek eta Ubillosek ere noiz edo behin baliatu zutelarik; ohiko bihurtu zen gerora XIX.eneko testu nafarretan. Nolanahi ere, *pits* iruditu zaigu elerik esanguratsuena. «Fits» -en aldaera herskariduna Nafarroako iturrietan arrotza izateaz gain, Armasak emandako [genitiboa + *pitsic ez*] egitura Mendibururen idazkietan bakarrik aurkitu dugu: aldera bitez, konparazione, Oiartzungoaren *ecusi dezue zuec ceroc ez dela eguiaren pitsic ere zuec esan didazuten guci-gucian* (Mendiburu 1760b: 336) eta Armasak utzi zigun adibidea: *eracusten batidate berun viotzac Jangoycoaren beldur tá erreverenciaren pitsic ez dutela, lagun proximoa deus ere nay ez dutela* (...) *cér erranen dut?* (65).

Armasak XVIII. mendearen bigarren zatiko euskal egile batzuen lanak ezagutzen zituelako susmoa eragin digute azken saileko hitzek, eta Mendibururena iruditzen zaigu zantzurik argiena. Domingotar nafarrak Jesusen Lagundiko idazlearen obra eskura izan zuelakoan gaude[82]. Ez litzateke harrigarria izango gainera *Armasa*ko semeak, predikazio lanerako hain isuri handikoa den domingotar ordenako kide izanik, Mendibururen sermoigintzarako trebezia eta itzala eredutzat hartzea. Nolanahi ere, ikerketa sendoagoa beharko litzateke eta auzia sakonago azterkizun dago[83].

[81] Berezko *-a* batez eman zuen Añibarrok hitz hau doktrinan zein hiztegian. Ez ordea Armasak (*cfr. gurutze aydur ure,* 26).

[82] Hala balitz, datu gehiagok froga lezakete Mendibururen arrastoa. Esaterako, arestian aipatu legez (§ 1.2.1.4.) *amurratu* erabili zuen Armasak, barruko bokal itxiaz. *Erb*-en ere baden dardarkari osteko *o* > *u* hersketarekin lotu behar da hori (*cfr. Erb urrela, oturdu*), ala hitza Hegoaldean Mendiburuk –Mogelek edo Añibarrok baino askoz gehiago– hedatu izanaren ondorio da? Armasaren testuetan, oiartzuarrarenetan bezala, ohikoa da *etsai amurratua*ren irudia. Beste alde batetik, *oroitu* Nafarroako ipar-ekialdean aski ezaguna izan arren, Armasak darabilen *oroytzapen* Iparraldeko usadioan baliatu zen batez ere XVII-XVIII. mendeetan. Mendiburu da honakoan ere Hegoaldeko salbuespen nagusia, inguruko beste inongo idazlek ez bezala sarritan bereganatu baitzuen. Harengandik jasoko ote zuen Labaiengoak?

[83] Mendiburu eta Kardaberaz bezalako predikari gipuzkoarren jarduna ezaguna bezain estimatua izan zen XVIII. mendearen amaieratik aurrerako hainbat apez nafarrentzat. Zolinako abade Mateo Larracochearen liburuen artean, esaterako, Mendiburuk idatzitako hiru obra zeuden 1780an. Imozko Zarranzko bikarioak, urte batzuk geroago, oiartzuarraren eta Kardaberaz hernaniarraren liburu bana zuen. Artaxoako eliz kabildoaren liburutegian *Otoitz-gaiac* lanaren ale bat zegoen (Jimeno Jurío 1999: 140). XX. mendearen hasierako Francisco Lekaroz apaiz lesakarraren liburu bilduma zabalean ere bi sermolari gipuzkoar haien arrasto argia antzeman ahal izan dugu.

2. ARMASA, BASABURU TXIKIKO EUSKARAREN ERAKUSGARRI?

Zerrendatu ditugu dagoeneko lan honen lehenbiziko zatian (Lekaroz 2014: 247-248) Basaburuko behinolako euskarara hurbildu nahi zuenak gaur arte eskura zeuzkan iturri idatziak. Ez ziren gehiegi –zabalegiak ere ez, *Erb* izan ezik– eta zenbait lokalizazio hutsune zituzten: Jose Erasun saldiastarra bai, baina ez genekien nongoak ziren Francisco Hernandorena eta Mariano Erbiti. Azken horri zegokionez, bestalde, Labaiengo hizkera biribil-biribil eman izana bera susmopean jarrita zegoen. Bi egileok non sortu ziren azalduz eta haiei Miguel Ignacio Armasa gehituz Basaburu Txikiko euskal idazleei buruzko informazioa osatzen eta aberasten ahalegindu gara.

Dena den, Armasaren testuei Basaburuko euskal lekukoen ondarean zein leku dagokien ere argitu beharko litzateke: alegia, ea zenbateraino izan daitezkeen XIX. mendean Labaien aldean ibiltzen zen mintzoaren erakusgarri, eta kokapen ezezaguneko idazkiak nongoak diren erabakitzerakoan erreferentziatzat har ditzakegun. Edo, beste hitz batzuekin esanda, zilegi ote den labaiendarraren sermoiak jaioterriko euskararen aingura testutzat hartzea[84]. Gure iritziz badago Armasaren ekarpena kontuan hartzeko hainbat arrazoi, baina ezinbestekoa da ekarpen horren mugak aitortzea eta azaltzea ere. Aldeko arrazoiak eta mugak, batzuk nahiz besteak izango ditugu jarraian hizpide, domingotarraren lekukotasuna azpimarragarri bihurtzen duten ezaugarrietatik hasita.

2.1 Bertakotasuna

Lokalizazioaren aldetik balio handikoak dira Armasaren predikuak. Ezagunak ditugu egilearen izena eta sorlekua, eta badakigu predikuok sorleku hartan bertan irakurri zituela ere. Ezin askoz gehiago eskatu: horrelako gardentasuna ez da nahi bezain ohikoa antzinako euskal testugintzan (Camino 2009: 316). Hain zehatzak diren kokapen datu horiek bertakotasun itxura ematen diete Labaiengo hiru sermoiei.

Bertakotasun hori datu estralinguistikoek ez ezik hizkuntza alderdiak ere bermatzen duela iduri luke, hein handi batean bederen. Nafartzat jo dugu Armasaren lanetako euskara, baina ez hori bakarrik: aurreko orrialdeetan zehar deskribatutako hizkuntza ezaugarri asko Labaien aldeko beste iturriek osatu testuinguruan koherenteak direla uste dugu. Deigarria ere izango litzateke bestalde domingotarra, jaioterrian ari zelarik, entzuleena eta berea zen mintzora ez hurbiltzea.

2.2. Zabaltasun eta antzinakotasuna

Testuen luzera eta eskainitako informazio bolumena kontuan hartzen baditugu, orain arteko lekuko basaburuarrak baino aberatsagoa da Armasa. Goiztiarrena ere bai, bestetik, gainerako idazkiak sortu baino hainbat hamarkada lehenagokoa. Predikuen zabala eta lekukotasunaren aspaldikoa uztarturik, beraz, beste iturri ezagunen aurretik dabil berriro ere domingotarra. Erbiti legoke bi irizpide horien arabera hurbilen, baina gure ustez Labaiengo

[84] Aingura testuak, Milroyri jarraituz (1992, *ap.* Ulibarri 2013: 518), «hizkuntzaz kanpoko datuen bidez ondo kokatutako testuak dira (…) eta, lurralde zehatz bateko hizkeraren erakusgarritzat harturik, jatorri ezagunik gabeko testuak geografikoki zein eremuri dagozkion zehazten laguntzen dute».

maisu zenaren doktrinak bestelako muga batzuk ditu Armasaren sermoien aldean. Jarraian saiatuko gara muga horiek arrazoitzen.

2.3. Homogeneotasuna

Basaburu Txikiko lekukotasun zaharrak eta Miguel Ignacio Armasaren testu zahar berriak erkatzean Mariano Erbiti sumatu dugu sarrien desberdin, gainerako iturrien artean erabateko homogeneotasunik ez dagoela aitorturik ere. Armasar biek, Erasunek, Hernandorenak zein Erbitik berak paperera eraman zituzten hizkuntza ezaugarriak elkarri begira jarrita, idazleetako bat besteekin (zeharo) bat ez datorren une askotan Labaienera ezkondutako udabearra izan da aldenduta ikusi duguna: kasurako, goiko bokalek eragindako asimilazio maila handixkoa (*seculeco, eliceco, oliedura*) edota hainbat sinkopa adierazgarri (*bedraci, gaitcen* 'gaitezen', *vigarna* –Armasa & *JIArm bigarrena*–) Labaiengo doktrinan besterik ez ditugu ikusi. Ez dira hala ere fonologia bilakabide batzuk bakarrik Erbitirengan bereiz dabiltzanak: orobat instrumentalerako *beguis* ematea, lexikoan *ceyru* aldaera diptongoduna baztertzea, *baicican* bezalako forma pleonasmodunak baliatzea edota *dirade* adizkia agertzea, besteak beste.

Azken bi hitz horiek beste hausnarketa bat eragin dezaketela uste dugu. Erbitik ez zuen *baicican* hutsa erabili: baita inesibo pleonastikorik gabeko *baicic* ere, *-an* amaieradun kidea bezain sarri. *Dirade* idatzi zuen bestalde, esan bezala, baina salbuespen gisa: *dire* hautatu zuen ia beti. Antzeko bikote ugari aipa daitezke: *arimaco* & *arimeco*; *baño* & *beño*; *berce* & *beste*; *didazu* & *diren* 'didan'; *duen* & *dun*; *obligacio* & *obligacione*; *viciaren* & *vicieren*; *zara* & *cera*… Hango eta hemengo aldaerak batera ibiltzeko joera hori nabariagoa da Udabekoaren itzulpenean[85]. Are gehiago: Erbitiren doktrinan ohikoagoak dira hutsegiteak eta ageriko komunztadura ezak Armasaren lanetan baino. Labaiengo maisuaren hutsegite horien artean aipatzekoak dira zenbait aditz-forma oker (*zu deyen zaude Evaren ume desterratuac*, Pagola *et al*. 1995b: 515) edota pluralaren komunztadurarik gabeko (*Purgatoriora yoaten direnac socorritu eta lagundu dezaquegu guc*, ibid., 535); deklinabide atzizki eza (*Becatu capital dire zazpi*, ibid., 537) nahiz soberan agertzea (*da Jangoicoaren viciaren Semea*, ibid., 520); baita ergatiboaren inguruko akatsak ere (*San Francisco de Sales erraten duen bezala*, ibid., 541), horrelakoak Armasak berak badituen arren. Tarteka hitzak falta dira gainera Erbitirenean, eta inoiz edo behin pasarteren batek halako zentzu eskasia du. Domingotarraren predikuetan erregulartasuna osoa ez den arren, doktrinan gorabeherak sarriagoak eta deigarriagoak direlakoan gaude. Hitz gutxitan, gure iduriz barne koherentzia nabarmenagoa darie Labaiengo elizgizonaren testuei.

Gure ustez, orain arteko argudioetara mugatuz gero lan handirik gabe arrazoitu liteke Armasaren testuek Basaburu Txikiko euskararen isla zuzenagoa diruditela. Badaude ordea, egiari zor, atzendu beharrekoak ez diren beste faktore batzuk ere, 1810-1811etako predikuak egilearen sorterriko hizkeratik neurri batean aldentzea eragin zuketenak. Ondorengo bi ataletan aztertuko ditugu.

[85] Bikoiztasuna aniztasun bihurtzen da tarteka. Datibo pluralerako, adibidez, *-ai* & *-ari* & *-eri* & *-ei* erabili zituen; edutezko genitibo pluralerako, aldiz, *-aren* & *-an* & *-en*.

2.4. Armasaren bizitzaren gorabeherak

Domingotarraren nondik norakoaz nahi baino xehetasun gutxiago ditugu, baina badakigu ez zela inola ere herritik atera gabe bizi izan. Bi urteko haurtxoa zela 1772an konfirmatu zutenetik 1810era arte ez dugu Armasa Labaienekin lotzen duen albisterik. Haurtzaroa sorterrian igaro zuela ukatzeko argudiorik ez dago, baina ziurtatzekorik ere ez. Hamasei urte betetzerako Iruñean zegoen. Kantabrian eta Gasteizen behintzat ibili zen sermolari; non gehiago, auskalo. Irañetan bizi izan zen, antza denez. Zenbat denbora eman ote zuen Basaburu Txikitik kanpo 1807-1809etako gertakariek ostera bertaratu arte? Sakana aldekoaz (eta Iruñerrikoaz?) gain, ezagutuko al zuen beste mintzorik? Irañetakoari dagokionez esana dago ez dugula lexikoan eragin berezirik antzeman (§ 1.5.2.), baina horrek ez du derrigorrez esan nahi Armasaren euskaran ezpal oro zur beretik irten zenik: deigarria da, adibidez, bi pertsonako adizki iragangaitzen artean (§ 1.3.2.4.) *zatzien* & *citzayen* sailetako formekin batera Armasak behin egindako aukera –*beguira egondu zaquiolaric ocasio batean Jerusalengo Ciudadeari* (10)–, Labaiengo usadioaz aski bestelakoa dirudiena[86]. Nahiz eta ez den neke Armasaren testuetako hizkuntza bilakabide gehienak Basaburu Txiki inguruarekin lotzea, eta predikuetan hizkera nahasketa aipagarririk ez dakusagun arren, zeharo kanpo-eraginik gabeak direnik ere ez dugu uste.

2.5. Heziketaren eragina

Sakona da Armasaren heziketak testuetan utzi duen arrastoa. Lan honen lehen atalean aipatu ditugu domingotarraren ibilbideari buruzko zenbait xehetasun (Lekaroz 2014: 259-260). Lektore aritu izana adierazgarria da: Filosofia eta Teologia ikasi ostean, ez ziren orduko fraide guztiak egiteko hartara iristen: prestakuntzarik onena eta gaitasunik handiena zutenei bakarrik zegokien (José Barrado, komun. perts.). Nafarra gizon jantzia eta irakurria zen zalantzarik gabe, eta Teologia ikasketei esker Elizako autoritate askoren lanak ongi ezagutzeaz gain erraz zerabiltzan Biblia iturriak: 1810eko Ostiral Santuko sermoian, Kristoren nekaldiagatik eliztarrak zenbateraino txunditu eta ikaratu behar ziren aditzera ematean, Itun Zaharreko bost liburutako aipamenak pilatu zituen lerro gutxitan Jesus jaio aurreko gertakari batzuek gizakiengan piztu zuten harridura argi erakusteko.

Beste eragin guztien gainetik, nolanahi ere, Frai Luis Granadakoaren itzala da Armasaren idazkietan azpimarratzekoa[87]. 1806an nafarrak gaztelaniazko Jasokunde sermoia prestatu zuenean, oso kontuan izan zuen XVI. mendeko predikariak jai huraxe bera ahotan hartuta idatzitako *Sermon en la fiesta de la*

[86] Arrotza da noski *zaquion* hori Bidasoaldean; Labaienen guk ez dugu behin ere jaso. Elizondoko Anastasio Echeverrik, Zugarramurdin apaiz zebilela, aleren bat utzi arren (Satrustegi 1987b: 94), gainerakoan ez dugu ezagutzen Nor-Nori saileko *-ki-* morfemadun adizkirik Imotz eta Ultzama baino iparralderago: Caminok (2013: 121) halakoek Burundatik Aezkoarainoko eremuan iraun dutela dio, baina uren muga lerroaren azpitik beti ere. Badira testu zaharretan Andimendiaz beheiti, eta beste aldean ere *zakigun* edo *zakion* bezalakoak dokumentatu dira XX. mendean zehar Ergoiena aldean, Etxarrin edota Irañetan (Camino 2000: 152). Gastesi irañetarrak berak erabili zuen XIX.ean horrelako aditz formarik: *Balietucequion bere peticioa: Bada Marie Santisime etorrizaquion visitetcera, eta laguncera* (Ulayar 1987: 62). Armasaren *zaquiolaric* hori Sakanako egonaldiaren oihartzuna ote?

[87] Luis de Sarria izenez sortua (1504-1588) eta Armasa bezala sona handiko kolegio domingotar batean hezia –Valladolideko San Gregorion–, antzinako sermolari espainiar handienetako bat izan zen.

Assumpcion de nuestra Señora izenburuduna (Granada 1554a: 46-54), pasarte osoak kopiatu zizkiolarik. Ez da harritzekoa bi mende eta erdi geroago Armasak Granadakoaren testu haiek eskura izatea: edizio ugari egin ziren labaiendarraren egunetan ere, eta Iruñean bertan, urte batzuk beranduago Frai Bartolomeren *Euscal Errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco-gatz ozpinduba* plazaratu zuen Joaquin Domingorenean, Frai Luisen lan guztiak eman zituzten argitara XVIII. mendea azkentzean (Bas 1999: 167-168).

Euskarazko jardunean ere, noiz lausoago, noiz nabarmenago, Urrezko Mendeko ordenakide erdalduna bidelagun izan zuela uste dugu. Nekaldiari buruzko predikuaren atal batzuetan halako oihartzuna antzeman daiteke: Armasak erabilitako irudi batzuek (semearen eta amaren oinazearenak eta Jesusen mingainaren sufrimenduarenak, gutxienez) oso hurbil dituzte *Memorial de vida cristiana* lanaren VI. tratatuan irakur daitezkeenak (*cfr.* Granada 1565: 175 eta 181).

Ozenagoa da oihartzun hori 1811ko Garizumako sermoian; Frai Luisen *Libro de la Oración y Meditación* lanaren arrastoa dago zintzoek erdietsiko duten aintza deskribatzeko Armasak erabili zituen hitzen gibelean:

> ¿qué será ver tanto numero de espiritus tan hermosos (…) qué será tratar alli con tantos buenos (…) qué será gozar de la compañia y presencia de aquel à quien alaban las estrellas de la mañana? (Granada 1554a: 227)
>
> Cér izanen dá ecustea án amberce milla millare Espiritu bienaventuratuac (…)? Cér izanen dá ecustea án amberce milla millare Martyr gloriosoen exercito eder ure? (…) Tá cér izanen dá ecustea Jesu-Christoren Gorputz preciosissimo ure, ceyru gucia bere claridadearequiñ tá edertasunarequiñ choll beteco duena? (M.I. Armasa 1811)[88]

Aurreraxeago, aldiz, bete-betean eman zion hitza labaiendarrak Granadakoari deskribatzen ari zen aintzaren iraupenaz aritzeko:

Miguel Ignacio Armasa	Frai Luis Granadakoa
Premio arc, bada, gloria arc iraunen dú amberce milla urte cembat izar diren ceyruan, tá gueyago. Yraunen dú amberce milla urte cembat ur tanta erori diren lurrara, tá gueyago (…) Ytz batean, iraunen dú Jangoycoac berac iraunen duen adiña, iraunen dú eternidade gucian (87).	Durará este galardon tantos millares de años, quantas estrellas hay en el cielo, y mucho mas. Durará tantas centenas de millares de años, quantas gotas de agua han llovido y lloverán sobre la tierra, y mucho mas. Durará mientras Dios durare, que será en los siglos de los siglos (Granada 1554b: 137).

Armasak bere gizaldiko hainbat euskal testu ezagutu eta baliatu zituela susmatu baino ez dugu egin arestian; alabaina, erdarazko nahiz euskarazko predikuetan erdal iturrietara jo zuela ageriko gauza da. Jasozale izan zela ere

[88] Konpara bitez Armasaren doinua eta Bertizaranako Lakoizketa apaizak gorde zituen predikuen egile anonimoarena: *zer izanen da, ceruban gloriyaz betia icusten dugunian?* (…) *¿Cer gustuba izanenda, icustia eziñ conta dittezquien Martiren tropa ura?* (…) *Zer izanenda icustia aimbertce santu, Aiñguerubequiñ aldizca cantatcen tioztela milla laudariyo gloriyaren Erreguiari?* (Ondarra 1994a: 167-168). Iduri luke inguru eta garai bereko egile euskaldun gehiagok heldu ziotela nondik edo handik Frai Luisen ildoari, dela jatorrizko testuak ezagututa, dela zeharka, Granadakoari zuzenean segitu ziotenen iturritik edanez; gure ustez oso litekeena da labaiendarra lehen multzokoa izatea.

ez dugu dudarik, lan honetan zehar behin baino gehiagotan iradoki dugun bezala. Idazkien txukuntasunak eta akats urritasunak patxadaz ondu eta gainbegiratutako lanaren irudia emateaz gain, zenbait hizkuntza ezaugarritan labaiendarra herrikideen mintzamolde huts-hutsetik bereizten saiatu izanaren arrastoa dakusagu:

a) Batetik, sermoietan mugatzaile aurreko *e* eta *o*-ren disimilaziorik ez dago ia; dena dela, *testiguac* eta *falsuac* bezalako salbuespenak ageri dira (*falsoac* ere badagoelarik). Gaur aski arruntak ditugu Beintza-Labaienen disimilazio horiek. Bestetik, lehen esan bezala (§ 1.2.1.7.) ohikoak dira egun *u* > *o* & *i* > *e* irekitzeak, eta Armasarengan horien aztarna xumeren bat antzematen da; noizbehinkakoa ordea. Halaber, kutsu bereko *e* > *a* bilakabideak eragin *iñolara* (44) eta *pensatura* (23) bana ditugu, baina *(e)re* lokailuaren azken bokala irekitzeko jokabide hori oso aldian aldikoa da testuetan; *cfr.* Armasak beste pasarte batean emandako *pensatu ere* (66). Gure iduriko, Labaienen XXI. mendean egunerokoak diren disimilazio- eta irekitze-joera horien isla predikuetan noiz edo noiz besterik ez agertzea joera horietatik urrundu nahiak berak utzitako aztarna izan liteke; alegia, Armasa herriko usadiotik aldentzen saiatu baina lantzean behin ustekabean bertakora lerratu izanaren seinalea.
b) Bokalei dagozkien ezaugarriez bezala, kontsonanteen gorabeherez ere bada zer esan. Arestian aipatu legez (§ 1.2.2.1.) domingotarrak, Erbiti eta Hernandorenarekin bat eginez, ez zuen *i* osteko horzkari gor bustirik adierazi –*cfr. Passio Santaren gañean itz eguiten aditu cituen* (18)–. Bai ordea Erasunek, eta gaur den egunean arrunta da palatalizazio hori Basaburu Txikian. Baliteke honakoan ere Armasaren hautua testuei itxura jasoagoa emateko borondatearen ondorio izatea. Horrekin batera idatziaren eragina, herriko txokoaren ahozko jardunetik urrutiratu nahia edo biak egon litezke [*ez* + adizkia] egituren baitako sandhi asko adierazi gabe uztearen edota bokal arteko herskari ahostunen kontserbazioaren atzean. Guztiak jaso itxura ematen die sermoiei.

2.6. Ondorioak

2.6.1.Basaburu Txikiko aspaldiko euskararen lekuko aberats eta zorrotzen bila abiatuz gero, XIX. mendean zehar sortu eta guregana heldu diren testuek zenbait muga dituztela aitortu behar da. Basaburuko seme ziren Erasunek eta Hernandorenak lan labur askoak prestatu zituzten, bata bestearekin erkatzeko egokiak baina datu kopuru handiegirik ezin eskain dezaketenak. Mariano Erbitiri dagokionez, lekukotasun zabalagoa utzi zigun arren, agerian jarri dugu xehetasun biografikoetan oinarrituta bazegokeela arrazoirik idatziz islatzea egokitu zitzaion mintzoa bete-betean ez emateko, nahiz eta hein handi samarrean hurbildu. Egileak herriko euskara berezkoa ez izatea, itzulpenean ageri diren beste hizkeren zantzuak, polimorfismorako joera eta akats kopurua, elkarri gehituta, traba handixkoak iruditzen zaizkigu Labaiengo doktrina eredu guztiz erabilgarritzat jotzeko. Azken batean, hainbat gabezia dituzte Basaburu Txikiak gaur arte eskainitako iturri idatziek, eta testu xume fidagarriak falta dira.

2.6.2. Miguel Ignacio Armasaren sermoiei funtsean Basaburu Txikiko euskara dariela uste dugu, hango kolore-zaporeak dituztela oinarri. Orrialde hauetan aipatutako hizkuntza ezaugarrien arabera aztertuta mende bereko Basaburu Txiki-Bortzerrietako idazkiak dituzte hurbilen labaiendarraren predikuek. Segur aski egilearen ibilbide eta heziketak, aspaldikoa izango zuen erregistro zaindurako joerak, joera horren inguruan urteetan zehar zizelkaturiko idazmoldeak eta ausaz orduko euskal egile batzuk ezagutu eta erdal testuak ez ezik haien lanak ere eredu izateak aldendu zuketen, neurri batean, jaioterriko euskarari zegozkion ñabardura batzuetatik; fonologia mailako zenbaitetarik bereziki, gure iritziz. Dena den, herrikoei ari zitzaienez, ematen du ñabardura horietan ere bertakoa atera zitzaiola zirrikituetatik behin baino gehiagotan. Erbitiren ahulezia argi bat (ematea zegokion hizkera jaiotzatikoa ez izatea, alegia) ezin Armasari egotzi; beste batzuk (inguruko hizkeren eragina, polimorfismoa edo akats ugaritasuna) apalago antzeman ditugu domingotarraren lanetan.

2.6.3. Armasaren sermoiak heziketa sendoaren eta erregistro jasoa erabiltzeko borondatearen iragazkitik pasa ziren heinean, ez ditugu idazki xume fidagarritzat hartuko. Baina ez dugu uste, halaber, testu erlatiboki diatopiko hutsen aurrean gaudenik. Batetik, kokagune ezagunekoak direlako, eta Caminoren esanari jarraituz (2009: 311) halakoek badutelako –hein batean behintzat eta balizko eragin literario supradialektala aitortuta ere– dagokien eremuko hizkuntza ezaugarriak zein ziren ezagutarazi eta jatorri ezezaguneko idazkiak nongoak izan daitezkeen zehazten laguntzeko gaitasuna. Eta bestetik, labaiendarrak bere herrian bertan esateko propio idatzitako predikuak izan zirenez, iturri askotan ohikoa den erlatibotasun diatopikoa are garbiago saihestu dezaketelako. Caminoren arabera beti ere (ibid., 318) nahasketa dialektala duen testua da erlatiboki diatopiko, edota geografia kokagune jakin batean txertatzeko lan handia ematen duena. Ez lehendabiziko baldintza, ez (inola ere) bigarrena ez dagozkie Labaiengoaren sermoiei.

Laburbilduz, Basaburu Txikiko behinolako hizkerara hurbiltzeko aintzat hartu beharrekoak iruditzen zaizkigu Miguel Ignacio Armasaren predikuak, duten literatura ukitua gorabehera. Basaburu inguru zabalean mintzo zen euskara nafarraren ezagutzan sakontzeko eta orain arteko testu ondarea aberasteko tresna egokiak izateaz gain, badago gure iritziz domingotarraren izkribuak Basaburu Txikiko aingura testu balekotzat jotzerik, inon lekuko zorrotzagoak agertu artean gutxienez[89]. Horretaz gain, aurkeztu ditugun sermoien balio dialektologikoa zalantzan jarrita ere, balio filologiko argia dute *Armasa* etxeko semeak bizitzako gorabeherek eraginda jaioterriko eliztarrentzat prestatu idazki txukunek; are gehiago gaur arte bederen eskualde hartako euskaldunek utzi diguten lekukotasunik zabal eta antzinakoena izanik.

AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA

Apalauza, A., 2012, *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa,* Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia, Iruñea eta Bilbo.

Arakama, J. M., 1994, «Uharte-Arakilgo dotrina», *ASJU*, 28:2, 569-613.

Armasa, J. I., 1833-1860, «Sermoiak» (argitaragabeak).

[89] Literatur lan erdi jasotzat hartu ditugun neurrian, bat letozke Ulibarrik (2013: 528) aipatutako aingura testu motetako batekin.

Bas, N., 1999, «La recuperación de Fray Luis de Granada en el siglo xviii», *Estudis*, 25, 163-182.

Bidador, J., 2001, «Ultzamako beste euskal testu bat (1796)», *FLV*, 88, 521-527.

Camino, I., 2000, «Goñerriko hizkera (ii)», *ASJU,* 34:1, 137-196.

— 2003, *Hego-nafarrera*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

— 2009, *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi,* Elkar, Donostia.

— 2013, «Euskalkien historiaz: Lapurdi eta Nafarroa Garaia», in Gómez, R., Gorrochategui, J., Lakarra, J. A., & Mounole, C. (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren iii. Biltzarra*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 77-140.

Echeverría, J. N., 1826, *Cristau-doctrina, Gaspar Astetec erdaraz escribitua; eta orai escuaraz publicatzen duena, cembait gauza aumentaturic, Baztango Valleco Parroco batec, cristau fielen instruccionearen deseyuz, Gadearen Imprentan, Iruñean*. Sarean: <http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/8448> (azken aldiz 2015-x-19an kontsultatua).

Euskaltzaindia, 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbo [=*OEH*].

Granada, L., 1787 [1565], *Obras del Venerable P. Maestro Fr. Luis de Granada de la Orden de Santo Domingo, Tomo vi., que contiene el vi. y el vii. Tratado del Memorial de la Vida Christiana, en el qual se enseña todo lo que un Christiano debe hacer dende* (sic) *el principio de su conversion hasta el fin de la perfeccion,* Antonio de Sancha, Madrid. Sarean: <http://babel.hathitrust.org/cgi/pt?id=nyp.33433087371328;view=1up;seq=5> (azken aldiz 2015-x-19an kontsultatua).

— 1788 [1554a]*, Obras del Venerable Padre Maestro Fray Luis de Granada, Tomo vi,* Pedro Marín, Real Compañía de Impressores y Libreros del Reyno, Madrid. Sarean: <http://books.google.es/books?id=Ktln0nZcy1AC&printsec=frontcover&hl=es&source=gbs_ge_summary_r&cad=0#v=onepage&q&f=false> (azken aldiz 2015-x-19an kontsultatua).

— 1789 [1554b], *Obras del Venerable P. Maestro Fr. Luis de Granada de la Orden de Santo Domingo, tomo XIV. que contiene la explicacion de la Doctrina Christiana,* Antonio de Sancha, Madrid. Sarean: <http://books.google.es/books?id=xXwBAAAAMAAJ&pg=PR12&lpg=PR12&dq=FRAY+LUIS+DE+GRANADA+COMPENDIO+DE+LA+DOCTRINA+CHRISTIANA&source=bl&ots=nmDslwOGB2&sig=WPahDhX7A9RUCZRq5QjbpW0mvGM&hl=es&sa=X&ei=lmyU4PzMIHaOb7gdgN&ved=0CEIQ6AEwBA#v=onepage&q=FRAY%20LUIS%20DE%20GRANADA%20COMPENDIO%20DE%20LA%20DOCTRINA%20CHRISTIANA&f=false> (azken aldiz 2015-x-19an kontsultatua).

Ibarra, O., 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak,* Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Idoate, C.; Villanueva, J. J., 1981, «Unas ordenanzas de Vera en vascuence», *FLV,* 37, 275-282.

Jimeno Jurío, J. M., 1999, *Navarra, Gipuzkoa y el Euskera. Siglo xviii,* Pamiela, Iruñea.

Kanpion, A., 1880*, Orreaga. Balada escrita en el dialecto guipuzcoano, acompañada de versiones á los dialectos bizcaino, labortano y suletino y de diez y ocho variedades de la region bascongada de Nabarra desde Olazagutia hasta Roncal*, Imprenta y librería de Joaquín Lorda, Iruñea.

Lekaroz, G., 2006, «Antzinako baztanera: xviii. mendeko prediku argitaragabe bat», *FLV*, 101, 69-94.

— 2014, «Basaburuko euskararen lekukoak (i)», *FLV,* 118, 247-278.

Mendiburu, S., 1760a, *Jesusen amore-nequeei dagozten cembait otoitz gai, Jesusen Compañiaco A. Sebastian Mendiburuc eguiñac*, Iruñeco Libru-guille Juan Antonio Castilla-ren Echean, 1760 (i). Sarean: <http://hdl.handle.net/10690/1556> (azken aldiz 2015-x-19an kontsultatua).

— 1760b, *Jesusen amore-nequeei dagozten cembait otoitz gai, Jesusen Compañiaco A. Sebastian Mendiburuc eguiñac*, Iruñeco Libru-guille Juan Antonio Castilla-ren Echean, 1760 (ii). Sarean: <http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/8394> (azken aldiz 2015-x-19an kontsultatua).

Olano, M., 1998, *Areso eta Leitzako hizkerak,* Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Ondarra, F., 1987, «Dos pláticas en vascuence del siglo xviii», *FLV*, 50, 281-316.

— 1994a, «Javier Ramon de Lakoizketa Bertiz-ek izan zituen testuak», *FLV*, 65, 161-184.

— 1994b, «Javier Ramon de Lakoizketa Bertiz-en euskal testuak», *FLV*, 66, 349-370.

Pagola, R. M. *et al.*, 1995a, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Iparraldeko goi-nafarrera-1*, Deustuko Unibertsitatea, Eusko Ikaskuntzen Institutua, Bilbo.
— 1995b, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Iparraldeko goi-nafarrera-2*, Deustuko Unibertsitatea, Eusko Ikaskuntzen Institutua, Bilbo.
Salaburu, P., 1987, «Baztango euskalkiaz: Elizondoko beste doktrina bat», *ASJU*, 21:2, 453-473.
Santazilia, E., 2013, «Iruñe ondoko euskal testu zahar berri bat», *FLV,* 116, 91-119.
Satrustegi, J. M., 1987a, *Euskal Testu Zaharrak I,* Euskaltzaindia, Iruñea.
— 1987b, «Zugarramurdiko euskararen lekukoak xix. mendean», *ASJU,* 21:1, 81-104.
— 1996, «Goizuetako udal-ordenantzak», *FLV,* 72, 297-314.
— 1997, «Lesaka eta Luzaideko euskal testu parekatuak», *FLV*, 74, 99-126.
Ulayar, E., 1987, «Juan Miguel Gastesiren bi 'Mayatzeko illabetia: Mariaren Illabetia' (Marie Santisimeren Devocioa) 1850-1854», *FLV,* 49, 53-64.
Ulibarri, K., 2013, «Testuak kokatuz dialektologia historikoan: egiteetatik metodologiara», in Gómez, R., Gorrochategui, J., Lakarra, J. A., & Mounole, C. (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren iii. Biltzarra*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 511-532.
Zelaieta, E., 2004, «Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (I)», *FLV*, 96, 223-248.
— 2008, *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa,* Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia, Iruñea eta Bilbo.

LABURPENA

Basaburu Txikiko euskararen lekukoak (eta ii)

Lan honen lehen zatian (*FLV* 118) Basaburu Txikiarekin loturiko bi autore izan genituen aztergai: Mariano Erbiti udabearra, xix. mendearen erdialdean Beintza-Labaienen irakasle ibili eta kristau doktrina herri hartako euskarara isuri zuena, eta Miguel Ignacio Armasa domingotarra, Labaiengo semea, hamarkada batzuk lehenago sorterrian bertan euskarazko hiru prediku behintzat idatzi zituena. Lehenbiziko saio hartan Armasaren sermoietako bat plazaratu genuen, eta honako honetara gainerako bien edizioa ekarri dugu, labaiendarrak erabilitako hizkeraren ezaugarri zenbait iruzkintzeaz gain. Bestalde, sermoi horiek Basaburu Txikiko behinolako euskarara hurbiltzeko baleko tresna izan daitezkeela iritzirik, uste horren aldeko argudioak ematen saiatu gara. Domingotarraren euskarazko idazkietan sumatu ditugun hainbat eragin azaleratzeko ahalegina ere egin dugu, Frai Luis Granadakoaren oihartzun argia agerian jarriz eta antzeman uste izan dugun Sebastian Mendibururena arrazoituz.

Giltza hitzak: Basaburu Txikia; dialektologia; antzinako testuak; sermoiak; edizioa.

RESUMEN

Testigos del euskera de Basaburúa Menor (ii)

En la primera parte de este artículo, escrito al objeto de aportar materiales que mejoren el conocimiento de cuanto rodea al euskera de dicha comarca navarra (*FLV* 118), ofrecimos por un lado una serie de datos biográficos relacionados con Mariano Erbiti, a quien debemos la doctrina de Beinza-Labayen, y por otro presentamos al dominico Miguel Ignacio Armasa (1770-1814), natural de la misma localidad y autor de al menos tres pláticas en lengua vasca, una de las cuales dimos a conocer. En esta segunda entrega incluimos las dos restantes, añadiendo a nuestra edición el comentario de algunas de las principales características lingüísticas presentes en los tres sermones mencionados. Finalmente, exponemos las razones por las que consideramos que Armasa es una referencia válida para el acercamiento al euskera usado en su tiempo en la Basaburúa Menor, y destacamos el influjo que los textos de Fray Luis de Granada ejercieron sobre los del dominico navarro, el cual, por

otra parte, conoció más que probablemente la obra del jesuita guipuzcoano Sebastián Mendiburu.

Palabras clave: Basaburúa Menor; dialectología; textos antiguos; sermones; edición.

ABSTRACT

Witnesses of Basaburu Txikia's Basque speech (II)

In the first part of this article, written in order to provide materials that contribute to a better knowledge of the Basque dialect of Basaburu Txikia (*FLV* 118), we offered a series of biographical data related to Mariano Erbiti, to whom we owe the doctrine of Beintza-Labaien. As well as this, we presented the Dominican Miguel Ignacio Armasa (1770-1814), born in the same town and author of at least three sermons in Basque, the first of which we released in our first issue. In this second part of the article, we include the two remaining sermons, adding to our editing the comment of some of the major linguistic features shared in the three sermons. Finally, we present the reasons why we consider Armasa to be a valid reference to approach the Basque used in that time in the Basaburu Txikia area. Besides this, we also highlight the influence that the texts of Fray Luis de Granada exerted on the Navarre Dominican, who more than likely knew the work of the Guipuzcoan Jesuit Sebastián Mendiburu.

Keywords: Basaburu Txikia; dialectology; ancient texts; sermons; editing.

Subordinadas completivas del verbo *gertatu* 'ocurrir' en Haraneder: ¿Subjuntivo extendido o conservación del Aoristo Perifrástico?

Gontzal Aldai*

1. INTRODUCCIÓN

El objetivo del presente escrito es muy modesto pero no deja de tener su interés para la historia de la lengua vasca, y concretamente para la historia de contextos subordinados de Subjuntivo y/o del Aoristo Perifrástico. Además, este trabajo constituye un buen ejemplo de las dificultades que puede encontrar el investigador en lingüística histórica para hacer un análisis (correcto) de los datos que recoge.

El llamado Aoristo Perifrástico[1] o Perfectivo Arcaico es una de las formas verbales que más interés (y extrañeza) han producido entre los investigadores del euskera histórico. Como es bien sabido, el Aoristo Perifrástico (*etor zedin* 'vino', *ekar zezan* 'trajo') era idéntico formalmente al Subjuntivo Pasado Moderno, pero expresaba un significado de perfectivo o narrativo pasado, y por tanto de indicativo. El Aoristo Perifrástico es

* Profesor de la UPV/EHU.

[1] El término Aoristo (para la forma verbal del euskera a que me estoy refiriendo) es muy confuso y demasiado cargado «ideológicamente». Sería más adecuado y más neutro utilizar el término Perfectivo Arcaico (*cfr.* Comrie 1976: 12; Aldai 1998: 378). Sin embargo, dado que el término Aoristo está muy extendido entre los estudiosos del euskera histórico y que nos resulta cómodo y fácilmente identificable, lo seguiré empleando en este trabajo. Ahora bien, utilizo el término con inicial mayúscula y especificando su forma (es decir, Aoristo Perifrástico), porque me refiero a una construcción concreta del euskera arcaico (*cfr.* Comrie 1976: 10).

desde antiguo bien conocido entre los estudiosos del euskera por haber sido utilizado profusamente por el labortano Joanes Leizarraga (de Beskoitze) en su obra de 1571. Sin embargo, ni en la gran producción de literatura religiosa labortana del siglo siguiente (incluida la creada en la conocida como Escuela de Sara), ni en ningún otro escrito labortano posterior, se ha atestiguado el uso del Aoristo Perifrástico.

El estudio reciente de los textos que ya conocíamos en el siglo XX y el hallazgo de otros textos que desconocíamos (sobre todo el manuscrito de Lazarraga) ha dejado casi probado que el Aoristo Perifrástico fue una construcción habitual en euskera hasta el siglo XVI y común a todos los dialectos vascos. Hoy en día los estudiosos coinciden en que el Aoristo Perifrástico fue usado en todas las variedades del euskera hasta que desapareció desplazado por el Pasado Perfecto o Perfectivo Moderno (*etorri zen* 'vino', *ekarri zuen* 'trajo'). No obstante, como es habitual en cambios lingüísticos, este proceso no se produjo en todas las zonas con exactamente la misma cronología.

Por todo lo anterior, todavía hay espacio para preguntarnos cuál fue, al detalle, la cronología de la pérdida del Aoristo Perifrástico en cada una de las zonas de habla vasca (por ejemplo, en Labourd), y dónde –en qué territorios y en qué contextos sintácticos– podríamos encontrar restos de su existencia tardía.

Así, el objetivo principal de este trabajo es analizar un contexto subordinado concreto, las oraciones completivas del verbo *gertatu* 'ocurrir', en los autores labortanos de los siglos XVI-XVIII, y particularmente en Joanes Haraneder (Donibane Lohizune, c. 1670 - c. 1750), para intentar dilucidar, o al menos discutir, si los sorprendentes ejemplos recogidos en el habla de este autor muestran un Subjuntivo extendido a nuevos contextos, o bien que el Aoristo Perifrástico se mantenía, aunque muy parcialmente y ya solo en un contexto subordinado conservador, en hablas del labortano del siglo XVIII.

2. JOANES HARANEDER: *NUEVO TESTAMENTO* (1740)

El autor que he investigado en detalle y donde he encontrado los datos principales que voy a presentar en este trabajo es el labortano Joanes Haraneder, nacido hacia finales del siglo XVII (c. 1670) y que ejerció sus funciones sacerdotales en Donibane Lohizune. Poco sabemos de este escritor y además hay ciertas dudas acerca de la autoría de todas sus obras, pues parece que ha habido más de un sacerdote labortano con el mismo nombre. En principio, siguiendo a Altuna (1990), parece que podemos asignar a este autor tres obras de traducción de tema religioso: *Iesu Christoren Evangelio Saindua* (escrita en 1740, pero que no se imprimió, y además parcialmente y con muchas modificaciones, hasta 1855); *Philotea* (Toulouse, 1749); y *Gudu izpirituala* (Toulouse, 1750).

Patxi Altuna publicó en 1990 una edición completa del *Evangelio de Haraneder* (que en realidad comprende todo el Nuevo Testamento; con los Cuatro Evangelios, los Hechos de los Apóstoles, las epístolas y el Apocalipsis), basado en una copia del manuscrito original de 1740. Y es esta la edición que he utilizado yo para el presente trabajo. Aunque he inspeccionado también la obra

Gudu izpirituala, no he encontrado en ella el tipo de contexto en que podrían aparecer ejemplos como los que voy a examinar aquí.

Conviene apuntar que el Nuevo Testamento de Haraneder es la primera versión católica en euskera de ese libro (como el propio Haraneder menciona en la introducción a su obra: «Aitcin solhasa»). Anteriormente solo existía el *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria* de Leizarraga (1571), que como se sabe era una versión calvinista (y que Haraneder también menciona, y desestima, en su introducción).

3. PERFECTIVO PROTOTÍPICO EN HARANEDER

Teniendo en cuenta el extenso testimonio de los autores labortanos del siglo XVII, sería extrañísimo que Haraneder (ya a principios del siglo XVIII) utilizara el Aoristo Perifrástico en los contextos perfectivos más prototípicos, es decir en oraciones principales narrativas. De hecho, para el siglo XVII los contextos narrativos más prototípicos se expresan al menos en las zonas más innovadoras del euskera central (navarro, labortano) únicamente mediante el Perfectivo Moderno. Es decir, el Perfectivo Moderno ya había desplazado para entonces al Aoristo Perifrástico en los territorios más innovadores y en los contextos más típicos. Así pues, de encontrar todavía algún ejemplo del Aoristo Perifrástico en el siglo XVIII en territorio central, debería tratarse de perfectivos en contextos sintácticos conservadores: bien en expresiones fosilizadas, bien en oraciones subordinadas.

Y efectivamente, para expresar el narrativo o perfectivo prototípico en oraciones principales, Haraneder utiliza siempre el Perfectivo Moderno (o su similar el Perfecto Doble-Compuesto; *cfr.* (7) abajo), formado por el participio y los auxiliares *izan* 'ser' o *edun* 'haber', empezando desde las primeras páginas del Evangelio de San Mateo:

(1) *Abraham-ec* *<u>jenderatu çuen</u>* *Isàac*
Abraham-ERG engendrado 3.AUX.haber.3 Isaac
'Abraham <u>engendró</u> a Isaac' (Haraneder: Mt I, 2).

(2) *Maria, haren ama, … <u>aurkhitu cen</u> içorra*
Maria 3.GEN madre … encontrado 3.AUX.ser encinta
'María, su madre, <u>se encontró</u> encinta' (Haraneder: Mt I, 18).

(3) *<u>aguertu citçayon</u> amets-etan Jaun-aren aingueru bat*
aparecido 3.AUX.ser.3 sueño-LOC Señor-GEN ángel uno
'<u>Se le apareció</u> en sueños un ángel del Señor' (Haraneder: Mt I, 20).

Como comentaré más abajo, conviene comparar los ejemplos de Haraneder con sus correspondientes en Leizarraga, los cuales cito a continuación:

(4) *Abraham-ec* *<u>engendra ceçan</u>* *Isaac*
Abraham-ERG engendrar 3.AUX.-*za*-.3 Isaac
'Abraham <u>engendró</u> a Isaac' (Leizarraga: Mt I, 2).

(5) *Maria, haren ama, … içorra <u>eriden cedin</u>*
Maria 3.GEN madre … encinta encontrar 3.AUX.-*di*-
'María, su madre, <u>se encontró</u> encinta' (Leizarraga: Mt I, 18).

(6) *Iaun-aren* *Aingueru-ä* *aguer* *cequion* *amets-etaric*
Señor-GEN ángel-ART aparecer 3.AUX-di-.3 sueño-ABL.PL
'Se le apareció en sueños el ángel del Señor' (Leizarraga: Mt I, 20).

De la comparación entre los ejemplos (1)-(3) y (4)-(6), se puede apreciar que, mientras que en los ejemplos de Haraneder el pasado perfectivo (en oraciones principales) está siempre expresado mediante el Pasado Perfecto o Perfectivo Moderno (formado por el participio y un auxiliar de *izan* 'ser' o *edun* 'haber'), en los correspondientes ejemplos de Leizarraga el perfectivo está expresado mediante el Aoristo Perifrástico (formado por el radical verbal y un auxiliar de raíz *-di-* o *-za-*).

Ejemplos como los ilustrados en (1)-(3) constituyen la inmensa mayoría de los perfectivos en Haraneder. Habría que añadir que, en general (no solo en Haraneder), el perfectivo aparece típicamente en oraciones principales. Esto es esperable del carácter *foregrounding* del perfectivo, que va añadiendo nueva información a la narración, en contextos sintácticos eminentemente principales y no subordinados.

4. PERFECTIVO EN ORACIONES SUBORDINADAS DE *GERTATU* EN HARANEDER

Como es sabido, las oraciones subordinadas son conservadoras. Que las oraciones subordinadas sean conservadoras quiere decir que, en parte, pueden ser procesadas de manera independiente respecto a las oraciones principales de significados análogos, constituyendo por tanto contextos sintácticos especiales. Así, esas oraciones subordinadas pueden contener formas verbales o usos idiosincrásicos, mayormente arcaizantes (*cfr.* Bybee 2002).

Por ello, parece interesante observar la expresión del perfectivo en estos contextos. Desafortunadamente, como he mencionado arriba, son muy pocos los perfectivos en Haraneder que aparecen en oraciones subordinadas. Entre los pocos ejemplos de perfectivos en contextos subordinados en Haraneder tenemos la siguiente oración completiva para expresar eventos, la cual en vez de enunciar directamente un evento en el pasado (e.g. «y Juan se marchó») utiliza como verbo principal «ocurrió» y después expresa la acción correspondiente como una completiva (¿en función de sujeto?) del verbo principal; es decir: «y ocurrió que Juan se marchó».

Pues bien, en los casos en que Haraneder utiliza la expresión «ocurrió» como verbo principal gobernando una completiva con un verbo perfectivo, he encontrado que siempre emplea un auxiliar *-di-* o *-za-* para expresar el perfectivo que aparece en la oración subordinada. Y sin embargo, el verbo principal, es decir el propio «ocurrió», siempre aparece expresado mediante el Perfectivo Moderno, es decir, con un auxiliar *izan* 'ser' o *edun* 'haber'.

Doy a continuación cuatro ejemplos de este tipo tomados del *Evangelio* de Haraneder (de entre quince casos, todos los pertinentes, que he encontrado en esa obra; ver el Apéndice). Ofrezco primero los ejemplos literalmente, en toda su extensión y sin glosas, para que el lector pueda hacerse una idea del contexto. A continuación doy una versión más reducida y con glosas (simplificadas) de los mismos ejemplos.

(7) [***Guerthatu içan cen****, [oraiño Jauna iragaten cela eraintcetan gaindi sabbato egun batez], [haren dizcipuluac, [bidean cihoacela],* ***hassi citecen*** *ogui buruca hausten eta hartcen]*]. (Haraneder: Mc II, 23).

(8) [***Guerthatu cen,*** *bada, [****publica cedin*** *meçu bat Caesar Augustorena]*], *haren imperioco jende gucien contua escribuz hartceco.* (Haraneder: Lc II, 1).

(9) [***Guerthatu cen****, bada, [bidean cihoacela], [****erran cioçan*** *giçon batec]*]*: «Jarraiquico natçaitçu çohacen lekhu gucietarat».* (Haraneder: Lc IX, 57).

(10) [***Guerthatu cen****, ordean, [bidean nindohala eta Damazerat hurbiltcen hari nintcela], [egunaren erdian, bet-betan cerutic* ***ingura nintçan*** *clartassun handi batec]*]. (Haraneder: Apostoluen Eguincariac XXII, 6).

(7') *Guerthatu … cen … dizcipulu-ac … hassi* ***citecen*** *…*
Ocurrido 3.AUX.ser discípulo-ABS.PL empezar 3pl.AUX.-*di-*
'Ocurrió [que] … sus discípulos empezaron a …' [2]

(8') *Guerthatu cen … publica* ***cedin*** *meçu bat …*
Ocurrido 3.AUX.ser publicar 3.AUX.-*di-* mensaje uno
'Ocurrió [que] … se publicó un mensaje [de Cesar Augusto] …'

(9') *Guerthatu cen … erran* ***cioçan*** *giçon bat-ec …*
Ocurrido 3.AUX.ser decir 3.AUX.-za-3.3 hombre uno-ERG
'Ocurrió [que] … un hombre le dijo …'

(10') *Guerthatu cen … ingura* ***nintçan*** *clartassun bat-ec*
Ocurrido 3.AUX.ser rodear 1.AUX.-*za*-3 claridad uno-ERG
'Ocurrió [que] … me rodeó una [gran] claridad'

Estos ejemplos constituyen, a mi entender, un fenómeno pequeño pero interesantísimo, del que (hasta donde alcanza mi conocimiento[3]) no había hasta ahora ninguna referencia. En todos los ejemplos se puede observar una estructura sintáctica muy similar. En ellos no aparece la marca de subordinación *-(e)la* o *bait-* en el verbo subordinado al verbo principal (*gertatu (izan) zen* 'ocurrió'), como podría esperarse de ese tipo de estructura compleja. Es decir, la marca de subordinación en este caso debe de ser *-(e)n*, la cual como es sabido no aparece (en superficie) en las formas verbales de Pasado. En cualquier caso, las formas verbales del verbo subordinado son formas que corresponden al Aoristo Perifrástico o al Subjuntivo Pasado Moderno, (los cuales, como he indicado arriba, eran formalmente idénticos).

Por tanto, la pregunta que se nos presenta es: ¿Cómo hay que interpretar estos ejemplos? E inmediatamente nos situamos ante dos posibilidades. Por un lado, podría pensarse que estas subordinadas son casos de Subjuntivo (de ahí que las formas verbales de la oración completiva requieran un auxiliar *-di-* o *-za-*). Por otro lado, sin embargo, esos ejemplos podrían constituir casos de

[2] Como ya he indicado en la sección 3, este ejemplo presenta un Perfecto Doble-Compuesto (*guerthatu içan cen*) cuya formación y significado son similares al Perfectivo Moderno simple (*gertatu zen*), pero con un participio extra del auxiliar *izan*. Además, este ejemplo también muestra un Aoristo Perifrástico formado con el participio del verbo *hasi* 'empezar', en vez de con el radical verbal *has*.

[3] Sorprende un poco que Altuna (1990) no hiciera ninguna mención a este fenómeno en su edición del *Evangelio* de Haraneder: no he encontrado ni una nota a pie de página. Tampoco he hallado ninguna referencia a estos ejemplos en Lafon (1943) ni en Mounole (2011), quienes de todas formas no incluyen el texto de Haraneder en su corpus principal. Tampoco se menciona nada en Aldai (2002, 2006).

conservación («reliquias» podríamos decir) del Aoristo Perifrástico en contextos subordinados.

No obstante, para intentar elegir entre estas dos opciones, deberíamos recoger más datos relacionados con los ejemplos (7)-(10). Así, en lo que sigue examinaré el comportamiento de las completivas de *gertatu* 'ocurrir' en otros autores labortanos, fundamentalmente en Leizarraga (sección 5), y además trataré de encontrar, dentro del propio Haraneder, otras completivas de *gertatu* que no tengan un verbo subordinado en perfectivo (sección 6). Por otra parte, como ha sugerido un evaluador de este artículo, consultaré la Vulgata para deducir hasta qué punto Haraneder pudo tener presente el original latino a la hora de elegir tal o cual forma verbal en su texto (sección 8). Después de presentar los datos recién mencionados, en la sección 9, planteo una discusión sobre cuál podría ser la mejor interpretación del fenómeno de Haraneder que nos ocupa, ejemplificado en (7)-(10).

[47] L. Mitxelena, «Notas linguísticas a "Colección Diplomática de Irache"», *FLV*, 1, 1969, pp. 1-59, reimpr. en *Palabras y Textos*, 1987, pp. 87-118; «Notas sobre los nombres de persona en la Navarra medieval», en *Palabras y Textos*, 1987, pp. 119-140.

Irigoien (1994: 265), sin embargo, anota la presencia de un *Ordiz* en Aguilar (Navarra) en 1350, que hace derivar de *Ortiz*, opinión coherente, ya que sitúa el origen de *Ordun* en *Fortun*.

Salaberri (2003: pp. 224-227), quien expone exhaustivamente, en su explicación del antropónimo vasco *Ordun*, la relación de este con los nombres *Ordono, Ordonio, Ordoño* y con los patronímicos *Orduniz, Ordoniz, Ordonis, Ordoñis, Ordones, Ordoñes,* presentes en documentos del País Vasco y Navarra, muestra la opinión de diferentes autores sobre el origen de estos apelativos: *Fortunius, Ordonius*, etc. A continuación, estudia y anota la presencia de *Orti* y las variantes *Urti, Forti, Fortis, Fuertes, Fortu, Fort, Bort, Borte, Fortunio, Fortitza y Ordin* y de los patronímicos *Fortiz, Fortis, Orteiz, Ortitz, Ortiz, Ortis, Ordiz, Urtiz, Urtis, Urties*, presentes en documentos vasconavarros, aportando la opinión de varias especialistas sobre su origen. Por otra parte, Mitxelena (*AV,* lema 303) incluye *Ordizia*, bien que no explica su formación ni su significado, entre los apellidos de origen vasco con terminación en *-(t)zia*. La corta lista de apellidos vascos, *Erdozia, Erkizia, Noblezia, Ordizia* y *Ulazia*, que se agrupan en dicho lema 303 poseen la terminación *-(t)zia*, que el autor renteriano considera variante del suf. *-tza, -tze* solamente en el caso de los primeros. Por ello, el apellido *Noblezia* podría remontar a *Nobilicus*, patronímico de *Nobilis* (Solin & Salomies, p. 349) o de *Nobilius* (*Becker*, p. 768), más el artículo *-a*, en esta secuencia: **Nob(i)lici + -a > *Noblizia > Noblezia*, enlazando del todo con la formación de *Ordizia*.

De otro lado, la presencia del grupo *-rd-* en *Ordoño* y en *Ordoniz, Urduniz, Ordoñez* etc. en época altomedieval, derivados, a nuestro juicio, de *Fortunius*, y, sobre todo, la existencia del apellido *Ordiz,* muy habitual actualmente en León y Asturias, que no podría remontar a un *Ordonius* original, sino sólo a *Ortiz*, puede contribuir a dar credibilidad a nuestra conjetura sobre *Ordizia*, en la que podrían entrar también, como ya hemos dicho, *Orduña / Urduña, Urdiales* y *Ordoñana*.

Ordicia llevaba ya este nombre cuando fue fundada por Alfonso X en 1256, recibiendo el título de villa en 1268 del mismo rey y pasando a ser denominada *Villafranca* casi hasta nuestros días, en virtud de lo cual se otorgaba a sus habitantes algunos privilegios, como el fuero de Vitoria, y otros derechos, que la protegían frente al poder señorial. Hasta un total de 25 poblaciones guipuzcoanas recibieron, desde finales del s. XII hasta dos siglos después, con su carta de fundación el título de villa, dentro de la estrategia de la monarquía de limitar poder a la nobleza, muchas con nombres castellanos: *Segura, Tolosa, Hernani, Villanueva de Oiarso (Rentería), Belmonte de Usurbil, Villarreal de Urrechua, Mondragón, Marquina de Yuso (Eibar-Placencia), Marquina de Suso (Elgoibar), Placencia, Salvatierra de Iraurgui (Azpeitia), San Martín de Iraurgui (Azkoitia),* etc.

En nuestro caso, por tanto, la denominación real de *Villafranca* habría sustituido a la, quizá, señorial de *Ordizia*.

ORDOÑANA

Fortunius podría encontrarse también en el origen del topónimo alavés *(H)ordoñana* en evolución romance: **(uilla) (F)ortuniana > *Ortuñana > Ordoñana*, o bien pudiera tratarse del antes citado *(H)ordonius* propuesto con dudas por Becker.

M.ª L. Albertos (1970: 195) cree que las formas medievales alavesas de este topónimo, es decir, *Erdongana* (1025) y *Herdonana* (1212) tienen su base

en el antropónimo latino *Herdonius* a través de *(*uilla) Herdoniana*. Salaberri (2012a: 219) nos añade en un amplio comentario que en 1156 se documenta como *Ordonnana*, «surgida al parecer por asimilación vocálica», defendiendo también el origen del topónimo a partir de *Herdonius,* antropónimo latino perteneciente a personajes legendarios del s. VI a. C., *Turnus Herdonius*, y s. V a. C., *Appius Herdonius*, transmitidos por T. Livio, pero sin presencia, que sepamos, en los siglos del Imperio, no encontrándose en la lista de nombres recogidos por Becker. Por ello y por la persistencia de su forma estimamos que la población primitiva pudo haber sido **Fortuniana* > *Ordoñana* y que la variante *Erdoñana*, fruto de disimilación vocálica, compitió durante un tiempo, al menos en los archivos, con el topónimo original, cuya pronunciación y grafía se habrían impuesto hasta el día de hoy.

Salaberri añade también que en un documento de 1475 la pronunciación vasca del topónimo es *Herdoña,* lo que significaría una muestra del nombre original en *(H)er-*. A favor de la hipótesis de Albertos, Salaberri y otros se encuentra este último dato y el hecho de la primera aparición del topónimo con su prímera sílaba en *(H)er-,* pero las dudas surgen de la falta de un antropónimo claro, hecho que se da sin vacilación en nuestra hipótesis: *Ordonius* > *Ordoniana*.

Evidentemente, si se llega a constatar la existencia de un *Ordonius* independiente de *Fortunius, Ordoñana* se habría originado a partir del primero.

HERNANI

Mitxelena[48] recoge numerosos genitivos de antropónimos latinos: *Betiri (Petri), Bikendi, Bikenti, Laurendi, (E)Meteri, Saturdi,* etc., empleados como nombres normales, que constituirían una reminiscencia de la fórmula *uilla Betiri,* etc., antiguos genitivos latinos. Irigoien (1977, 1982, 1987, 1994, 1995, etc.) también recoge en numerosas ocasiones estos antropónimos, anotándolos como nombres habituales (*cfr.* 1994: 39-40, 107-109). En este sentido, creemos que el nombre de la localidad guipuzcoana de *Hernani* también podría agregarse a los casos antes reseñados según la siguiente formación latina medieval y luego romance: **(uilla) Fernani* > *Hernani*, es decir, '(villa) de Fernán o Hernán', cuyo nominativo expresado en latín habría sido *Fernanus* o *Hernanus*, derivados del más antiguo *Ferdinandus* / *Fredinandus*. El topónimo está transcrito en los documentos (años 1014, 1101, 1174, 1198, etc.) como *Ernani* (en los cuatro documentos citados se encuentra la expresión *in finibus Ernani*, es decir, «en territorio de Hernán") y, en una ocasión (año 1105), *Ernania*, como adjetivo gentilicio: *terra quae dicitur Ernania*[49], carente de sonido la *H-* inicial, como es frecuente en préstamos tardíos (*cfr.* Mitxelena, *AV,* lema 299, donde anota apellidos como *Hernando, Herrando* n. pr.; *Ernandosoro, Hernandorena, Hernandotegui, Errandonea).*

Las primeras noticias escritas del valle de *Hernani* (San Sebastián, Hernani, Astigarraga, Lasarte, Usurbil, Urnieta, Orio) se encuentran en un documento de 938, en el que el conde castellano Fernán González realiza unos votos a favor del monasterio de San Millán de la Cogolla, estimando algunos autores[50] que tal documento es una falsificación del s. XIII. Sea como sea, el citado escrito iría bien con la denominación de la villa.

[48] L. Mitxelena, «Nombres vascos de persona», *ASJU,* 2, 1.ª época, 1955, pp. 107-127 y «El genitivo…, *op. cit.*, pp. 134-148.

[49] *Cfr.* J. L. Orella, «Geohistoria de la tenencia navarra de San Sebastián de Hernani», *Lurralde: invest. espac.* 38, 2015, pp. 15-68 (*vid.* pp. 37 y 44).

[50] *Ibid.*, p. 37.

Parecida formación que *Hernani*, a cuya jurisdicción perteneció el *monasterium Sancti Sebastiani*, es decir, *San Sebastián*, podría tener el nombre vasco, *Donostia*, de esta ciudad, que Mitxelena (*AV*, lema 403) explica a partir de **Donasa(b)astiai*, es decir, del genitivo del nombre.

8. 7. **Ortuella**. Seguramente está relacionado con el topónimo ya expuesto, **Fortunia* > *Orduña / Urduña*, a partir de su diminutivo medieval: **(uilla) Fortuniella* > **Ortu(ni)ella* > *Ortuella*, es decir, 'Orduña menor'. No creemos que el sustantivo latino *(h)ortu*, 'huerto', esté presente en este topónimo.

9. TOPÓNIMOS DE ONOMÁSTICA LATINA O ROMANCE Y VASCA

Hay otros topónimos que tienen en su composición el elemento latino o el romance en combinación con formas vascas:

9. 1. **Alonsotegi**. 'Residencia de Alonso'. El nombre-apellido *Alonso*, de origen germánico, fue adoptado como propio y muy ampliamente utilizado por la sociedad hispana romanovisigoda.

9. 2. **Apatamonasterio**. Municipio independiente hasta 1962, hoy en día barrio de Axpe-Atxondo. Compuesto del vocablo del latín cristiano, s. V-VI, *abbas, abbatis* y del castellano *monasterio*. Nos dice Mitxelena[51]: «Del mismo modo, *-bb-* latino esta representado por vasc. *-p-*... Para la toponimia son importantes los representantes de *abbas abbate y abbatia...: Apatamonasterio...*».

9. 3. **Areatza**. Del latín / romance *arena*, en euskera *harea*, más el sufijo vasco abundancial *-tza*, es decir, *arenal*. Su nombre histórico, **Villaro**, constituye una reducción de 'Villa de Haro', otorgado a la localidad en 1338 por su fundador Juan Núñez III de Lara en homenaje a la familia Haro, Señores de Vizcaya.

9. 4. **Bolibar**. Hay también un *Bolívar* en Álava/Araba, pedanía perteneciente al municipio de Vitoria-Gasteiz. Proviene del romance *molinum* (en latín *molindinum)* más el término vasco *ibar*, 'valle', 'vega'. Está documentado como *Molinivar,* 'valle del molino', en 1087 (Mitxelena, *AV*, lema 170).

9. 5. **Busturia**. Nuestra hipótesis es que este topónimo está compuesto de *busti*, 'humedal', y *uri*, 'villa'', es decir, 'villa del humedal', como ya comentamos en nuestro artículo anterior (Yarza, 2014, p. 1129), tomando *busti* como sustantivo, al igual que el elemento inicial de *Basauri, Ibarruri, Larrauri,* etc. *Busti* proviene del latín vulgar *mustidus*, 'empapado de mosto', 'mojado', en castellano *mustio*.

Salaberri en su estudio de toponimia vasca (1997: 21) trae a colación el topónimo *Bustitza*, presente en las localidades navarras de Arroniz, Biloria e Ituren, destacando el carácter puramente locativo del término: «lugar abundante en agua», «lugar húmedo», que conectaría directamente con *Busturi*. Salaberri, por otra parte, descarta, a mi juicio correctamente, la relación entre *bustin* y *Bustitza* debido a la dificultad para explicar la caída de la nasal.

9. 6. **Gordexola**. Se podría tratar de la combinación entre el antropónimo romano *Curtilius* (Solin & Salomies, p. 65) y el sufijo vasco *-ola*, que Mitxelena advierte que, además de su significado de 'cabaña', 'ferrería, 'lugar', también puede presentarse con nombres de persona como *Lopeola* y quizá *Betrola*, a partir de

[51] L. Mitxelena, «Introducción fonética...», *op. cit.*, p. 566.

Petri, en cuyo caso, añadimos nosotros, podría señalarse una posesión y su dueño. Se trataría de la misma formación que se encuentra en *Mutiloa,* que proviene de *mutil* y *ola* (*cfr.* Mitxelena, *AV,* lema 472), es decir, 'cabaña del muchacho', 'finca del criado'; en este caso *Curtili-ola*, 'finca de Curtilio'. El problema de esta hipótesis parece residir en la imposibilidad de unir un antropónimo de época imperial con el suf. *-ola*, de aparición más tardía.

La formación del actual topónimo habría sido intachable dentro de una evolución vascorromance: **(uilla) Curtiliola* > **Gortillola* > **Gortiiola* > **Gortixola* > *Gordexola* > *Gordejuela*. Cerca de esta población, a unos 20 kms., ya en Álava/Araba, se encuentra el concejo de *Gordeliz*, cuyo nombre podría deberse al mismo *Curtilius* más el sufijo *-icus,* a partir del genitivo, esto es, **Curtilici* > *Gordeliz*. Esta circunstancia hace que nos planteemos otra hipótesis: la terminación *-ola* del topónimo *Gordexola* podría corresponder al sufijo latino de diminutivo *-olus, -ola,* por lo que *Curtiliola* vendría a significar 'la finca menor de Curtilio' y *Gordeliz* sería, quizá, la primera. Salaberri (2013: 209) se refiere al topónimo *Gordeliz*, «basado tal vez en una variante **Cordellus* del documentado *Cordulus*». Antropónimos con el suf. de diminutivo *-olus* son habituales en Hispania (Becker, p. 87): *Amantiolus, Fabiolus, Iuliolus, Marciolus, Pelagiolus, etc.*

9. 7. **Ibarrangelua**. Entran en su composición los vocablos vascos *ibar*, 'valle', 'vega', y *angelu*, derivado este último del lat. *angellus*, diminutivo de *angulus*, 'ángulo', 'hondonada', 'suelo' (Mitxelena, *AV*, lema 55).

9. 8. **Zaldibar**. Está compuesto de *zaldu*, 'paso en la montaña', 'soto', derivado del sustantivo latino *saltus*, y de *ibar*, 'valle', esto es, 'valle del soto' (*cfr.* Mitxelena, *AV*, lema 598).

9. 9. **Zeanuri**. Mitxelena (*AV,* lema 119) afirma lo siguiente sobre este topónimo: «También el nombre de población vizcaíno *Ceanuri*, del que no conozco documentación antigua, vendrá de **Azenar-uri* disimilado». Irigoien (1982: 621-652; 1992: 225-229), a su vez, relaciona la primera parte del topónimo, *Zean*, con el nombre medieval *Zeian*, documentado como *Sancho Çeian* en 1366 en Azkoien / Peralta (N), que se encontraría en una localidad de Burgos, *Villacián*, o como apellido en Galicia, *Ceán*.

Por nuestra parte, creemos que *Zeanuri* está formado con el ampliamente documentado nombre romano *Seranus* y el término vasco *uri*: **Sera(n)uri* > *Zeanuri*, esto es, 'villa de Serano', según dijimos en nuestro citado trabajo (p. 1140). En el mismo estudio, p. 1135, decíamos que en la formación del topónimo guipuzcoano *Zerain* entra también el mismo nombre *Seranus*.

TOPÓNIMOS DE ORIGEN OSCURO

Finalmente, nos encontramos con topónimos mayores, cuya formación y origen son oscuros:

Abanto. M.ª L. Albertos (1970: 184) relaciona este topónimo con un indoeuropeo *Avent-*, que habría dado lugar al *Avendaño* vitoriano, al *Aventinum* romano, al *Aventicum* suizo, etc., en una relación interminable de hidrónimos y topónimos unidos por tal semejanza fonética. Véase también el artículo de Salaberri (2013: 246-247). *Avantici* está recogido como topónimo en Delamarre, p. 230.

Zierbena. Mitxelena[52] no está de acuerdo con la explicación que ofrece sobre el topónimo la autora de una tesis sobre toponimia vizcaína, quien lo hace derivar de **(uilla) Ceruiana:* «Cualquier romanista tendría bastante que decir de la sencilla explicación *Ciérvana* (en zona romanizada) < *(uilla) Cerviana*. El acento es algo más que un *apex* que se coloca encima de ciertas letras». El sabio renteriano no lleva más allá su juicio sobre el topónimo.

Se hallan otros pocos topónimos que pueden derivar del tan pregonado estrato indoeuropeo, celta, en Bizkaia, esto es, *Karranza, Lezama*, que escapan a nuestro análisis. Tampoco logramos conectar con un origen aceptable para *Dima, Zaratamo*, *Trápaga* y *Trucios*.

A la vista de estos datos parece quedar clara, como conclusión principal, la presencia muy notable de onomástica latina en la toponimia mayor de Bizkaia, ascendiendo casi al 50% el número de municipios del territorio[53], entre ellos los más poblados, cuyo nombre remontaría al *praenomen, nomen* o *cognomen* de individuos romanos o al servicio de ellos, instalados como colonos por toda la geografía vizcaína.

Las vías primordiales de entrada del mundo romano apuntan, por el oeste, a la calzada romana que iba de *Pistoraca* (Herrera de Pisuerga) a *Flaviobriga* (Castro Urdiales), pasando por el burgalés valle de Mena, Balmaseda, Zalla y Sopuerta. Los miliarios de Otxaran (Zalla) y de El Berrón, encontrado en el valle de Mena, en las proximidades de Balmaseda, correspondientes ambos a los años 235-238, dan cuenta de esta calzada. Muy cerca, en Otañes (Castro Urdiales, Cantabria) se han encontrado (Ybarra, p. 166) igualmente otros miliarios, el más antiguo de época de Nerón, y otros restos arqueológicos, que manifiestan la presencia romana en esa zona desde el s. I al IV.

Por el sur, la vía desde *Asturica Augusta* a *Burdigala*, desviándose hacia tierras vizcaínas, al llegar a zona alavesa, a través de Altube, Urkiola, Barazar y Arlaban, hubo de contribuir de modo notable a la penetración de la civilización romana.

Finalmente, debió de ser decisiva la entrada por mar, desde Lekeitio a Muskiz, jugando un papel fundamental la ría de Gernika, sobre todo, y la ría de Bilbao, acogedoras de gentes de habla latina, que venían, en navegación de cabotaje, tanto del oeste, esto es, de Cantabria como, sobre todo del este, es decir, de Gipuzkoa y de la parte francesa. En la desembocadura de la ría del Nervión, entre Portugalete y Las Arenas de Getxo, se encontraron, a fines del s. XIX, varias monedas romanas (Ybarra, p. 170 ss.), una de época republicana y otras del período imperial, de tiempos de Trajano, de Antonino Pío y de Adriano, lo que indica que ya en el s. I d. C. la conexión entre los romanos y los habitantes de Bizkaia era un hecho indiscutible.

Siguiendo con el nombre de los actuales municipios vizcaínos, hemos adjudicado a nueve de ellos origen latino o romance y vasco. La onomástica vasca está también muy presente, sobre todo en localidades de población rural, constituyendo un 33%, más o menos, del conjunto de ayuntamientos vizcaínos. Hay, finalmente, una decena, aproximadamente, de concejos, cuyo nombre aparece del todo oscuro, entre ellos algunos de posible origen indoeuropeo como *Lezama* (Mitxelena, *AV*, lema 39), de ascendencia celta seguramente,

[52] L. Mitxelena, «La toponimia romana en Vizcaya», *ASJU*, 2, (1.º época, 1955, pp. 8-12 y *BAP,* 11, 1955, pp. 124-128.

[53] El número oficial de municipios vizcaínos es de 112 en la actualidad.

que constituyen, en todo caso, un número del todo insignificante, menor aún que en Gipuzkoa. Ello parece desbaratar, a nuestro juicio, como ya dijimos en nuestro anterior artículo, la teoría, por una parte, de la existencia de un fuerte sustrato celta asentado en Bizkaia y, de otra, la hipótesis de la vasconización tardía de Bizkaia desde el este. El territorio vizcaíno, poco poblado a la llegada de los romanos, debía de estar habitado en ese momento por gente de habla vasca, cuyos hábitos lingüísticos, como se observa en la toponimia actual de origen latino, eran muy parecidos a los de sus habitantes hasta prácticamente el día de hoy.

Según un parecer muy extendido hasta nuestros días, la romanización fue inapreciable en Bizkaia e inexistente en Gipuzkoa, opinión que habría sin duda que matizar en la actualidad sobre todo en lo que se refiere al territorio vizcaíno. El vocablo 'romanización' alude a la asimilación cultural producida sobre todo entre los s. II y III d. C. en una gran parte de Europa, en virtud de la cual muchas zonas asumieron voluntaria o involuntariamente los usos y costumbres de Roma, sustituyendo en muchos lugares la lengua latina a la autóctona e introduciéndose en todos la religión cristiana. En nuestro caso, el latín no eliminó el euskera, hecho prodigioso, bien que se introdujo de forma muy notable en el léxico y, en el caso de Álava / Araba, Bizkaia y Navarra, en la toponimia, no produciéndose una romanización completa, pero conservándose testimonios suficientes de la relación entre romanos y vascones entre los siglos I y V (en Navarra, concretamente en *Iruñea-Pompaelo*, un siglo antes) para poder afirmar que la presencia romana afectó profundamente al modo de vida y a la visión del mundo de los habitantes de Vasconia.

BIBLIOGRAFÍA

Albertos, M.ª L., 1970, «Álava prerromana y romana. Estudio lingüístico», *Estudios de Arquelogía Alavesa*, 4, 107-234.

Becker, L., 2009, *Hispano-romanisches Namenbuch,* Tübingen.

Caro Baroja, J., 1945 / 1990, *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina,* Salamanca/Donostia/San Sebastián.

Ciprés, P., 2006, «La onomástica de las inscripciones romanas del País Vasco. Estructura del nombre personal y estatuto jurídico», *Veleia*, 23, 85-128.

Delamarre, X., 2004, «Index de J. Whatmough, *The dialects of Ancient Gaul*», *Veleia*, 21, 221-287.

Echevarria, A., 1989, «La cronología de las inscripciones funerarias latinas de Álava», *Munibe,* 41, 133-152.

Fernández Palacios, F., 2004, «Comentarios de epigrafía vizcaína romana y la municipalización en el territorio de la actual Euskadi», *Gerión,* 22, nº. 2, 483 ss.

Gorrochategui, J., 1999, «La romanización en el País Vasco: aspectos lingüísticos», in *Antiqua. VI Jornadas sobre la Antigüedad,* Donostia/San Sebastián, 10-23.

Irigoien, A., 1977, «Algunas consideraciones sobre onomástica personal vasca», *Euskera*, 22, pp. 561-623.

— 1982, «Sobre el topónimo *Gasteiz* y su entorno patronímico», *Vitoria en la Edad Media...,* Gasteiz, pp. 621-652.

— 1983, *La lengua vasca en relación con la antroponimia y otras cuestiones*, tesis doctoral, Servicio de Publicaciones UPV-EHU, Vitoria-Gasteiz.

— 1984, *Las lenguas de los vizcaínos: antroponimia y toponimia medievales*, Congreso de estudios históricos: Vizcaya en la Edad Media, Bilbao/Bilbo.

— 1986, *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbao/Bilbo.

— 1987, «Sobre el origen de los patronímicos y de ciertos topónimos terminados en -ain, -ein, sul. -añe», in *De re Philologica Linguae Vasconicae*, II, Bilbo/Bilbao, 193-207).
— 1994, *Pertsona-izenak euskaraz nola eman (eta exotoponymiaz eraskin bat*), Deustuko Unibertsitatea, Bilbo/Bilbao.
— 1995, «El nombre de persona medieval *Herramelli / Ferramelli,* etc.», in *De re philologica Linguae Vasconicae*, V, Bilbao-Bilbo, pp. 59-80.
Mitxelena, L., 1955, «Nombres vascos de persona», *ASJU,* 2 (1.ª época), 107-127.
— 1955, «El genitivo en la onomástica medieval», *Emerita*, 25, 134-148.
— 1956, «Introducción fonética a la onomástica vasca», *Emerita*, 24, 167-186, 331-352 (reimpr. en Donostia/San Sebastián, 1988, 555-580).
— 1957, «El genitivo en la onomástica medieval», *Emerita,* 25, pp. 134-148, reimpr. en 1988, pp. 595-603
— 1973, *Apellidos Vascos (AV)*, 2.ª ed.
— 1988, *Sobre historia de la lengua vasca,* Donostia/San Sebastián.
— 1990, *Fonética Histórica Vasca (FHV),* Donostia/San Sebastián (reimpr.).
Omaetxebarría, I., 1957, «Nombres propios y apellidos en Oñate. Consideraciones histórico-lingüísticas», *BAP,* 13, 114-136.
Salaberri, P., 2000, «Acerca del sufijo toponímico *-ain*», *FLV,* 83, 113-137.
— 2003, *Euskal Deituratégia: Patronimia*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbao/Bilbo.
— 2011a, «Sobre el sufijo occidental *-ika* y otras cuestiones de toponimia vasca», *FLV,* 113, 138-176.
— 2011b, «País Vasco y Navarra», in X. Ll. García Arias & E. Casanova Herrero (eds), *Toponimia hispánica: Origen y evolución de nuestros topónimos más importantes*, 63-97.
— 2011c, «De toponimia vasco-pirenaica: sobre el sufijo *-otz*, *-oz(e)*», *Nouvelle Revue d'Onomastique*, 53, 33-64.
— 2012a, «Notas de toponimia alavesa: antrotopónimos en *-a* / *-ana*», en R. González de Viñaspre y R. Garay (eds.), *Viaje a Íbita. Estudios históricos del Condado de Treviño*, Ayuntamiento del Condado de Treviño, 209-228.
— 2012b, «El elemento vasco en la obra *Toponimia hispánica: Origen y evolución de nuestros topónimos más importantes», FLV,* 114, 159-167.
— 2012c, «Topónimos alaveses de base antrotoponímica terminados en *-ain, -egi, -eta (-keta), -ika, -iku (-iko), -inu (-ina), -itu (-ita), -on», FLV,* 115, 322-357.
— 2013a, «Topónimos alaveses de base antrotoponímica acabados en *-(i)ano*», *FLV,* 116, 245-271.
— 2013b, «Topónimos alaveses de base antroponímica terminados en *-iz*, *-ez* y *-ona* / *-oa*», *Lapurdum*, 17, 201-220.
— 2014, «Topónimos alaveses de base antroponímica que tienen *huri* o *villa* como formante», *FLV*, 118, 367-392.
Santos, J., 1988, «Identificación de las ciudades antiguas de Alava, Guipuzcoa y Vizcaya. Estado de la cuestión», *Homenaje al profesor Marcelo Vigil (II), Studia Historica*, 6, 121-130.
Solin, H. eta Salomies, O., 1994 [1988], *Repertorium nominum gentilium et cognominum latinorum,* 2.ª ed., Olms-Weidmann, Hildesheim-New York.
Yarza, V., 2014, «Notas de toponimia guipuzcoana y puntos próximos», *Veleia Minor,* 32, vol. 2, 1119-1144.
Ybarra, J., 1955, «Lo romano en Vizcaya», *VIIIème Congrés d'Etudes Basques = Eusko Ikaskuntzaren VIII. Kongresua = Octavo Congreso de Estudios vascos* (8. 1954, Baiona, Ustaritz), Zumarraga, 11-43; 2003, *Eusko Ikaskuntza,* Donostia, 165-177.

RESUMEN

Notas sobre toponimia de origen romano en Bizkaia

En este artículo pretendemos sacar a la luz los posibles topónimos de origen romano en Bizkaia, dando continuidad a trabajos, escasos, de otros autores acerca de esta materia. Nuestro estudio se centra básicamente en las poblaciones y barrios del territorio vizcaíno que han recibido su nombre, en gran

cantidad, en contra de lo que se creía hasta ahora, del legado romano entre los siglos I y V.

Palabras clave: Bizkaia; poblaciones y barrios; toponimia de origen romano.

LABURPENA

Bizkaiko jatorri erromatarreko toponimiaren gaineko oharrak

Artikulu honetan Bizkaiko erromatar jatorrizko izan daitezkeen toponimoak azaldu nahi dugu, beste autore batzuen lanei, eskasak badira ere, jarraipena emanez. Gure ikerketa, gaur egun arte pentsatu izan denaren kontra, bizkaitar lurraldean K. o. I. eta V. mendeen artean, erromatar ondaretik, kopuru handian, jasotako herri eta auzoen izenetan oinarritzen da.

Hitz gakoak: Bizkaia; herriak eta auzoak; erromatar jatorrizko toponimia.

ABSTRACT:

Notes of toponymy of Roman origin in Bizkaia

In this article, we would like to bring to your attention to the possible place names of Roman origin in Bizkaia to continue the scarce work carried out by other authors on this topic. Our study is based on the population and surrounding areas of the Bizkaian territory, which have been named, despite the traditional belief so far, from the Roman legacy between the 1st and 5th centuries.

Key words: Bizkaia; population and surrounding areas; place names of Roman origin.

Ol(h)a entitate geografikoaz zenbait ohar

Luis Mari Zaldua Etxabe*

El estudio sistemático de la toponimia, uno de los almacenes mejor surtidos de antiguallas lingüísticas que conoce el mundo, podría dar, sin duda, un fruto mayor.

K. Mitxelena

1. ATARIKOA

Toponimian ugaria izateaz landara, *ol(h)a*[1] Erdi Aroko euskal izenak dakartzaten monasterioen agiri-bilduma zaharrenetan azaltzen da, iturri horien emaria hasten den une beretik. Atzo goizekoa ez da beraz eta, gainera, Ebro nahiz Berari ibaiez haraindi zabaldua dago. Alabaina, haren nondik norakoa guztiz zehazteko dago oraindik. Hona dakargun saioaren helburua, hain zuzen, *ol(h)a* entitate geografikoaren eremu, esanahi eta etorkiaz hausnartzea da, onomastikaren argitan hausnartu ere, euskararen historiaren ikerketan (txikia izanagatik) diziplina horrek ekarpena egin dezakeelakoan baikaude, esate baterako, berreraiketa-proposamenak toponimiako datuekin bahetuz. Adibidea jartzearren, Lakarra Andrinuaren gask. *hoelhà* (**hola*) > eusk. *ol(h)a* hipotesiari buruzko zenbait ohar biltzen ditugu, euskararen diakronia hobeto ezagutzeko Arratzuko irakasle eta euskaltzaina egiten ari den ahalegin eskergan laguntzeko asmoz idatziak. Orobat, abeltzaintzako eraikinok itxuratzen dituzten ezaugarriak, edota saroiekin duten hartu-emana, onomastikaren eskutik zenbateraino zehazta daitezkeen ikusi nahi dugu. Alde horretatik, *saroi* entitate geografikoaz 2015ean argitaraturiko idazkiari darraizkio ohar hauek.

* Filologoa. luismarizaldua@gmail.com. Eskerrak eman nahi dizkiegu Joseba Andoni Lakarra eta Patxi Salaberri irakasleei lan hau burutzeko emandako laguntzagatik.

[1] Lakarra Andrinuari (2015: 428) jarraikiz, /h/aren balio etimologikoa gogoan izateko idazten dugu horrela.

Iturri nagusia gaurdaino liburuetan, aldizkari zientifikoetan eta mapetan argitaratu den euskal toponimia da. Esan gabe doa Euskal Herri osoa aintzat hartzen dugunez gero, lanaren esparruaren azaleragatik, ezinezkoa zaigula *ol(h)a* entitate geografikoa osagaitzat duten toponimo guztiak hemen biltzea, eta zer esanik ez elementu hori duten toki-izenak banan-banan argitzen saiatzea; zabala izan dadin saiatu garen arren, lagina baliatu dugula alegia, zabala, baina, azken buruan, lagina.

2.1. Idatzizko lehen testigutzak 11. mendekoak dira. Ezagunenak besterik ez aipatzeko, Bizkaian *Olabeeçahar* / *Olhabeeçahar* toponimoa ageri da Elorrioko *Uarria* (Etxebarriko San Agustin) monasterioaren 1013ko sorkuntza-agirian (*cfr. TAV*, 31-33 or.). Araban[2], berebat, *Hollarizu*, *Olhavarri*, *Mendiolha*, *Harriolha* nahiz *Barolha* irakurtzen dira «Kukula Donemiliagako reja» deritzon 1025. urteko herri-zerrendan (*cfr. op. cit.*, 25-28 or.) eta San Juan de la Peñako bilduman Gipuzkoako (Altzoko) *Ollazabal* monasterioa ahotan hartzen da urte berean. Nafarroan erakuskari gehiago dago. Lehenik eta behin, Iratxeko izkribu batean aipatzen den Itza zendeako *Olaluce* nabarmendu nahi dugu, 1024koa delako (Lakarra de Migel 1965: 5; *cfr.* Mitxelena 1969: 7), hau da, ezagutzen dugun zaharrenetarikoa delako. Olaibarren, bestalde, *Ollave* lekukotzen da 1027an (Libano 1999a: 618) eta *Holayz*[3] 1046an (*villa de*; Lakarra de Migel 1957: 34; *FHV*: 321). Ildo beretik, *Ollaz* kausitu dugu Eguesibarren (1035; Ubieto 1960: 226; *FHV*, 321 or.) eta Irunberrin[4] (1059, *vineas de*; Mitxelena 1969: 6). *Beola* jaso dugu, azkenik, 1090ean Leireko monasterioaren izkribu batean[5] (Martín Duque 1983: 187). Iparraldeari bagagozkio, *Arreola* toponimoa da ezagutzen dugun ale bakarretarikoa (1068-1072, *terram que vocatur*; Raymond 1863: 21).

12. gizaldiko idazkietan ere badira mostrak eta, diogunaren lekuko, Gipuzkoan *Zamilola* eta *Saueria Olatze* aurkitu ditugu Aralarren (1141; ikus Zaldua 2011: 304-316), *Olabarrieta* Oñatin (1149; Martínez Díez 1975: 208) eta *Ammunola*, *Eierala*, *Lastaola* zein *Macurssola* Urumeako Zilegimendietan (1178; Zaldua 2011: 304-316). Nafarroa Garaian *Bagaola*, *Lapurdiola* eta *Çuaçola cubilare*-ak ditugu adibidez Leireko monasterioak 1110. urtean Erroibarren zeuzkan saroien zerrendan[6] eta, hala berean, *Olaga Barrena* irakurtzen da Iratxeko agiri-bilduman (1198; Lakarra de Migel 1957: 38). Nafarroa Beherean Arrueta-Sarrikotako *Olfegi* (1125; Raymond 1863: 79; Goienetxe 2011: 553) zein Milafrangako *Arrabiola* (> *Errebiola*) etxaldeak aipa daitezke (1200; Goienetxe 2011: 519) eta Zuberoan *Paguola* herria (1178; Goienetxe 2011: 378). Antroponimiaren sailean ere badaude aztarnak, Bizkaiko *Pedro Rroiz d' Olea* (1138; Libano, 1999a: 620), Artaxoako *García de Oleta* (Jimeno Jurio 1968: 219) eta Iparraldeko *Wilelmi de Yvarola* zein *Sanz Gale de Yvarole* kasurako (1167; Raymond 1863: 153; Goienetxe 2011: 191).

13. mendeko lekukotasun gehiago dago. Zilegi bekigu Orreagako monasterioaren *bustaliça* zerrendetatik hartu ditugunekin hastea: *Orbeguiolace* (1213; Ostolaza 1978: 123) / *Orbeguiolatçe* (1263; *op. cit.*, 254; *Vinaoz*-en), *Çaquarrola*

[2] Ikus 2.2.1.§ (*Olhaerrea*).

[3] *Ollainz* (1064; Martín Duque 1983: 110); Leireko bilduma da iturria.

[4] *Ollaze* (1085; Santa Maria de, Zierbide 1976: 270; *cfr. FHV*, 321). San Juan de la Penako kartulariotik hartutakoa.

[5] Lakarra de Migelek (1957: 32) aipatzen duen *Besolla* (1093) dateke.

[6] Martín Duque (1983: 321).

(1253; *op. cit.*, 228; Garralda), *Bagaola* (1259; *op. cit.*, 244; Erroibar), *Nauarr* [*Olatçe*] (ibidem; Luzaide), *Assurola* (1284; *op. cit.*, 374; Senosiain [Olloibar]), *Baga Ola Iragorrich* (1284; Lakarra de Migel 1957: 44-45; Luzaide), *Çuazolla Beerecoa* (1284; Ostolaza 1978: 371; Luzaide), *Juarr Olla* (1284; ibidem; Luzaide), *Lapurdi Ola* (1284; ibidem; Garazbizkai), *Nayarr Olatze* (1284; ibidem; Luzaide), *Vaga Olla* (1284; ibidem; Luzaide), *Vrriz Olla* (1284; ibidem; Luzaide), *Bela ola* (1284; Ostolaza 1978: 372-373; Garazbizkai), *Aroz ola* (1284; ibidem; Aldude), *Erroy ola* (1284; ibidem; Aldude). Aurreko etsenpluez gainera, honako besteok ipin daitezke; Nafarroa: *Necola* (1249; Mitxelena 1969: 41; Ibargoiti), *Olatce ilun* (1253, Jimeno Jurio & Salaberri 1998: 155; Artaxoa), *Olaçe Arana* (1265; Lakarra de Migel 1957: 25; Ugar, Deierri), *Olatz*[7] (1268; Jimeno Jurio 1987: 298; Galar Zendea), *Holaçagutia* (1268; Felones 1982: 660), *Ola eueyna*[8] (1256-1273, *bustaliza*; Lakarra de Migel 1957: 43; Sakana), *Sarassaco ola niquea* (1256-1273, *bustaliza*; ibidem; Dorrao, Ergoiena), *Olaga*, *Urbequeolatça* (1283; *op. cit.*, 39, Zirauki [Iratxe]). Bestetik, antroponimiaren sailean *Semeno de Oleta* (1205; Lakarra de Migel 1957: 49; Lizarra) nahiz *Miguel d'Ola* (1284; Ostolaza 1978: 370; Orrega) aipamenak topatu ditugu Nafarroan eta *Ramundi de Ibarola* (1245; Goienetxe 2011: 47; Makea) zein *Navarre d' Olhatse*[9] Lapurdin (1249; Goienetxe 2011: 25; Beskoitze).

Aurreneko testigutzei eskainitako azpiatal honekin bukatzeko, hara 14. gizaldiko adibide batzuk; Gipuzkoa: *Olano* (1346, *sel*; Aragón 2009: 132; Deba), *Urquiola* (1353, *sel*; *op. cit.*, 113; Albiztur-Beizama), *Leçaola* (1389, *termimo*; *op. cit.*, 132, Deba), *Arrola* (1389, *pieça llamada*[10]; ibidem); Nafarroa Beherea[11]: *Loyola* (1364, *territoire*; Goienetxe 2011: 297; Donibane Garazi ondoan). Goiko horiek osatze aldera antroponimiaren arloko hauek erantsi nahi ditugu; Gipuzkoa: *Miguel de Necola* (1391; Mora 2005: 80; Zizurkil), *Yenego de Higola* (1391; op.cit., 79), *Martin d' Irola* (1391; *op. cit.*, 57); Zuberoa: *Aremon Guilhem seigneur d'Olhayvie* (1308; Goienetxe 2011: 372; Arüe-Ithorrotze-Olhaibi); Nafarroa Beherea: *Guillelmus Arnaldi d' Irola* (1328; Goienetxe 2011: 133; Ainhize-Monjolose).

2.1.1. *Ola*-k erdietsiriko esparruaren azalpena Euskal Herriko sortaldeko ertzetik has daiteke, Lopez-Mugartzak (2008: 217) Erronkaribarko hainbat erakuskari biltzen dituelako eta Zuberoako testigutzarik ez delako falta; hain zuzen, Ottek (1994 [1981]: 67), *Eskantolha* zein *Sotoolatze* izenak jasotzen ditu Santa Grazin eta Lopez-Mugartzak (2008: 217) *Bagola, Gorostola*, *Hansola* zein *Kehola* zerrendatzen ditu Larrainen. *Ol(h)a*-k harrapaturiko lurraldea, ordea, Euskal Herritik haratago doa, Berari ibaiaz haraindi, behinola euskaraz hitz egiten zen beste alderdi batzuetaraino.

Darraigun Pirinioen hegoaldetik, Erronkaribarrekin muga egiten duen Ansotik. Lopez-Mugartzak (*op. cit.*, 217, 606) *Linzola* (*Leynsola*, 1551) topo-

[7] *Olatz Nagusia* nahiz *Olatz-Zubitza* izenez ezagutu kontzejua da; *Olayz* (1350), *Olace* (1444), Jimeno Jurio (1987: 298). Ikus Salaberri (2011: 57).

[8] 'Agotada, extenuada' (*AV*, 483). Adiera 'estalkia erorita duena' edo 'utzitakoa, berreraiki ez dena' ere izan daiteke gure ustez.

[9] Egungo *Olhatzia* «kartierra».

[10] «… en que estan las cuevas en el cual lugar esta situada la oya do está de morada Martín Yvaynez de Aycarria…».

[11] Nafarroa Garaian badaude *Ambola* (1312; Lakarra de Migel 1957: 23; Los Arcos) eta *Uguessola* (1312; ibidem; Arroitz) mostrak, baina ez dira gauza segurua.

nimoa biltzen du han eta, Aragoi Garaitik[12] nahiz Jakerritik atera gabe, hor dugu Bailon 970.-994. urteen artean aipatzen den *Bayetola* herria (Lacasta 1994: 189). Orobat, *Ariola* ardantzea agertzen da Binacuan (Santa Cruz de la Serósen) 1138an (*op. cit.*, 215 or.) eta *Olate* Cartiranan (*op. cit.*, 232 or.). *Olla* dugu, azkenik, Jabarellan (Irigoien, 1986: 220-221).

Hegoalderantz jaitsiz gero[13], Irigoienen (ibidem) arabera, Huesca hiriburuaren inguruan (*Hoya de Huesca* delakoan), *Ola* toponimoa dugu Fañanásen (12. gizaldian), *Olibar de la Ola* Castilsabasen, *Camino de la Ola* Alcalá del Obispon, Monfloriten, Siétamo nahiz Tierzen eta *Tozal de la Olla* Casbasen zein Liesan.

Berebat, Sobrarben (Pirinioen inguru hurbilean) *Barranco de la Olla* dago, Fanlon hain zuzen (ibidem). Ribagorza Behereko sartaldeari bagagozkio, Bilboko irakasleak (ibidem) *Barranco de la Olla* zerrendatzen du Laspaúlesen (Benabarren). Haatik, Martín de las Pueblasek (2003: 245) *ol(h)a*-ren lekukotasunik ez du jasotzen Benasquen[14]. Badira Ribagorza behereko toponimiari buruzko ikerketa gehiago, Rizosen (2005) doktorego tesia adibidez, baina, aurreko ikertzailearen ildo beretik, euskal toponimia gutxi dakar oso eta *ol(h)a*-ren arrastorik ez dago.

Pirinioen beste aldera begiratuz gero, Bearnon ere badaude *-ol(h)a* bigarren osagaitzat duten toki-izenak; idatzizko iturrietan *-ol(l)e* eta *-ule*[15] aldakiak gailentzen dira alderdi hartan. Honatx aurrenekoaren zenbait erakuskari: *Bagole* (Irigoien 1986: 189; Ustasutik gertu), *Hagolle* (ibidem; Eskiulatik gertu), *Lauriolle* (Irigoien 1995: 41; Laruns), *Bitole* (Lopez-Mugartza, 2008: 82, 606; Baretos), *Insole* (ibidem; Laskun). Bearnotik kanpo *ol(h)a*-ren aztarna gutxi ezagutzen dugu Pirinioen iparraldean. Landetan, Castets eta Magesq artean, dagoen *Arriole* (Irigoien 1986: 190) da bakarretariko bat.

Sartaldean, *ol(h)a*-ren lurraldea (Ebro ibaiaz haraindi) Euskal Herritik haratago doala esan dugu lehen; Miranda de Ebroko *Olhaerrea* (1025) da etsenplu bistakoa, baina ez bakarra, Errioxako eta Burgosko eremu batzuetan badaudelako *ol(h)a*-ren mostrak toponimian. Zenbait aipatuko ditugu, adibide antzera (ikus 2.2.2§). Hasteko, hor dugu *Ollauri* toponimo nagusia (*cfr. Gorta[i]ri*, *Olagorta*) aurreneko aldiz Santo Domingo de la Calzadako kartularioan 12. gizaldian irakur daitekeena[16] (*Gonzalvo de Olauri*, 1185. urtea, 66. zkia.; *Petro Garciez de Olhauri*, 1182. urtea, 54. zkia.). Izen ttipien arloan erreferentzia gehiago daude, damurik, aurreko argibideak bezain zaharrak ez badira ere; Fresnedako (Burgosko) *Olavidea* (1680; Merino Urrutia, 1962: 88) zein Ojacastroko (Errioxako) *Olarna* (1674; *op. cit.*, 28 or.) eta *Olabarria*-z ari gara (1751; *op. cit.*, 28 or.). Merino Urrutiak Burgosko eta Errioxako euskal toponimoekin paraturiko zerrendarekin jarraituz[17], adibi-

[12] Gallego garaian *Arredola* arroila dago Secorúnen (Lacasta, 1994: 207) eta *Yéspola* herri-izena Sabiñanigo udalean (*op. cit.*, 203).

[13] *Guartola* (*cfr. Kartola*) ere aipatzen du Irigoienek (ibid.) Loarren, baina zalantzakotzat dauka. Aragoi Garaitik kanpo, hegoalderago oraindik, *Val de las Ollas* lekukotzen du ikertzaile hark Fragan (ibid.).

[14] Hango toponimian euskarak izandako balizko eragina berariaz aztertzen du. *-Ol*, *-ola*, *-uelo*, *-uala* aldakiak dituen latinetiko *-olu*, *-ola* txikigarri ihartuaz mintzo da eta *Bagüeñola*, *Maiguala* eta *Guardiola* adibideak dakartza (*op. cit.*, 249 or.). *-Ullo*, *-ulla* txikigarria ere aipatzen du (< lat. *-oculu*, *-ucula*), aurrekoa bezain emankorra ez bada ere (*Cogullo*, *Cogulla*; *op. cit.*, 240 or.).

[15] *-Ule*-renak 2.2. azpiatalean biltzen ditugu.

[16] Euskaltzaindia (2006: 863).

[17] Atentzioa ematen du *-ola* bigarren osagaitzat duen izen kopuruak.

deok ere gardenak dirudite: *Aizola* / *Isola* (*op. cit.*, 88 or.; Fresneda, Burgos), *Bastola* (*op. cit.*, 88 or.; Fresneda), *Erizola* (*op. cit.*, 38 or.; Valgañon, Errioxa). Aurreko horiekin batera, ez dira gutxi /*ll*/ grafema dutenak, *Artollas* (*op. cit.*, 25 or.; Ojacastro) zein *Estonzolla* (*op. cit.*, 32 or.; Ezkarai) kasurako[18]. Sail berekoa dirudi Villanueva de Camerosko (Errioxako) *Ollano* mendiak ere (*op. cit.*, 83 or.).

2.2. Kukula Donemiliagako monasterio errioxarrari 1025. urtean burdinazko nabarrak ordainetan ematen zizkioten Arabako herrien zerrendan *-ulha* / *-ulla* amaiera duten bi izen daude, *Zuhazulha* eta *Uhulla*[19].

Badira toponimo horien Erdi Aroko lekukotza gehiago. Arabako onomastika ezagutzeko oinarrizko iturri den Lopez de Gereñuk (1989: 659), esaterako, *Çuaçula* (1257) aipamena biltzen du *Zuazola* herriari dagokion atalean[20] eta, hala berean, *Huhulla* (1060), *Uhula* (1258) zein *Yula* (1286) testigutzak dakartza *Ula*-ri eskainitako pasarteetan (*op. cit.*: 882, 654). Ildo beretik, Mitxelenak (*TAV*, 29 or.) *Uula* (1257) aldakia jasotzen du. Baina begira diezaiegun astiroago berri horiei.

Datari erreparatuz gero, 1060. urteko lekukotasuna San Juan de la Peñako kartulario edo liburu gotikotik hartua dateke. Arabako zenbait aitoren semek –sortzaileetariko bat izan zen Nuño zendu ondoren– *Huulla* monasterioa San Juan de la Peñari eman ziotela jasotzen duen agirian dago, 16. orrialdearen aurkian zehazkiro[21].

Izatez, *Huhulla* aldakiaren estreinako agerraldia 1085ekoa da. San Juan de la Peñako kartulario edo liburu gotikoan dago hau ere (53. orr., bin.), monasterioak, Antso V.a Ramirezen agintaldian, Arabako zenbait elizen eskubideak bereganatzen zituela frogatzeko idatzitako dokumentuan hain justu. Honen berri Llorentek (1806-1808-III: 442) eman zuen 19. gizaldian aurreneko aldiz eta harrez gero hainbat ikertzailek erabili du (ikus Libano 1999b: 56).

Mitxelenak *Textos Arcáicos Vascos*-en dakarren 1257ko *Uula*-k, azkenik, Cahahorrako gotzaina izan zen Aznarren (eta Gil kardenalaren) zergapeko parrokien zerrendatik hartua dirudi[22], *Çuaçula*-rekin batera (ikus Rodríguez de Lama 1989b: 217).

Ondorioz, *-ulha* / *-ulla* duten 1025eko *Zuhazulha* eta *Uhulla* erratuak direla pentsatzeko arrazoirik ez dago, Erdi Aroko toponimian bukaera hori ugaria izan ez arren eta, horren lekuko, Leireko monasterioak 1110. urtean Erroibarren zituen saroien (*cubilares* direlakoen) artean konparaziora *Çuaçola* irakur daitekeen arren (Martín Duque (1983: 321), ikusten denez, gibelean (albokariaren aurretik) bokal erdikoa duena, eta ez itxia.

2.2.1. Asko ez izanagatik, badira amaieran nahiz hasieran *ul(h)a* osagaia duten toponimo gehiago[23]; zoritxarrez, erakusgarri gehienak Aro Modernokoak dira. Salbuespentzat Orhi (Larraine) aldeko *Betzula* leku-izenaren

[18] *Cfr. Zorrollaiza* (Arregi, 1958: 100; Ezkarai).

[19] Biak ala biak *Barrandiz* merindadeari dagokion atalean aipatzen dira, bestela esan, Agurain inguruko toki-izenak dira.

[20] *Çoaçola* (1537), ibidem.

[21] Jatorrizko testuari arreta pixka bat opa diona konturatuko da *Hù ulla* ipintzen duela egiazki. Jatorrizko idazkuna <http://zaguan.unizar.es/record/717 web gunean ikus daiteke>. *Cfr.* Ubieto (1963: 191-192), Libano (1999b: 64) zein Viruete (2013: 518).

[22] Mikel Gorrotxategiri zor diogun hari-muturra.

[23] Mitxelenak (1987 [1976]: 67) dioenaren arabera, Kukula Donemiliagako bilduman ageri den *Gumenzula*-ren (945. urtea) euskal itxura ispilatze edo begitazioa izan daiteke; horregatik ez dugu aintzat hartu hemen.

11. eta 12. mendeetako zenbait agerraldi erakuts daitezke[24]: *Uizulla Maiore* (1072), *Uizulla Minore* (1072); *Bezulla Maiore* (1115), *Bezulla Minore* (1120). Agerian ipini nahi dugu, hemen ere, *Zuhazulha* / *Çuaçola*-ren kasuan gertatu moduan, txistukari ondoren azaltzen dela *-ulla*. Albokariaren grafema /*ll*/ izatea ere adierazgarria da (*cfr. Uhulla*, 1025). Erreferentzia horiek *ulla*-k Erdi Aro Berantiarraren hasmentan harrapaturiko esparrua Arabatik Nafarroako sortalderaino zabaltzen zela erakusten dute, beraz[25].

Arabara itzuliz, Lopez de Gereñuk (1989: 476) *Ulagaña* (1778) zein *Ulagain* (1873) izenak jasotzen ditu Agurainen, eta Barrongo *Ulabe* (1694) nahiz Sarriko *Ulaga* ere aipatzen ditu[26]. Sartaldetik atera gabe, baina oraingoan Bizkaiari kasu eginez, Kerexetak (1992: 195) argitaraturiko fogerazio edo suzerrendan *Irula* izeneko bi baserri ditugu adibidez Mundakan 1704. urtean[27].

Probintziari erreparatuz gero, Ormaetxeak (1996: 420, 112) biltzen duenez, Arrasaten *Asuela* (*Asuola* 1429, 1475; *Azuela* 1778, 1945; Zaldibar auzoa) zein *Asula* [28] toponimoak daude (*Asula* 1480; *Azula* 1480, 1583, 1778, 1945; *Asuola*, 1691; Garagartza auzoa). Badira *ula*-ren testigutza gehiago Gipuzkoan[29]; 1857ko izendegian[30], konparaziora, *Asula* baserria ageri da Elgetan (121 or.).

Nafarroako Toponimia eta Mapagintza bilduman[31] ere (*NTEM*) bukaeran *-ula* duten zenbait toponimo irakurtzen dira. Saldiasen (*NTEM-LVI*: 203), esate baterako, Otsagabiko *Betzula*-ren eite berekoa den *Bizula* kausitu dugu[32], baina oraingo honetan aipamenak ez dira zaharrak (*Bizul* 1699; *Vizul*, 1716; 1725; *Vizula*; 1894; *Bizula*, 1916). Era berean, Larraunen (Aldatzen) *Urdula* (1893; (*NTEM-XLV*: 50, 131) toki-izena dago eta Desojon (*NTEM-XXI*: 89) *Izarrula* azaltzen da (*Yzarrula*, 1702; *Izarrula*, 1703; *Yzarrola*, 1706; *Hizarrula*, 1707; *Izarrula*, 1883; *Izarrola*, 1894). Bukatzeko, diogun Altsasun *Ula-* –amaieran izan ordez– hasieran duen *Ulaiar* dagoela bilduta (*Ulaiar*, 1700, 1782; *Ulayar*, 1701; *Olaya*, *Olayar*, *Ulayar*, 1893; *NTEM-IX*: 59). Aurreko adibideak erakuskari batzuk baizik ez dira, sail luzeagoa ekar daitekeelako.

[24] Lakarra de Migel (1957: 33); *cfr.* Martín Duque (1983: 146). Datu interesgarria dago mendi aldeko izenon harira, alegia, biak *cubilare*-ak (saroiak) zirela: « ... *in loco qui nominatur Bezulla Maiore, duos cubilares*» (1115; Martín Duque, 1983: 348).

[25] Iratxeko monasterioren agiri-bilduman agertzen den *Ullato* toponimoa ere *ul(h)a* osagaia dutenen sailekoa izan daiteke, agian. Kokapen ezezaguna du, baina 10., 11. eta 12. gizaldietako erakuskariak ditu (958, *vineam*; 1093, *termino*; 1120, *locum;* Lakarra de Migel, 1965: 3, 93, 125).). Hain zuzen, itxura batean, osaketa *Ulla* + *-to* (atzizki txikigarria) dateke (*cfr. Etxeto*); zoritxarrez, etimo hori zuzena dela ezin ziurta genezake.

[26] Eusko Jaurlaritzaren EAEko toponimia datu-basearen Arabako atalean (www.euskara.euskadi.net.) *Azula* izeneko aurkintzak irakur daitezke Aiaran, Okondon eta Laudion.

[27] *Atxula* (Nabarniz), *Mesula* (Lemoiz, Plentzia), *Zaula* (Gueñes), *Amulategi* (Markina-Xemein) eta *Akulategi* (Bermeo) toki-izenak aurkitu ditugu lurralde hartako Aldundiaren datutegian (www.bizkaia.net.). Alabaina, azken bost adibideen idatzizko erreferentziarik ez dagoenez, izen horietan benetan zer dugun ezin jakin.

[28] *Cfr.* Aiara, Okondo eta Laudioko *Azula*.

[29] Bi hitz *Ulazia* deituraz. Mitxelena (*AV*, 303), *-ia* bukaerari dagokion sarreran, *-(t)zia* formaz mintzo da, eta *Ulacia* darabil adibide moduan, baina ez du ezer adierazten aurreneko zatiaz, *Ula*-z alegia. Zilegi bekigu azpimarratzea Berastegin *Bulaçia* etxea aipatzen dela 1548. urtean (Lema *et al.* 2000: 339, 340; egun *Bulatzi* esaten zaio) eta, horrenbestez, ez dagoela erabat garbi eskuen artean zer dugun.

[30] *Nomenclator de la Provinvia de Guipúzcoa*, Gipuzkoako Foru Aldundia.

[31] Web gunea du: <http://toponimianavarra.tracasa.es>.

[32] *Cfr.* Abaltzisketako *Veçulohouia* (1409) eta *Beçulogarate* (1409) saroiak.

2.2.2. Esan dugu lehen Pirinioen bestaldean (Biarno aldean) badaudela *-ule* duten toponimoak. Aski bitez diogunaren etsenplutako[33] *Orriule* (Coromines, 1972: 305; Donapaleutik gertu; okz. *Aurriula*), *Bagoule* (Lopez-Mugartza, 2008: 606; Baretos), *Biscarroules* (ibidem; Baretos) nahiz *Gouetsoule* (ibidem; Urdoze eta Aspe). *Orriule*-ren harira, nabarmen dezagun Corominesek (1972: 305) *O(r)riure* (1385, 1399), *Orriula* (1544) zein *Orriola* (1618) formak biltzen dituela eta, dakartzan datu horiek ikusirik, zaila dela denboraren buruan bilakabidea egiazki zein izan den zehaztea.

Euskal eremuko beste muturrean ere, Errioxan alegia, badira amaieran *-ul(l)a* daukaten toki-izenak. Batzuetan, *-ul(l)a* dagoela bistakoa dirudi, euskal jatorriko toponimo gardenak ematen dute, tamalez, erreferentzia zaharrik ez badago ere[34]; gehienetan /*ll*/ dago, eta ez /*l*/, bokalen artean: *Azarrulla* (Merino Urrutia 1962: 30, 64-65 or.; Ezkarai), *Macurulla* (*op. cit.*, 33 or.; Ezkarai), *Unzulla*, (*op. cit.*, 35 or.; Ezkarai), *Zabarrula*[35] (*op. cit.*, 24 or.; Ojacastro).

2.2.3. 1949ko «Ola en la topografía vasca» artikuluan Giesek ez du hitzik esaten *-ul(h)a* formari buruz. Mitxelenak, *Apellidos Vascos*-en (484), *Zuhazulha* (mod. *Zuazola*) *-ol(h)a* duten toponimoen artean iruzkintzen du eta, bide beretik, *Fonética Histórica Vasca*-n (54 or.), *o* > *u* hersketaz ari delarik, Biarnoko *Eskiula* herri-izen euskaldunaren amaiera (*Esquiula*, *Squiule*, 1542; *Esquiulle*, 1548) *-ol(h)a*-rekin lotzen du; dakartzan aipamenak 16. gizaldikoak dira horratik[36], eta ez du aldaketaren idatzizko erakusgarririk baliatzen. Azken buruan, *-ul(h)a* < *-ol(h)a* etorkiaren alde egiten du.

Corominesek (1972: 305) ere, Mitxelenari jarraikiz, *-ol(h)a*-ren aldagaitzat dauka *-ul(h)a*. Ikertzaile kataluniarraren irudiko, *-ol(h)a* postonikoak *-ul(h)a* eman du gaskoiz aurretik bokala dagoenean; aitzinean dardarkaria dagoenean, berriz, bokal atonoa erabat erori bide da (*Ibarla* < *Ibarrola*).

Bi maisuen azalpenek *Zuhazulha* eta *Uhulla* leku-izenen bukaeraren nondik norakoa ez dute guztiz argitzen. Honatx iritzi horren sostengutzat dakartzagun arrazoiak. Aurrenik, biak ala biak amaieran *-olha* duen izen baten ondoan ageri dira 1025eko testuan (*Harriolha*-ren alboan). Bigarrenik, 11. gizaldiko izkribuan bigarren osagaitzat *-olha* duten izenak ez dira *-ulha* / *-ulla* dutenak baino askoz gehiago[37] (*Mendiolha*, *Harriolha* eta *Barolha*). Hirugarrenik, bi toponimoen aurreneko osagaiak kontsonantez amaitzen dira, eta ez bokalez[38]. Azkenik, *Zuhazulha* / *Zuazola-ren* kasuan *-ulha* duen aldakia *-ol(h)a* duena baino lehenago dokumentatzen da.

Leireko monasterioak 1110. urtean Erroibarren zeuzkan jabetzen zerrendan *Çuaçola* saroia dagoela ikusirik[39], argi dagoena da euskal eremu guztian aldi eta alde oro gauzak e zirela beti batekoak izan, garai bertsuan (1025-1110), testuinguru foniko berean, alderdi batean eta bestean azaltzen diren formak ez datozelako bat (*Zuhazulha* vs. *Çuaçola*). Hain zuzen, ez da erraz azaltzea zergatik ez den hersketarik egon osaketa bera duten kasu guztietan, hots, zer-

[33] Baretosko *Larrachoula* / *Larrauchoula* ere sail berekoa dateke (Lopez-Mugartza, 2008: 606).

[34] Ojacastroko *Mantulla* (1481; Merino Urrutia, 1962: 28) eta *Alusculla* (1487; *op. cit.*, 25 or.) zalantzazkotzat dauzkagu.

[35] *Zabarrola* idazten du ondoan Merino Urrutiak.

[36] Darabilen iturria Raymonden (1863) *Dictionnaire topographique Béarn-Pays Basque* da.

[37] *Ula-* lehen osagaitzat duen toponimorik ez dago 1025eko «rejan».

[38] Ohar bedi pasarte (eta barruti) berean aipatzen den *Harriolha*-k, *i* bokalaz amaitzen den lehen osagaia izanagatik (*harri*), ez duela *-ula* forma bigarren tokian.

[39] 1284. Urtean (Orreagako monasterioaren *bustaliza* zerrendan) ere aipatzen da (*cfr. TAV*, 37 or.).

gatik dauden *Zuazulha* (1025, Araba) / *Çuhaz Olla Beerecoa* (1284, Garazbizkai) nahiz *Uizulla* (1072, Larraine) / *Vrriz olla* (1284, Garazbizkai) bikoak.

Uhulla-ren karietara, batetik, gogora dezagun, Igartuak (2006: 524-528) nabarmentzen duen bezala, konposizioan, **(h)ur* izenaren elkartu arkaikoetan, bigarren osagaia /*h*/ kontsonantearekin hasten bazen, dardarkaria erori egin zitekeela. Bestetik, *(h)ur-* duten elkartuetan hasperenketa bikoitza zuten hitzetan burutu zen disimilazioa dukegu[40] (aurreneko /*h*/ ezabatu dateke). Ondorioz, *Uhulla*-ren kasuan daitekeena da bilakabidea **Hur-huLa* > *Huhulla* > *U(h)ul(l)a* izatea[41].

2.2.4. *Ul(h)a* formaren esparrua zabala da (Arabatik Nafarroa Behereraino hedatzen da), baina banaketa ez da beti batekoa, Gipuzkoan *ul(h)a*-ren erakusgarriak urri direlako eta, halaber, Aragoi aldean alerik kausitu ez dugulako. Ildo beretik, *ul(h)a* baizik azaltzen ez den lurralderik ez dago.

Forma beregainak direla pentsatzeko argudiorik ez dago, baina *ul(h)a* alde eta aldi oro *ol(h)a*-ren oinordea dela uste izatera garamatzan daturik ez dugu kausitu tradizio idatzian; bien lekukotza zaharrenak garaikideak dira. Biek ala biek esanahi ezberdina dutela pentsatzeko arrazoirik ere ez da ikusten. Argi dagoena da *ol(h)a* naroagoa dela eta zabalduagoa dagoela.

Ol(h)a / *ul(h)a* bikoaren nondik norakoa ulertze aldera *amon* / *amun* ahaidego-izenari erreparatzea lagungarri gerta daitekeelakoan gaude (*ama* + *on*; *cfr. aiton*). Mitxelena (*FHV*, 53-55 or.) /*n*/ aurrean gertatzen den *o* > *u* hersketaz mintzo da[42] (*[h]on* > *hun*), baina, agerikoa da *amun* / *amon* izenaren kasuan bederen bokal itxia duen aldaera ez dela berrikuntza, forma hori delako izkribu zaharrenetan ageri dena[43], *Amunna Maura* (1052-1054) lekuko[44]. Gainera, /*u*/ duen estreinako aipamen hori ez da Pirinioetako mugaz haraindikoa, Hegoaldekoa baizik. Hizkuntzaren hondo zaharreko hitz horrekin gertaturikoa ikusirik, galde daiteke behinola albokari aitzinean ere *u* eta *o* bokalak nahasteko joera ez ote zegoen[45]. Esan gabe doa alegiazko neutralizazio horrek *-ul(h)a* guztien jatorria ez duela azaltzen (kasu batzuetan *ol(h)a* > *ul(h)a* urratsa egon delako), baina *-ul(h)a -ol(h)a*-ren oinordea delako hipotesiak hainbat adibide ulertarazteko zergatik balio ez duen argituko luke.

3. ESANAHIA

3.2.1. Mitxelenak (*AV*, 483) garbi diosku: *ol(h)a*-k erronkarieraz (*ōla*) zein zubereraz (*ólha*) 'cabaña' esan nahi du, eta, menturaz, adiera hori dateke jatorrizkoa euskal eremu osoan. Norbaitek ikus ez badeza, Bidankozeko Mariano Mendigatxaren 1904. urteko argibide hau eskainiko diogu (Irigoien 1957: 136): «Ganzta egitenda onletan; onla da, cabaña, eta ssassgu urteoro

[40] *Cfr. FHV*, 215-216 or.

[41] *Cfr.* Donostiako *Per Arnalt d' Uhua* (1292; Martínez Díz *et al.* 1991: 85).

[42] Aldaketa hori euskalki gehienetan eman da, indar gehiena Zubereraz izan arren; *cfr.* Camino (2011: 128-129). Bidenabar, gogora dezagun Erromatarren garaiko onomastika akitaniarrean *Narhonsus* (Montsérié; *cfr. Haron-*) izena dugula esaterako, *Naru(ns)eni* (Nafarroa) nahiz *Narhun-gesi*-rekin (gen. Lerga) aldera daitekeena (Gorrotxategi, 1984: 361).

[43] Ikus Artzamendi (1985: 102).

[44] Rodríguez de Lama (1976a: 49); *cfr. Amunola*, 1178.

[45] Mitxelenak (1969: 13) dioenez, silaba amaieran *or* / *ur* neutralizatzeko joera egon da euskaraz.

egitendeina[46]; cabaña, ganztaren egiteko, eta artzayen erretiroarentako; eta ssassguia, ardien bilgunia, ssasstako, edo irauskitako, edo eresstako, guero eznia biltandei olaberratara».

Arrunt ugariak ez izanagatik, badira abeltzaintzarako etxolen berriak Erdi Aro Berantiarreko iturri idatzietan: «Cabanna de oueias que solia ser cerca de Çumaya» (1391, *sel*; Aragón 2009: 134); «[Ordizia y sus vecindades] *libremente puedan poner sus ganados menudos y bestias faziendo cavanas y setos* […] *fuera de los sele*s…» (1409; Aralar[47]); «Que no se corte arboles en los seles de Ylurdan e Adiestayn para cabannas ni se pongan cabannas fuera de los seles […] por cabsa de la tala que fazen […] para faser tabla de cabannas en que se acojen baquerizos…» (1483; Lema *et al.* 2002: 224-225; Zestoa). Ikusten denez, Erdi Aroan etxolen teilatuak oholekin egiten zituzten batzuetan (*cfr.* Moraza, 2010: 65-66) eta, ildo horretan, azpimarra dezagun 19. gizaldiaren amaieran egurrezko estalkia zuten *choza de tabla* direlakoak eraikitzen zituztela artean zenbait tokitan (ibidem).

Aralarko abeltzainen bizileku zaharrak arkeologiaren eskutik ikertu dituzten adituek bi etxola molde finkatu dituzte: batetik, eite lauki luzea zein harrizko zola dutenak (erromatar garaikoak[48]; Mujika *et al.* 2013) eta, bestetik, arrautza tankera eta lur, buztin zein hartxintxarrezko hondo tumularra dutenak (Moraza & Mujika 2005). Azken horiek denbora luzez erabili zituzten (7. gizalditik 18.era arte), baina gehienak lau gizalditan eraikiak dira, 9.aren amaieratik 13.aren bukaera artean; 15.-16. gizalditik aurrera nabarmen bakandu ziren (19.ean aleren bat eraiki zuten arren). Antza denez, negu sasoian bertan behera uzten zituzten, hurrengo udaberrian berreraikiz. Tuparekin, garoarekin nahiz adarrekin egindako teilatua bide zuten elien gobernuarekin lot daitezke. Hain zuzen, tumulu eiteko etxola-hondo zaharrenetan aurkituriko fauna-aztarnen artean behikia gailentzen da, eta berrienetan, ostera, ardikia. 10.-13. gizaldien artean ikusten den egituron hazkundea Europa osoan agituriko gizartearen suspertze eta biztanleriaren ugaltzearekin dagoke lotua (ikus Moraza eta Mujika, 2005: 99-108).

Lakarra Andrinuak (2012: 57) –mailegu gaskoia dela berretsiz– *hoelhà*-rekin (fr. 'feuillage, les feuilles', 'feuiller, placer, poser des feuilles') lotzen du *ol(h)a*. Arratzuko irakasle eta euskaltzainaren proposamenaren muin-muinean, beraz, latineko *folium* izena dago ('hostoa'; plural neutroa *folia*; kat. *fulla*; gal. *folla*; okzit. *fuèlha*; port. *folha*; esp. *hoja*), zubererako *holla*-ren sorburua alegia.

[46] Oroit bedi, berebat, Jakue Belakoak *Olha eguitea* esamoldea darabilela 1660. urte aldera, (FLN1 [230] 325). Belakoa (1585-1667) magistratua izan zen Zuberoan eta 1520an gaskoiz karrikaratu zen *Coutume Du Pays De Soule* (Zuberoako ohitura edo foru bilduma) frantsesera itzuli eta iruzkindu zuen.

[47] Ordiziako Udal Artxiboa. Zeinadura: *Unión de Aralar y Enirio*, 1 lib. 3 esp. «Acuerdo por el que la villa de Ordizia, las colaciones de Amezketa y Abaltzisketa y Oier de Amezketa (Señor de Lazkano) se reparten los seles y pastos de Aralar».

[48] *Marcus Terentius Varro* idazle, politikari eta militar erromatarrak Kristo aurreko 37. urtean idatziriko *Rerum rusticarum libri III* lanean dio: [ardiez] «Hay que procurar que los rediles y establos de éstas últimas estén limpios, con mayor diligencia que en el caso de las comunes. Por ello se colocan capas de piedra para que no se rebalse la orina en ninguna parte del establo», (Cubero, 2010: 160); [behiez] «Que los lactantes no duerman con las madres pues son pisoteados […] Conviene que sean llevados a las madres por la mañana y cuando vuelvan del pastizal. También en estos establos, como en casi todos, hay que echar una capa de piedras o algo semejante para que las pezuñas no se pudran», (*op. cit.*, 177).

Azpimarra dezagun azken forma hori (*hólla*, 'orria, hostoa') behin baino gehiagotan aipatzen duela Mitxelenak (*FHV,* 219 or.) eta, besteak beste, *Othoitce eta cantica espiritualac Cubero herrico* (1734) liburuan zein Larrasketen (1939) hiztegian irakur daitekeela. Errenteriako maisuaren iritziz (*op. cit.*, 265), gaskoitik berriki sartua da euskaran, Agirre Sarasolak (2001: 719, 766) zehazten duenez, biarneseko *hoelhe* sorburutik ('feuille') hain zuzen.

Gaskoiko *hoelhe*-k eta zubererako *holla*-k 'hosto(ak), 'orria, hostotza', esanahia duten arren, hots, Iberiar Penintsulako eta Frantziako hegoaldeko hizkuntza erromanikoetan bezala, biek jatorriz hitzak latinez zuen eremu berean badiraute ere, hirugarrenak, *ol(h)a*-k alegia, noizbait adiera hori izan duela frogatzeke dago, behinola abeltzaintzarako erabilitako egonlekuak, oholekin eta adarrekin ez eze, hostoekin estaltzen zituztela pentsa daitekeen arren. Hain justu, Lakarra Andrinuak 'orriztatua', 'orriz betea, hornitua edo gordea' partizipiotik aterako luke *ol(h)a*[49]. Hipotesi horren (metonimiaren) sostengutzat (Lakarra Andrinua 2015: 430) gaskoizko hitzaren ahaide batez A. Rey-ren *Dictionnaire historique de la langue française* delakoan irakur daitekeen datua darabil (s.v. *feuille*, 2. zutabearen hasieran): «...ancien français foillie "cabane de feuillages"».

3.2.2. Mitxelenak (*AV*, 483) eta Irigoienek (1990: 173) gaztelaniako *sel*-en (eusk. *saroi*-ren) sinonimotzat daukate *ol(h)a*, baina saroiak, *stricto sensu*, beste zerbait dira (ikus Zaldua 2015). Nolanahi ere den, ez da harritzeko *ol(h)a* eta *saroi* nahastea; begira, bestela, 1412-1477ko Debako ordenantzetan irakur daitekeen pasarte honi (Lema *et al.* 2002: 190; *cfr.* Aragon, 2009: 111):

«Otrosi, que los baquerizos que estuvieren en nuestra jurisdiçion a guardar vacas que puedan cortar de las ramas de los robres cada uno d'ellos en el sel donde estuviere con las vacas para su lenna e para ostoa e para çurmaya para las vacas del dicho sel adonde estuviere, […] pero que puedan cortar en el dicho exido comunes robres para tabla e madera tanta quanta la dicha ola oviere cumplimiento e non más, so la dicha pena[50]».

Ol(h)en eta saroien arteko hartu-emanaz ari garelarik, hitz batzuk esan nahi ditugu bi entitate geografiko horiek osagaitzat dituen *Olasaroi* elkartuari buruz. Toponimia arloan, Probintzian (Aralarren) kausitu dugu estreinakoz[51], 19. gizaldian kausitu ere[52]: *Olazaro* (1885, Zaldibia[53]), *Olazao* (1892, *sel*; Moraza, 2010: 77), *Olasoo* (1940; Zaldua 2012: 311), *Ola sao* (1972; Zaldua 2014: 180), *Olasoro* (*Olaso-Olasao*) (Elosegi 1972: 161). Onomastikaz landara, OEHn adierazten denez, *Olha-saroak* (fr. 'les alentours des cavanes') eta *Ola-sari*[54] (zub.) (fr. 'pacage près de la cabane du berger') terminoak irakur daitezke hurrenez hurren Harrieten 19. eta Lhanderen 20. gizaldiko hiztegie-

[49] Beti ere hormen gainean doan «teilatuari» dagokiolarik. Komunikazio pertsonala.

[50] «Fragmento de las ordenanzas municipales de la villa de Deva (Monreal de Deva), correspondientes a los capítulos 48 al 120, que regulan algunos aspectos de la vida administrativa, social y económica de la villa». Azpimarra gurea da.

[51] Mendebaldean, espero izatekoa zenez, *Olagorta* baizik ez da azaltzen. Hain zuzen, izen hori duten zenbait baserri daude zerrendatuta *fogerazioetan*: 1704an Ean (Natxitua) (Kerexeta 1992: 208), Ibarrangelun (*op. cit.*, 147), Gautegiz Arteagan (*op. cit.*: 137) zein Gamiz-Fikan (2) (*op. cit.*, 131) eta 1796an Berangon (*Olagorta la zaguera*; *op. cit.*, 523).

[52] 1410eko *Gorostiaga el de Yuso* edo *Gorostiaga el de suso* saroien alonimoa da seguruenera.

[53] Zaldibiako Udal Artxiboa. Zeinadura: C sek. 4 neg. 2 lib. 6 esp. Lazkaoko jaunaren hamalau saroien bereizketa.

[54] *Cfr. Sari* 'Pâturages autour de la cabane [s'emploie au plur.]'; Lhande (1926-1938).

tan. Sail berekoak dirudite Herri Hizkeren Atlasean (Euskaltzaindia, 2010: 279) bildutako *Olhasae*[55] (Urrüstoi) eta *Olhasai* formek (Altzürükü, Barkoxe, Sohüta, Santa Grazi, Urdiñarbe), 'majadal' (esp.) / 'parcours, pasture' (fr.) adiera dutenak. Espezifiko bihurtu den izen generiko baten aurrean gaudeke, horrenbestez. Mugakizuna *-saroi* da eta mugatzailea, berriz, *ol(h)a-*, alegia, izen sintagmaren elementu nagusia (aurreneko zatiak zehazten duena) *saroi* da eta mugakizuna bereizten duen osagaia, berriz, darabilgun aztergaia. Ezin da jakin, horratik, mugatzaileak adierazten duen tasun bereizlearen izaera zehatza: 'urte osoan erabilitako *ol(h)a* dagoen saroia'?, '*ol(h)a* duen saroia'? Ildo horretan, gogora dezagun Aralarren (beste alderdi batzuetan bezalaxe) ohitura etxolak saroien barruan bakarrik eraikitzea izan dela (Moraza 2010: 63). Are gehiago, 1514an, Oiartzunen –hausterretzarik ez zegoelako– saroi asko unaiek eraikitako etxolak (edo zuhaitzak) erdigunetzat hartuz neurtu zituzten, behin baino gehiagotan haiek tokiz aldatzen (eta mugarritako zuhaitzak mozten) zituztela jakinagatik (Aragón, 2009: 108). Guztiarekin, argi dagoena da *olasaroi* ez dela forma pleonastikoa eta, neurri horretan, bi osagaiak esanahiaren aldetik beregainak direla erakusten duela.

3.2.3. Orreagako monasterioak 1284an Garazbizkain zeuzkan *bustaliza* edo saroien zerrendan[56] laurogeita bost izen ttipi irakur daitezke (Ostolaza, 1978: 370-371), eta horietatik seik *ol(h)a* dute bigarren osagaitako; beste batek *olatze* eratorri atzizkiduna du: *Baga Ola*, *Juarr Olla*, *Lapurdi Ola*[57], *Vaga Olla*, *Vrriz Olla*, *Çuazolla Beerecoa*; *Navarr Olatze*. Erreferentzia gisa, derragun *-eta* berrekailua duten hamaika toponimo daudela guztira testuan.

Bada urte bereko beste idazki bat, monasterioak Garazbizkain eta Alduden (Kintoan) zeuzkan *bustaliza* edo saroien berri ematen duena (*op. cit.*, 372-373); ehun eta hogeita lau ale zenba daitezke, eta bost dira oraingo honetan *ol(h)a* duten toponimoak: *Aroz Ola* (Aldude), *Bela Ola Echassaguhecoa* (Garazbizkai), *Erroy Ola* (Aldude), *Lapurdi Ola* (Luzaide), *Olauerrieta* (Garazbizkai). Ohar bedi azken etsenpluan *ol(h)a* lehen osagaia dela, eta ez bigarrena. Izkribu horretan *-eta* atzizkia duten toki-izenak hamabost dira orotara.

Ziortzako monasterioak Ziortza-Bolibar eta Munitibar aldean 1388an zituen gorten (saroien) zerrendan ehun eta hamar izen azaltzen dira (Irigoien 1975: 86-88); hamazortzik *ol(h)a* dute: *Olaaran*, *Asola*, *Çapola*, *Axola*, *Holabarriaga*, *Garramjola*, *Hegurrolaçaarra*, *Arexola*, *Açaloleaga*, *Holayariaga*, *Barbariola*, *Olauarri angioscoa*, *Ussaquiola*, *Alçola*, *Yuarrola*, *Aldaola*, *Horrola* (2); hala berean, hiru alek *olatze* daukate bigarren tokian (*Basterrolaça*, *Herretolaça*, *Ybarrolaça*). Zazpi toponimok, bestalde, *-eta* dute amaieran.

Aralarko 15. gizaldiko bi zerrendetan (1410ekoan[58] eta 1452koan[59]) laurogeita hamalau bat saroi-izen konta daitezke. *Ol(h)a* zortzi toponimotan ageri da eta *olatze* bostetan: *Arpeloa* (1452), *Arrola el de Yuso* (1410), *Arrola el de suso* (1410), *Loyola saroea* (1452), *Olauerrieta* (1410), *Olaçabal saroea* (1410), *Otaola*

[55] «*Olhalte*: eremua handiagoa da *olhasai* baino, ez dira gauza bera».

[56] Saroietan dauden egiturak etxolak (eta ez burdinolak) izateko arriskua gutxitzearren erabiliko ditugu zerrenda hauek.

[57] Hori izan ezik, gainerakoak Luzaiden zeuden.

[58] Ordiziako Udal Artxiboa. Zeinadura: *Unión de Aralar y Enirio*, 1 lib., 3 esp. «Sentencia arbitral sobre los seles de Aralar y Enirio pronunciada por los apoderados de las cuatro partes».

[59] Ordiziako Udal Artxiboa. Zeinadura: *Unión de Aralar y Enirio*, 1 lib., 5 esp. «Determinación arbitral por la que se reconoce la posesión de cada uno de los seles de Aralar y Enirio».

(1410), *(H)udaola* (1410); *Alçolaça* (1410), *Alçolalaça olarça* (1452), *Vehorrolaça* (1410), *Guereçiolaça* (1410), *Mauruaçariçolaça* (1410). *-Eta* berrekailua bederatzi aldiz kausitu dugu.

Urumeako zilegimendietan, azkenik, berrogei bat saroi egon ziren behinola. Hamabosten estreinako aipamenak 1178. urtekoak dira eta gainerakoenak 15. eta 16. mendeetakoak. Hamabi dira *ol(h)a* dutenak, batek izan ezik, beti bigarren osagaitako: *Akola*[60], *Akolaiturrieta*, *Amunolaazpikoa*, *Amunolagaraikoa*, *Asolamakio*, *Egurrola*, *Ierolabekoa*, *Ierolagoikoa*, *Lastaola*, *Makutsolo* (1178, *Macurssola*), *Zamiola*, *Olaberriaga* (ikus Zaldua 2011: 303-316, 376). *-Eta* atzizkia daukatenak bost dira guztira eta *olatze*-ren arrastorik ez dago.

Bil ditzagun goiko izen-multzoei erreparatuta antzematen diren tasun nagusiak. Hasteko, *ol(h)a* naroa da saroi-izenen artean eta hori garbi ikusten da *-eta* berrekailu toponimikoaren zenbatekoarekin alderatuz gero. Kasu gehienetan *ol(h)a* bigarren osagaia da, ez lehenbizikoa. Halaber, *olatze* eratorri atzizkiduna *ol(h)a* «soila» baino urriagoa da. Ildo horretan, nabarmen dezagun biak ala biak testu (eremu) berean batera ager daitezkeela eta alderdi batetik bestera alde handia dagoela hainbatekoari dagokionean: Ziortza-Bolibar eta Munitibarren nahiz Aralarren nahiko joria da *olatze*, baina Garazbizkai-Alduden ale bakarra dago, eta Urumeako Zilegimendietan bat ere ez.

Ol(h)a-k, erabili ditugun etsenpluotan (saroi-izenotan), aurretik dituen mugatzaileei erreparatzen badiegu, lehenik eta behin, bi sail nagusi bana daitezke: landare-izenak eta eponimoak, erabiltzailea adierazten dutenak (izen propioak, apelatiboak). Fitonimoak[61]: *baga-* (*pago*), *hurritz*, *zuha(i)tz*, *egur*, *haritz*, *haltz*, *orri*, *ote*, *gerezi*, *lasta-* (*lasto*), *ihar*; izen propioak: *Juarr* / *Yuarr*, *Barbari*, *Lapurdi*; apelatiboak: *nafar*, *arotz*, *erret-* (errege), *amona*. Hirugarren multzoa mugatzailetzat animalia izena daukatenek osatzen dute[62]; nolanahi ere, daitekeena da hauetariko batzuk ezizenak izatea eta, ondorioz, egiazki, bigarren taldekoak izatea[63]: *bela-* (*bele*), *erroi*, *zapo*, *behor*. Azkenik, entiate geografikoak daude, *ol(h)a* dagoen tokiaren ezaugarri orografikoen berri ematen dutenak: *haitz*, *bazter*, *ibar*, *harpe*.

3.2.4. Aurreko puntuan (3.2.3.§), *ol(h)a* «soila» bezain joria izan ez arren, zenbait alderditan (ez guztietan) *olatze* atzizkiduna ugari samarra dela ikusi dugu, baita eremu jakin batean biak ala biak aldi berean ager daitezkeela. Mitxelenaren (*FHV,* 321 or.) azpiko testuak garbi erakusten du («rejan» ez azalduagatik) *olatze* ez dela gaur goizekoa:

> En documentos escritos en Navarra y Aragón, cuyo romance tampoco conocía */h/,* hay ejemplos, aunque aislados, de grafías geminadas : *Ollaiz,* año 1064, modo *Olaíz; Ollaluce,* 1024; *Ollaz, 1000-1035,* modo *Olaz; Ollaze,* 1085, modo *Ollaz; Ollazabal,* 1025, Guipúzcoa, en doc. de San Juan de la Peña (14), modo *Olazabal.* Se trataba, pues, de un sonido que en el siglo XI era todavía claramente distinto de arag. cast. *l* y que, en zonas tempranamente romanizadas o próximas a la frontera lingüística,

[60] Forma arautua.

[61] Aurreneko tokian (mugatzailetzat) agertzen den zenbait landare izenek (*Lastaola*..) *ol(h)a*-ren eraikuntzan erabilitako gai nagusia erakutsiko luke: 'lastozko estalkia duen *ol(h)a*' (*cfr.* Lakarra Andrinua, 2015: 430); beste batzuetan, baina, fitonimoek *ol(h)a* dagoen tokiko landaretzaren berri ematea ezin da baztertu: 'gerezi(ondo)en lekuan dagoen *ol(h)a*', ''haritz-tokian egindako *ol(h)a*'.

[62] Badira izen abstraktuak lehen osagaitzat dituztenak ere, *Aseguinolaza* (1555, *sel*; Aragón 2009: 141; Zumarraga) kasurako.

[63] *Cfr. Zorrola* (1508, *sel*; Aragón 2009: 137; Oiartzun), < *Zorri* + *ol(h)a*.

evolucionó en romance como lat. *ll* hasta [l'] : modo *Ollabarre,* Alava, en 1025 *Olhabarri;* en Navarra *Ollaz* (Lónguida), pero *Olaz* (Egüés), ambos de vasco **oLatze*.

Arreta pixka bat opa diona jabetuko da datu gehienak Nafarroatik datozela eta Mitxelenak aipatzen dituen *Olatz(e)* horietako bat baino gehiago herriak edo herrixkak direla[64] (batzuek hustuak). Lehenik eta behin, Eguesibarko *Olatz* kontzejua dugu, 1035ean dokumentatzen dena (*Ollaz*). *Olatz Txipia* ere esan zaio. Bigarrenik, Irunberriko herri hustua dago; hau ere 11. mendean agertzen da estreinakoz, Erronkariko Urdaspal monasterioari lotuta zehatz-mehatz: *Ollaz* (1059, *vineas de*; Mitxelena 1969: 6), *Ollaze* (1085; Santa Maria de, Zierbide 1976: 270); *Olaz de Longuida* ere baliatu da bizileku honentzat (1104; *op. cit.*: 271) eta amaieran bokal erdikoa duen formaren erakuskari bat baino gehiago dago (*Olaze*, 1108; *op. cit.*: 270). Hirugarren etsenplua Galar Zendeako kontzejua da, *Olatz Nagusia* edo *Olatz-Zubitza* alegia. Oraingo honetan, Jimeno Juriok (1987: 298) biltzen duenez, aurreneko agerraldiak 12. gizaldikoak dira (*Olaz*, 1196); bidenabar, honako oharra egiten du hitzez hitz Artaxoako ikertzaileak (ibidem): «*Olaçe* (en compuestos "Olaçe bidea", "Olaçe larrea")». Hiru horiei Sakanako *Holaçagutia* herria (1268; Felones 1982: 660) eta Zizur zendeako Gazolatz kontzejua erants dakizkieke.

Nafarroan *olatze* atzizkiduna oinarritzat duen toponimo nagusi saila dago horrenbestez; *ol(h)a* «soila» daramaten herrien eta kontzejuen zerrendarekin alderatuz gero[65], multzo adierazgarria osatzen dute. Hori horrela delarik, galde daiteke hainbateko hori ez ote den halabeharrezkoa, alegia, arrazoiren bati ez ote dagoen sakonean. Hain zuzen, goian aipaturiko etsenpluetan *olatze*-k '*ol(h)a*-tokia' adiera izatea ez genuke guztiz txarretsiko ('*ol[h]a*-k eraiki ohi diren aurkintza') eta, hortik, hain justu, herri-izenekin bide duten lotura: abian *ol(h)a* iraungikorren eremuak (*ol[h]a*-lekuak) besterik ez ziren bizitokiak denboraren buruan, eraikinak egonkortu eta ugaritzearekin batera, herrixka bihurtu ziratekeen. Gogora bedi behinola *ol(h)ak* behin eta berriz berregiten zirela, sarritan hondo beraren gainean (orube berean), baina beste batzuetan handik metro gutxira egindako pilaketa berrian[66].

4. ETORKIA

4.1. Lakarra Andrinuak 2011ko «Erro monosilabikoaren teoria eta aitzineuskararen berreraiketa: zenbait alderdi eta ondorio» artikulu joriaren hirurogeita zazpigarren orrialdean (/h/-aren balio etimologikoa eta hots horrek forma kanonikoaren aldaketaren azterketarako duen garrantzia azpimarratze aldera darabiltzan etsenpluen artean) *olha* aipatzen du *hVR- > VRh-* pairatu duten gaskoitik hartu maileguen sailean (*elhe...*). Lan horretan ez du xehetasun gehiago ematen.

Urtebete geroago, mailegaketak eta berreraiketak euskararen historiaurrearen ikerketan duten garrantziaz argitaraturiko lan esanguratsu batean

[64] Beskoitzeko *Olhatzia* «kartierra» (1249; Goienetxe 2011: 25) nahiz Mutrikuko *Olatz* auzoa eta Azpeitiko *Olatz* ermita dira beste mostra ezagun batzuk.

[65] *Olaibar* herriak eta *Gorrontz-Olano* (Ultzama), *Olabe* (Olaibar), *Olague* (Anue), *Olleta* (Leotz), *Urbiola* (Iguzkitza), *Urritzola* (Arakil) nahiz *Urritzola* kontzejuek (Ultzama) osatzen dute.

[66] Diogunaren testigu dira Aralarren eta beste alderdi batzuetan ikus daitezkeen tumulu eiteko etxola-hondo multzoak.

(euskal etimologiarik ez duten eta beren formek horretarako esperantza gutxi ematen duten erroez dihardunean) *olha*-ren iturburua gaskoiko *hoelhà* dela zehazten du Arratzuko irakasleak[67] (fr. 'feuillage, les feuilles', 'feuiller, placer, poser des feuilles'). Hipotesi hori egiaztatuko balitz, etorkia ez ezik, *ol(h)a*-ren kronologia erlatiboa eta, neurri batean absolutua ere bai, finkaturik geratuko lirateke, jakina baita gaskoia latinaren ondorengo hizkuntza dela.

Hitzak hizpidea ekarrita, oroit dezagun Lhandek (1926) eta beste ikertzaile batzuek *ol(h)a*-ren iturburua latinezko *aula*-rekin lotu dutela[68], baina proposamen horrek ezingaindituzko eragozpenak ditu arlo fonikoan, latinezko /*au*/ diptongoak bere horretan iraun duelako euskaraz[69] (*cfr.* lat. *causa* > eusk. *gauza*). Labur esanda, *aula* > *ol(h)a* etimoa ez da ontzat ematen; *-ola* ez da latinetiko mailegua. Izatekotan, beraz, ekarpenak latinaren ondorengoa (edo aurrekoa) izan behar du.

Lakarra Andrinuak, Mitxelenaren proposamena aitzinatuz, euskal erro zaharren *CVC* forma kanonikoa aldarrikatu du 1995etik gaurdaino. Hain zuzen, *CVC* monosilabikoa zelarik erro soila, Aitzin Euskaran[70] (AE) *VCV* hasierako kontsonanterik gabea ezinezkoa zatekeen erro soil bezala. Laburbilduz, bokalez hasitako erro guztiak AEtik kanpo uzteko argudioak ikusten ditu. Hala berean, hainbat bisilabo hiztegiko geruzarik zaharrenetik kanpora jaurti beharko lirateke haren iritzirako, AEko erroek monosilabiko eta *CVC* izan behar zutelako (Lakarra Andrinua 2009: 32-33, 67-69). Paradigma horren argitan, beraz, *ol(h)a* AEtik datorren erro zahar baten oinordea izatea zaila dirudi.

Mitxelenak (*FHV*, 262 or.), hizkuntzaren ondare zaharreko hitz askok dardarkari bihurtu ez den bokal arteko albokaria dutela nabarmentzen duenean, besteak beste, *al(h)a* 'pasto,' *ol(h)o* 'avena' zein *ol(h)* darabiltza adibidetako, guztiak *VCV* osaketa[71] duten silaba biko erro zatiezinak. Adierazpen horren oinatzetan *ol(h)a* ez litzateke, hortaz, hitz oso berria euskaraz.

Erroez ari garelarik, diogun daitekeena dela, *VCV* izan ordez, jatorriz, *ol(h)a*-ren osaketa **(C)VCV* izatea, alegia, behinola hitz hasieran kontsonantea egotea, hots, **C-* galdu duen **(C)VCV* mailegua izatea. Izan ere, Lakarra Andrinuak (2009: 32, 45) dioenez, altxor zaharreko *VCV* egiturako hitz askotan **C-* > *Ø* gertatu da[72], bestela esan, /*h*/ batez hasten zen **CVCV* erro batetik datozke, hasierakoa barneko beste /*h*/ baten eraginez desagertu delarik. Hain zuzen, aipatu autorearen (2012: 57) iritzirako, uste izatekoa da, metatesi bitartez *Vlh*-ra iritsi aurretik, gaskoitik euskarara sartu zenean alegia, *ol(h)a*-k **hVl-* (**ho[e]la*) itxura zuela, *alha*-k edo *olho*-k bezala (**hala*[73], **holo*[74]).

[67] 2015eko artikulu batean ere ahotan hartzen du (ikus bibliografía).

[68] *Cfr. AV*, 483.

[69] *Cfr.* Giese (1949: 12). Xehetasunetan sartuz gero, *au* > *o* erredukzioa gutxitan da orokorra euskaraz (*FHV*, 96-98 or.); barruko edo amaierako silaban gertatzen da gehienetan (*arraultza* > *arroltza*). Badaude hasierako silaba itxian eman delako lekukotasunak (*zaurne*> *zorne*), baina horrelakoak ere gutxi dira.

[70] *Aitzin Euskara Zaharra* esan nahi du; Lakarra Andrinua (2006: 569).

[71] V: edozein bokal. C: kontsonantea. R: ozenak.

[72] CVC-ren ezkerrera den atala aurrizkia ez den neurrian.

[73] Eusk. / gask. *alha*: gask. *Hàla* 'haler, tirer à soi, trainer péniblement etlentement; en As. Aller doucement'; *halà* 'souffler, halener,haleter; sentir l'haleine; courir à perdre haleine, fuir; aussi haler'; *halàn,-de,-te* 'soufflant,-e, court d'haleine, essoufflé; allant, vif, dégourdi'.

[74] Eusk. *olho*: gask. *houlhòu* 'achillée millefefeuilles (*achillea millefolium*, plante)'.

Arratzuko euskaltzainarentzat[75], *ol(h)a*-ren *-h-* ez da punturik txikiena morfema horren auziarekikoetan; ez du sinesten *Vlh-*, *Vnh* eta *Vr(r)h-* hasiera duten hitzetan hasperen hori azterketan errazki bazter litekeenik, edota *ph-*, *th-*, *kh-* hitzetan bezala bere berankortasuna begibistakoa denik. Bestela esan, haren ustez, *olha*-ren jatorria bilatu nahi duen edonork (baita, noski, *ilhun*, *elhe* eta gainerakoena egiterakoan ere) hots hori Mitxelenaren *h*-arentzako lau jatorrietako zeinetarik edo beste nondik datorren zehaztu behar du, hau da, *ol(h)a* Lakarrarentzat Mitxelenaren *(h)erri*, *a(h)al* eta gainerakoak bezala da: *olha* eta *ola*, *herri* eta *erri*, *ahal* eta *a(a)l* laburbiltzen dituena bai, baina *h*-duna delarik beti formarik zaharrena horien guztien artean eta hots horren balio etimologikoa onartuaz.

5. ONDORIOAK ETA GALDEKIZUNAK

5.1. *Ol(h)a* Euskal Herriko esparru zabal batean azaltzen da, baita ondoko zenbait lurraldetan ere, esate baterako, euskara Erdi Aro Berantiarra arte gorde zuen Ojacastro-Ezkaraietan *ol(h)a* duen toponimo sorta adierazgarria baitago[76].

Euskalkien isoglosek ez dute eraginik *ol(h)a*-ren banaketan eta hedaduran, *saroi* / *korta* bikoaren kasuan ez bezala konparaziora. *Saroi* (< *sarohe*) Erdialdeko euskalkian, Nafarreran, Nafar-Lapurteran eta Zubereran ageri da eta aldaki asko ditu (*sarüe*, *saure*, *saroĩ*, *saboi*, *saloi*, *sagoi*, *saro*, *sari*, *sare*, *sario*, *sarobe*, *sarabe*); (*g*, *k)orta* sinonimoa, berriz, sartaldeko euskalkian baizik ez da azaltzen eta alderdi hartan *saroi*-hitzaren arrastorik ez dago, alerik ere ez (ikus Zaldua 2015).

Saroi / (*g*, *k)orta* bikoaren esparrua *ol(h)a*-rena baina txikiagoa da, ez da sortalderantz eta hego-sartalderantz hainbeste zabaltzen (Ebro eta Berari ibaiez haraindi). Alabaina, *ol(h)a*-ren eta *saroi*-ren topoglosen hegoaldeko mugak bat datoz neurri handi batean[77]: Araban Haranean hasten dira eta Nafarroan Larragoa, Ameskoabarren, Allin, Villatuerta, Aberin, Oteitza, Obanos, Artaxoa, Barasoain, Lerga, Oibar, Irunberri, Erromantzatu eta Erronkarin barrena jarraitzen dute. Aldea, hobeki esan, zalantza, Metautenen eta Uxuen[78] (*ol[h]a* ez / *saroi* [*sario*] bai) nahiz Oteitza-Aberinetan dagoke[79] (*ol[h]a* bai / *saroi* ez). Guztiarekin, uste izatekoa da, euskalkien banaketak eragiten ez dion heinean, *ol(h)a* haiek sortzen hasi aurreko hitza dela.

Hitzak hizpidea ekarrita, derragun Lakarra Andrinuak (2011: 215-221) euskalkiak berezi aurreko euskararen (Euskara Batu Zaharraren, EBZ-ren) balizko bi aitzin-aberri ikusten dituela, bata Iruñerritik ipar-sortaldera[80] eta

[75] Komunikazio pertsonala.

[76] Alderdi hartako euskarak mendebaldeko ezaugarriak zituen eta, Mitxelenaren aburuz, Erdi Aro Goiztiarraren hasieran egondako jendeztatzeekin iritsi zen haraino; biztanle berriak arabarrak eta bizkaitarrak zirenez, ez da harritzeko Errioxako euskara sartaldekoa izatea. Bi hipotesi erabil daitezke, horrenbestez: bata *ol(h)a* euskararekin batera iritsi zela Errioxara eta, bestea, euskararen bidez, euskara han zegoelarik, ailegatu zela. Esan gabe doa euskararekin batera (Erdi Aro Goiztiarraren hasmentan) heldu balitz, orduko, gaskoitiko balizko mailegaketak burututa behar zukeela.

[77] Araban Aiara, Kuartango, Langraiz Oka, Trebiñu, Urizaharra, Lagran, Bernedo, Arraia-Maeztu elkartuz irudikaturiko lerroa da *ol(h)a*-ren topoglosaren muga. *Cfr. (g, k)ort(a).*

[78] *Cfr.* Salaberri 1994.

[79] Besterik da Los Arcosen zein Arroitzen kasua, haietan, *saroi*-ren aztarnarik ez ezagutzeaz gainera, egiazki *ol(h)a* badagoela ez baita jakite ziurra.

[80] Aurreneko agertoki horren hizkuntzaz kanpoko euskarria 5. mendean Iruñearen eta Pirinioen artean gauzaturiko eraketa soziopolitiko berezia litzateke, hurrengo belaunaldietan sartalderantz

bestea Lizarra-Ergoiena-Goizueta-Hondarribia lerroaren bi aldeetara, inolaz ere Iruñearen sartaldera[81]. Gure aztergaiari dagokionean, harrapatzen duen eremu osoari erreparatuz gero, *ol(h)a* entitate geografikoaren lurraldearen erdigunea (*saroi*-rena bezala) ez legoke Irurtzun ingurutik oso urruti.

5.2. Zuazok (2010: 164; 2007: 53, 147) Zuberoa euskalkien jatorrian eragina izan duen oraintsuko gune berritzailetzat dauka, okzitanieratik sartu diren berrikuntzen atea izan baita lurralde hura. Oroit bedi okzitanieraren (gaskoiaren) aurreneko lekukotasun idatziak 10.-11. gizaldikoak direla, hau da, espainierarenak (10. mendea) baino apur bat beranduagokoak, eta euskararen eragina nabarmena dela Pirinioetako hizkuntza hartan; ez da harritzeko, Erdi Aro Goiztiarrean zehar galdu bide baitzen euskara Gaskoinia gehienean.

Lakarra Andrinuak (2011: 194), Chambonek eta Greubek aitzingaskoia 6. gizaldirako bazela ondorioztatzen dutela azpimarratuagatik[82], gaskoiaren eragin nagusia Erdi Aro Berantiarrean gertatu zela dakusa eta ez Erdi Aro Goiztiarrean; *-olha*-ren hedadura zabalak ere zahartasun erlatiboa adierazten du haren iritziz. Alabaina, dago gauza bat dela eraginaren «gailurra» eta beste bat eraginaren hasiera[83]. Zentzu horretan, oroit bedi gaskoia Erdi Aro Berantiarrean amaieran erabili zela Nafarroako gortean (ez lehenago) eta, hala berean, Baionako gune gaskoia 12.-13.. mendeetatik aurrera garatu zela.

Dialektoen zatiketa nagusia –Nafarroako erresumaren haustura dela medio– 11.-12. gizaldietan gertatu zela onartu arren, Zuazok (2010: 163-164) sartaldeko euskalkia 8.-9. gizaldi aldera banatzen hasi zela deritzo. Caminok eta Lakarra Andrinuak, ordea, euskalkien lehenbiziko adarkadura sortaldean agitu zela diote, eta ez sartaldean. Hain zuzen, Caminok (2011: 94) zehazten duenez, Zuberoa-Erronkaribar alderdiko euskal erkidegoko hiztunek, EBZko garaitik hona, erdialderagoko euskal hiztunekin hartu-emanetan egoteari goiz utzi zioten, hitz bitan, sortaldeko euskaldunak erdialderagoko euskaldunengandik goiz bereizi ziren eta, ondorioz, sortaldetik zetozkeen berrikuntzen ate izateari utzi zioten. Hori horrela delarik, *ol(h)a*-ren zabalkundeak Caminok aipatzen duen haustura edo etena baino lehenagokoa izan behar du ezinbestean. Bestalde, kontuan har Erdi Aro Berantiarrean gaskoiaren eragina Iparraldean zabaltzen hasi zenerako *olha*-ren eremua Burgoseraino iristen zela eta, orobat, Zuazok (2010: 186-189; 2014: 56) azpimarratzen duenez, gaskoitik –zubereraren bidez– ailegatutako berrikuntzen eragin esparrua Lapurdiko ekialderaino eta Erronkaribar, Zaraitzu eta, ahulago, Aezkoa ibar nafarretaraino heltzen dela, baina ez urrutiago.

5.3. Baldin gure iritzia estalkirik gabe agertu behar badugu, fonetika arloan *hVR- > VRh-* erregelak oro har egiten duen ekarpen garrantzitsuari apurrik kendu gabe, Lakarra Andrinuaren *olha* < **ho[e]la* (*hoelhà*) hipotesia behin betiko onesteko, aurretik, zenbait galdera erantzun behar liratekeelakoan gaude.

hedatu zatekeena eta gero Iruñeko erreinuarekin lotura zuzena zukeena. Nafarroa ipar-sortaldean sorturiko eraikuntza historiko berriaren kronologia Mitxelenarena (5-6. mendea) baino mende bat beranduago edo ezarri beharko litzateke, baina horrek hizkuntzan izan duen isla geroagokoa datekeenez, EBZ-ren kronologia eta, hortaz, dialekto zatiketarena, aski atzeratu beharko genuke.

[81] EBZ-ren aitzin aberria Lizarra-Ergoiena-Goizueta-Hondarribia lerroaren bi aldeetara balego, argiro aurreko hipotesian baino arrunt beranduagokoa litzateke dialekto-zatiketa.

[82] Lakarra Andrinua (2011: 194).

[83] Gainera, gaskoiarekikoak, agian, ez luke erabat eta orobat balioko okzitanierarentzat edo Frantzia parteko erromantze zaharrarentzat. Komunikazio pertsonala.

Aurrenekoa litzateke nola uztartzen diren euskal eremu osoan ageri den *ol(h)a* entitate geografikoa eta zubererako *hólla* mailegu berantiarra ('orria, hostoa'), hori ere sorburua biarneseko *hoelhe*-n duena (fr. 'feuille'). Zuberoa bezalako lurralde txiki batean iturburu eta adar beretik bi alditan iritsitako bi mailegu beregain egotea arruntena ez izateaz gainera (*ol[h]a* 'etxola' vs. *holla* 'orria, hostoa')[84], nola ulertzen da (gaskoitik) aurrena adiera espezifikoa duen *olha* etortzea ('hostoekin estaliriko etxola') eta ondoren *holla* generikoa ('hostoa') iristea?

Bigarren galdera, jatorria han izanik, Gaskoiniako toponimian **ho[e]la*-tik datorren leku-izen gehiago zergatik ez dagoen litzateke. Izan ere, Euskal Herrian *ol(h)a* duen toponimo mordoa dago eta, gehiago dena, Gaskoinian bertan euskal entitate geografikoa osagaitako duten leku-izenak kausitzen dira (ikus 2.2.§ eta 2.5. §).

Hirugarrenik, nola zabaldu zen *ol(h)a*? Zein indar edo eraginek ahalbidetu zuen Erdi Aro Goiztiarra amaitzerako Zuberoatik hasita, Ebro ibaia gurutzatuz, Errioxaraino zein Burgoseraino heda zedin, zehatz-mehatz sortaldea, gune berritzaile izatetik, kontinentetik sarturiko berrikuntzen ate izatetik, erdialderagoko euskal hiztunekin harremanetan egoteari utzi aurretik[85]?

5.4. Lakarra Andrinuaren (2011: 202) iritzirako, Mitxelenaren Euskara Batu Zaharra Goi Erdi Aroaren hasieran bazen, iragazki geografikoa gainditzen duten monosilaboak EBZ-koak direla ondoriozta daiteke –askoz zaharragoak nahi bada, baina baita oraindik ordukoak ere– eta iragazki hori gainditzen ez duten bisilaboak (gehienak askorekin) EBZ ondokoak (ez lehenagokoak), eta ikusi egin behar zenbat geroagoko. Euskalari bizkaitarrak dioskuna aztertu dugun datuetara ekarriz gero, *ol(h)a* euskalkiak banatu aurreko silaba biko hitza izateko oztopo gaindiezinik ez legoke horrenbestez, euskal eremuan alde eta aldi oro agertzen baita.

Ekarpena egin zuena ez da latina, hori garbi dago. Bestalde, Antzinatearen ondorengo gizaldietan, frankoen eta Baskoniako dukerriaren sasoian, euskara Europako testuingurutik isolatua zegoela esateko arrazoirik ez dagoenez, galderak galdera (ikus 5.2.§), ezin da baztertu *ol(h)a* kontinentetik (Gaskoiniatik) iritsitako mailegua izatea.

Erdi Aro Berantiarraren hasmentan euskal eremuan zehar *olha* / *olla* formak baditugu, aurretik balizko **hola* > *olha* aldaketa burututa zegoelako da. Hain justu, Lakarra Andrinuak (2011: 191) **hVR-* > *VRh-* erregela /h/-ren metatesirik modernoena dela dio, seguruenera EBZ baino beranduagokoa. Horrek azal ditzake hain zuzen, haren aburuz, hainbat mailegu gaskoi bere baitan hartzea. Aldaketaren kronologia absolutua alde batera, uste izatekoa da, iritsi zen unetik (sortaldeko euskaldunak erdialderagoko euskal hiztunekin hartu-emanetan egoteari utzi aurretik), entitate geografiko «berria» bazterrik bazter zabaltzeko lehenbizi eta, ondoren, hainbat toponimotan estratifikatzeko, gizaldi batzuk igaro behar izan zutela.

[84] Gaskoitiko balizko maileguen esanahiaz dihardugularik, eta aurreko zailtasunak ikusirik, hizkuntza hartatik etortzekotan, merezi luke (*hoelhà* izan ordez) *olha*-ren iturburua *oelha* ('ardia' [< *aolha*]; Sumien, 2007: 49) izan delako aukera sakon aztertzea. Ildo horretan, Fénié-tarrek (1992: 77), Gaskoiniako toponimia aztertzen dutenean, latineko *ovicula*-tik letozkeen ('ardi txikia') *aulha*, *auelha* eta *oelhas* terminoak biltzen dituzte, 'artegia' esanahia dutenak eta, ondorioz, esanahiaren aldetik *olha*-rekin lotura luketenak.

[85] Zeharkako azken hau erants dakieke: zergatik daude bi aldaera aurreneko aipamen idatzietan (*ol[h]a* eta *ul[h]a* / *-ulla*) , alegia, nola sortu bide da *ulha* / *-ulla* balizko **ho[e]la*-tik?

Gaskoitikoa izatekotan, hortaz, beranduenez Erdi Aro Goiztiarraren lehen gizaldietan iritsitako mailegua izan behar du *ol(h)a*-k (< **hola*), arkeologiaren eskutik ikertu diren tumulu eiteko hondoa duten etxola zaharrenen garaikoa alegia (ikus 3.2.1.§). Hori horrela balitz, Lakarrak proposaturiko *hVR-* > *VRh-* metatesiaren kronologia zertxobait aurreratu beharko litzateke agian, baina eginkizun hori besteren esku uzten dugu, euskararen historiaurrea idazteko ardura euren gain hartu duten diakronisten eskutan hain zuzen, gauza ez izatea alde batera, lanak baititugu berreraiketatik datozen proposamenak bahetzeko erabili beharreko leku-izenak sailkatzen eta aztertzen, ez baita alferrik toponimia munduak ezagutzen duen hizkuntza-zaharkin biltegi oparoenetarikoa.

6. BIBLIOGRAFIA

Agirre Sarasola, P., 2011, «Catechima laburra, zubereraren ezaugarri fonologikoen lekukoa», *ASJU*, 35, II, 653-787.

Aragón, A., 2009, *La ganadería guipuzcoana durante el antiguo régimen*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

Arregi, S., 1958, «Toponimia de Ezcaray», *Euskera,* 3, 83-102.

Artzamendi, J., 1985, *Términos Vascos en Documentos Medievales de los ss. XI-XVI*, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.

Bela, J., 1660 (19. gizaldia), *Commentaire de Béla sur la coustume de Soule, pays des Basques, seneschaussée de Guyène, ressort du Parlament de Bordeaux*, Frantziako Liburtegi Nazionala. Zeinadura: «Nouvelles Acquisitions», 10161 zenb., 324-325. 1660. urte aldera idatzirikoaren kopia. *FLN1* laburdura erabili dugu.

Camino, I., 2011 (2014), «Ekialdeko euskararen iraganaz», in Epelde, I. (arg.), *Euskal Dialektologia: lehena eta oraina*, *ASJU,* 69, 87-153.

Coromines, J., 1972, «De toponimia vasca y vasco-románica en los Bajos-Pirineos», *FLV*, 12, 299-319.

Cubero, J. I., 2010, *Rerum rusticarum libri III*, Junta de Andalucía, Sevilla.

Egile Ezezaguna, 1734, *Othoitce eta cantica espiritualac Cubero herrico*, Jean Dupoux, Paue.

Elosegi, J., 1972, «Aralar-mendi ta Aralar inguruko leku-izenak», *AEFOLK,* 24, 103-215.

Euskaltzaindia, 2006, «Euskal Herri inguruko exonimoak», *Euskera,* 51, 847-865.

— 2010, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa II*, Euskaltzaindia, Bilbo.

Felones, R., 1982, «Contribución al estudio de la iglesia navarra del siglo XIII: el libro del rediezmo de 1268 (II). Transcripción e índices», *Príncipe de Viana* 167, 623-713.

Fénié, B. eta Fénié, J. J., 1992, *Toponymie gasconne*, Luçon, Editions Sud Ouest.

Giese, 1949, «Ola en la topografía vasca», *Eusko-Jakintza,* 3, 9-18,

Gipuzkoako Foru Aldundia, 1857, *Nomenclator de la Provinvia de Guipúzcoa*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Goienetxe, E., 2011, *Onomastique du Nord du Pays Basque (XIE-XVE siècles)*, «Iker» bilduma 27, Euskaltzaindia, Bilbo.

Gorrotxategi, J., 1984, *Onomástica Indígena de Aquitania*, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.

Igartua, I., 2006, «Del origen de la aspiración como elemento morfofonológico en vasco», in J. A. Lakarra Andrinua & J. I. Hualde (arg.), *Studies in Basque and historical linguistics in memory of R. L. Trask - R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz*, *ASJU,* 40, 519-529.

Irigoien, A., 1957, «Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkue escritas en vascuence roncalés y en castellano», *Euskera,* 49, 120-170.

— 1975, «La Colegiata de Cenarruza y sus seles», in *II Simposio sobre Historia del Señorio de Vizcaya*, RSVAP & Junta de Cultura de Vizcaya, Bilbo, separata.

— 1986, «Cuestiones de toponimia vasca circunpirenáica», in *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 173-306.

— 1990, «Las hablas vascas de Tierra Estella y su onomástica», in *De Re Philologica Linguae Uasconicae III*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 163-192.

— 1995, *De Re Philologica Linguae Uasconicae V*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

Jimeno Jurio, J. M., 1968, *Documentos medievales artajoneses*, Institución Príncipe de Viana, Iruñea.

— 1987, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar*, Euskaltzaindia, «Onomasticon Vasconiae» bilduma 2, Iruñea.

Jimeno Jurio, J. M. (zuzendari), 1992, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra*, Berrogeita hemeretzi liburuki, Nafarroako Gobernua, Iruñea. 1992az geroztik.

Jimeno Jurio, J. M. eta Salaberri, P., 1998, *Artaxoa. Euskal Toponimia*, Altaffaylla Kultur Taldea & Nafarroako Gobernua & Sociedad de Corralizas y Electra de Artajona, Tafalla.

Kerexeta, J.,1992, *Fogueraciones de Bizkaia del siglo* XVIII, Labayru Institutua & Bilbo Bizkaia Kutxa, Bilbo.

Lacasta, G., 1994, «El euskera en el Alto Aragón», *Cuadernos de Sección. Hizkuntza eta Literatura,* 12, 141-278.

Lakarra de Migel, J. M., 1957, *Vasconia medieval. Historia y filología*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

— 1965, *Colección diplomática de Irache*, Instituto de Estudios Pirenaicos, lehenbiziko liburukia (958-1222), Zaragoza.

Lakarra Andrinua J. A., 2006, «Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo vasco», in J. A. Lakarra Andrinua & J. I. Hualde (arg.), *Studies in Basque and historical linguistics in memory of R. L. Trask - R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz*, *ASJU,* 40, I-II, 561-621.

— 2009, «Aitzineuskara berreraikiaz: zergatik ezkerra?, *Euskera,* 54, 17-98.

— 2011, «Erro monosilabikoaren teoria eta aitzineuskararen berreraiketa: zenbait alderdi eta ondorio», *FLV,* 113, 5-114.

— 2012, «Mailegaketa eta berreraiketa euskararen historiaurrearen ikerketan» in Igartua, I. (arg.). *Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 17-75.

— 2015, «Saratsola eta (aitzin)euskar(ar)en geruzak», in B. Fernandez eta P. Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenatge, Homenaje,* Euskal Herriko Unibertistatea, Bilbo, 419-439.

Larrasket., J., 1939, *Le Basque de la Basse-Soule orientale*, «Linguistique publiee par la Societe de Linguistique de Paris» bilduma 46, Klincksieck, Paris.

Lema, J. A. *et al.*, 2000, *Los señores de la guerra y de la tierra: nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores guipuzcoanos (1265-1548)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Lema, J. A. *et al.*, 2002, *El triunfo de las élites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las Villas y de la Provincia (1412-1539*), Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Lhande, P., 1926-1938, *Dictionaire Basque-Français*, Gabriel Beauchense, Paris.

Libano, A., 1995, *Toponimia Medieval en el País Vasco*, Euskaltzaindia, «Onomasticon Vasconiae» bilduma 14. *A* hizkia, Bilbo.

— 1999a, *Toponimia Medieval en el País Vasco*, Euskaltzaindia, «Onomasticon Vasconiae» bilduma 19, Bilbo. *H-O* hizkiak.

— 1999b, *Toponimia Medieval en el País Vasco*, Euskaltzaindia, «Onomasticon Vasconiae» bilduma 20, Bilbo. *P-Z* hizkiak.

López de Gereñu, G, 1989, *Toponimia alavesa seguido de mortuorios y pueblos alaveses*, Euskaltzaindia, «Onomasticon vasconiae» bilduma 5, Bilbo.

López-Mugartza, J. C., 2008, *Erronkari eta Ansoko toponimiaz*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, «Mendaur» bilduma 5, Iruñea.

Llorente, J. A., 1806-1808, *Noticias históricas de las tres provincias vascongadas*, Madril, hirugarren alea (bost ale). «Donación de los derechos episcopales de varias iglesias de Álava y Vizcaya» atala.

Martín de Las Pueblas, J. M., 2003, «Estudio lingüístico de la toponimia del valle de Benasque», *Alazet,* 15, 183-295.

Martín Duque, A. J., 1983, *Documentación medieval de Leire (siglos* IX *a* XII*)*, Institución Príncipe de Viana, Iruñea.

Martínez Díez, G., 1975, *Guipúzcoa en los albores de su historia (Siglos* X *-* XII*)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Martínez Díez, G., González Díez, E. eta Martínez Llorente, F. J. (1991), *Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas (1200-1396)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Merino Urrutia, J. B., 1962, *El vascuence en La Rioja y Burgos*, Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, Donostia.

Mitxelena, K., 1953, *Apellidos vascos*, Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, Donostia. Txertoak 1989an Donostian egindako laugarren argitalpena ere baliatu dugu. *AV* laburdurarekin aipatzen dugu artikulu honetan.

— 1964, *Textos arcaicos vascos*, Minotauro, Madril. *TAV* laburdura erabili dugu.

— 1969, «Notas lingüísticas a la *Colección Diplomática de Irache», FLV,* 1, 1-59. Berebat, in Lakarra Adrinua, J. (arg.), 2011, *Luis Michelena. Obras Completas*, ix. alea, Gipuzkoako Foru Aldundia – Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia, 462-538 or.

— 1985 (1961), *Fonética Histórica Vasca*, *ASJU*, 4, Gipuzkoako Foru Aldundia, hirugarren argitaraldia, Donostia. 1961ean ikusi zuen argia aurreneko aldiz. *FHV* laburdura erabili dugu ohar hauetan.

— 1987 (1976), «Onomástica y población en el antiguo reino de Navarra: la documentación de San Millán», in *Palabras y textos*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa, 59-72.

— 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Desclée De Brouwer & Mensajero, Bilbo. *OEH* laburdura erabili dugu artikuluan.

Mora, J. C., 2005, *Zizurkilgo historia. Bailaratik hiribildura (1186-1615)*, Lizardi Kultur Elkartea, Tolosa.

Moraza, A., 2010, *Enirio-Aralarko Mankomunitatearen 600. urteurrena (1409-2009)*, Enirio-Aralar Mankomunitatea, Ordizia.

Moraza, A. eta Mujika Alustiza, J., 2005, «Establecimientos de habitación al aire libre. Los fondos de cabaña de morfología tumular: características, proceso de formación y cronología», *Veleia,* 22, 77-110.

Mujika Alustiza, J. A. *et al.*, 2013, «La continuidad de la actividad pastoril durante la época romana en la zona de Argarbi (Sierra de Aralar-Gipuzkoa)», *Kobie,* 2013, 217-258.

Ormaetxea, J. L., 1996, *Arrasateko toponimia*, Euskaltzaindia, «Onomasticon Vasconiae» bilduma 15, Bilbo.

Ostolatza, M. I., 1978, *Colección diplomática de Santa María de Roncesvalles (1127-1300)*, Príncipe de Viana erakundea & Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Iruñea.

Ott, S., 1994 (1981), *Artzain-komunitate euskalduna (i) - bortuko ingurua*, Gaiak, Donostia.

Raymond, 1863, *Dictionnaire topographique Béarn-Pays basque*, Imprimerie Impériale, Paris.

Rizos, C. A., 2005, *Toponimia de la Baja Ribagorza Occidental*, Lleidako Unibertsitatea, Lleida (argitalpen digitala).

Rodríguez de Lama, I., 1976a, *Colección Diplomática Medieval de La Rioja. Tomo ii -Documentos siglo xiii*, Instituto de Estudios Riojanos, Logroño.

— 1989b, *Colección Diplomática Medieval de La Rioja. Tomo iv -Documentos siglo xiii*, Instituto de Estudios Riojanos, Logroño.

Salaberri Zaratiegi, P., 1994, *Eslaba Aldeko Euskararen Azterketa Toponimiaren Bidez*, Euskaltzaindia, «Onomasticon Vasconiae» bilduma 11, Bilbo.

— 2011, «De toponimia vasco-pirenaica: sobre el sufijo *-otz*, *-oz(e)*», *Nouvelle Revue d'Onomastique*, 53, 33-63.

Sumien, D. 2007, «Preconizacions del conselh de la lenga occitana», *Lingüística occitana,* 6.

Ubieto, A., 1960, «Sobrarbe y Ribagorza entre los años 1035 y 1045», *Príncipe de Viana,* 21, 63-236.

— 1963, *Cartulario de San Juan de la Peña (ii)*, Anúbar, Valentzia.

Viruete, R., 2013, *La colección diplomática del reinado de Ramiro i de Aragón (1035-1064)*, «Fuentes históricas aragonesas» bilduma 66, Institución «Fernando el Católico» (C.S.I.C.) - Diputación de Zaragoza, Zaragoza.

Zierbide, R., 1976, «Toponimia del Becerro antiguo de Leire (siglos xii-xiii)», *FLV,* 23, 237-283.

Zaldua, L. M., 2011, *Urumeako Zilegimendietako Toponimia*, Urnietako eta Hernaniko Udalak.
— 2012, «Juan Arin Dorronsororen. Enirio-Aralarko krokisa (1940)», *FLV,* 115, 307-322.
— 2014, «Juan Arin Dorronsororen "Material Toponímico" argitaragabearen 25. paperzorroa», *FLV,* 117, 169-185.
— 2015, «*Saroi* entitate geografikoaren banaketa, esanahia eta jatorria toponimiaren argitan», *FLV,* 119, 175-221.
Zuazo, K., 2010, *El euskera y sus dialectos*, Alberdania, Irun.

LABURPENA

Ol(h)a *entitate geografikoaz zenbait ohar*

Hona dakargun saioaren helburua *ol(h)a* entitate geografikoaren eremu, esanahi eta etorkiaz hausnartzea da, onomastikaren argitan hausnartu ere, euskararen historiaren ikerketan diziplina horrek ekarpena egin dezakeelakoan baikaude. Horren lekuko, Lakarra Andrinuaren gask. *hoelhà* (**hola*) > eusk. *ol(h)a* hipotesiari buruzko zenbait ohar biltzen ditugu. Orobat, abeltzaintzako eraikinok itxuratzen dituzten ezaugarriak, edota saroiekin duten hartu-emana, onomastikaren eskutik zenbateraino zehazta daitezkeen ikusi nahi dugu.

Gako hitzak: ol(h)a; etxola; entitate geografiko; toponimia; onomastika; euskara; historia.

RESUMEN

Notas en torno a la entidad geográfica ol(h)a

El objetivo del trabajo que presentamos es reflexionar acerca del ámbito, significado y origen de la entidad geográfica *ol(h)a*, reflexión que hacemos a la luz de la onomástica, puesto que somos de la opinión de que esa disciplina puede contribuir en el estudio de la historia del euskera. Prueba de ello, incluimos algunas observaciones a la hipótesis gask. *hoelhà* (**hola*) > eusk. *ol(h)a* de Lakarra Andrinua. También pretendemos ver hasta qué punto pueden conocerse las características que configuran estas construcciones pastoriles, o su relación con seles, de la mano de la onomástica.

Palabras clave: *ol(h)a*; cabaña; entidad geográfica; toponimia; onomástica; lengua vasca; historia.

ABSTRACT

Some notes on the geographical entity ol(h)a

The aim of this work is to reflect on the scope, meaning and origin of the geographical entity *ol(h)a* in the light of onomastics, since we consider that this discipline can contribute to the study of history of Basque. As evidence, we include some remarks to Lakarra Andrinua's hypothesis Gasc. *hoelhà (*hola)* > Basque. *ol(h)a*. We also intend to determine the characteristics that make up these pastoral structures, as well as their relationship with meadows, by means of onomastics.

Keywords: *ol(h)a;* shepherd cabin; geographical entity; toponymy; onomastics; Basque language; History.

Murillo el Fruto: XIV. gizaldiko agiria

Patxi Salaberri Zaratiegi*

SARRERA

Nafarroako Artxibategi Orokorrean lanean ari den Peio Monteano historialari eta artxibazainari zor diot orain aztertuko dudan Murillo el Frutoko kaierraren ezagutza. Aurkitu, NAOeko goi mailako teknikaria den Maika Munarrizek aurkitu zuen, agiri batzuk antolatzen ari zen denboran. Azalak eta hogeita lau orrialde ttikik osatzen dute ikergai hartuko dudan koadernottoa. Katalogo zenbakia ondoko hau da, norbaitek esku artean erabili eta gauzak bertatik bertara ikusi nahi baditu: NAO, Udal Artxibategiak, Murillo el Fruto, 139. zk.

1994an argitaratutako doktore tesian Aragoaren ertzeko herriko toponimo batzuk aztertu nituen, eta Peiok hori jakinki eta nitaz oroitu, koadernottoa bere eskuetara iritsi zelarik. Ni uxuetarra izateak ere, hots, murelutarren aldameneko izateak ere eragina izan duke atarrabiarraren erabakian. Hala uste dut. Era batera izan edo bestera, eskerrak ematea besterik ez zait gelditzen, hari eta Maika Munarrizi, egindako mesedearen ordainetan, nahiz eta mesedeek ardura lana ekartzen duten bizkarrean.

Zernahi gisaz, ez beza inork pentsa euskaraz idatzitako dokumentua dugula hau; zorte ona izan dugu kausitzearekin, egia, baina adurrak, nonbait, ez zuen nahi administrazio esparrukotzat aitor daitekeen idazkia euskaraz izkiriaturik egon zedin. Damurik, holakoen behar gorrian baikaude; ondoko batean izan beharko!

Nolanahi ere, garrantzi handiko agiria da, bi arrazoi nagusirengatik: Erribera goieneko herria XIV. gizaldian euskalduna zela iradokitzen duelako lehenik, hitzez hitz eta argiki erraten ez bada ere, eta bertako hizkeraren berri zerbait jakiteko lanabes oraingoz bakarra delako ondoren. Hirugarren alderdi aldekoa dokumentazioan geroago azaltzen zaizkigun zenbait leku izen itxu-

* Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP).

ratxarturen etorkia garbiago ikusteko aukera eskaintzea da, etimologia azalpenak ematerakoan datu zaharrak, toponimoen antzinako aldaerak, urrearen parekoak izaten baitira, altxor handia.

Koadernoak ez du datarik, baina izkirione gotikoak denboran kokatzen laguntzen du eta, gainera, Carrascok (1973: 448) 1366an Murillon aipatzen dituen lagunetako batzuk hemen ere azaltzen zaizkigu: *Garcia Diez*, *Garcia Lucea*, *Johan Biperr*, *Miguel Dolz*, *Miguel Martiniz*, *Miguel Rodero*, *Per Arceiz Paneagoa*, e.a. Hortaz, guziz garbi dago garai berekoa dela, hots, XIV. mendearen bigarren erdikoa.

Erran bezala, koaderno ttiki baten modukoa da agiria, eta larru paper zaharxeago batean bildua dago. XIV. gizaldian ez, baizik ondoren norbaitek kaierttoari ezarri dion azal horretan «Libro antiguo de la Pecha que pagan los labradores de la U[ill]a de Murillo el Fruto» irakur daiteke, franko erraz, XIV. mendeko izkirione bihurrian idatzirik dauden barneko izkribuak baino aise argi eta garbiago.

Testu osoa ez dut transkribatu, apika «Nafarroako erromantzea» deitzen duten horrekin interesatuak daudenendako balio zerbait baduke ere. Ni onomastika aztertzera mugatu naiz: zeregin honetan leku eta jende izen berberak behin eta berriz errepikatzea lagungarri izan zait, beste gisan holako dokumentu zaharrekin usatuak ez garenondako sarri neke baita gauzak behar bezala irakurri, ulertu eta txukun ematea. Testua, bestalde, ondoko mendeetan ere agitzen den gisa, laburduraz beterik dago eta, horregatik, zenbait aldiz «onimoa» (antroponimo bat edo beste partikularzki) transkribatu eta aipatu gabe utzi dut, garbi ezin irakur nezakeenean.

Lehenik grafemak ukitzen ditut eta irudikatu nahi duten soinuekin lotzen saiatzen. Gero, kaierttoan azaltzen diren toponimoak aztertzen ditut, banaka-banaka, *abc* hurrenkeran, eta ondoren antroponimoak. Laugarrenik, ondorio batzuk ateratzen saiatzen naiz, Murilloko eleak inguruko herrietakoekin lotzera entseatzen naiz, antz-aldeak ikusi nahian. Oibar haranekoekin eta bereziki Galipentzu eta Uxuekoekin erlazionatzen ahalegintzen naiz, ditugun Zarrakazteluko datu urriak ahantzi gabe. Uste dut garrantzizkoa dela Murilloko datuak ondoan eta iparraldean dituen herrietakoekin erkatzea, batasunik baden edo nolabaiteko haustura antzeman daitekeen jakiteko.

1. GRAFIAK ETA SOINUAK

Hemen ez dut koadernoan azaltzen diren grafema guztiak banaka-banaka eta sakonki aztertzeko asmorik, baina bai XIV. mendeko Murillok bizi zuen hizkuntza egoera ezagutzeko interesgarri izan daitezkeenak.

a) Aitzurieta

Toponimo honetan *-z ç-* izaten dugu arrunki, eta *-z z-* zenbait aldiz. Nire irudiko, garbi dago eskribauak soinu afrikatu lepokaria irudikatu nahi zuela, izena erdaldundurik egon balitz, hots, erdal fonetikaren arauei jarraikiz ahoskatu balitz, <z> edo <c> agertzea aski izanen baitzatekeen.

b) Areatzea

Hau anitz aldiz errepikatzen da kaierrean, eta frankotan <c> edo <ç> bikoitzarekin izkiriaturik kausitzen dugu, grafema bakunarekin idatzitakoak

ere usu agertzen diren arren. Eskribaua egun euskara batuan <tz> idazten dugun txistukari lepokaria irudikatzen saiatu zela zalantzarik ez dago, eta gauza ageria da, beraz, 1366 inguruan murelutarrek euskaraz ohikoa izan den eta den hotsa ebakitzen zutela. Honek ez du erabat frogatzen garai hartan euskarak bizirik zirauela, baina horren alde hitz egiten du, batez ere ikusiko ditugun beste faktore batzuekin batean aztertzen dugunean.

c) Baratzealzinea, Baratzeberrieta, Baratzebideta, Baratzetako hodia, Baratzezarreta

Lehen toponimoa hiru alditan baizik ez da azaltzen aztertzen ari garen kaier ttipian eta, bigarren osagaiari doakionez, behin ere ez da <c> edo <ç> bikoitzarekin ageri, menturaz ozen ondoko neutralizazioa igurzkariaren aldekoa zelako, Landuchioren lanetan (A eskuaren datuetan) agitzen den bezala, konparaziorako (ikus Mitxelenak dioena, Agud eta Mitxelena, 1958: 21). Alegia, *Baratzealzinea* ebakitzen zatekeela. Zernahi gisaz, lehen zatia ere (*Baratze-*) grafema bakunarekin agertu ohi da, bai aztertzen ari garen honetan, bai beste *Baratze*-dun toponimoetan, hauetan zenbait aldiz <cc> azaltzen bada ere, batik bat *Baratzezarreta*-ren kasuan, baina bakanka baizik ez. Gainerakoetan <ç> ohi dugu, edo <c> bestela.

d) Buztina

Toponimo hau maiz erdarazko artikulu femeninoarekin agertzen da, eta beste frankotan artikulu hori gabe. Gehienxkoenetan *-z-* du *-t*-ren aitzinean, eta ateratzen den ondorena da garai hartan, toponimo honetan, lepokaria ez zela, gero zenbait hizkeratan gertatu bezala, apikari bihurtzen, herskari horzkari ahoskabearen aurrean. Hau, dena dela, orokorra da garai honetan, *-zt-* duten toki izenetan.

e) Txorrota

Beti *La Chorrota* izkiriaturik aurkitzen dugu, artikuluarekin eta <ch> digrafoarekin. Erdaraz hitz honek soinu txetxekari sabaikaria du, eta orobat euskaraz (*Zorroka* ere bada, ordea, Ultzurrunen erraterako, baina *Txorroka* Imozko Latasan) eta, hortaz, ez da harritzeko beti aipatu digrafoa agertzea. Hau zen, bestela ere, alderdi honetako euskaran espero genuena, baina nolanahiko gisan, ez da kalterako hitz hasieran egun <tx> idatziko genukeena zegoela jakitea, ez Iparraldean agertu ohi den <x> igurzkari sabaikaria, edo bestetako <z> igurzkari lepokaria.

f) Hodia eta **Uharte**

Hemen nabarmendu nahi dut *odia* beti *h*-rik gabe lekukotzen dela, eta *Uarte* eta eratorriak, aldiz, beti edo ia beti *h*-rekin. Honen arrazoia, itxuraz behintzat, garai hartarako Murilloko euskaran hasperenik ez izatea da batetik, eta hasierako *u-* hori bokala zela erakutsi nahia bestetik, *Uarte*-dun toponimoak *Barte(-)* irakur baitzitezkeen beste gisan. Gogora dezagun, bestalde, euskaraz *Uharte* dela Ipar Euskal Herrian kausitzen dugun ahoskera, eta tarteko aspirazioak belar igurzkaria utzi duela bai Arakilgo *Uharte*-n, bai Iruñetik hurbil dagoen izen bereko herriaren izenean. Hots, *Ugarte* dira edo

izan dira bi toponimoak, lehena gero, aitzineko bokal belarraren eraginez, **Ubarte* > *Uberte* bilakatu bada ere.

g) Aibar, Biper, Laster eta **Ederra**

Ederra <r> bikoitzarekin izkiriaturik azaltzea ohikoa da, eta hola opatzea espero genuen. Beste hiru onimoak, *Aibar* toponimoa eta *Biper* eta *Laster* antroponimoak, bukaeran *-rr* dutela kausitu ohi ditugu, *Aibar* ez beti, baina bai *Biper* eta *Laster*. Hau usaiakoa da Nafarroako dokumentazioan akabailan dardarkari anizkuna duten onimoetan, eta arrazoia euskarak duen soinuan bilatu beharra dago. Egia da gaztelaniak ere baduela, baina hitz amaieran hotsa ez da hain «azkarra» izaten, eta erdal belarri batendako aski nabarmena suertatzen da euskaraz, Hegoaldekoan behintzat, ohi dugun hots gogorkara (hau beti erlatiboa da, jakina, nondik abiatzen garen) hori.

2. IZENEN AZTERKETA

2.1. Toponimoak

Lehenik eta behin aurkitu ditudan toponimoak ekarriko ditut hona, eta hauen etimologia azalpena emanen. Hauek dira:

2.1.1. Aitzurieta

Anitzetan errepikatzen da, baina honek ez du erran nahi, alabaina, guztiz garbia zaigula, izan ere maiz ez baita argi tarteko hizkia <r> edo <u> den eta, beraz, *Aitzurieta* ez ezik *Aitzubieta* ere irakur daiteke.

Lekukotasunak: *«una vyña en ayz çurjeta»*, *«Jt[e]m una landa en ayz çurjeta»*, *«Jt[e]m un çarrado en ayz çurietas»*, *«Jt[e]m una vyña en ayz çurieta»*, *«Jt[e]m una vyña en ayz zuujeta»*, *«Jt[e]m una landa en ayz çuujeta»*.

Ezaguna da leku izenetan, zenbait aldiz, *zuri* eta *zubi* elkarren ordainetan azaltzen direla, adibidez *Arrizurieta* eta *Arrizubieta*-ren erakoetan. Zubia harrizkoa dela adieraztea arrunta da gure toponimian (*cfr.* Arabako *Arzubiaga* herri izena), baina ez haitzezkoa dela nabarmentzea, *Aitzubia* batek haitza aldakan duen zubia izenda badezake ere. Murillo el Frutoko agirian *Malpuent* errepikatzen da (ikus beheitiago), eta ez da dudarik XVII. mendean *Malpuen* (1612, Kaparrosoko protokoloak, A. Napal, 19. karpeta) eta *Malpuente* (1618, *ibid*., Fco. Esparza, 26. karpeta) agertzen den tokia dela, segur aski *Malpontaz* gisa lekukotzen den bera (1615 eta 1631, *ibid*., 26 eta 34. karpetak).

Dena dela, ez dakit aztergai dugun toponimoak harekin zerikusirik baduenetz; ez dirudi. Kasuren batean toki izen bera euskaraz eta erdaraz (Nafarroako ezaugarri berezi zenbait dituen gaztelanian) azaltzen zaigu, gehien-gehienetan leku izenak euskarazkoak edo erdarazkoak badira ere, hots, euskarazko edo erdarazko bertsioan aurkitzen baditugu ere, bakar batean, ez bietan txandaka: *Buztina*, *Uarte / La Rueda*, *La Rueda Vieilla*. Alabaina, ikus *Baratzebideta* eta *Carrera de los huertos*, beherago.

Toponimoaren osagai argiak *haitz* izena, *zuri* izenondoa eta *-eta* leku-ugaritasunezko berrekailua dira, batzuetan leku hutsa eta beste batzuetan lekua ez ezik zerbaiten ugaritasuna ere adierazten dukeena. Erran moduan, badaiteke zenbait aldiz *zuri* ez, baizik *zubi* izatea.

2.1.2. Areatzea

Lekukotasunak: *«Jt[e]m una landa en areaccea af[rontant]e al ſoto»*, *«Jt[e]m una landa en areaççea af[rontant]e al ſoto»*, *«Jt[e]m una landa en areacea af[rontant]e con el ſoto»*, *«Jt[e]m una pieça en areaccea af[rontant]e con la ceq[ui]a»*, *«una pieça y vyña en areaççea»*.

Osagaiak *harea* izena, *-tze* atzizki leku-ugaritasunezkoa eta *-a* artikulua dira. Ikus daitekeen moduan, oinarriak, izenak, *-a* berezkoa du, bokal hori atzizkia eranstean ez erortzeak erakusten duen bezala, eta ez du, gainera, *h*-rik behin ere, seinale -ez froga- XIV. mendearen bigarren erdirako alderdi honetan soinu hori ebakitzen ez zela, hitz honetan behintzat. Berrekailua, bestalde, *-tze* da, ez bestetako *-tza*.

Irudi luke XIV. mendeko *Areatzea* XVII. gizaldian (1611, Kaparrosoko protokoloak, A. Napal, 19. k.) eta XVIII.ean (1798, Kasedako pr., 36. k.) ageri den *Los Arenales* bera dela. *Areatzea* Eslaban eta Ezporogin ere bazen, lehena, nonbait, Lergako egungo *Los Arenales*-en aldakan (Salaberri, 1994: 185, 313). Uxuen *Areatzeta* genuen (*ibid*., 730), Beireko mugan.

2.1.3. Baratzealzinea

Lekukotasunak: *«Jt[e]m un carrado en varace alcinea afr[ontant]e con [e]l camj[n]o»*, *«Jt[e]m un çarrado en Varace alcinea af[rontant]e con çarrado doljua»*, *«çarrado en varace alcinea af[rontant]e con çarrado de M[ari]a landaçu»*.

Osagaiak *baratze* izena, *alzin* 'aurrea' postposizioa (hau ere izena da) eta *-ea* bukaera dira. Murilloko XVI, XVII eta XVIII. gizaldietako datuetan ugariak dira baratzeei erreferentzia egiten dieten toponimoak: *Las Huertas* (1598, Oibarko pr., J. de Sola zaharra, 7. k. bis), *El Guertaz* (1611, 1614, Kaparrosoko pr., A. Napal, 19. eta 20. k.), *Los Guertos*, *El Amplo de los Guertos* 'Baratzetako zabala' (1611, 1619, *ibid*., 19. eta 26. k.), *La Huerta Alta* (1769, Kasedako pr., J. Huarte, 22. k.).

2.1.4. Baratzeberrieta

Lekukotasunak: *«una pieça en varaceverrieta»*, *«una carrado en Varace Verrieta»*, *«Jt[e]m un carrado en barace verrieta»*, *«Jt[e]m una vyña en varace verrieta»*, *«Jt[e]m un huerto en varace verrieta»*, *«Jt[em] un huerto en barace Veryetas»*, *«Jt[e]m una pieça en varace verrjeta* [...] *Jt[e]m una vyña en varace verrieta»*.

Osagaiak *baratze* izena, *berri* adjektiboa eta leku-ugaritasunezko *-eta* atzizkia ditugu. Maiztasun handikoa da ikertzen ari garen kaierttoan, eta bitan baizik ez da ageri bukaeran *-s* duela, oker ez banago. Erdarazko pluralgile hau euskara ahultzen hasten denean erantsi ohi zaie euskal toponimoei, baina hau ez da beti hola (*cfr.* Getariako *Meagas*, berez *Meaga* dena, *Mia* ebakia bertan eta inguruetan[1]). Erdal pluralgilea beste bi toponimotan ere kausitzen dugu: *ayz çurietas* (behin), *baraçe carretas* (bitan).

Toponimoa XIV. mendean bere gardentasun osoan ageri zaigu, ezbairik gabe artean euskara bizirik zegoelako. XVII. mendean berriz aurkitzen dugu, baina itxuratxarturik: *Baricibarretas* (1619, Kaparrosoko pr., Fco. Esparza, 26. k.), *Baricibar* (1645, *ibid*., 41. k.), *Barizibarretas* (1649, *ibid*., 44. k.). Badaiteke

[1] Luis Mari Zaldua, adierazpen pertsonala.

gaurko *La Barituerta* (*NTEM* 41: 111) ikergai dugun honen aldaera desitxuratua izatea; ez jakinki.

2.1.5. Baratzebideta

Lekukotasuna: *«Jt[e]m una vyña en varace videta af[rontant]e con pieca de ſeme[no] de meljda valdes».*

Toponimo hau behin bakarrik agertzen da, eta bukaera *-ta* nahiz *-ra* irakur daiteke. Adlatiboa hemen arraroa izanen litzateke, baina ez *Baratzebideta*-ren tankerako erakuntza, eta hau da irakurketa hori hobesteko eta lehenesteko zergatia. Osagaiak, beraz, *baratze*, *bide* izenak eta *-eta* leku-ugaritasunezko berrekailua dira. Kasu honetan, erdarazko *Carrera de los huertos*-en baliokidea bada, atzizkia lekuzko hustako eman beharko da, ez ugaritasunezkotzat.

2.1.6. Baratzetako hodia

Lekukotasunak: *«Jt[e]m una* [pieça] *oljuar en varacetaco odia»*, *«Jt[e]m una pieça en varaccetaco odia»*, *«Jt[e]m un oljuar* [...] *en varacetaco odia afr[ontant]e con la ceq[ui]a».*

Osagaiak *Baratzeta* toponimoa, leku genitiboaren *-ko* hondarkia, *hodi* izena eta *-a* artikulua direla dirudi. Beste interpretazio bat *baratze* + *-eta* + *-ko* + *hodi* + *-a* ditugula kontu egitea litzateke.

Puntu honetan *hodi* izenaren adiera zein den aztertu behar genuke. Badakigu han-hemenkako hainbat toponimoren oinarrian dugula: argibidez, *Hodiaga* Aranatz aldeko (N) herrixka despopulatua zen (1268, Felones, 1982: 659), eta *Hodieta* Artzibar edo Longidako (N) beste herri hustu baten deizioa (1268, *ibid*., 640; «En Val d'Arçi» ageri da, baina Longidakoa zen, antza). Nafarroatik atera gabe, *Odieta* ibar izena dugu (*Val de Odieta* 1280an, Zabalo, 1972: 75), Mugiroko (N) aurkintza baten izena ere badena, eta berebat Liginagako (Z) auzo batena (Barandiaran, 1974: 157). Hurbilago, *Gristiodiaburua* genuen Eslaban, eta *Odia* Uxuen, ermitatik hurbil, Murilloko mugatik ez hagitz urruti (Salaberri, 1994: 245, 853).

Mitxelenak (*AV*, 475) 'caño', 'encañada, barranco' adiera ematen dio *odi(a)* izenari. *OEH*-n toponimiarako egokiak diren 'barranco', 'vallon enfermé entre des montagnes' eta 'conducto de agua' aipatzen dira, besteak beste. Murilloko kasuan *cequia* 'acequia' aurkitzen dugu aipuetako batean, hots, eta RAEren arabera, "zanja o canal por donde se conducen las aguas para regar y para otros fines" adiera duen izena, Ezporogiko *Azekialdea*-n eta Galipentzuko *Zekiazarra* toponimoetan (Salaberri, 1994: 314, 482) dugun berbera.

Bestalde, Uxuen *erreka* ibili izan da, oso oker ez banabil, erdarazko *barranco*-ren baliokidetzat, eta ezin ahantzi Murillon berean edireten dugun *erregu* hidronimoa (*Erteko erregua*), gorago Morionesen eta Leatxen ditugun *Loiaerregua* (= *Loiaerreka*) eta *Erregumaiorea* ('el río mayor', *Romario* egun, itxuragaizturik) toponimoetan dugun berbera, Legardako *Erreguandia*-n (1598, Obanosko pr., S. Pérez, 10. k.) eta Galbarrako *Behengo erregua*-n ere badagoena: *«Otra pieza en el termino de bengo erregua* [...] *ten[ien]te* [...] *a rio caudal»* (1692, Artabiako pr., M.J. Garzia, 6. k.).

Murillon *La Canal* ageri da XVIII. mendean (1771 eta 1798, Kasedako pr., J. Huarte, 23. k., L. Escudero, 36. k.), eta badaiteke hau XIV. gizaldian erre-

pikatzen den *odia*-ren itzulpena besterik ez izatea, baina erran bezala 'azekia' edo 'erreka', 'barranco' ere izan liteke. *Cfr. Uarteko hodia*.

2.1.7. Baratzezarreta

Lekukotasunak: *«Jt[e]m una vyña en varacce çarreta»*, *«una vyña en varaceçarreta»*, *«Jt[e]m en varace çarreta una pieça»*, *«Jt[e]m un Mailluelo en varaceçarreta»*, *«Jt[e]m una pieça en varace carreta»*, *«Jt[e]m una landa en baraçe çarretas»*.

Geroagoko beste testigantza batzuk: *la puen de baricicartas* (1624, Kaparrosoko pr., A. Napal, 23. k.), *la puendebariziçartas* (1626, *ibid*., Fco. Esparza, 26. k.), *Barrizarras* (1726, *NTEM* 41: 111, eta 1853, hipoteka liburua, 172 zk.), *puente de Barrizarzas* (1804, *NTEM* 41: 111), *puente de Barizarza* (1830, *ibidem*), *Barizarras*, *Marizarra*, *Marizarzas* (1892, *ibidem*). Egun zeharo itxuragabeturik dago: *El Puente de Marizárza* (*ibidem*).

Osagaiak argiak dira: *baratze* izena, *zar* 'zaharra' izenondoa eta *-eta* berrekailua. Honen kari, aintzat har bedi Zarrakaztelun mende bat lehenagoedo *çalduçassarra* toponimoa lekukotzen dela (1269, Munita, 1984: 81), antza denez *çalduçaharra*-ren ordez dagoena. Ciérbidek eta Herrerok (1985: 55) *Calducafarra* irarkutzen dute, hots, egun *Zalduzaharra* idatziko genukeena.

2.1.8. Buztina

Lekukotasunak: *«una vyña en Buztina»*, *«Jt[e]m una pieça en buztina»*, *«Jt[e]m una vyña en la buztina»*, *«Jt[e]m un huerto en la buztina»*, *«(un) maylluello en la buztina»*, *«una landa en buztina af[rontant]e con la Jaßa»*, *«un huerto [en] la buſtina»*, *«Jt[e]m la qºarta p[ar]t[e] d[e]l[a] vyña de buçtina»*.

XVII. mendean *«una pieça linar en la buztina»* (1612, Kaparrosoko pr., A. Napal, 19. k.) eta *«una pieza* [...] *en el termino Regadio* [...] *en el que llaman la Agustina»* (1673, Kaparrosoko pr., J. Valles de Oroz, 78. k.) dauzkagu.

Hemen, argi eta garbi, euskarazko *buztin* izen arrunta eta *-a* artikulua ditugu. Ohartzekoa da sekulan ez dela <ñ>-rik azaltzen.

2.1.9. Carrera (d)el pozo

Lekukotasuna: *«Jt[e]m un çarrado en la carrera (d)el poço»* (ez da erabat garbi ageri *d*-rik badenetz). Osagaiak *carrera* 'bidea', 'errepidea', 'gurdibidea', *de* preposizioa (ustez), *el* artikulua eta *pozo* 'putzua' izena dira.

2.1.10. Cascallares, los

Lekukotasunak: *«una pieça en los caſcaillares»*, *«Jt[e]m una pieça en los caſcaillares af[rontan]te con pieça de Johan Lopiz»*, *«Jt[e]m una pieça en los caſcaillares»*.

Hau XVI eta XVII. mendeetan kausitzen dugun *El Cascaxo*, *El Cascajo* bera izan daiteke, XIX. gizaldiko eta egungo *El Cascajo* (*NTEM* 41: 112, 154). Jakina den bezala, euskaraz *Kaskallu*, *Kaskalludia*, *Kaskallueta* eta antzeko beste izen batzuekin adierazi izan da kontzeptua. Adibidez, *Aldeko kaskailua* izan dugu Aldea herrixka despopulatuan (Lerga orain), *Kaskallueta* Eslaban eta *Kaskallu* Galipentzun (Salaberri, 1994: 165, 253, 418).

Hizkuntzaz kestione, garbi ageri da XIV. gizaldian alboko sabaikaria ibiltzen zela erdaraz, euskaraz oraino egiten den bezala. *Cfr.*, honen karietara,

koadernoan aurkitzen dugun *fillos* (*de paſcoal garjçu*) aldaera, emaitza igurzkari palatal ahostuna duen *fijo* anitzez ugaria bada ere (aintzat har bedi, tarteko kontsonantea dela eta, *Meje* identifikagarria).

2.1.11. Chorrota, la

Lekukotasunak: *«una pieca en la chorrota»*, *«una pieca en la chorrota af[rontan]te con vyña de miguel m[artin]iz»*, *«Jt[e]m la meatat de la vyña de la chorrota»*.

Txorrota ohikoa izan da euskal toponimian; *cfr.*, konparaziorako, Girgillaoko 1601eko aipu hau: *«Otra pieça donde llaman chorrota Videa»* (Lizarrako pr., P. de Zelaia, 12. k.), edo Orbaibar Makirriaingo 1759ko beste hau: *«yttem ottra [huerta]* [...] *en la parte llamada Chorrota que afronta con huertta del d[ic]ho Palacio y con regacho que vaja de d[ic]ho termino»* (San Martin Unxeko pr., B. Tercero, 45. k.).

Hurbilxeago, *Txurruta* izeneko erreka (*barranco*) eta iturria ditugu Agezan (Salaberri, 1994: 156); Leatxen *Txurruta* eta *Txurrustagaña* genituen, Ugarkako errekan, *«Otaberaren parean, bertan ura txirrian erortzen den gune bat baitago, ekaitza delarik»* (*ibid.*, 566). Ikus gorago erran duguna. *Xurruta*, bestalde, 'harraska' da egun Luzaiden (Kamino eta Salaberri, 2007: 190).

Iribarrenek (1984: 192) *chorrota* 'ur-jauxia', 'harraska' dela diosku. Murilloko *Txorrota*, antzina bezala egun ere *La Chorrota* deitzen dena, Santakararaino doan hodi edo azekia txikia da (*NTEM* 41: 114). Azken liburu honetan biltzen denez, murelutarrei «los chorrotos» erraten diete, toponimoan oinarriturik. Diodan bukatzeko Uxuen *chorroto* «txirria» handiari erraten diogula, zurrustan, turrustaka ateratzen den ur txorro nabarmenari alegia.

2.1.12. Erteko erregua

Lekukotasunak: *«una vyña en erteco erregua af[rontan]te con vyña de Johan Biperr alcalde»*, *«Jt[e]m una vyña* [en] *erteco erregua* [...] *una pieca en erteqº Regua»*, *«Jt[em] una vyña en erte Regua afr[ontante] al ſoto* [...] *Jt[em] una landa en erteqoRegua»*, *«Jt[e]m una pieça en errteco erregua af[rontant]e al ſoto»*, *«Jt[e]m una pieça en erteco erregua af[rontant]e con la Jaßa»*, *«Jt[e]m un oljuar en erteco erregua af[rontant]e con la Jaßa»*.

Toponimoa ez zen berehala lekutu: *Artecorregua* (1613, Kaparrosoko pr., A. Napal, 19. k.), *Articorregua* (1615, *ibid.*, Fco. Esparza, 26. k.), *Artticorregua* (1774, Kasedako pr., J. Huarte, 26. k.), *Alto Regua* (1861, 1892, *NTEM* 41: 154). Egun izena ezezaguna da, oker ez banago.

Osagai argiak *erte* 'artea, bitartea', leku genitiboaren *-ko* hondarkia, *erregu* 'erreka'-edo (erdarazko *yasa*, antza) eta *-a* artikulua dira, hots, 'arteko erreka', 'arteko baserreka' da toponimoaren etorkizko adiera, hain segur ere honen alde banatan bazirelako bedera erreka edo ubide (*cfr.* 1619ko *«otra pieza entre los dos barrancos»*, Kaparrosoko pr., A, Napal, 22. k.). Nabarmentzekoa da Nafarroako alderdi zabal batean biziki hedaturik egon den *ertea* 'artea' aldaera asimilatua dugula, goitiko herrietan bezalatsu: *Gindertea* (Ageza), *Boiuertea* eta *Boioartea*, *Zazuartea* eta *Zazuertea* (Eslaba), *Arteko haitza* eta *Erteko haitza* (Uxue), *Iturriartea* eta *Iturriertea* (Zare) (Salaberri, 1994: 128, 203, 305, 754, 961). Behin edo beste elkarketa bidezko forma ageri da, egun

Erterregua idatziko genukeena. Ikus *Baratzetako hodia* eta *Uarte* sarreretan erran duguna.

2.1.13. Esatea

Lekukotasunak: *«Jt[e]m una pieça en esatea afr[ontant]e con vyña de p[e]r arceyz paniagoa»*, *«Jt[e]m una vyña en eſſatea af[rontant]e con pieça de ſancha del portal»*, *«Jt[e]m una pieça en eſatea»*.

1607an (Kaparrosoko pr., M.J. de Luna, 3. k.) eta 1611n (*ibid*., A. Napal, 19. k.) *Satia* edireten dugu, bai eta ere XVIII. mendearen akabailan (Ciérbide eta Herrero, 1986: 142).

Toponimoa ez da beti nik nahi nukeen bezain garbiro irakurtzen, baina zalantzarik ez dago *Esatea* dugula hor, *s* bikoitzak soinu afrikatua, egun <ts> idazten duguna, adieraz lezakeen arren, menturaz. *Esatea* hitzak 'atea', 'mendatea', 'portilua' adierazten du, eta oraino -edo orain guti arte- bizirik egon da Arantzazu aldeko hizkeran. Ikus Gipuzkoako *Arrasate* herri izena aztertzean diodana (Salaberri, 2011: 145). Uxuen egun bizirik dago *Esatea* toponimoa, *Portillo de Satéa* ebakirik. Jakina, ez du deus ikustekorik euskarazko *zatia* 'puska' hitzarekin, Ciérbidek eta Herrerok (1986: 142) uste dutenaren kontra.

2.1.14. Eutzea

Lekukotasunak: *«Jt[e]m una pieça en eucea»*, *«Jt[e]m una pieça en eucea afr[ontant]e con pieça de M[ari]a gariçu»*, *«una pieça en euçea»*, *«Jt[e]m una pieça en eucea af[rontant]e con pieça de grachito»*.

Hemen Oibar haranean (*Aldeko euntzea*, *Euntzeberri* Lergan, *Euntzea*, *Euntzeberri*, *Euntzeluzea* Eslaban, *Sorgineuntzea* Leatxen, Salaberri, 1994: 164-165, 235-237, 564), Artaxoan (*Euntzeandia*, *Euntzebiribilla*, *Euntzetxikia*, Jimeno Jurio eta Salaberri, 1998: 110-111) eta hemendik goitiko Nafarroako alderdi zabal batean kausitzen dugun *euntze* 'belar-soroa', 'belagaia' izenaren aldaera dugu. Beste lan batean zehaztu nuen bezala (Salaberri, 1998: 82), *eutza*, *eutze* eta *euntza* aldaerak dokumentaturik daude, Estellerrian. Hitza, Mitxelenak ikusi zuen moduan (1977: 492, 509), *fenu* 'heno'-ren eratorria da; toponimoaren etorkia eta bilakaera hauek izan ziratekeen: *fenu* > **henu* > **hehu* > **eu(n)* + *-(un)tze*. Atzizkiaz Salaberri (1997) ikus daiteke.

2.1.15. Garipentzuko zaldua

Lekukotasunak: *«Jt[e]m una vyña en garipençuqº çaldua af[rontant]e con la ceq[ui]a»*, *«una landa en garipencuqº çaldua af[rontant]e al ſoto»*, *«una vyña en garypencuco caldua af[rontant]e a la landa de las fijas de mjguel del portal»*, *«Jt[e]m una pieça en garipençuco çaldua co[n] dos oljuos af[rontant]e con [e]l camj[no]»*, *«Jt[e]m una vyña en garipençuqº çaldua af[rontant]e con la ceq[ui]a mayor»*, *«Jt[e]m una landa en garipe[n]çuqº çaldua cabo el ſoto af[rontant]e con[e]l ſoto»*, *«Jt[e]m una landa en garipe[n]çuqº çaldua af[rontant]e co[n] la Jaßa»*.

XVII. mendean itxuratxarturik aurkitzen dugu toki izena, euskara lekutu ondoren eta honen ondorioz: *Galipienço Cruzaldo*, *Galipiemcocucaldo* (1611, Kaparrosoko pr., A. Napal, 19. k.), *Galipienço Cruzaldo* (1612, *ibidem*), *Galipienço Cuçaldo* (1621, *ibid*., Fco. Esparza, 27. k.).

Osagaiak *Garipentzu* 'Galipentzu' herri izena, leku genitiboaren *-ko* hondarkia, *zaldu* «ubideen ondoko eremua, eremu urtsua, maiz zuhaitzez estalia egoten dena» eta *-a* artikulua dira. *Zaldua*-ri «eguerdiko beroaldietan aziendak itzalpean egoten diren zuhaiztia» (gaztelaniaz «arboleda donde sestea el ganado») adiera ematen zaio arrunki, Azkuek Erronkaribarren bildu zuen *zaltua*-n oinarri harturik (ikus *OEH*), baina, toponimiari ohartuta, eguzkia bezain argi dago erranahia zabalagoa dela, eta gaztelaniazko *soto*-ren baliokide dugula, jatorriz dagokion moduan, biak latineko *saltu*-tik ateraiak baitira. Murilloko kasuan ere hala dela dirudi, gure kaierttoan arduraxko «afrontante al soto / con el soto» ageri delako.

Toponimoa ezezaguna da egun, baina Murillok Santakara, Uxue eta Zarrakaztelurekin ez ezik Galipentzurekin ere mugatzen du, edo zehazkiago erran, Aragoa ugaldeak egiten du bien arteko muga eta, hortaz, ez da estonatzeko *Garipentzuko zaldua* toponimoa izatea.

Forma honen berezitasuna aldiro erakusten duen *tap*-a da, alegia, beti *Gari-* azaltzea, behin ere ez *Gali-*. Orain urte batzuk karrikaratu artikuluxkan (Salaberri, 2010) *Galipentzu / Gallipienzo* herri izenaren etimologian sakondu nahi izan nuen, arrakasta gutxirekin, ez bainuen toponimoaren nondikakoa zulatzea erdietsi: ustekari eta proposamen bat baino gehiago mahaigaineratu bai, baina gauza garbirik ez nuen atera. Aipatu artikuluxkan biltzen diren agiritestigantzetan ez da sekula *Gari*-ren erakuskaririk jasotzen, Campionen arabera (*ibid*., 354) herriaren euskarazko izena *Garipentzu* bazen ere. Ez dakit iruindar idazle eta gramatikalariak non aditu edo nondik bildu zuen *-r*-dun aldaera hori, baina, erran bezala, ez da helmenean ditugun agiri bildumetan inoiz ere azaltzen.

Egia da agiri zahar horietan *Galipentzu* ez dela behin ere euskal toponimo baten osagai, eta izan dugun eskarmentuak argi irakatsi digu horrek zenbaterainoko munta duen. Argibidez, Orbaibarko *Olleta* herri izena euskaraz *Oleta* zela *Oletabidea* hodonimoan ageri delako ikasi genuen (Salaberri, 1994: 657-658), bestela *Olleta*-ren azpian *Ollo* edo *oilo* dagoela pentsatzen jarraituko genukeen.

Ildo beretik, Agezako *Uxue bidea*-k (1547), *Ussue bidea*-k (1603) eta Lergako *Usueco oyanondoa*-k (1592), *Uxuecooyondoa*-k (1786) (Salaberri, 1994: 158, 657) argi adierazten dute erdarazko *Ujué*-ren euskarazko forma *Uxue* zela, gero nahasgarrikara suertatzen diren lekukoak izanagatik ere, gaztelaniak eraginik. Hau da, konparazio baterako, Murilloko bereko *Jubidea*, *Zubidea*-ren kasua: *«tres peonadas de viña* [...] *en el termino* [...] *llamado Zubidea»* (1631, Kaparrosoko pr., Fco. Esparza, 34. k.), *«... y el termino se llama Jubidea camino de Santa agueda que afrenta a caminos de Uxue por Santageda»* (1654, *ibid*., 46. k.). Honen oinarrian **Uxu(e)bidea* zegokeen, baina oraingoan ez dugu XIV. gizaldiko testigantzarik, zorigaitzez.

Nolanahi ere, euskaraz, Zaraitzu aldean, *Galipentzu* erabili da azken denboretan, eta gure alderdiko mikrotoponimian *Galipencu videa* dugu 1592an, Agezan (Salaberri, 1994: 125). José de Mateo galipentzuarraren 1730eko *Galipenzu* testigutzak ere (ikus Salaberri, 2010: 353-354) *-l*-dun formaren alde egiten du. Bestalde, Uxuen orain ibiltzen diren *Galipienzo* (herria) eta *galipienzano* (Galipentzutik etorritako gizon baten eta haren familiakoen goitizena) aldaerak oinarrian albokari emea zuen forma baten alde mintzo dira, baina ez Oibarko eta bestetako *Gallipienzo*, ez eta, ikusi bezala, euskaldunen azken hamarka-

detako usadioa. Nabarmendu beharra dut, puntu honetan, Murilloko dokumentazioan *Galipienzo*, *Galipiençio* ohikoa dela: *«Una vina en el sequero* [...] *que afrenta con camino que ban al arcal y camino real que ban a Galipienzo»* (1613, Kaparrosoko pr., A. Napal, 19. k.).

Zaldu-ri doakionez, Uxuen *Zautelu* txikigarria lekukotzen da, eta Zaren *Xautu* (eta *Xautuarana*) berantiarra (Salaberri, 1994: 919, 961-962) dugu, besteak beste. Hurbilago, Zarrakaztelun 1269an *«illos sotos antiquos* [...] *videlicet Çalduçassarra, Arçiçiloa, Oylarçaldua»* ditugu, eta 1300 eta 1319an *los sotos de Ollarçaldua* eta *Oyllarçaldua* (Munita, 1984: 81, 100, 141). Ikusten denez, honen bigarren osagaia aztergai dugun *zaldua* da, eta lehena *oilar* hegazti izena edo, beste gisan, *oihan* 'zuhaitzez estalitako mendia' izenaren elkarketako *oiar*-en *ollar*- aldaera, herri etimologiaz sortua batzuetan, eta lleismoz beste batzuetan. Ikus, honen inguruan, Morionesko *Ollarmendia* (Salaberri, 1994: 697).

2.1.16. Huertos, los / Huertos, carrera de los (= Baratzebideta)

Lekukotasunak: *«Jt[e]m otro huerto en los huertos»*, *«Jt[e]m una pieça en la çarrera de los huertos»*. Ikus *Baratzeta*-ren eratorrietan eta *Baratzebideta* sarreran erran dena.

2.1.17. Legazpea

Lekukotasunak: *«En legazpea una pieça* [...] *af[rontan]te co[n] pieça de* [...] *p[edro] arceyz lucea»*, *«En legazpea una pieça* [...] *af[rontan]te con pieça de Martin ynyguyz»*, *«en Legazpea una landaça»*, *«Jt[e]m otra pieça en legaçpea»*.

XVI. mendean *Legazpia* ageri da (1593, Oibarko pr., J. de Sola zaharra, 7. k.), XVII.ean *Cantera de Legazpia* (1616, Kaparrosoko pr., A. Napal, 20. k.), *Canal de Legazpia* (1622, *ibid*., 28. k.) eta *Delantera de Legazpia* (1631, *ibid*., 34. k.), eta XVIII.ean *la Gazpia* (1773, Kasedako pr., 25. k.). Hondar aldaera hau XIX.ean ere agertzen da (*NTEM* 41: 118); egun *la Gázpia* erraten da.

Osagaiak **Legatz*- oinarria, *-pe* 'beheko alderdia' eta *-a* artikulua dira, hots, '**Legatz*-en peko eremua' da toponimoaren etorkizko erranahia. *Legaz*-en, bestalde, *legar* 'harri xehea', 'harea' izena eta *-tz(e)* leku-ugaritasunezko atzizkia dituzkegu. *Cfr.*, tarteko txistukariaz den bezainbatean, *Leazkue* herri izena.

2.1.18. Legazpieta

Lekukotasuna: *«una qª artalada* [...] *pieça en legazpieta»*. Iduri duenez, aurreko sarreran ikusitako *Legazpea* aurkintza izena bera da, baina oraingoan *-eta* leku-ugaritasunezko atzizkiarekin ageri da. Euskal toponimian *-ee-* > *-ie-* disimilazioa ezaguna da (*cfr. Ibiltzieta* < *Ubil(t)zieta* < **Ubil(t)zeeta*). Nolanahi ere, lekukotasun bakarra dugu, eta ez da irakurtzen erraza.

2.1.19. Linares, los

Lekukotasuna: *«Jt[e]m una pieça en los linares af[rontant]e con pieça de Johan biperr alcalde»*.

XVII. mendean ere *Los Linares* lekukotzen da (1612, Kaparrosoko pr., A. Napal, 19. k.; 1622, *ibid*., Fco. Esparza, 1622, 28. k.), eta orobat XVIII.aren bukaeran (1798, Kasedako pr., 36. k.). Egun *El Linar* dago bizirik (*NTEM* 41:

118). Galipentzuko *Li(g)atzeta* da honen euskarazko ordainetako bat (Salaberri, 1994: 426-427).

2.1.20. Malpuent

Lekukotasunak: *«Jt[e]m una vyña en Malpue[n]t», «Jt[e]m una vyña en Malpuent af[rontant]e con vyña de M[ar]tin meje», «Jt[e]m una vyña en Malpuent af[rontant]e con la Jaßa».*

XVII. mendean, 1612an, *Malpuen* edireten dugu (Kaparrosoko pr., A. Napal, 19. k.), hots, bukaerako bokala ez ezik sudurkariaren ondoko horzkaria ere galdu duen aldaera: *«Otra pieça en Malpuen camino del molino».* Guztiaz ere, sei urte geroago *Malpuente* osorik aurkitzen dugu (*ibid.*, Fco. Esparza, 26. k.), eta aldaera oso hori berori dugu 1798an (Kasedako pr., L. Escudero, 36. k.).

Egun, ordea, *Malpontaz* da bizirik dagoen forma, irudi duenez Galipentzuko eta bestetako *Pontarrón*-en hurbileko adiera duen toponimoa (Salaberri, 1994: 450). Honela deskribatzen dute Ciérbidek eta Herrerok (1986: 120): *«Se denomina así un puente rústico, hecho con losas, que hay sobre una acequia cercana a* La Presa». Eslabako *Xubingoa*-k eta Uxueko *Zubitxiki*-k (Salaberri, 1994: 298, 921) honen antzeko adiera zuketen.

Malpuent(e)-k eta *Malpontaz*-ek leku bera adierazten dutenetz ez dakit xuxen; baietz ematen du. Bigarrena ere XVII. gizaldian lekukotzen da, 1631n erraterako: *«Otro (olivo) en Malpontaz en pieça de Fran(cis)co de Artiaga»* (Kaparrosoko pr., Fco. Esparza, 34. k.).

2.1.21. Olivar, el

Lekukotasuna: *«Jt[e]m una pieça en loljuar af[rontant]e con pieça de Lope g[arçia]».*

Toponimo hau franko aldiz errepikatzen da, eta gehienetan ez dakigu, *Tablar del pozo*-n agitzen zaigun moduan, bukaerako grafema <r> edo <z> den. Euskaraz *olibadia* erran izan da: *Gile Olibadia* "Gil izena duenaren olibadia" (Artaxoa, Jimeno eta Salaberri, 1998: 123), *Olivadia* (Garisoain, 1579, Ziraukiko pr., M. de Iriarte, 4. k.), e.a. Oibar haraneko, Uxueko eta Murilloko bereko datuak ikusirik, ordea, *Olibaduia* espero genuke Murillon, euskarazko bertsioa azalduko balitz. *Cfr. Aranduy* (1281, Murillo, Ciérbide eta Herrero, 1986: 101).

2.1.22. Parral, el (behin behintzat artikulurik gabe; *cfr. Buztina / La Buztina*)

Lekukotasunak: *«Jt[e]m una pieça en el parral afr[ontant]e con pieça de ſaluador ederra», «Jt[e]m una landa en parral», «Jt[e]m una pieça en el parral de palaciana af[rontant]e con pieça de M[igue]l p[er]iz».*

Parral hitzak, bistan da, *parra*-k dauden lekua adierazten du, hau da, usaian hormari lotzen zaizkion baratze edo etxeetako mahatsondo edo aihenak. Euskaraz *Parrala* (Ageza), *Parralea* (Eslaba, Ezporogi) erran izan da.

2.1.23. Rueda, la

Lekukotasunak: *«Jt[e]m una vyña delant la Rueda af[rontant]e con çarrado de lope g[arçia]», «una pieça delant la Rueda».*

Hau Murillotik goitiko herrietan aurkitzen dugun *errota*-ren erdarazko forma da. *Cfr.*, adibidez, Eslabako *Errotabidea*, *Errotaldea* (Salaberri, 1994: 293).

2.1.24. Rueda viella, la

Lekukotasunak: *«Jt[e]m una landa sobre la Rueda vieylla afr[ontant]e a vyña de G[arçia] leoçano»*, *«Jt[e]m una landa sobre la Rueda Vieylla»*.

Beste herri batzuetako *Errotazar(ra)*, *Errotaxar(ra)*-ren baliokide dugu hau: *Errotaxar* (Eslaba, Salaberri, 1994: 293), *Errotazarra* (Galipentzu, *ibid.*, 397), *Errotaxarra*, *Errotaxarreta* (Leatxe, *ibid.*, 515), *Errotaxar* (Lerga, *ibid.*, 608), *Errotaxarra* (Moriones, *ibid.*, 681).

Agerian denez, adjektiboak albokari sabaikaria erakusten du, *Los Cascallares*-en dugun bera.

2.1.25. Sant Miguel (delant)

Lekukotasunak: *«una vyña delant Sant Miguel»*, *«una landa delant Sant Miguel»*, *«Jt[e]m un oljuar delant Sant Mjguel»*, *«Jt[e]m una vyña delant ſant mjguel afr[ontant]e con vyña de [l]a palaciana»*.

Ikusten den bezala, *San Miguel* hagiotoponimoa dugu hemen, gehienxkoenetan aurrean *delant* 'aitzina' daukala. Hondar honen baliokidea *Baratzealzinea*-n dagoen *-alzin(e)a* da. Hizkuntzari doakionez, *sant* aldaera zaharra ageri dela nabarmendu beharra da, erraterako *Doneztebe* herriaren *Santesteban* erdal izenean gorde dena, bokal aitzinean dagoelako hain segur. Adberbioak (*delant*-ek) ere *-t* du akabailan, oraingoan *-e* bokala erori delako, *Malpuent*-en bezala.

Egun *Delantera de San Miguel* (Ciérbide eta Herrero, 1985: 41) edo *Delanteras*, *Delanteras de San Miguel* (*NTEM* 41: 114) erraten zaio.

2.1.26. Tablar del pozo

Lekukotasunak: *«una pieca do el tablar del poço af[rontant]e con pieça de sancho darrieta* [...] *Jt[e]m otra pieça do el tablar del poço af[rontan]te con pieca de los fijos daluaro ualde»*, *«Jt[e]m otra pieça do el tablar del poço af[rontant]e con pieça de la muger de p[edro] lorenz»*.

Tablar lehen osagaia (*tablaz* ez bada; ikus *Olivar* sarrera) *tabla* neurri izenaren eratorria da. Hondar hau 'herri-lur sail edo zatia' da Artaxoan eta 'erregadioko luzerna alorra' beste leku batzuetan, Iribarrenek (1984: 487) dakarrenez. Inguruko herrietan ere ezaguna zen: *«M[a]s en Basandia siette tablas de piezas»* (Uxue, 1782; San Martin Unxeko pr., F. Gadea, 55. k.). Murillon berean ere edireten dugu: *«otra tabla de dos robadas en Mugarra»* (1614, Kaparrosoko pr., A. Napal, 20. k.).

2.1.27. Tranca, la

Lekukotasuna: *«Jt[em] un huerto en la tranqa af[rontant]e a huerto de g[arçia] meje»*. Izen hau makina bat aldiz errepikatzen da kaierttoan.

La Tranca toponimoa oraindik bizirik dago (*NTEM* 41: 122), baina ez XIV. gizaldiko *Trankazarra*. *Tranca*, RAEren arabera, 'palo grueso y fuerte' da, euskarazko 'haga' edo, baina kasu honetan beharbada 'langa', 'ataka', 'xeila' zatekeen jatorrizko adiera, hesitutako belar-soroetan eta bideetan izaten den borta modukoa. Bide batez, aipatu nahi dut *tranco* Uxueko gaztelanian

'lurrean dagoen goragunea, ateragunea'-edo dela, esertzeko eta muturkatzeko leku aproposak maiz, porlanez, harriz edo beste edozein materialez eginak, ez zurez edo egurrez ezinbestean.

2.1.28. Trankazarra

Lekukotasunak: *«una pieça en tranq[u]a çarra»*, *«En Tranq[u]a çarra una pieça»*, *«una pieça en Tranq[u]a çarra de la Abbadia»*, *«Jt[e]m una pieça de palaciana en tranq[u]a çarra* [...] *af[rontant]e con pieça de la Abbadia»*.

Morfologiari doakionez, *La Tranca* ez bezala, hau beti erdal artikulurik gabe edireten dugu, euskarazkoa baitu, eduki ere. Osagaiak, bistan da, *tranka* 'haga'-edo (ikus aitzineko sarrera), *zar* 'zaharra' izenondoa eta *-a* artikulua dira.

2.1.29. Uarte

Lekukotasunak: *«una vyña en huart af[rontant]e con pieça de Saluador Ederra y otra vyña en erteco erregua af[rontant]e con vyña de su madre»*, *«Jt[e]m una vyña en huart af[rontant]e con oljuar»*, *«Jt[e]m una pieça en huarte»*.

XVI-XVIII. gizaldietan ere azaltzen da: *«una viña situada en el termino de Guarte* [...] *que afrenta* [...] *con* [...] *açequia de rregadio de la d[i]c[h]a villa»* (1611, Kaparrosoko pr., A. Napal, 19. k.), *«otra* [pieza] *en el termino de Huarte teniente a olibares»* (1798, Kasedako pr., L. Escudero, 36. k.).

Jakina den bezala, *Uharte* toponimoak bi ubide batzen diren guneak izendatu ohi ditu. Adibidez, Iruñetik hurbil den *Uharte* udalerrian *Urbi* eta *Arga* ugaldeak batzen dira, eta herriari hurran, Atarrabian, Arga eta Ultzama elkartzen dira. Nafarroa Behereko Uhartehiritik gertu, bestalde, Biduzek eta Izpaxurik egiten dute bat. Beraz, uste izatekoa da Murilloko *Uarte* ere bi ubideren arteko elkargunean zatekeela, edo hortik hurbil zegoela. Ditugun lekukotasunetan ikus daitekeen moduan, *Erteko erregua*-tik gertu zegoen eta, beraz, badaiteke honen eta beste hodi edo erregu baten artean, edo haren eta Aragoa ugaldearen artean, egotea.

Ikus daitekeen gisa, bukaerako *-e* galdu duen aldaera opatzen dugu hemen ia beti, nahiz gero *Uartebidea* eta *Uarteko hodia* izan. Akabailako *-e* erortzea ohikoa izan da Nafarroako erdaran garai batean (gaztelaniaz ere bai), eta koadernotto honetan bertan *Delant la Rueda*, *Delant Sant Miguel* eta *Malpuent* ditugu, argibidez. *Cfr.* Zuberoako idazle eta historialariaren *Oihenart* deitura, honen karietara, edo Nafarroa Behereko *Uharte Garazi* eta *Uhartehiri* herri izenak, hizkuntza ofizialean *Uhart-Cize* eta *Uhart-Mixe* deituak. Olivako dokumentazioan, Iruñetik hurbil den herria aipatu nahi delarik, *«en la villa de Huart e en sus terminos»* edireten dugu (1311, Munita, 1984: 109).

Ez dut puntu hau bukatu nahi Santakaran, Murillo ondoan beraz, *Uartetxipia* lekukotzen dela adierazi gabe: *«Yten otra pieça en Guarte chipia afrontada a* [...] *vocal de la car[r]era Veyre»* (1640, Kaparrosoko pr., Fco. Esparza, 38. k.).

2.1.30. Uartebidea (= la carrera de Uart)

Lekukotasunak: *«una pieça en huartevidea»*, *«Jt[e]m una pieça en huarte videa»*, *«una pieça en huarte videa* (*huarte videya?*) *aft[e] con pieça de p^{o} lasterr y valdes»*, *«... af[rontant]e con la carrera de huart»*, *«Jt[e]m una vyña en huarte videa af[rontant]e con el camj[n]o»*, *«Jt[e]m una pieça en huarte vide af[rontant]e con pieça doliua»*.

Osagaiak *Uarte* toponimoa, *bide* izen arrunta eta *-a* artikulua dira. Hondarreko hau ez da testigantza guztietan azaltzen. Aztergai dugun kaierttoan leku izenak usaian itzultzen ez badira ere, garbi dago behin edo beste agertzen den *la carrera de huart* eskuarki kausitzen dugun *Uartebidea* bera dela.

2.1.31. Uarteko hodia

Lekukotasunak: *«una pieça en huarteco odia»*, *«Jt[e]m una pieça en [h]uarteco odia af[rontant]e con vyña de p[edro] arceyz»*, *«Jt[e]m una pieça de paſcoala en huarteco odia af[rontant]e con pieça de Saluador cord[er]o»*.

Osagaiak *Uarte* toponimoa, leku genitiboaren *-ko* hondarkia, *hodi* izena eta *-a* artikulua ditugu. Ikus *Baratzetako hodia*, *Uarte* eta *Uartebidea* sarreretan erran duguna.

2.1.32. Vergal, el

Lekukotasunak: *«Jt[e]m otra pieça en huarteco odia afr[ontant]e con el vergal»*, *«Jt[e]m una pieça en tranqª çarra af[rontant]e al vergal»*, *«Jt[e]m un oljuar en eucea af[rontant]e con el vergal»*.

Hau euskarazko *Zumadia*, *Zumaduia*-ren erdal baliokidea ohi da hanhemen, hots, zumea, zumitza edo zumarika egoten den lekua adierazten du, erreka baten bazterrekoa. Zaren hala zen behiala (Salaberri, 1994: 996, 998); Eslaban *Zumaduieta* genuen (*ibid.*, 308). Dena dela, ez dakit *el vergal* hau toponimotzat har daitekeen edo izen arrunta besterik ez den.

2.2. Pertsona izenak

2.2.1. Izen neutroak

Alvaro: Aluaro Valdes.

Doinoria: Doynorja.

Estebania, *Estabania: Eſtauanja*, *Steuanja*, *ſteuanja Picota.*

Garzia: G[arçia] dochagauja, *G[arçia] Luçea*, *G[arçia] Meje*, *G[arçia] Ortiz*, *G[arçia] Çalduna.*

Gil: Gil Lopiz.

Joan: Joh[a]n Fortuyño, *Johan Lopiz.*

Jurdana: Jurdana.

Katalin, *Katalina*, *Katelin: Cataljna Cortes*, *Cataljn Valdes*, *Cateljn Valdes.*

Lope: Lope fijo de G[arçia] Lopiz, *Lope G[arçi]a.*

Maria: M[aria] Çalduna, *M[aria] Landa*, *M[ari]a Landaçu*, *M[ari]a Picota.*

Martín: M[ar]tin dartieda, *M[ar]tin de Gaillipienço*, *M[ar]ti[n] Ferra[n]diz*, *M[art]in Joh[a]njz*, *M[artin] M[ar]zeil*, *M[art]in Ynjgyz.*

Miguel: Mjguel del Portal, *M[igue]l Dolç*, *Migu[e]l M[artin]iz*, *Miguel Meje*, *Miguel P[er]iz*, *Miguel Rodero.*

Palaciana: Palaciana. Ciérbidek ere (1970: 288) biltzen du. Nik ez dakit xuxen ponte izentzat hartu beharra den edo bakarrik 'jauregikoa' adierazi nahi duen, baina azken hau balitz *la* artikulua izanen genuke segur aski. *Cfr.*, honen kari, Carrascok (1973: 448) dakarren Murilloko *Garcia del Palatio* antroponimoa.

Pascoal, *Pascoala*, *Pascuala: Paſcoal de Caparroso*, *Paſcoal Garçia*, *Paſcoal Garjçu*, *Paſcoal Landaçu*, *Paſcoala Valdes*, *Pasſcuala la de aluaro.*

Pedro, *Per: P[e(d)r]o Arceyz Pan[i]agoa*, *P[e(d)r]o Lore[n]z*, *P[e]r Arceyz Paniagoa.*

Rumea: Rumea, *«Rumea muge[r] de Joh[a]n Fortuyño»*.

Salvador: Saluador Cordero, *Saluador Meje*, *Saluador Yñesa*.

Sancha, *Sancho: Sancha del Portal*, *ſancha M[ar]tin*, *Sancha Valdes*, *Sa[nch]o dartieda*, *Sancho Laſterr*. Maria Pikotaren alabak ere *Santxa* izena zuen: *«Sancha fija de Mª picota»*.

Semeno: ſeme[n][o] Achoq[u]o, *Seme[n]o Gorri*, *Seme[n]o Laſterr*, *Seme[no] de Meljda*, *Seme[no] de Mellida*. *Xemen(o)* ere aurkitzen dugu (ikus ondoko puntua).

Tomás: Tomas.

2.2.2. Hipokoristikoak

Hurrengo hauek ageri dira koadernoan:

Bartalot: Bartalot.

Doinorieta: Doynorjeta.

Graxito: Grachito (*Grachico?*).

Lorentxa: Lorencha.

Matxiko: Machico.

Migelet: Migu[e]let.

Paskoalet: Paſcoalet, *Paſcoalet Valdes*.

Santxako edo *Santxato: Sanchaco* edo *Sanchato*.

Xemen(o): Xemen de Mellida, *Xemeno de Mellida*; *X[emen]o Gorri*, *Xeme[no] M[artin]iz*.

Izkirionea ez da beti osotara argia, eta kasuren batean, *Santxako* eta *Santxato*-renean erraterako, bata zein bestea irakur daiteke. Egia da hemendik kanpo lehena lekukotu dugula, eta ez bigarrena (Salaberri, 2009: 155, 204) eta, hortaz, zuhurrago da *Santxako* dagoela kontu egitea. *Graxiko* eta *Graxito* ere, bata den ala bestea, ez dut erraten ahal; oraingoan, ordea, biak azaltzen dira beste dokumentu batzuetan (*ibid*., 149, 200).

Ikus daitekeenez, denek (edo gehienek bederik, ez baita erabat segurua *Xemen(o)*-n *-no* berrekailua dugula) morfologia eratorbidea erakusten dute, hots, atzizkien erabilera: *-et*, *-eta*, *-ko*, *-ot*, *-to*. Batzuek, gainera, palatalizazio adierazkorra aurkezten dute: *Gra**x**ito*, *Loren**tx**a*, *Ma**tx**iko*-k eta menturaz baita *Xemen(o)*-k ere. Gai honetaz Salaberri eta Salaberri (2014) ikus daiteke.

2.2.3. Identifikagarriak[2]

a) Lehen izenetikakoak

Fortuño: Joh[a]n Fortuyño.

Garzia: Lope G[arçia], *Paſcoal Garçia*.

Iñesa (*Inesa* inoiz?): *Saluador Yñesa*.

Loren(t)z: P[edr]o Lorenz.

Martín: G[arçia] M[ar]tin, *ſancha M[ar]tin*.

Marzeil: M[ar]tin M[ar]zeil. Iduri du *Marzel* (*Guillem marzel*, Ciérbide, 1970: 286) pertsona izenaren aldaera dela. Orain *Marzell* idatziko genukeena adierazi nahi izan dela ematen du.

Miguel: P[edr]o Mjguel.

[2] Hitz hau oraingo «deitura» edo «abizena»-ren pareko adieraz darabilt lan honetan. Aldea da XIV. mendean onimo hauek artean ihartu eta erabat finkatu gabe zeudela, eta ez zirela, beraz, egungo deituren guztizko baliokideak.

b) Patronimikoak

Ikusten den bezala, ageri diren patronimiko guztiek *-iz* bukaera dute, beharbada *-itz* irakurri behar dena; ez dugu, ordea, horren segurantziarik. Akabaila hori ez duen bakarra *Diez* da, baina hau berezia da, zuzenean *Didaci*-tik atera izanen baita: *Didaci* > **Didatze* > *Dia(t)z* > *Die(t)z*. Patronimikoen bilakaeraz ikus Salaberri (2003 eta 2013).

Patronimiko hauek ditugu:

Die(t)z: G[arçia] Diez.

Ferrandi(t)z: M[ar]ti[n] Ferra[n]diz, *M[arti]n Ferra[n]diz.* Beste *Ferrandiz* bat ere ageri da, baina hau Arradako alkatea zen: «*Mi[guel] Ferra[n]diz alcalde de Rada*».

Ínigui(t)z, *Íñigui(t)z: M[art]in Ynjgyz*, *M[ar]tin Yñjguyz.*

Joani(t)z: M[art]in Joh[a]njz.

Lopi(t)z: Gil Lopiz, *Johan Lopiz*, *Sancha Lopiz.*

Martini(t)z: Migu[e]l M[artin]iz, *Xeme[no] M[artin]iz.*

Peri(t)z: Miguel P[er]iz.

Orti(t)z: G[arçia] Ortiz.

c) Patronimikoa + toponimoa

Die(t)z Valdés: G[arçia] Diez Valdes.

Joani(t)z Valdés: M[arti]n Joh[a]njz Valdes.

Lopi(t)z de Miranda: Joh[a]n Lopiz de Miranda.

Lopi(t)z Valdés: Sancha Lopiz Valdes.

d) Patronimikoa + izengoitia

Arzei(t)z Luzea: P[e(d)r]o Arçeyz Luçea.

Arzei(t)z Paneagoa: P[e(d)r]o Arceyz Pan[e]agoa, *P[er] Arceyz Pa[n]eagoa.* Ciérbidek (1970: 286) *Julian Lopez pan de trigo* dakar.

e) Toponimoak

Aibar: M[ari]a dayuarr, *P[e(d)r]o Ayuar.*

Artieda: G[arçi]a dartieda, *M[ar]tin dartieda*, *Sa[nc]ho dartieda.*

Caparroso: Paſcoal de Caparroso.

Cortes: Cataljna Cortes.

Gallipienzo: M[ar]tin de Gaillipienço.

Landa: M[ari]a Landa.

Mélida, Méllida: Seme[no] de Meljda, *Seme[no] de Mellida*, *Xemen de Mellida*, *Xemeno de Mellida.*

Otsagabia: G[arçi]a dochagauja.

Portal, el: Mjguel del Portal, *Sancha del Portal.*

Valdés: Aluaro Valdes; *Cateljn Valdes*, *Cataljn Valdes*; *Paſcoala Valdes*, *Paſcoalet Valdes.* García Ariasek (2005: 32) honela dio: «**Valdés** es una formación debida a *Val de Ese* 'el valle del río', composición que, presente también en la toponimia menor de Piloña, deberemos considerar en el origen del asturianísimo apellido *Valdés*. Para *Ese* se sospecha un inicio prerromano con el significado de 'corriente de agua', 'río'».

f) Herritarren izena

Leozano: G[arçia] Leoçano. Frankotan ateratzen da, era argian. Iduri du euskarazko *leoztarra*-ren moduko baten itzulpena-edo dela, hots, Orbaibarko *Leotz* herrixkan sortutako norbaiten identifikatzailea dela (*cfr.* gorago aipatu dugun Uxueko egungo *galipienzano*).

g) Lanbidearekin lotuak

Meje: G[arçia] Meje, *Miguel Meje*, *Saluador Meje.* Hau katalaneko oraingo *metge* 'medikua, osagilea' hitzarekin lotua dela dirudi. Okzitanierari zor zaioke, baina ez dakit seguru. *Cfr. Dolç* eta *Ros*.

Rodero: Miguel Rodero. Ezaguna den bezala, 'errotaria', 'eiherazaina' zen *rodero*. *Cfr. Rueda*-n eta *Rueda Viella*-n errandakoa.

h) Izengoiti erako identifikagarriak

Biper: Joh[a]n biperr alcalde. Gibelean beti «alcalde» duela azaltzen da, alkatea zelako, hain segur ere. Carrascoren lanean (1973: 448) gehigarri hori gabe ageri da. Ez dago dudarik oraingo *biper*, *piper* barazki izena dugula hau. *Cfr.* Uxueko egungo *Pipiratu* aurkintza izena, *Biperatu* lekukotua.

Bueno: don Bueno. Faltzesen, garai bertsuan (1350ean), *Johan Bono* bizi zen (Carrasco, 1973: 315). *Bon*, *Bona*, *Bono*, *Bonellus*, *Bonet*, *Boneto* eta beste ere ongi dokumentaturik daude, baita *don Bon Ome* ere (Zangoza?, 1222, Goñi, 1997: 533). *Boneta* deitura da egun, Azkoienen. Euskaraz *Emazteona* (1189, XIII. m., García Larragueta, 1957: 61, 105), eta *Orti Ona, Sancho Ona* (Eraul, 1255; Jimeno, 1970: 232) ditugu. Uxuen *Lope Ongaya* zegoen 1350ean (Carrasco, 1973: 449), egungo *Ongai* deituradunen arbasoa, nonbait.

Cordero, *Cordera: Paſcoala Cord[er]a*, *Saluador Cordero.* Ciérbidek (1970: 286, 288) *Sancio cordero* (1157) eta *Elvira la cordera* (1317) dakartza, eta badirudi *bildots*-en baliokidea dela, etorkiz; *cfr. «Açach, fill de Bildocha»* (Tuterako judua, 1259, Carrasco, 1999: 68).

Dol(t)z: M[igue]l Dolç. Dolça emazteki izena zen 1262an (Ciérbide, 1970: 288). Hemen ere (ikus *Meje*) katalaneko *dolç* 'goxoa' dagoela dirudi, baina segur aski okzitaniera izanen da. Palayk (1991: 356) egungo hizkerako *dous* (m.), *douce* (f.) dakar.

Garizu: M[ari]a Gariçu, *Paſcoal Garjçu.* Honek 'gari ugaritasuna', 'gari franko duena' edo erran nahi duke. Osagai argiak *gari* labore izena eta *-zu* ugaritasunezko atzizkia dira. *Cfr. Peidro Garidario* (Zufia aldean, 1240, García Larragueta, 1957: 280), *Pero Periz Garidario* (Etxarrentxulo, 1366, Carrasco, 1973: 590). Iduri du *Trigoso*-ren baliokidea dela: *Martin Trigoso* (Azkoien, 1366, Carrasco, 1973: 320), *Martin el trigosso* (Tutera, *ibid*., 442).

Gorri: P[e(d)r]o Gorri, *Seme[n]o Gorri*, *X[emen]o Gorri.* Biziki ugaria da izenondo hau gure artean, gaur egun deitura gisa (*Gorri*, *Gorria*, *Gorritxo*...), eta antzina izengoiti gisa. Lehen aldiz, dakigula, Artaxoan ageri da, 1120. urtean: *Sanxo Gorrie t[estis]* (Jimeno, 1968: 195).

Landazu: M[ari]a Landaçu, *Paſcoal Landaçu.* Ongi irakurria badago, gorago ikusi dugun *Garizu*-ren parekoa izan liteke, hots, oinarrian *landa* nekazalgoko hitza izanen luke eta bukaeran *-zu* ugaritasunezko atzizkia. Bitxikara da, alabaina.

Laster: P[e(d)r]o Laſterr, *P[e(d)r]o Laſterr y Valdes*, *Sancho Laſterr*, *Seme[n]o Laſterr.* Aski izengoiti arrunta da, antzinadanik: *Orti Delia laster* (Elia? 1217, Goñi, 1997: 515), *Petri Laster* (Arizkun, 1366, Carrasco, 1973: 531). *Lasterco* eta *Lasterra* ere ageri dira dokumentazioan.

Luzea: G[arçi]a Luçea. Aitzinekoa bezala, aspalditik erabiltzen dugu goitizen hau euskaldunok. Lehen testigantza, dakidanez, *Enequo Luçea* da (Sagues, 1168, García Larragueta, 1957: 39).

Picota: M[ari]a Picota, *ſteuanja Picota.* Erdarazko *picota* izen arrunta izan daiteke, euskaraz *belorit* deitu izan dena, baina ez dakit seguru.

Ros: Mj[gue]l Ros. Deitura hau oraino ere ohikoa da Nafarroan, Lizarran eta Iruñean gutxieneko kontuan, eta aski zaharra da gure artean (*Domingo Ros*, 1226, Goñi, 1997: 554). Okzitanieran duke etorkia; euskarazko *Gorri*-ren baliokidea dela dirudi, hots, ilez (edo larruz) gorri edo gorraila dena adierazten duela. Palayk (1991: 865) *ros*, *arròs* 'rosée' dakar.

Zalduna: G[arçia] Çalduna, *«M[ari]a Çalduna fija de G[arçi]a Çalduna»*. Hitz hau ohikoa da egungo euskaran eta orobat onomastika zaharrean: *Lope Salduna* (Artaxoa, 1087-1103, Jimeno, 1968: 161), *Lope Zalduna* (1119, *ibid.*, 191). Iduri luke *zaldun* 'kaparea' ez ezik 'zaldiz ibiltzen dena' ere badela: honi zor zaioke Oteitza Iguzkitzaibarko *Zaldunbidea* (*«Mas ottra* [pieza] *en el ter[mi]no de Zaldunbidia que afrontta a* [...] *camino R[ea]l que ban los de Allo â Pamp[lo]na»*, 1751, Oteitzako pr., J. M. Gabiria, 1. k.) eta Tabarkoa (1826, Oibarko pr., A. Ruiz, 101. k.).

i) Izengoitia eta hipokoristikoa aldi berean

Atxoko: P[e(d)r]o Achoq[u]o, *ſeme[n][o] Achoq[u]o.* Badirudi *atso* 'emakume zaharra' izen arruntaren hipokoristikoa dugula hau, txistukari sabaikaria eta *-ko* atzizkia erakusten duena, egun *Atxoko* idatziko genukeena. Emazteki baten identifikagarritzat aurkitzea espero genuen, baina gizonen kasuan ere erabil daiteke, bistan da. *Cfr. Xarra*, *Zaharra - Zarra*, *Zarkin*, *Zarko* eta beste.

ONDORIOAK

1. XIV. mendeko kaierttoak dakartzan euskal toponimoak aski gardenak dira eta ia desitxuratu gabe daude. Honek euskara bizirik zen denboran izkiriatu zirela idarokitzen du, hots, euskara XIV. gizaldiaren bigarren erdian Murillon artean onik zegoela. Neronek (Salaberri, 1994: 1092) XIII. mendean ezarri nuen euskararen muga Murillon eta Zarrakaztelun, baina orain, lan honetan erabili ditudan datuak aintzat harturik, muga hori XIV. mendera ere eraman daitekeela uste dut, Murilloren kasuan behintzat.

Zarrakaztelu Aragoiri datxekiola dago eta Tuterako merindadean sartua da, baina XVI. mendean (Ciérbide eta Herrero, 1985: 59), artean ere, *Burgariet* (*Burgarieta* itxuraz < *burgari* + *-eta*; *cfr.* Ziraukiko 1366ko *Johan Burgari*, Carrasco, 1973: 591) eta *Chindilamendia* (< *txindila* 'dilista' eta *mendia*; egungo *Txirimendia* bera?) bezalako toponimoak zeuden.

Ciérbidek eta Herrerok (1985: 5) «goiz erromanizatutako alderdia» dela diote. Aztertzen dituzten lau herriak (Murillo, Zarrakaztelu, Santakara, Mélida), ordea, zaku berean sartzen dituzte, ez dute bereizkuntzarik egiten elkarren artean, eta ez dute datarik aipatzen. Hemen aurkeztu ditugun datuek, aitzitik, garbi uzten dute Murilloren «erromanizatzea» ez zela hain goiz burutu, Erdi Aroaren bukaeran gauzatu zatekeela, eta segur aski beste hainbeste erran liteke Zarrakazteluz (ikus Salaberri, 1994: 1092). Melidan oraindik *Ordokia* dugu, eta XVII. mendean *Ordokilanda* ere lekukotzen da (*Ordoquilanda* izkiriatua, 1652, Kaparrosoko pr., Fco. Esparza, 45. k.), toponimo pare bat baizik ez aipatzeagatik. Beraz, uste izatekoa da herri honetan edo Santakaran Murillokoaren antzeko beste kaier bat kausi bageneza hain segur ustekabeko bat baino gehiago izanen genituzkeela.

Guztiaz ere, Ciérbide eta Herrero erromanizazioaz ez, baizik erromatarkuntzaz ari zirela ematen du. Badakigu, alabaina, azken hori eta latinizazioa ez zirela gauza

bera, hark ez zuela beti latintzea eta euskararen desagerpena berekin ekarri. Konparazione, Eslaban Santa Krizko erromatar garaiko herrixka dugu, baina badakigu, dokumentuen bitartez jakin ere, XVIII. gizaldian herria artean euskalduna zela (Salaberri, 1994: 1096-1097), eta egoera iruditsua dugu Lergan. Egun gai hauetan Menéndez Pidalen *Toponimia Prerrománica Hispana* lana oinarritzat hartzea ez da, Euskal Herriari doakionez, onartzeko modukoa, nire irudiz. Nolanahi dela, Ciérbidek eta Herrerok lan berean aurreraxeago (1986: 150) euskararen presentzia, alderdi honetan, XIV-XVI mendeak arte luzatzen dute, Lekuonaren mapan oinarri harturik nonbait, baina «desgogara» bezala, hondarreko hau nire irudipen hutsa izan daitekeen arren.

Murilloko koadernotxora itzuliz, egia da badirela erdarazko toponimoak eta antroponimoak, eta egia da, berebat, ez dakigula eskribauak zer heinetan itzuli zituen esku artean ibili zituen onimoak, baina euskararen hotsak gordetzea ([c] adibidez), eta *Garipentzuko zaldua*-ren moduko toponimoek beren gardentasun osoa atxikitzea horren alde mintzo dira. Horren alde hitz egiten du, halaber, euskal hipokoristiko eta izengoiti garbi batzuk aurkitzeak, baina hauek «ibilzaleagoak» izaten dira, toponimoak baino.

Bukaeran *-s* duten *-eta*-dun toponimoen lekukotasun bakanek, bestalde, XIV. mendearen bigarren erdian erdara sartzen hasia zela idarokitzen digute, oraingo euskal toponimoen joera zein eta nolakoa den jakinda. Hala ere, toki izenaren «pluraltasuna» azpimarratu nahia zegoela ezin da, uste dut, guztiz baztertu. *Cfr.* Melidako *Udarecetas* (1319), *Hudareçetas* (1538) (Ciérbide eta Herrero, 1986: 141), hots, *Udaretzeta* + *-s*. Ediren ditugun ponte izenek ere erdararen presentzia erakusten dute, baina hemen, berriz, eremu irristakorrean sartzen gara.

2. Toponimoek dituzten euskal soinuak ongi ematen saiatzen da eskribaua, guztiz sistematikoa ez izanagatik. Adibidez, egun <tz> idazten duguna emateko <çç>, edo <cc> izkiriatzen du ardura, <ç> eta <c> ere ohikoak diren arren, horren irudikatzeko. Orobat, erromantzez usaiakoa ez den euskararen hitz bukaerako dardarkari azkarra <rr> idazten du.

3. XIV. gizaldiko izenen gardentasunak XVI eta XVII. mendeetatik aitzina opatzen ditugunak egokiro azaltzeko aukera ematen digu. Erraterako, orain badakigu *La Gazpia*-ren oinarrian ez dugula 1593ko *Legazpia*, XIV. mendeko *Legazpea* baizik, edo *Marizarza*-ren etimoa *Baratzezarreta* dela.

4. Ildo beretik, pentsatzekoa da garai bereko lekuko gehiago bagenitu Murilloko beste euskal toponimoak zehaztasun handiagoz azal genitzakeela: *Aldaionda* (*aldai* + *ondoa?*), *Andabarna*, *Laprimendia* (*Laprimicia* egun; *mendia*), *Larrega* (*Larrageta* Uxuen, *Larrage* XIII. mendean), *Luzazu*, *Peruzuria* (antrotoponimoa, itxuraz) eta *Urtanda*, toki izen bizien artean, eta beste hauek lekutu direnen artean: *Andrenobia* (*hobia?*, *hodia?*), *Andurkua* (*andurra?*), *Estigarra* (*astigarra*), *Garzilimunio* (antrotoponimoa), *Jubidea* (*Uxu(e)bidea*), *Leskarbia* (*-bea?*), *Mendilatza* (*mendi* + *latza?*), *Mugarra* (Zarrakaztelun *Mugarria* oraino bizirik dago), *Mungalate*.

5. Eskribauak leku genitiboaren hondarkiaren ondotik heldu den zati(generiko)a ongi bereizten du, eta egun bezala aparte izkiriatzen du: *erteco erregua*, *huarteco odia*, *varacetaco odia*... Leku genitiborik ez den kasuetan bi osagaiak batean nahiz bereiz ematen ditu, arau argirik gabe, baita toponimo bera denean ere.

6. Murilloko euskara inguruko herrietakoetatik ez zen asko hastantzen, toponimiaren bidez ikus daitekeen neurrian: *erte* nafarra dugu *Erteko erre-*

gua-n (baina *Uarte*, ez **Uerte*), han-hemen lekukotzen den *erregu* hidronimoa, *al(t)zin*, *areatzea*, *baratze*, *berri*, *bide*, *eder*, *esate* (eta *ate*, beraz), *gorri*, *landa* (erdaraz ere ibiltzen da), *laster*, *latz (?)*, *mendi*, *hodi*, *zaldu*, *za[ha]r*. Murillon ez, baina ondoko Zarrakaztelun *Larrate* dugu orain eta *Larrat*, *Arrateburua* 1319an (Munita, 1984: 140) eta, hortaz, *buru* ere ezaguna zela garbi dago. Ordea, goitiko herrietan dugun *euntze* hedatuaren partez *eutze* dago Murillon, euskararen muga historikoaren beste alderdi batean, Estellerrian, *eutza*, *euntza*-rekin batean azaltzen den forma bera.

7. Interesgarria da hidronimoetan dagoen hiztegia ondoko herrietakoarekin alderatzea eta osatzea: Aragoi ugaldea, Nafarroako alderdi zabal batean *Aragoa* deitu izan dena, *Urandia* zen Galipentzun, *Urandibidea* toponimoan ikus daitekeen moduan (Salaberri, 1994: 475). Honetaz landara, *erreka* batzuk baditugu goiko herrietan, Ageza (*Errekandia*), Eslaba (*Trabeserreka*), Ezporogi (*Errekattoa*), Galipentzu (*Errekagaitza*), Lerga (*Urretako erreka*) eta Uxuen (*Errekazarra*), baina ez dugu alerik opatu Murillon. Ñabardura berezia zukeen *baserreka* ere bazen, gorago (*Baserrekandia*, Ezporogi).

Aipatu bezala, *erregu* ere bazegoen: *Erregumaiorea* dugu Zaren eta *Erteko erregua* genuen Murillon, besteak beste. Hemen *hodia*, ikusi dugun gisan, behin baino gehiagotan azaltzen da, eta Uxuen eta Eslaban ere bazen. *Azekia* eta *zekia*, berriz, Ezporogiko *Azekialdea*-n eta Galipentzuko *Zekiazarra* toponimoetan baizik ez dut aurkitu.

Horretaz gainera, erdarazko *la jasa* azaltzen da testuan, hots *la yasa* 'baserreka' (ikus Nieto Ballester, 2005). Gaur egun honen eratorria datekeen *jasera* "erreken gainezkaldiei aurre egiteko murruak" oraino bizirik dago Murilloko toponimian (*NTEM* 41: 111). Iradoki den bezala, Murillon *erregu* izan liteke *yasa*-ren euskal ordaina (ikus *Erteko erregua*, gorago).

8. Murilloko euskal hizkerak zituen ezaugarrien gainean gauza handirik ezin erran dezakegu, baina *Baratzealzinea* eta *Buztina* ikusirik, bokal palatalaren ondoko sudurkaria ez zela bustitzen pentsatu beharko dugu. Besterik da *i* bokal osoa ez, baizik bokalerdia zenean zer gertatzen zen zehaztea: Murillon ez dugu testigantzarik, eta Zarrakaztelun bai Munitak (1984: 140) eta bai Ciérbide-Herrerok (1985: 58) *Andrenita la Rayna* irakurri duten leku izena besterik ez daukagu.

Hondarreko toponimo horretaz kestione, euskal onomastikaren ikuspuntutik egokiagoa litzateke *Andreuita la Rayna* irakurtzea, hots, *Andrebita* gineikonimoa (*cfr.* Adoaingo 1033 inguruko *Andrebita*, Martín Duque, 1983: 56) eta *larraina* izen arrunta dituen toponimoa ikustea. Zernahi ere den, ez dugu deus handirik aurreratzen, sudurkari sabaikaria emateko ere <yn> ibili izan delako.

9. Aspirazioa galdua zegokeen Murillon XIV. mendearen bigarren erdirako. Honela idarokitzen du *Trankazarra* toponimoaren bigarren osagaiak *h*-rik ez erakusteak. Are gehiago dena, irudi du bokal berdinen batzea (*-aha-* > *-aa-* > *-a-*) orduko bururatua zela, ez baita horren aztarnarik batere, ibili ditugun datuetan. Ildo beretik, *hodia* generikoak ez dauka sekula *h*-rik hastapenean, eta *Uarte* toponimoak eta eratorriek ez dute behin ere tarteko *-h*-rik. Bakarrik, eta erran den bezala, hasieran dute (*Huart*), baina hori ez da hasperenaren erakuskaria, hasmentako *u-* hori bokala zela (edo, zehazkiago, kontsonantea ez zela) adierazteko moldea baizik.

Nolanahiko gisan, badirudi ehun urte lehenago hasperena bazela Zarrakazteluko *Zalduzaharra* toponimoan (ikus gorago) eta, beraz, soinu horren lekutze prozesuan gure kaierttoa idatzi zen garaia (XIV. mendearen bigarren erdia) litzateke *ante quem* data, alegia, 1269-1369 bitartean galduko zen. Ditugun datuak, halarik ere, biziki urriak dira.

10. Bukatzeko, kaierreko erdarak aurkezten dituen bereizgarri batzuk nabarmenduko ditut:

10.1. *-lte*, *-rte* bukaeretako *e* bokala erortzen da: *delante* > *delant*, *Huarte* > *Huart*, *Malpuente* > *Malpuent*. Zarrakazteluko egungo *Larrate*, ikusi dugun moduan, *Larrat* idatzi zuten 1319an (Munita, 1984: 138, 140) eta, beraz, irudi luke *-e* erortzeko *-te* egotea aski zela. Hori erdaraz gertatzen da, ez euskaraz (*cfr.* Zarrakazteluko *Arrateburua* [*ibid.*, 140] eta Murilloko *Uartebidea*).

10.2. Erdarazko *de* preposizioaren *e* bokala ere lekutzen da, hurrengo hitza bokalez hasten denean, eta kontsonantea izenari lotzen: *de Alvaro* > *dalvaro*, *de Artieda* > *dartieda*, *de Ochagauia* > *dochagauia*, *de Oliua* ('del monasterio de La Oliva') > *doliua*. Ez da, alabaina, erabateko araua: *«en el parral de Aluaro»*.

10.3. Erdarazko artikulu definitu maskulinoa ere ondoko izenari batzen zaio, kasu batean: *en lolivar* 'en el olivar', 'olibadian'.

10.4. Hastapeneko ezpain-horzkaria atxikitzen da: *fija*, *fijos*, *fillos*.

10.5. Albokari sabaikaria bere hola gordetzen da: *Los Cascallares*, *La Rueda Viella*, *malluelo* 'majuelo'. Batzuetan, ordea, aldaera zaharra eboluzionatuarekin batean daukagu: *fillos*, *fijos*. *Mujer* izena berriz, ez dugu sekula <ll>-rekin idatzirik aurkitzen, eskuarki *muger* dugu, ardura laburturik.

10.6. Hondarreko mendeetan ohikoak ez diren aldaerak edireten ditugu: *do* 'donde' erlatiboa, *meata(t)* 'mitad', 'erdia'.

10.7. Azkenik, *çarrado* 'cerrado', 'itxitua', 'zerrandegia' forma asimilatua besterik ez dago koadernoan.



ERREFERENTZIAK

Agud, M. eta Mitxelena, K., 1958, *N. Landuchio. Dictionarium Linguae Cantabricae (1562)*, Donostia, Gipuzkoako Aldundia, Julio Urkixo Mintegiaren argitalpenak.

Barandiaran, J. M., 1974, «Materiales para un estudio del Pueblo Vasco en Liguinaga», 154-244, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca, «Obras Completas» 4. Lan hau lehenago *Ikuska*-n argitaratua zen, 4-13 (1947-1948), 2-6 (1949) eta 1-3 (1950) zenbakietan.

Carrasco, J., 1973, *La Población de Navarra en el siglo xiv*, Iruñea, Universidad de Navarra.

— (zuz.), 1990etik aitzina, *Acta Vectigalia Regni Navarrae: documentos financieros para el estudio de la Hacienda Real de Navarra. Serie I, Comptos reales, registros*, Iruñea, Nafarroako Gobernua.

Ciérbide, R., 1970, «El Romance Navarro Antiguo (resumen). Onomástica medieval navarra (Siglos x al xv. Estudio realizado sobre documentos originales)», *FLV,* 6, 269-370.

— eta Herrero, G., 1985, «Toponimia de la comarca de la Oliva», *CEEN,* 46, 5-85.

— 1986, «Toponimia de la comarca de la Oliva. ii parte», *CEEN,* 47, 91-164.

Felones, R., 1982, «Contribución al estudio de la iglesia navarra del siglo xiii: el libro del rediezmo de 1268 (ii). Transcripción e índices», *PV,* 166/167, 623-713.

García Arias, X. Ll., 2005, *Toponimia asturiana. El porqué de los nombres de nuestros pueblos*, Oviedo, La Nueva España.

García Larragueta, S., 1957, *El Gran Priorado de la Orden de San Juan de Jerusalén. Siglos xii-xiii*, Iruñea, Nafarroako Foru Aldundia, Institución Príncipe de Viana.

Goñi, J., 1997, *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona. 829-1243*, Iruñea, Nafarroako Gobernua.

Iribarren, J. M., 1984, *Vocabulario navarro*, Iruñea, Nafarroako Foru Erkidegoa, Hezkuntza eta Kultura Saila, Institución Príncipe de Viana. R. Ollaquindiak prestatu bigarren argitaraldi handitua.

Jimeno Jurio, J. M., 1968, *Documentos Medievales Artajonenses (1070-1312)*, Iruñea, Nafarroako Foru Aldundia, Institución Príncipe de Viana.

— 1970, «El libro rubro de Iranzu», *PV,* 120-121, 221-269.

— (zuz.), 1997, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra. Caparroso - Carcastillo - Mélida - Murillo el Cuende - Murillo el Fruto - Santacara* (*NTEM*), Iruñea, Nafarroako Gobernua, 41. zk.

Jimeno Jurio, J. M. eta Salaberri, P., 1998, *Artajona. Toponimia Vasca / Artaxoa. Euskal Toponimia*, Lizarra, Altaffaylla Kultur Taldea - Nafarroako Gobernua - Sociedad de Corralizas y Electra de Artajona.

Kamino, P. eta Salaberri, P., 2007, *Luzaideko Euskararen Hiztegia*, Iruñea - Bilbo, Nafarroako Gobernua - Euskaltzaindia, «Mendaur bilduma» 3.

Martín Duque, A., 1983, *Documentación Medieval de Leire (siglos ix a xii)*, Iruñea, Nafarroako Foru Aldundia, Institución Príncipe de Viana.

Mitxelena, K., 1977, *Fonética Histórica Vasca*, Donostia, Julio Urkixo Mintegia - Gipuzkoako Aldundia, bigarren argitaraldia.

— 1987-2005, *Diccionario General Vasco / Orotariko Euskal Hiztegia* (*OEH*), Bilbo, Desclée De Brouwer - Euskaltzaindia - Mensajero, hamasei liburuki.

— 1997, *Apellidos vascos*, Donostia, Txertoa, bosgarren argitaraldia.

Munita, A., 1984, *Libro Becerro del Monasterio de Santa María de la Oliva (Navarra): Colección Documental (1132-1500)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, «Fuentes documentales medievales del País Vasco» 74.

Nieto Ballester, E., 2005, «Sobre el origen latino-románico de riojano-navarro *yasa* y vasco *jasa"*, *FLV,* 100, 661-667.

Palay, S., 1991, *Dictionnaire du Béarnais et du Gascon modernes*, Paris, CNRS éditions, hirugarren argitaraldi osatua.

Salaberri, P., 1994, *Eslaba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez*, Bilbo, Euskaltzaindia, «Onomasticon Vasconiae» 11.

— 1997, «Euskal toponimiaz mintzo (Nafarroakoaz bereziki)», *FLV,* 74, 7-39.

— 1998, «Arabako mugako nafar hizkeren inguruan», in: I. Camino (arg.), *Nafarroako Hizkerak*, 49-87, Bilbo, UEU.

— 2003, *Euskal Deiturategia: Patronimia*, Bilbo, UEU.

— 2009, *Izen ttipiak euskaraz*, Bilbo, Euskaltzaindia, «Onomasticon Vasconiae» 26.

— 2010, «Gallipienzo / Galipentzu», *Euskera,* 55.1, 351-359.
— 2011, «Sobre el sufijo occidental *-ika* y otras cuestiones de toponimia vasca», *FLV* 113, 139-176.
— 2013, «Topónimos alaveses de base antroponímica terminados en *-iz*, *-ez* y *-ona* / *-oa*», *Lapurdum,* 17, 201-220.
— eta Salaberri, I., 2014, «A descriptive analysis of Basque hypocoristics», *FLV,* 117, 187-211.
Zabalo, J., 1972, *El Registro de Comptos de Navarra de 1280*, Iruñea, Nafarroako Foru Aldundia, Institución Príncipe de Viana.

LABURPENA

Murillo el Fruto: xiv. gizaldiko agiria

Lan honetan NAOean berriki agertu den xiv. mendeko koaderno ttipi bateko onomastika datuak aztertzen dira, toponimoak eta antroponimoak. Kaierttoa erdaraz idatzia dago, gaztelaniaz, ukitu berezi zenbaitekin, baina munta handikoa da guretako, euskara Erribera goieneko herrian xiv. mendean bizirik zegoela idarokitzen duelako, bertako hizkera galduaren ezaugarri batzuen berri jakin dezakegulako, eta toponimoak hobeki azaltzeko eta arautzeko bide delako. Grafia batzuek eta leku eta jende izen batzuen gardentasunak koadernottoa idatzi zenean euskara Murillon bizirik zegoela adierazten dute. Artikuluan aipatu izen horiek «testuinguratzen» saiatu gara, hots, lehendik ezagutzen genituen hurbileko beste datuekin lotzen.

Gako hitzak: Hizkuntza muga; toponimoa; antroponimoa; Nafarroako Erribera; euskara.

RESUMEN

Murillo el Fruto: documento del s. xiv

En este trabajo se estudian los datos onomásticos, topónimos y antropónimos, que se recogen en el cuadernillo del s. xiv encontrado hace poco tiempo en el AGN. Está escrito en castellano, pese a tener ciertos rasgos especiales, y es importante para nosotros porque deja entrever que el euskera estaba todavía vivo en la localidad de la Ribera Alta en la fecha en que se redactó. Además, a través de los datos onomásticos que encontramos en el pequeño cuaderno podemos conocer algunas de las características del habla vasca perdida de la localidad, profundizar en la etimología de los diversos «ónimos», y realizar una normativización más adecuada de los mismos. Algunas grafías y la transparencia de los topónimos y antropónimos contenidos en el cuadernillo sugieren claramente que, cuando fue escrito, el euskera estaba todavía vivo en Murillo. Hemos intentado contextualizar los datos onomásticos del documento, relacionándolos con los de localidades próximas que ya conocíamos previamente.

Palabras clave: Frontera lingüística; topónimo; antropónimo; Ribera de Navarra; euskera.

SUMMARY

Murillo el Fruto: a 14th-century document

This paper analyzes onomastic data consisting of toponyms and anthroponyms that were drawn from a booklet recently discovered in the GNA. The document is written in (Castilian) Spanish with a number of particular features, and it is of relevance to us because it suggests that Basque was still in use in the High Riberan locality at the time of writing. The document moreover allows us to identify some of the characteristics of the extinct local variety, in addition to being helpful in explaining the etymology of some toponyms and establishing a more adequate normativization of these.

Some spellings, coupled with the transparency of the place and person names found in the booklet, clearly indicate that Basque was in use in Murillo at the time of writing. We have made an attempt to set the onomastic data found in the document in context, namely by relating them to names from the nearby area that were previously known to us.

Keywords: Language border; toponym; anthroponym; Navarrese Ribera; Basque language.

IDAZLANAK AURKEZTEKO ARAUAK

Idazlan bat *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian argitaratzeko bidaltzeak berekin dakar ondotik zehazten diren baldintzen esangabeko onarpena, egilearen aldetik.

Kanpoko bi ebaluatzaile izengabek ebaluatuko dituzte idazlanak, eta berek onartuko edo baztertuko.

Artikuluak argitaragabeak izan beharko dira eta formatu elektronikoan entregatuko dira, gehienez ere 78.000 karaktereko zabalera dutela, espazioak barne, eta betiere berrogei orrialde gehienez, irudiak barne. Times New Roman letra motan aurkeztuko dira, 12 izarian.

Izenburuak lanaren edukia islatu behar du modu esplizituan eta ez da zortzi hitz baino luzeago izanen; luzeagoa izanez gero hobe azpititulua erabiltzea.

Egilearen titulu akademikoa edo kargua jaso behar da.

Hamar lerroko laburpena sartuko da, hiru hizkuntzatan: euskara, gaztelania eta ingelesa; artikulua horietariko bat ez den hizkuntzan idatzia badago, laburpena hizkuntza horretan ere egon beharko da. Ez du artikuluan agertzen ez den baieztapenik eduki behar, ezta bigarren mailako xehetasunik ere. Orobat, artikuluaren izenburuaren itzulpena ere gehitu beharko da euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, baita gako-hitzak ere, lautik seira bitarte, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez (eta artikuluaren hizkuntzan, hura bertze bat baldin bada).

Material grafikoa (argazkiak, planoak, laukiak, mapak, irudiak etab.) formatu informatikoan entregatu behar da, CDan edo posta elektronikoan, fitxategi erantsi gisa, zuzen erreproduzitzeko behar den kalitatea duela. Dena argi eta garbi identifikaturik egonen da, eta testuan nontsu kokatuko den adierazita. Kontuan hartu behar da irudiak beti zuri-beltzean erreproduzituko direla. Egileak berak egin ez baditu, argazkilaria aipatu beharko da, baita behar den baimena ere, halakorik behar izanez gero.

Bertze hizkuntza batean idatzitako hitzak letra etzanean agertuko dira, baita liburuen izenburuak eta aldizkarien izenak ere; artikuluen izenburuak latindar komatxoen artean idatziko dira. Metahizkuntza moduan erabilitako hitzak ere letra etzanean paratuko dira.

Testuen aipuak, laburrak badira (bortz lerro baino gutxiago), paragrafo beraren izarian paratuko dira, latindar komatxoen artean eta letra biribilean; aipuaren barnean bertze komatxo batzuk agertzen badira, komatxo ingelesak erabiliko dira bigarren aldirako. Luzeak badira, aparteko paragrafo koskatuan jarriko dira, komatxorik gabe eta testu orokorrekoan baino izari txikiagoan (10 puntu). Gangarrak (‘’) erabiliko dira hitz bakanen adiera edo itzulpenetarako.

Letra larriak sobera ez erabiltzea gomendatzen da, eta horiek izen berezi, erakunde edo korporazio eta sigletarako baizik ez erabiltzea, inoiz ez izen arruntetarako: erregea, kondea, aita santua, katedrala, apezpikua etab. Ez dira sekula hitz osoak letra larriz idatziko.

Oharren deiak goi-indizeetan goraturiko zenbakien bidez eta parentesirik gabe adieraziko dira. Numerazioa ondoz ondokoa izan behar da, 1etik hasi eta artikuluaren bukaeraraino.

* * *

Argitaletxeak idazlanak egokitzen ahalko ditu aldizkariek berezko dituzten arau zientifiko eta tipografikoetara, eta egileei eskatzen ahalko die artikuluak berregin edo alda ditzaten erredakzio kontseiluaren jarraibideen arabera.

Egileei lehen inprimaketa-proben sorta bat igorriko zaie, zuzenketa egin dezaten; hura, oroz gain, inprimategiko akatsen zuzenketa izanen da, edo gramatika arloko aldaketak, izan ere egileek bidalitako idazlanak **behin betiko testuak** izan beharko dira.

Argitalpenak ez atzeratzeko, gehienez ere **hamar egunean** zuzendurik itzultzen ez badira, orduan Vianako Printzea Erakundeko Argitalpen Bulegoak zuzenduko ditu, horien gainean inolako erantzukizunik izan gabe.

Artikulua argitaratzen den aldizkariaren ale bat utziko da egile bakoitzaren eskutan, baita haren pdf bat ere.

Idazlanak, egilearen helbidea, posta elektronikoa eta telefonoa adierazirik, honako honetara igorriko dira:

Argitalpen Bulegoa
Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentua
Tutera kalea, 20-4.a
31003 IRUÑA
Tel. 848- 424732
Posta elektronikoa: ipvpubli@navarra.es

Egilea-urtea sistema erabiliko da, testuaren gorputzaren barnean, oin-oharretarako eta bibliografiarako:

> **Erreferentziaren adibidea testuan eta oharrean**: (Martínez Sucunza, 1995: 35). Egilea testuan aipatu bada, parentesi artean adieraziko dira urtea eta orriak.
>
> **Bibliografiaren adibidea**: Martínez Sucunza, J., 1995, *La dinámica de una población rural*, Bilbo, Mensajero.

Lehen eta bigarren mailako iturriak aipatzeko, behin baizik ez da jartzen iturriaren izen osoa (izen laburtua, puntuek berezi gabe), Atalaren izena, kutxa, folioa (f./ff.):

Nafarroako Artxibo Nagusia (AGN), Protokoloak, 3. kutxa, 37r f.

AGN, Protokoloak, 3. kutxa, 37r f.

cfr. erabiliko da, ez *cf.*; *Ibid.*, berriz, aipua datorrenean aitzineko oharrean aipatutako obra beretik, baina orrialde desberdinetik (*Ibid.,* 39 orr.). *Idem,* oraingo aipuak aipatzen dituen obra eta orrialdea aitzineko erreferentziako berak badira.

Infra, supra, et al. beti letra etzanean.

Obren aipamena bibliografian

1. *Liburuak*

Deiturak (maiuskula txikietan, eta lehenbizikoa letra larriz), izenaren iniziala, urtea, izenburua (etzanean), hiria, argitaletxea, bilduma (garrantzitsua bada), argitalpenaren zenbakia, halakorik bada:

> Martínez Sucunza, J., 1995, *La dinámica de una población rural*, Bilbo, Mensajero.

Egilea berez egile ez bada, baizik eta obraren argitaratzaile, zuzendari edo koordinatzaile, izenaren inizialaren ondotik ed., koord. o zuz. laburdura gehituko da parentesi artean:

> Igartua, I. (ed.), 2012, *Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.

Egile baten lanak modu kronologikoan antolatzen dira, zaharrenetik egungoenera, eta urte berean bi baldin badira, izenburuaren arabera antolatzen dira eta datari ordena markatzen duen letra eransten zaio (2000a, 2000b, 2000c,…).

Egile bat baino gehiago bada, puntu eta komaren bidez bereizten dira:

> Rabanal, M. A.; García Martínez, S. M., 2001, *Epigrafía romana de la provincia de León: revisión y actualización*, Leon, Leongo Unibertsitatea.

Hiru egile baino gehiago badira, lehenbizikoa aipatzen da eta *et al.* gehitzen:

> Hualde, J. I. *et al.*, 2003, *A Grammar of Basque*, Berlin, Mouton de Gruyter.

2. *Artikuluak edo liburu zatiak*

Deiturak (maiuskula txikietan, eta lehenbizikoa letra larriz), izenaren iniziala, urtea, kapituluaren izenburua (latindar komatxoen artean), 'in' izena (iniziala) eta deiturak, liburuaren izenburua (etzanean), hiria, argitaletxea, bilduma (garrantzitsua bada), argitalpenaren zenbakia, halakorik bada, orriak:

> Martínez Sucunza, J., 1995, «La dinámica de una población rural: estudio de campo», in P. Bilbao López; J. Martínez Herrera; L. Sarasqueta Martínez (arg.), *Problemas de sociología actual*, Bilbo, Mensajero, 135-149 orr.

3. *Aldizkarietako artikuluak*

Deiturak (maiuskula txikietan, eta lehenbizikoa letra larriz), izenaren iniziala, urtea, artikuluaren izenburua (latindar komatxoen artean), aldizkariaren izena (etzanean), zenbakia, orriak:

> Martínez Sucunza, J., 1995, «La dinámica de una población rural: estudio de campo», *Príncipe de Viana*, 23, 135-149 orr.

Aldizkariaren zenbakiak liburuki bat baino gehiago baldin badu, hura zenbaki arabiarretan eta parentesi artean adieraziko da, aldizkariarenaren gibelean:

> *ASJU*, 23 (1).

Egilerik gabeko obrak aurrekoak bezala aipatzen dira, baina zuzenean izenburutik hasita. Argitalpena erakunde batetik heldu bada, hura egile gisa ager daiteke.

NORMAS PARA LA PRESENTACIÓN DE ORIGINALES

El envío de un original para su publicación en *Fontes Linguae Vasconum* implica la aceptación tácita por parte del autor de las condiciones que se indican a continuación.

Los originales serán evaluados, para aceptarlos o rechazarlos, por dos evaluadores externos anónimos.

Los artículos deberán ser inéditos y se entregarán en formato electrónico, con una extensión máxima de 78.000 caracteres incluyendo espacios y, en todo caso, no más de cuarenta páginas incluyendo imágenes. Se presentarán en Times New Roman de cuerpo 12.

El título debe responder de manera explícita al contenido del trabajo y no debe sobrepasar las ocho palabras; de ser más largo es preferible utilizar un subtítulo.

Debe hacerse constar el título académico o cargo actual del autor.

Se incluirá un resumen de unas diez líneas en tres lenguas: euskera, castellano e inglés; si el artículo está escrito en una lengua que no sea alguna de estas tres, el resumen deberá también entregarse en dicha lengua. No debe contener afirmaciones que no figuren en el artículo ni detalles de interés secundario. Debe adjuntarse también traducción del título del artículo en euskera, castellano e inglés, así como de cuatro a seis palabras clave en euskera, castellano e inglés (y lengua en la que esté escrito el artículo, de ser diferente).

El material gráfico (fotografías, planos, cuadros, mapas, ilustraciones, etc.) deberá entregarse en formato informático en cd o en correo electrónico como archivo adjunto, con la calidad necesaria para su correcta reproducción. Todo irá claramente identificado y con indicación del lugar aproximado de colocación en el texto. Las imágenes se reproducirán siempre en blanco y negro. Si no han sido realizadas por el autor, se mencionará al fotógrafo y, en su caso, la procedente autorización.

Las palabras sueltas escritas en otra lengua aparecerán en cursiva, así como los títulos de libros y los nombres de revistas; los títulos de los artículos se escribirán entre comillas españolas. También irán en cursiva los términos utilizados metalingüísticamente.

Las citas de textos, si son breves (menos de cinco líneas), irán en el cuerpo del mismo párrafo, entre comillas españolas y en redonda; si aparecen otras comillas dentro de la cita se utilizarán las inglesas en segundo lugar. Si son largas, se pondrán en párrafo aparte, sangrado, sin comillas y en cuerpo menor que el del texto general (10 puntos). Se utilizarán los ápices (‘’) para acepciones o traducciones de términos aislados.

Se recomienda no abusar de las mayúsculas, y utilizarlas solamente para nombres propios, instituciones o corporaciones y siglas, nunca para nombres comunes como rey, conde, papa, catedral, obispo, etc. En ningún caso deben escribirse palabras completas en mayúscula.

Las llamadas de las notas se indicarán con números volados en superíndice y sin paréntesis. La numeración debe ser consecutiva desde el 1 hasta el final del artículo.

* * *

La editorial podrá adaptar los originales a las normas científicas y tipográficas propias de las revistas, y podrá pedir a los autores que rehagan los artículos o los modifiquen según las instrucciones del consejo de redacción.

Se enviará a los autores un juego de las primeras pruebas de imprenta para su corrección, que será, fundamentalmente, corrección de erratas de imprenta o cambios de tipo gramatical, ya que los originales enviados por los autores deben ser **textos definitivos**.

Para evitar retrasos en las publicaciones, si en un máximo de **diez días** no se devuelven corregidas, las pruebas serán corregidas en el Negociado de Publicaciones de la Institución Príncipe de Viana, declinando toda responsabilidad.

Se entregará a cada autor un ejemplar de la revista en la que se publica el artículo y un pdf del mismo.

Los originales, con indicación de la dirección postal, correo electrónico y teléfono del autor, se enviarán a:

Negociado de Publicaciones
Departamento de Cultura, Turismo y Relaciones Institucionales
C/ Tudela, 20 4.º
31003 PAMPLONA
Tel. 848 424 732
Correo electrónico: ipvpubli@navarra.es

Se usará el sistema autor-año dentro del cuerpo del texto, para las notas a pie de página y en la bibliografía:

> **Ej. de referencia en texto y nota**: (Martínez Sucunza, 1995: 35). Si el autor ha sido citado en el texto, se indica entre paréntesis año y páginas.
>
> **Ej. de bibliografía**: Martínez Sucunza, J., 1995, *La dinámica de una población rural*, Bilbao, Mensajero.

Para citar fuentes primarias y secundarias solo se pone el nombre completo de la fuente la primera vez (nombre abreviado, no se separa por puntos), Nombre de la sección, caja, folio (f./ff.):

Archivo General de Navarra (AGN), Protocolos, caja 3, f. 37r.

AGN, Protocolos, caja 3, f. 37r.

Se usará *cfr*., no *cf*.; *Ibid*. cuando la cita proviene de la misma obra referenciada en la cita anterior pero de página diferente (*Ibid*., p. 39). *Ibidem* cuando la cita actual alude a la misma obra y página que la referencia anterior. *Idem* cuando el autor sea el mismo que en la cita anterior.

Infra, *supra*, *et al*. siempre en cursiva.

Cita de obras en la bibliografía

1. *Libros*

Apellidos (en versalita con mayúscula inicial), inicial del nombre, año, título (en cursiva), ciudad, editorial, colección (si es importante), número de la edición si lo hay:

> Martínez Sucunza, J., 1995, *La dinámica de una población rural*, Bilbao, Mensajero.

Si el autor no es propiamente tal sino editor, director o coordinador de la obra, se añade después de la inicial del nombre la abreviatura ed., coord. o dir. entre paréntesis:

> Igartua, I. (ed.), 2012, *Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar*, Vitoria-Gasteiz, Gobierno Vasco.

Las obras de un autor se ordenan cronológicamente de más antiguo a más moderno, y si hay dos del mismo año, se ordenan por el título y se añade a la fecha una letra que marque el orden (2000a, 2000b, 2000c…).

Cuando hay más de un autor, se separan por punto y coma:

> Rabanal, M. A.; García Martínez, S. M., 2001, *Epigrafía romana de la provincia de León: revisión y actualización*, León, Universidad de León.

Si hay más de tres autores, se cita por el primero y se añade *et al*.:

> Hualde, J. I. *et al*., 2003, *A Grammar of Basque*, Berlin, Mouton de Gruyter.

2. *Artículos o partes de libro*

Apellidos (en versalita con mayúscula inicial), inicial del nombre, año, título del capítulo (entre comillas españolas), 'en' nombre (inicial) y apellidos, título del libro (en cursiva), ciudad, editorial, colección (si es importante), número de la edición si lo hay, páginas:

> Martínez Sucunza, J., 1995, «La dinámica de una población rural: estudio de campo», en P. Bilbao López; J. Martínez Herrera; L. Sarasqueta Martínez (eds.), *Problemas de sociología actual*, Bilbao, Mensajero, pp. 135-149.

3. *Artículo de revista*

Apellidos (en versalita con mayúscula inicial), inicial del nombre, año, título del artículo (entre comillas españolas), nombre de la revista (en cursiva), número, páginas:

> Martínez Sucunza, J., 1995, «La dinámica de una población rural: estudio de campo», *Príncipe de Viana*, 23, pp. 135-149.

Si el número de la revista contiene más de un volumen, este se señalará en números arábigos y entre paréntesis detrás del de la revista:

> *ASJU*, 23 (1).

Las obras sin autor se citan igual que las anteriores pero empezando directamente por el título. Si la publicación proviene de una institución, esta puede aparecer como autora.